

Juan Inazio Iztueta

**GIPUZKOAKO DANTZA
GOGOANGARRIEN
KONDAIRA
EDO HISTORIA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Josu Landa Ijurko.
Iturria: *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*, Juan Inazio Iztueta (Mari Jose Ezeizabarrenaren edizioa). Euskal Editoreen Elkartea, 1990

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=358>

GIPUZKOAKO DANTZA GOGOANGARRIEN KONDAIRA EDO HISTORIA

BEREN SOÑU ZAR,
ETA ITZ NEURTU EDO BERSOAKIN

BAITA BERAK ONGI DANTZATZEKO
IRAKASTE EDO INSTRUKZIOAK ERE

Obra balio aundikoa eta txit premiazkoa,
Gipuzkoatarren jostaldia gaitzik gabekoakin,
lendabiziko etorki Españar argi eta zar aien
oitura maitagarrien gordakaiatzeko

BERAREN EGILLEA
D. JUAN IGNACIO DE IZTUETA,
Gipuzkoako erri leial Zaldibian jaioa.

BEAR DAN ESKUBIDEAREKIN.
DONOSTIAN,
Inazio Ramon Barojaren moldiztegian
1824 garren urtean egiña.

APROBACIÓN DE D. SANTIAGO DE UNCETA

He visto con mucha satisfaccion el cuaderno manuscrito de D. Juan Ignacio de Iztueta vecino de la ciudad de S. Sebastian, que V.S. se ha servido remitirme, para que lo examine y ponga la censura que me parezca.

Comprende el cuaderno las antiguas usanzas de bailes, sones, juegos y otras diversiones originales de V.S.: esplica su autor el modo y órden, con que se egecutaban los bailes de plaza en los dias festivos especialmente en las funciones de Santos tutelares de pueblos, los sones antiguos, en los que se bailaba, la correspondencia de pueblos vecinos en sus respectivas funciones; da reglas para bailar bien los sones antiguos; escribe los versos de cada uno de ellos; finalmente enumera y describe los juegos a que solían dedicarse los hijos de V.S., y lo hace todo con tanta naturalidad, pureza de idioma, y celo, que no sé cuál deba admirarse mas en este apreciable Guipuzcoano, si su talento y habilidad en conservar tan

exacta idea de aquellas usanzas dignas de mejor memoria y en describirlas, ó su amor al país.

Prueba hasta la evidencia que del abandono de aquellos apreciables usos ha resultado en mucha parte el que se hubiesen deteriorado nuestras costumbres públicas.

Y á la verdad ¿Qué diferencia de aquellas reuniones públicas y bailes de dias festivos, en los que reinaban á la par de la habilidad el decoro, y compostura de los que bailaban, y el respeto y admiración en los espectadores, á las indecencias desórden y mala libertad que hoy se vé en nuestras plazas? Es bien cierto, que en aquellos dichosos tiempos ninguno, por osado que fuese, se hubiera atrevido á turbar el órden de la funcion, ni aun con un gesto ménos regular, y ménos hubiera intentado mezclarse en el baile ningun tachado de mala conducta.

Entónces era como de esencia en los jóvenes guipuzcoanos saber el son, baile y letra de canciones antiguas tan hermosas y alegóricas, y los ancianos tenían singular cuidado y complacencia en enseñarles. No se veían entónces en los jugadores las infames felonías, que son tan comunes.

D. Juan Ignacio de Iztueta, autor del cuaderno, deseoso que se restablezca esta parte de educación al modo antiguo, quiere dar al público su obra, y para convencer de la conveniencia de ella (cuando no necesidad) presenta el cuadro de nuestras plazas y bailes en el dia.

Dice (y es arta verdad por desgracia) que hoy los tamborileros ignoran los mejores sones antiguos, y los pocos que conserban precisos para el baile, no los tocan bien; y que los que salen á bailar, en vez de llenar este objeto, se ocupan en gestos, dar porrazos y otras indecencias sin que haya quien les contenga en tanto desórden.

No así en otros tiempos (y no tan remotos que no existen quienes lo hayan visto). Honrados echejaunes y vecinos distinguidos de los pueblos eran los primeros que se presentaban en la plaza, y por este solo hecho, puede el buen observador juzgar del parangon que el buen Guipuzcoano Iztueta hace en su obra de aquellas usanzas con las del dia, y convencerse, de que el haber abandonado las personas ancianas y de forma la concurrencia á la plaza ha producido gran daño en las costumbres públicas: el remedio es muy sencillo.

Si los echejaunes y personas formales de los pueblos, despreciando satiras y habladurías de mentecatos, asisten los dias de fiesta á la plaza, se restablecerá sin duda alguna el órden en ellas, ó cuando ménos no habrá tanto desórden.

Se dirá, tal vez por pretesto, que se ignoran ya aquellos usos y canciones antiguas, pero á mas de que Iztueta los pone, y esplica perfectamente en su cuaderno, y que con solo obligar á los tamborileros á que los estudien, y toquen todos los dias que salen á la plaza, los aprenderán inmediatamente todos, la sola presencia de las personas acreedoras á respeto restituirá el decoro, que es el bien mayor que se propone el autor.

Considero pues que será muy conveniente el que se imprima y publique el mencionado cuaderno como tambien el que su autor añada en él la música á lo ménos de las principales canciones, y que mas se estilaban bailar. Y sería muy interesante, que hubiese un egemplar, cuando no mas en cada pueblo, custodiado en su archivo para memoria de los usos antiguos de V.S, y en obsequio de su autor D. Juan Ignacio de Iztueta, digno del mas alto aprecio de V.S.

Es cuanto creo debo decir en desempeño del encargo que V.S. se ha servido conferirme. Dios guarde á V.S. muchos años.

Vergara 25 de Marzo de 1824.= Santiago de Unceta

APROBACION DE D. JOSÉ RAMON DE ELORZA

Por órden del Señor D. Martin Xavier de Muzquiz, Oidor Decano del Consejo de Navarras y Corregidor de esta M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa, he visto y reconocido el manuscrito bascongado, compuesto por D. Juan Ignacio de Iztueta, intitulado: HISTORIA DE LOS ANTIGUOS BAILES GUIPUZCOANOS, y reglas instructivas para ejecutarlos bien, y cantarlos en verso. Y en descargo de la comision digo:

Que hace muchos años conozco al autor de dicho manuscrito, y aun no pocas veces he presenciado en su nativo lugar de Zaldivia diversidad de danzas y bailes, en particular de solos hombres adiestrados y capitaneados por él; y si bien desde entónces formé la idéa del singular talento y habilidad que le acom-

pañaban para dirigir, y egecutarlos con admirable destreza y perfeccion á satisfaccion del público, á la vista de la obra confieso, que su autor no solo es superior al gran concepto que formaba de él, sino que se escede a sí mismo por las singulares noticias que nos dá de treinta y seis bailes diferentes, originales de este Ilustre Solar Guipuzcoano, explicándolos desde su origen con sus alusiones y alegorías, y la mas exacta y detallada descripcion de ceremonias y rigurosa etiqueta, que se guardaba en cada uno de ellos con las reglas correspondientes para su egecucion; trabajo ímprobo, que parece estaba solamente reservado al celo de este apreciable Guipuzcoano, y al tenaz estudio de antiguas tradiciones bascongadas. A estas previas disposiciones del autor corresponde la obra verdaderamente original en su línea, y que si no me atrevo á llamarle necesaria, á lo menos la considero por útil á la conveniencia pública, y propia y acomodada al genio y carácter Guipuzcoano, y supuesta la absoluta é indispensable necesidad que tiene el público de divertirse, segun el sentir del sábio Jovellanos, el restablecimiento de los bailes y danzas antiguas segun el plan de D. Ignacio de Iztueta interesaría mucho, é influiría aun en las mismas costum-

bres públicas, que es el primer punto de vista y de mas particular recomendacion que me presenta la obra.

En efecto, si tanto se declama en el dia por los Oradores sagrados contra las danzas y bailes, y con justa razon, lo es por el desenfrenó que reina en ellos, libertades que se tomanl0, é indecencias que con el mayor descaro se cometen. En verdad que, si no hubieran degenerado de aquella sencillez, honestidad, gravedad y respeto con que los pinta y describe el escritor Guipuzcoano, nada hubiera habido que hablar contra ellos. Pero por desgracia una diversion inocente, que es la efusion de una alma verdaderamente alegre, una diversion que aun se halla consignada en los mismos libros de la Santa Escritura, y que entre los nobles Guipuzcoanos se ha contado por una de las partes de la educaci3n de la juventud, ha llegado á ser el escollo fatal de la inocencia, la red varredera, que envuelve y enreda á la incauta juventud; el foco principal de amistades peligrosas, y de consiguiente el fecundo origen de corrupcion de costumbres. ¡Lamentable fatalidad! ¿Qué remedio pues para tan grave mal? ¿Desterrar enteramente tamboril y bailes en las plazas? Traería sus inconvenientes,

y puede que acaso el remedio fuese peor, que la enfermedad. ¿Dejarlos correr en el escandaloso pie en que se hallan? Ni lo permite la decencia y mucho ménos la moral cristiana. ¿Pues qué remedio? Vuelvo á repetir, en el plan propuesto por Iztueta se halla si no un remedio radical de estos escándalos, á lo ménos mucha parte de ellos.

Restablézcanse en efecto los treinta y seis bailes, de que hace mencion en su obra al antiguo respetable estado: no se dé plaza de tamborilero á ninguno, que no sepa tocarlos en sus antiguos sonetos y compases; oblígueseles á que por ningun pretesto se niegue á tocarlos á cualquiera artesano, labrador, ó aficionado, que en pública plaza se lo pida para lucir ó divertir á los espectadores, y está remediado mucha parte del mal. Entrará desde luego una noble emulacion entre la juventud Guipuzcoana, y á la vuelta de pocos años, se generalizarán en el suelo Guipuzcoano los bailes y danzas antiguas, demas juegos y diversiones de que hace mencion la obra, y con ellas, la honestidad y el decoro, respecto y magestad que tanto los distingue de los del dia.

Y en verdad, ¡Qué contraste tan horroroso entre unos y otros! ¡Qué diferencia tan enorme! Echese

una rápida vista á los bailes y danzas de la célebre antigüedad Guipuzcoana; pero ¿á qué recurrir á tan remotos tiempos? Fijese la atención en aquellos pueblos, que á pesar de la corrupción general de costumbres y el aire de que sopla por todas partes, mantienen aun los bailes en estilo y usanzas antiguas; se verá demostrada esta verdad. ¿Quién en aquellos felices tiempos, siglos verdaderamente de oro, se hubiera hallado tan insolente, que se arrostrase á esas cínicas y lúbricas gestiones, meneos y ademanes y otros refinamientos de lascivia, que tanto se han generalizado aun en públicos bailes de las plazas? ¿Quién tan osado, que bailase sin pañuelo, ó quisiese sugetarse á otras medidas de precaución, que acompañaban á aquellas respetables danzas, juegos y diversiones, como dique y barrera á la licenciosa juventud, sin que bien pronto pagase su temeridad? Así es que á aquellos bailes, donde á la par de la habilidad y destreza reinaba el decoro y la honestidad, nadie se desdeñaba presenciar. El celoso pastor de almas, el Eclesiástico ajustado, el venerable anciano, la respetable y honesta matrona, honraban con su presencia tan respetables concursos, juegos y diversiones, cuando en el día no pueden mirarse sin

escándalo del pudor. En aquellas respetables danzas no hallaba la vista de los espectadores donde cebarse ni fijar su atención, sino en las lucidas cabriolas, arreglados compases, veloces carreras y demás mudanzas y habilidades que por menor contiene la obra de D. Juan Ignacio de Iztueta.

Añádese á lo dicho, que en los treinta y seis bailes originales de este pais Guipuzcoano de que hace mencion la citada obra, hay varios de solos los hombres, capaces de lucir y divertir al público tanto ó mas, que en los que concurren ambos sexos, y en esto solo está visto lo que interesa y gana la pública moral y costumbres; pues si en los unos, por mucha precaucion que se tome, por indiferente y aun buena intencion que se lleve á los bailes, por santos y buenos que sean siempre, hay su peligro entre los bailarines de diverso sexo, segun el célebre adagio *entre Santa y Santo pared de cal y canto*, no le hay ninguno entre los que se bailan entre solos los hombres, ó es remotísimo.

El segundo punto de vista, bajo el cual presenta la obra de Iztueta los bailes y danzas, juegos, y diversiones antiguas del Solar distinguido de Guipuzcoa, y forma otra parte de su mérito, son las graciosas y

memorables alegorías, gloriosas memorias, y recuerdos en especial del valor é intrepidez, triunfos y victorias que reportaron nuestros visabuelos, los célebres Cántabros contra un enemigo. En efecto, fígrese la atención en la Ezpata danza y Pordoy danza, de los cuales el primero de inmemorial tiempo, y el segundo desde el año 1321, se han mantenido y conservado con la mas escrupulosa observancia hasta estos nuestros tiempos, en que un aire de novedad, despreciadora de toda respetable antigüedad y cuanto dice relacion con ella, los ha desterrado casi enteramente de nuestras plazas. Por mas que se pierda en la distancia y oscuridad de los tiempos el origen de estas danzas y juegos marciales, es preciso confesar, que son alusivas á hazañas militares de nuestros antepasados, ó sino que se inventaron para inspirar, mantener y perpetuar en la juventud Guipuzcoana aquel espíritu y aire marcial que tanto distinguió á ellos; y señaladamente, del Pordoy danza nadie ignora ser una gloriosa memoria de la derrota completa de los Navarros en la batalla de Beotibar en 19 de Setiembre de 1321, ganada por Gil Lopez de Oñez, gefe de los Guipuzcoanos.

No es muy difícil atinar con la verdadera causa de la decadencia y aun desprecio de estas nobles, sencillas, ingeniosas, gloriosas y marciales diversiones, observando la época de la corrupción de las costumbres, del quijotismo y orgullo, la afeminación y el egoísmo en nuestro Novilísimo Suelo; de medio siglo á esta parte ha dado una vuelta redonda el carácter Guipuzcoano, y desde este mismo tiempo han ido caminando á pasos agigantados á su decadencia y olvido, nuestras antiguas danzas y diversiones, dignas de mejor memoria. Parece que estoy viendo á las frías cenizas de aquellos héroes Guipuzcoanos, cuyas portentosas hazañas recuerdan ó que fueron los inventores ingeniosos de tan alegres y alegóricos juegos, indignarse contra la apatía, indiferencia y olvido de su ingrata posteridad. Mas sensible que el de estos el noble corazón del apreciable Guipuzcoano D. Juan Ignacio de Iztueta emprendió una obra superior á sus obligaciones, y á fuerza de estudio y trabajo lo presenta al público para en prueba de lo mucho que interesan aun el honor y las glorias de nuestra Madre la Provincia, y la grata memoria de sus dignos hijos en el restablecimiento de dichos bailes y diversiones, según el plan de su obra, al estado antiguo.

Por todas estas consideraciones pienso ser conveniente la impresion de dicho manuscrito, y que se le dé la publicidad necesaria para que todo Guipuzcoano se instruya en los loables obgetos á que se dirige dicha obra. Solo hallo un reparo, que no me parece pertenece al fin principal de ella, sino á lo mas, á su perfeccion accidental. Hablo de varios versos, que cantados en una taberna ó en medio de un grupo de gentes que generalmente concurren á oirlos sería poco el escándalo que podían causar, pero estampados en un libro dado á la prensa, repasados y estudiados por la incauta juventud, y cantados con frecuencia entre jóvenes sencillas, acarrearían mucho daño por los equívocos sentidos de muchos de dichos versos, que á la simple lectura ofenden el pudor y la honestidad. Así sobre ellos soy de sentir, que si el autor los considera por parte esencial al fin y obgeto principal de la obra, sustituya otros indiferentes que no sean de materias de amor, y cuando no, los borre de la obra todos los que van anotados con una manecilla al márgen de cada uno de ellos. Este es mi sentir porque en lo demas no encuentro cosa que se oponga á nuestra Santa Fe y Religion, ni á las buenas costumbres.

LICENCIA

En la villa de Azcoitia á veinte y tres de Setiembre de mil ochocientos veinte y cuatro: el Sr. D. Martin Javier de Muzquiz, Ministro Decano del Real y Supremo Consejo de Navarra y Corregidor de esta M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa, habiendo visto las censuras dadas por D. Santiago de Unceta y D. José Ramón Elorza á la obra manuscrita por D. Juan Ignacio de Iztueta, intitulada *Historia de los antiguos bairles Guipuzcoanos, y reglas instructivas para egecutarlos bien*, por fe de mí, el infraescrito Escribano, dijo: *se concede licencia y facultad que se solicitan para la impresion de dicha obra, con la circunstancia de que de ella se han de suprimir los versos marcados en la censura del referido Elorza, y con la de que así dichas censuras como esta licencia havan de insertarse por frente de la misma, y que un egemplar impreso se haya de remitir á S.S, para la debida custodia.* Pues por este su auto como Juez de imprentas

de esta Provincia, así lo acordó y firmó S.S. de que yo
el escribano doy fe.

Martin Javier de Muzquiz
Ante mí, Joaquín Ramón de Soraiz

ESKAINZA

Donostiako uri txit leñargiti eta guztiz leial maite maitagarriari

Ama oneskia, mundu osoa arkitzen da ongi eza-guturik, zein irazekia ta sutua dan, zuk, zeure zorio-neko etorkiarekin, jaioterriko biztanle doatsuetara dezun amodiozko naitasun bero, bizi, gartsua. Igaro diraden denbora guzietan, beti eman izan dezu aditzera, biotzetik txit anitz maite dituzuna zure ume gogaberatiak. Nolako ongille aundia izandu zeraden jakiteko, ez degu zer ibilli kondaira edo historia zar ta berrien irabiotutzen, zerren geren begiaz argiro ikusten ditugun, zuk ordu guziaz egiten dizkigutzun ontarte geiegikoak. Zer eratan zaudela ordea? Ha zein sinisgaitza dan au begira arkitzen ez geradenentzat! Bañan egiazko ziertoro, zure sari aundiak gozatzan gaudenentzat.

Egiten dizkigutzu, bai gure ama kupidakorra, esan al guzien gañeko ontarte onesbedagarri oek guztiak, noiz eta gelditu zeraden erarik beartuenean, eta doakabezkoenean.

Badakigu, eta ondo segurki ala ere, zeundela zu, gure ama maitagarria, 1813garren urtean aboztuko illaren 31garren egunean, ezeren ere beartasunik gabe gauza guziaz txit ongi ornitua, eta atsegingarriko pozkida ugariz beterik, ikusten zinituelako egun berean zetozela balleratuak edo aliaduak zu lokabetzera, bost urte artan txit arras mendestua zeunduzkan etsai iguñduaren atzapar garratzetatik.

Zorionekoa zuretzat izan uste zenduen, egun kaltarkitsu, gogoangarri artan, egin zenien balleratuai, atsegin aundiarekin, ongi-etorri pozkidatsu maitatia; baña gizonen antzean zetozen leoi suminti odolgirodiak egin zizkitzuten, egun berean eta ondorengoe-tan, oraiñdaño mundura agertu diraden gizonik biurrienak asmatu ez dituzten gaiztakeria mota guzi guziak.

Arpillatu edo sakeatu zizuten billatu al guzia; Irauririk edo ultrajaturik, bortxatu zizkitzuten zure alaba maite oniritziak, begiratu gabetanik aurtxo gaitzik gabekoai, eta zar beakurtsu edo errespetableai; ill zizkitzuten errurik gabeko seme prestu eta alaba modu ez-tiaundiko anitz; eta azkenik, erre zizuten mundutar guzien artean aiñ sonatua izandu dan Uri eder bitore maitagarria. Ha ura izugarrizko odolgiro-

dia! Negargarrizko azken ondo kaltarkitsu, minkaitz onetan gelditu ziñaden, gure ama maite urrikarria, noiz eta, egon uste zenduen egunik zorioneko, eta pozkarrienetan. Nor da bada gai, bear bezala azalduzko zuk egun garratz aietan igaro zenituen doakabezko belzuria, eta atsekabe samiñak? Oroitzeaz beste gabe geldi liteke ill otza.

Zori gaiztoko doakea kaltarkitsu oen guzien artean zuretzat mingarriena izandu zan, erio odolgi-doriaren atzapar garratzetatik bizia ozta ozta gorde zuten zure ume maite gaiztratatuak, ikusten zinituelako zebiltzala erririk erri, bazterrik bazter, zokorik zoko, bizitoki jakiñik gabe, zer janik etzutela, izan al zitekean egoitzarik negargarrienean. Bañan zuk, sendagailla aundiko ama txit biotz biguña, artu zeñituen bertatik, bide zuzen seguru egokiak, zure ume maite, urrikarri, sakabanatuak biribillatzeko, lenago txit sarritan eta guztiz maitaro gozatu izan zenituen beso zabalán tartera.

Naitasun bero, sutu, irazekiarekin deitu zenituen bada, zetoze la lenbaitlen beren ama kupidakorraren kolko guri, mardul, gozatsura, uste seguru, irmo, oso-arekin ezik, egingo zenituela alegin guzi guziak, bio-

tzaren erdi erdiko mamitik txit asko maite zinituen zure seme eta alaben onerako.

Zure ots maitati doatsua enzun bezain laister, bilzarkidatu ziraden ume obeditu barreiatuak, bata bestearen leian, beren Uri gozo, errerik, txit arras lurrera erorita arkitzen zan negarrira, lenagoko antz asko etzutela.

Egun gutxiz aurretik ondasun aundiak eta anitz berentzat ezagutzen zituzten asko, etorri ziraden, iñoren soñekoakin estalirik, zer janik etzutela. Erdiak edo geiago, uste etzuten Balleratu odolgirodiak egingdako zauri galantakin; beste anitz, Leoi amorratu biurri oen bidegabekeria itxusiakin ezurretaraño sartu zitzairen ikara, belzuria, eta atsekabe minkaitzetatik sortutako gaitz eriotso, portitzakin. Itz batean, guziak naigabez ezereztaturik, esan al guzien gañeko bear-tasunean.

Ikusi zenituen bezain laister zure begi alai kupidakorren aurrean, ume gozatsu, gaiztratatu, urrikarriak, bertatik eskañi ziñaden zu ama biotz biguña, igaro zituzten kalte izugarri, atsekabe minkaitz, eta belzuria portitz guziaz aztutzeko, egingo zeniola berriro eta laister, Uri erre, lurrera eroritakoa, lenago iñoiz ere izandu dan baño ederragoa, txukunagoa, eta

galantagoa. Baita egin ere denbora labur baten epean, mundua mundu dan arte gogoangarri izango diraden Etxe apaindu, egoki, bitore anitz.

Guziaz ere, izugarritzko doakea aiñ kaltarkitsutik, ondoreatu zitzaien errurik gabeko zure ume maitatiai, izurrite likits, portitz, gaizto bat, zeñarekin illzen ziraden egun guzietan, gutxienaz emezortzi edo ogei. Baña zu, ama zentzu aundiko zintzoa, laister oarketu ziñaden, nola eta zergatik sartu zitzaien gaitz zikin eriotso ura; baita ere, nondik eta zer gisatan, bera sekula betiko aienaturik, iritxiko zenduen zure ume eri urrikarren osasuna.

Beragatik artu zenituen, sendagin edo Mediku jakintsunak bezala, bide zuzen, seguru, egokiak, osakai edo erremediorik beardanezkoenak billatzeko; baita laister asmatu ere, denbora anitz galdu gabetanik, mundura agertu dan sendagiñik jakintsuenari, obeagorik eta eragilleagorik gogoratu ezin zekiokan bezelakoa.

Izu-ikara gogor, portitz, beldur eriotso, belzuria garratz, eta atsekabe samiñetatik sortutako izurri likits pozoitua aienatzeko, zer osakai edo erremedio izan al diteke beardanezkoena eta eragilleena? Ez

besterik, ez bada, soñua, jostallua, zegarrera, pozkida eta atsegingarrizko naikida ornitua.

Gaiñ gañeko osakai eragille au bera izandu zan bada, gure ama zentzu aundikoa, zuk zeure ume maite gaiztratatu en osasunerako egin zenduena.

Erretako Uri negargarria ondakiñez guzia beterik arkitzen zala, eta beste alde, zu ama urrikarria, txit bearturik ainbeste eginkizun gogor, aundi, anitzen azpian, etziñaden zabartu, ez eta beldurturik atzeratu ere, Euskaldunen pozkarri, era guzietan beti izan ta izango diraden danbolin -erriaren bere berekiak ipiñirik- oen soñu gogoangarrietan, zure asaba maitagarrien oitura oneskietako danza eder, oniritzi, pozkidatsuak, egitea: irteten ziradelarik plaza agirikora, zure seme prestu eta alaba maitati, zar ta gazte goien goienengoak; ez beren biotz biguñetan atsekabe gutxi zutelako egun banaka batzuez aurretik izandu zituzten kalte izugarriaz, bañan bai, ala uste etzuten Balleratu biurri, gaiztoak egindako bidegabekeriakin ezurretaraño ikara sarturik, gorputzeko korde guziak belzuria ta atsekabe minkaitzez beterik, illzeko perillurkoan arkitzen ziraden anaia maitagarrien osasuna billatu nai zutelako.

Eta ala, ezin obeagorik asmatu zitekean osakai eragille onekin iritsi zenduen, bestela laister ill bear zuten zure ume maite, eri, urrikarri, anitzen bizia eta osasun ona.

Era berean Gipuzkoa guziari egin diozu, bidez, atsegingarrizko ontarte txit onesbedagarri bat, birjaiotu dituzulako, baserrietako zoko illunetara igesi joanik, azkenengo asnasetan arkitzen ziraden zure sorterriko dantza oniritzi pozkarriak, eta anziña anziñako soñu gogoangarri gozoak.

Amodiozko naitasun irazekiarekin deiturik, atera dituzu zulo illunetatik plaza agirikora, lenagoko beren jantzi eder, galant, aberatsakin txukinkiro apaindurik, zure asaba maitagarriak erabilli oi zituzten gisa berberean.

Gure Ezpata dantza ondrosoa, Brokel dantza onesbedatua, Jorrai dantza miraritsua, Gizon dantza oniritzia, Billanziko pozkarria eta soñu zar atsegingarriak, ipiñi dituzu goaikiro dantzatzen, zure plaza berri, eder, bitorean; baita ongitxo eta beren naierara egurastu ere, aspaldiko partez.

Gipuzkoako erri leñargiti guziak, beakurtu edo errespetatu izan zaituzte beti, zu ama Donostia, beren aizparik bikañena eta jakintsuena zaituzten

bezela, baita begirune alaiarekin maitaro begiraturik, gogotan ongi artuta laister ikasi ere, zernai gauza mota, zuk argitaratu izan dituzunak. Gisa berberean, oraiñ ere, erri leial anitz asi dirade zure araua edo ejemplo, guziz onesbedagarriak, irudikatzen.

Asiera pizkor ta indartsu onen bitartez, uste det Euskaldunen anziña anziñako, eta are lendabiziko dantza oniritziak eta soñu gogoangarriak, igoko diradela iñoiz ere egon diraden tokirik gaiñ gañekoenera. Onetarako, zor dizugun bezala, zure ume leial guziok bear degu, naitasun irazekiarekin jarri, irozotzen laguntzera, etorkiz ditugun gure oitura maitagarriak.

Nere atsegiñik aundiena litzake, ama maitea, zuri, zerbait gauza on eta anitz pozkidatzen zaituena, egitea; baña nola ez naizan gai bestetarako, ez bada, zuk ainbeste naitasunekin birjaiotu dituzun zure sorterriko dantza eder eta soñu zar gozoak, lenagoko beren janzi garbiakin txukinkiro apaintzen laguntzeko, emen eskaiñitzen dizkitzut, aspaldian txit izkutan, eta guziz zapuzturik egon diraden ogeita amasei dantza mota, Gipuzkoatarren beren berenkiak, soñu zar gogoangarriakin, bear bezala dantzatzeko irakaste edo instrukzio txiki batzuek; zure ume maiteai, eta bidez, Euskaldun prestuai argitaratzeko -bal-

din atsegin badezu-, bear bezela ikasi ta dantzatuaz, jostaldiatu ditezen berak modu eztiundiarekin, plaza agirikoetan, beren asaba onak irudikatuaz aditzera ematen dutela, Euskaldun garbi garbiak diradena. Alabiz ta ala gerta derilla, gizonen biotzak bere eskuan dauzkan Jaun aundi ark, guziok beregana gaitzan artean.

Agur ama nerea. Zeruari otoiztuaz gelditzen da, eman degizula urte askotako bizia, osasuna eta betiko zoriona, oraindaño bezala aurrera ere gordakaia-tzen dituzula, zure asaba maitagarriak, etsai ozpindu txar askoren esker gaiztoan, irozoturik utzi zizkitzuten oitura eta usuario gogoangarriak, zure serbitzari, eskuetan muñ egiten dizun, eta biotz biotzetik txit asko maite zaituen

Juan Inazio Iztueta

ITZAURREA EDO PROLOGOA

Euskaldunai osasuna, zoriona eta betiko atsegiña

Nere erritar maiteak: badakigu jatorriz geradena Españar uts utsak, anziñakoen eta are lenbizikoen etorkiak eta ondokoak; beragatik nasterik gabeko garbienak, piñenak, leialenak eta leñargi edo nobleenak, erbesteko nagusiren uztarripetan bein ere egon ez geradenak. Ez eta egon nai ere.

Euskaldunen izen ondragarri au mundutar guzien artean beti izan da, eta izango ere da, beakurtua edo errespetatua. Zergatik ordea? Ez bestegatik ez bada, gure oitura oneski, dantza miraritsu, soñu zar gogoangarri, jostaketa pozkarri, eta guzien gañean, gure izkuntza jakintsun, ezti, gozoan, arkitzen diralako argiro, lendabiziko gizon doatsueraz betetakoen izaera gaitzik gabekoa, eta berak guzion zorionerako jarri zituzten lege zuzen, maitagarrien, señale seguruak.

Oraindaño ezagutu diraden izkuntza guzien artean, bakar bakarrik gure euskara zenzu aundiko zinzoak gorde ditu garbiro eta zuzenki bere etxa-

pean, mundutar guzien serbitzatzeko Jainkoak egin zituen gauza mota guzien izenak; ain arreta aundiarekin ezik, non edozeiñek erraz ezagutu ditzakean, zein norenak diraden.

Egia onen argibidea, etsai ozpindu txar askoren esker gaiztoan bada ere, gizon jakinti askok billakineturik arkitzen da argitaratu dituzten obra gogoangarri anitzetan; alako moduan ezik, oraindaño beti ukoan egon diraden euskaldun ezak ere aitortzen digutela, guretzat esan al guzien gañekoa dan pozkida ugari, txit gozo au.

Guzia zor zaie, arako, beren etorki onari, eta jaioterriko oitura maitagarriai amodiozko naitasun irazekia izanik, saill nekosoai gogotik ekin ta, indar aundi-ko etsai askoren krontra guda gogorrak egin ondoan, guziak garaiturik oñ azpiratu dituzten gure anaia leial, biarkilletsu, jakintiai. Onelakoak izan ditugu beste askoren artean, señalatuena: Aita Larramendi beargilletsua, Astarloa jakintia eta Erro zentzu aundi-koa.

Guziz dirade sinisgaitzak gizon gogoangarri oek egin dituzten neke gogor eta alegin portitzak, aitzulotara bazterturik arkitzen dan gure euskara maitagarri gozoa, bere lenagoko jantzi eder, galant, aberatsa-

kin txukinkiro apaindurik, mundu osoari begien aurrean ifini, ta ez ezaguerazo dioten artean zenbaterañokoa dan beraren aunditasuna. Argatik orain arkitzen gerade euskaldun guziok, ezin geiago naikidatu gentzakean atsegingarrizko ondra aundiarekin, aitor-tzen digutelako Hervas Pandurok, Masdeu, Scaligiro eta beste gizon jakinti euskaldun ez diradenak, beren obra gogoangarrietan, Españiara lendabizi etorri ziraden biztanle edo familiak euskaldunak ziradela. Beraz ezin iñork uka dezake, gu aien jatorriak geradena.

Gizonaren naikida eta eresiarik aundienetatik bat da, zorioneko gizon lendabizikoetara bide zuzenetik igotzea, ikusteagatik argiro, irudipen gabetanik, beren izaera garbi, doatsueraz betetakoa. Beragatik ibilli izan dirade munduan ezagutu diran gizonik jakintsuenak, beren buru zenzutsuak puskatzeko zorian, jo ezak andik, eta jo ezak emendik, arkituko ote dutelako bide txior bat bederik, gain artara igotzeko. Baña ez du lakarik atera bestek, ezpada euskaldunak.

Bazekiten Pitagoras sonatuak, Platonek, Plutar-kok eta beren lagun amatu askok, bide doatsueraz betetako au arkitu bear zana lendabiziko izkeran. Baña nola etzuten au ezagutzen, ekiten zitzaiozkan

bein batari, gero besteari, au zatitu, ura zeatu, oni kendu, ari eransi, asmatu al zitzaten arabaketa guziak egiñaz; eta azkenean gelditzen ziraden, ez nondik sartu ziran, ez nola zebiltzan, eta ez nora irten, etzekitela. Baña gure anaia maitagarri lenago izendatu dituran oriek, beren jaiotzako izkunza jakintziak, esku leun, guri, gozoa emanik igo ditu zuzenki, zorioneko denbora lenbiziko aietara, erakusten dielarik, bidez, historiarik zarrenak eta sonatuenak ez dakitzaten gauza aundi asko, txit balioso, goi, me, diradenak.

Ikusirik bada, euskaran eta euskaldunen oitura, eta jostaketa gaitz gabeko pozkarrietan arkitzen diradela txitezko gai ain maitagarriak, zein euskaldun izango da naiko ez dituen berak irozotu ez ezik, txukinkiro apaindurik, edertu, galantu eta egurastu ere? Ez det uste izan litekeala iñor ain esker bagerik. Guziaz ere gertatuko baliz orrako, badakitela dana eta datakean guzia uste duten buru arro, uanditu orietatik nor edo nor, anziñako danza, soñu zar, eta jostaketa gogoangarrien izena entzutean, ozpindu ta muxindurik gaizki esaka darauskiona, ez da zer ajolarik artu batere, gizonik jakintsuenak gure alde ditugunean.

Orain bost urte etorri zitzaidan Uri leial onetako galai gazte aurrenengo bat, Batzarre edo Aiuntamentuaren izenean, egin bear niola atsegin, nekizkien soñu zar gogoangarri guziak Danbollin Latierrori erakustiaz, onek papelean ezarririk, sar zitzaten Uriaren gordeleku zuzen edo artxiboan, sekula guzian irauteko. Era berean esan ziran gizon prestu goienengo Uri-tar batek: txit asko naiko zuela, Gipuzkoatarren danza mota guziak, beren soñu gogoangarriakin, erakustea Urrikiako edo Miserikordiako etxe maitatian arkitzen ziraden mutil gaztetxoai, oek birjaiotu zitzaten, beren ta gure asaba maitagarrien oitura oneskiak.

Egin ditut alai gazte arekin, gizon gogoangarri onen esanak, nere al deran gaiean, eta izandu det atsegiña ekustearekin Donostiako plaza berri, eder, bitorean, egurasten diradela naierara -aspaldiko partez- gure gizon danza oniritzia, Ezpata danza ondrosoa, Brokel dantza miraritsua, Billantziko pozkarria, dama gazteak irudikatu duten etxeandre dantza modu eztiandikoa, eta señu zar gogoangarriak, ikusle guziak pozkidatzen dirala esan al guzien gañeko atsegintasunean.

Izanik, bada, jostaketa pozkarri gaitzik gabeko oek munduaren lenengo adiñetik gure egunetaraño iraun dutenak ain osotoro; Ez da mingarri, eta lotsagarri ere, jabe beren berenkiak ain errazkiro galzera, aztutzera eta izkutatzera utzitzea?

Ez al dute uste zenbait ezjakin txoriburu puztu dollorrek, anziñekoen izena dutelako, iraingarriren batzuek dirala? Ez nere erritar maiteak, ez dirade jostaketa gogoangarri oek gure lotsagarriak, eta are gutxiago kaltarkiak, baizikan maitaro gozaturik, irozotzea ongitxo merezi dutenak.

Beragatik eskañitzen dizkitzutet ogei ta amasei danza mota Gipuzkoatarren beren berenkiak, zein bere soñu eta bersoakin; baita oek ongi dantzatzeko irakaste edo instrukzioak ere, bidez ezaguerazotzen dizuteralarik argiro, zergatik eta nola etorri dan oitura maitagarri oen galera; eta denbora berean eman-go dizutet osakai edo erremedio txit ona, erraza, eta merkea, bear bezala sendaturik, pizkorturik, ederki apaindurik, eta galantagoturik, igotzeko iñoiz ere egon diraden tokirik gain gañekoenera.

Onetarako bereziko det libru txiki au lau zatitan: Lendabizikoan azalduko det eskolatu gabeko danboliñakin, denbora bereko dantzari prestu jakintien iza-

ra; bigarrengean, oraingo otsakindari edo musikoa
aundien soñu berri berritxuetan dabiltzan zilipurdi-
kiak egiten dituzten itzulamilka itxusi nazkagarriak;
irugarrenean ezarriko ditut, ogei eta amasei dantza
mota gerenkiak bear bezala dantzatzeko instrukzio-
ak; eta augarrengean, soñu zar gogoangarriak beren
bersoakin, musikan.

Ez du iñork ere zer uste izan, asi naizala ni langai
onetan, nere burua jakintsun egiten deralako, eta ain
gutxi, gogoangarri izateagatik; baizikan, zorioneko
nere etorkiarekin, jaioterriko oitura oneskiaia amodioz-
ko naitasun bero, bizi, gartsua izanik, ikusten ditura-
lako oek, daudela azkenengo asnasetan, deadarrez,
laguntzaren eske, iñork eskurik eman nai ez diotela.

Badakit nik balio aundiko gai oni ekiteko nere
mingaña baño meagoa, eta luma obekiago zorroztua
bear lirakeana, zergatik naizan artikaste edo estudio-
rik gabeko gizon jakiunde txit gutxikoa, ozta ozta ira-
kurteko dinbat baizik eskolatu gabea, bularrarekin
batean erodiski edo mamatu nuen izkuntza besterik
ez dakidana, eta au ere ez bear bezala, ez bada nere
amari ikasi nion gisa berberean. Beragatik aitortzen
det egiazki, billatuko dizkidatena gizon jakintsunak
utsaldi aundiak, eta oker ezarritako itz asko; guziaz

ere uste det ezagutuko dutela oek, geiago ezin deza-
keana nere gisako gizon gai ez dan batek.

Sinisterazo ere diot nere buruari, izango dala
Gipuzkoatarren bat nere utsaldiak ongi beterik, oke-
rrak zuzendu, ta txukinkiro apainduro dituen bere
jaioterriko jostaldia gogoangarriak. Ala gerta dedilla,
euskaldunen odol garbi indartsuak dirauen arte
guzian.

GIPUZKOAKO DANTZA GOGOANGARRIEN KONDAIRA EDO HISTORIA

**beren soñu zar eta itz neurtu edo bersoakin,
baita berak ongi dantzatzeko irakaste edo ins-
trukzioak ere**

Soñuen gañean itz egin bear deran guzian, deitu-ko ditut bei lenago zituzten izen egoki, txit berenkia-kin, modu onetan:

Minuetari esango diot, Alkate soñua.

Zortziko dos por kuartrokoai, asierako zortzikoak.

Seis por otxokoai, saltokakoak.

Kontrapasari, andreen deieko soñua.

Kontradantza dos por kuartrokoai, bizkai soñuak.

Seis por otxokoai, saltarintxoak.

Soñuen konpasai, puntuak.

Beragatik oi da euskaldunen artean anziñako esaera bat, dantzarietzako guztiz egokia, gisa one-tan:

Dantzan asitzerako atera kontuak

Dakizkien edo ez Soñuen puntuak.

Ez dezu engurrutu bear enzulea, itzkai bati darraiozkan gauzak toki anitzetan billatzen dituzulako, zergatik beingo esanarekin bakarrik ongi aditu oi duen gizon baten ordean, izan oi diraden milla, amar aldiz edo geiagotan esan bear zaiotenak, baldin bear bezala buruan sartuko bazaiote. Beragatik nai izan det bada, zurari illtzea irmo sartu oi dion arotza irudikatu, zeña ari oi dan aspertu gabetanik zanpatzen, kolperik indartsuenak azken alderontz ematen diozkala.

Guziaz ere, zein eta leku askotan arkituko dezun lenago esana berriztaturik, beti ikusiko dezu toki txit egokian eta guziz premiazkoan.

Obra au izkribatzen asi nintzanean, esan izan ziraten euskara maite zuten gizon jakinti askok, bear nuela ezarri izkuntza berean, gaztelaniaren kutsu gabetanik. Baña ikusirik gure izkera gozoaren itz erazko anitz, gaurko egunean ez daudena usuan, oen ondorean ifinten ditut erdararenak. Egia da izango dezuna, irakurteko denboran, arazo piska bat; baña bidez, ikas ditzaketzu azturik arkitzen diraden zure etxapekoak, errazkiro.

Gipuzkoako danbolin eskolatu gabekoen izaera

Munduan ezagutzen diraden soñu mota guzien artean, lenengoa da danboliña, zeñaren txilibitua -are gerozkoa bada ere- usatzen dan Euskalerrian historiari zarrena baño lenagotanik, esaten diguten bezala gizon jakintiak: «*Instrumento propio y peculiar del país que algunos autores creen ser la famosa vascatibia de los antiguos, como si dijéramos la flauta de los bascongados*».

Erriaren oslankai egokia eta berekia, zeña autoreren batzuek sinistatzen duten dala anziña anziñakoen baskatibia sonatua, esango bagendu bezala euskaldunen txilibitua.

Ez da sortu eta asmatuko ere, euskaldunentzako oskalkai edo instrumento pozkarriagorik, nola diraden danboliña eta txilibitua.

Orain dalarik berrogei urte, gutxi gora bera, jarri zuen txilibitua musikan Pepe Anton zanak. Arteraño-koak ez oi zuten eskolatu bearrik beren langinza ongi ikasteko, ez eta beren anaia prestu jostatiai naierara

soñuak jorik, nor bere atsegiñera dantza eragiteko ere.

Danbolin oek izan oi ziraden, arako, errotaetako zaku biltzalle, etxeetako abelzain, basoetako ikazkin, mendietako artzain-mutil, beren eder etsiz, maisurik gabe ikasitako txilibitulari, eta bolingoza edo Dulzaina jotzalle aietakoak.

Mutil gazte pozkarri oek -beren abereak zainduaz, eta langairik premiazkoenak egin ondoan- jostaldi ordeztan, ikasi oi zuten atsegingarritzko oskalkai edo instrumentu oek jotzen, bidez pozkidatzen zituztelarik enzunle guziak, baita ere, azkenik, mendietako aitzakin basoetako erreka zulo guziak ere, eranzuten ziezatelarik oek, beren jatorritzko ots gozatsuakin.

Txilibitulari eta bolingoza jotzalle oetakoak, Gipuzkoako erri guzietan oi ziraden txit ugari. Beraगतिक izan da orube edo suelo maitagarri au, beti, ain jostatia eta pozkarria: ala lan egunetan, mendi, etxeatari, eta basoetan, nola jai guziaz plaza agirikoetan.

Danbolin bat illzean, edo zartasunez soñu jotzeari uztean, beraren ordeerako agertu oi ziraden nonnai, txilibitulari oetakoak txit naroro; eta erriak autatzen zuen ark lendabai egin oi zuena zan, dantzaririk sonatuenagana joatea, Gipuzkoako dantza mota

guzien soñuak, eta beretan arratzari kolpeak nola eman, ikastera; zeñari erakutsi oi ziozkan atsegin aundiarekin -eta erakuste saririk gabe-, danbolin on batek jakin bear dituen eginbide guziak, zuzenkiro, baita oraindik ongi dantzatzan ere; eta argatik oi ziran lenagoko danboliñak, ain ederki dantzazekite-nak.

Denbora aietako danboliñak eta danzariak, ain ziran alkarren adiskide mamiak, nola gaurko egune-koak bata bestearekin diraden guztiz etsai aundiak, laister erakutsiko dizuteran bezala.

Edozein errik, bere jostaldi edo festa egun guzie-tarako, oi zuen danbolin oetako bat, ogei edo ogei ta amar dukatean, eta egun beretan bazkatzearekin; baita erri bereko gazteria dantzara zijoatzenak peze-ta bana ematearekin, urte guziko jaietan ere.

Danboliñ oek, alogera edo salario geiago gabeta-nik jotzen zuten soñua, plaza agirikoetan ez ezik, ardangela, sagardotegi eta beste biltoki, gazteak jostaldiatu oi ziradenetan, alkateak gaubilla edo erronda egiñ arterañoeko guzian; non ikasi oi zuten ongi dan-tzatzan, plaza agirikoan baño lotsa gutxiagorekin, gero beretan, naierara eta edertasunarekin ibilteko.

Gazte sail bategen artzen bazuen asmoa, erromeria edo auzoerriko festaren batera joateko, beti eramango zuten berekin erriko danboliña, onen soñu artuetan obeki eta seguruago dantzatzeko.

Danboliña bizi zan errian, etzan ospatu edo zelebratuko ezkonzarik, soñu jotzera bera deituko etzutenik.

Eztei goizean, joango zitzaion danboliña ezkonzailei beren janzi etxera, eta emango zien alborada, aita done Inazio gure erritar maitagarri doatsuaren martxa gozoarekin, edo beste are lenagoko sonaturren bat joaz, eta lagunduko zituen elizara alkate soñuarekin; baita andik osteran janzi etxera ere, non egin oi zuten ezkonberriak beren barau ausitzea.

Gosari txiki au egin ondoan, joango ziran plaza agirikora, eta aterako zuten dantza oniritzi bat ongien zekienak, zeñari eraman oi zioten eskura, ezkonberria.

Dantza pozkidatsu au bukatzean, lagunduko zituen danboliñak Eztei-etxera, aurrena alkate soñua, eta gero saltokako zortziko ariñak joaz. Bazkalondon, emango zuten gela berean alborada, gure asaba maitagarriak egindako azaña aundiak adierazo oi zituzten martxa gogoangarri aietako batekin. Au

bukatzean, joko zuen soñu zar pozkarri sonatu bat, zeñari esan oi zitzaien *Ezkonberriak lotaratzeko soñua*.

Baldin ezteiak baziraden erri barruan, joango ziran ezteizale guztiak arratsaldean plaza agirikora, non jostaldiatuko ziraden atsegintasun aundian, illundu arteraño; eta baldin baserrian, etziran geldituko zelai guziak barrena dantzan, arratsalde guzian; eta ala ere, etxerako denboran etzuten danboliñari dirurik emankizunik. Danboliñ eskolatu gabeko aien denboran, aste ta jai, nonnai, oi zan soñua ugari eta merke, zergatik etziran irtengo etxetik elizara ere, txilibitua gabetanik.

Lenagoko danboliñak zer gisaz soñuak jo oi zituzten, argibidea

Plazara soñu jotzera zijoatzen era guzietan, len-dabizi egin zuten lana zan, alkate soñua jotzea. Lais-ter esango dizutet zergatik.

Alboradak ematera zijoatzenean, asiko zuten len-danaz saltokako zortziko pozkarri bat, eta bera joaz

joango ziraden etxe-atariraño, non zortzikoa bukatu-rik, joko zuten alkate soñua. Onen ondoren, lenago izendatu dituran martxa gogoangarri aietako bat; eta akaballa emango zioten, saltarintxo pozkidatsu batekin.

Donesoaita edo prozesioan jo oi zuten *Amabost mirarien soñua* esan oi zaion orazio kanta oniritzi bat, denbora donati oni txit ongi dagokiona.

Alkate jaunarekin batzartar prestuai, elizara, erriko etxera edo beste edozein lekutara laguntzean, jo oi zituzten, denbora onetarako señalatuak ziraden alkate soñu, leun, garbi, gozoak.

Zezenak, zezenkoak, idiak, eta beiak, jendearen jostaldiatzeko plazara ateratzean joko zituzten soñu anziña anziñako txit partikularrak: aurrena *Zezenan soñua* esan oi zitzaion txit gogoangarria, eta onen ondoren, saltarintxo pozkarriak. Guziak jostaketa oni egokidatzen zaiozkanak, eta mendietan, lenago, abelgorri oei beren zainak sarritan jo oi ziozkatena.

Danboliña bizi zan erriko edozeñek dantza zerabil-llen denboran, berari zer soñu mota eta nola jo bear zitzaiozkan, etzuen iñork esan bearrik; zergatik ongi zeikien naierakoenak, eta beardanezkoenak, onetza-ko zein ziraden. Eta baldin auzoerrikoren bat irteten

bazan dantzarekin, lendabiziko lana esango zuen danboliñak galdetzea berari, soñu zarrak jotzea nai zuen edo ez; zeñari galdeera onekin emango zion aditzera, bear bezalako danboliña zana.

Denbora aietan, soñu zarrak bear ibezala etzekizkien danboliña, doarik ere etzuten artuko Gipuzkoako errietan; zergatik dantzariak soñu zarrak eskatu, ta danboliñak ez jotzea, guziz irain aundia zan berari alogera ematen zion erriarentzako. Beragatik oi zan bada orduko danboliñan atsegiñik aundiena, soñu zarrak ongi dantzatzen zekiena plazan ikustea, nola oraingoan iguñik minkaitzena dan, iñork jotzeko esatea. Soñu zar oetan dago bada dantzariaren jakinduria guzia, obra onen laugarren zatian ikusiko dezuten bezala.

Edozein erritan, egin nai zituztenean ezpata dantzariak, brokel dantzariak, jorrai dantzariak, edo beste gisaren batekoak, asko zuten danbolin oetako bati deitzea iru edo lau egunetarako, ikuste guzien naikidako dantzariak berak ongi erakutsirik, plaza agirikora ateratzeko; baita ere gertatzen bazitzaien utsegite txikiren bat edo beste egitea, laister asko, eta iñor gutxi oarketzen zala, zuzen eragiteko.

Jakiñaren ganean egon bear dezute bada, arki al ditekean dantzaririk onenak ere sarritan izan oi duela danboliñaren laguntzaren premia. Beragatik iduki oi zuten orduko danboliñak, dantzarien txit arreta edo kuidadu aundia, begiratzen ziezatelarik oñetara, artezaz dantzan asitzen ziraden guzien. Onetarako da txit premiazkoa danboliñak dantzan ongi jakitea.

Edozein soñu mota jo bear zutenean, lendanaz emango zuten aditzera arratzaren otsetik, zer gisatakoa izango zan jotzera zijoatzena.

Zernai dantza mota plazan zebillen denboran, arratzaren golpeetatik ezagutu oi zan aixa aski zer gisatakoa zan, zer egoitzatan arkitzen zan, eta zer soñu jotzen zioten, ain zuzenkiro nola erlejuaren orduak ezkillaren otsetik ezagutzen diraden.

Arratzaren kolpeetatik ezagutzen genduen, noiz erriko alkateari laguntzen zioten; arratzaren otsetik, prozesioa; arratzaren otsetik alboradak. Itz batean: arratzaren otsetik jostaldia, eta soñu mota guzi guziak.

Txilibitua baño askoz lenagokoa da arratza edo danboliña, beraren izen egiazkoak argi eta garbi adierazotzen digun bezala. Edozein euskaldunek daki nola esan oi dan gure errian: **dan dan** jotzen dute

atea; **dan dan** ari dira ezkillak; **da da** eman diozkat bi bellarrondoko. Soñu zarrak azaldutzean, adierazoko dizutet argiro, nola gure aurrekoak, danboliñaren otsean bersoak aboz kantatuaz dantzatu oi ziraden, txilibitua sortargitu baño lenagoko denbora aietan.

Txilibituak eta arratzak ere, askoz aundiagoak oi zituzten lenagoko danboliñak, oraingoak darabilzate-nen aldean.

Gaztetxea ninzalarik enzun izan nion nere jaioterriko artzai zar dantzari bati, nola Billafrankako plazan danbolinak jotzen zituen txantxakak, Ausoko gaztelua esaten zaion Zaldibiako mendi tantai batean dantzatu izan zituen naierara, ordu biko bidea dago-elarik plaza artatik mendi onetara. Au artzaiari aditua bezala, esan bear dizutet Ama Birjiña aboztuko egun batez neuri gertatua:

Goiz artan Lazkaura ninjoala, Albitxueta esaten zaion muño tontortxo batetik entzun nituen argiro Orendaingo errian danboliñak ematen zituen albora-dak, ordu ta erdiko bide arkitzen dalarik batetik bes-tera.

Danbolin eskolatu gabeko oek jo oi zituzten soñu guziak ziraden gozoak, leunak, garbiak, eta ikasten txit errazak.

Euskaldunen dantza mota guziak dituzte zeñek bere soñu banaita edo partikularrak beren bersoakin, esango dizkitzutedan bezala. Nola eta zertatik uste dezute bada iraun dutela ainbeste urteren buruan izkribu gabetanik, gure egunetaraño, soñu zar gogoangarri oek, ain zuzenki eta osotoro, eskolatu gabeko danboliñen artean? Ez bestela eta bestegatik, ez bada, aita onak beren seme maiteai aboz bersoak kantaturik, plaza agirikoetan dantzatuaz erakusten ziezatelako. Eta zer gisaz galdu diradela derizkiotzute ain soñu gozo, dantza miraritsu, eta berso gogoangarriak? Danbolin berri musikoetatik, zergatik ez duten nai, jo ez ezik, beren izen ondrosorik enzun ere.

Ez da bada mingarri ez ezik lotsagarri ere, ezjakin uanditu oek ixekaz eta muxindurik beren ta gure erriko oitura ain maitagarriak urruñatu edo despreziatu bearra?

Euskaldunen danza mota guziak dirade gaitzik gabeko pozkarriak, onestasun aundikoak, eta txit miraritsuak, zein bere soñu gozo, berso onetsi, eta senaera edo signifikazio egokiakin, laugarren zatian ikusiko dituzuten bezala.

Edozeñek daki bada soñuak adierazo bear duena argiro, beraren bitartez egin bear dan zernai gauza

mota; baita soñuarekin batean osekitu edo ejekuta-tu bear diraden eginbide guziak, zein bere ots egiaz-koetatik zuzenki ezagutzen dirana, ere.

Danboliña plazara soñu jotzera irtetean lendabizi alkate soñua jotzeak, du significazio txit egokia eta beardanezkoa. Soñu seinalatu errespetuoso au enzu-tean, plazan arkitzen dan jende guzia oroitzen da Jan-goikoarekin, Erregeren izenean jarririk dagoen erriko buruzari aundientsu aren agintza indartsuaz, eta bera aurkezean egon ez arren, lotsa eta beldur izaten dira legearen kontrako gauzarik ez ezen, bidegabeke-rririk txikiena ere iñori egitea.

Izanik bada, alkate soñu miraritsu au ain premiaz-koa danboliñak plaza agirikoan lendabizi jotzea, lena-gokoak jo oi zuten bezala, ez du iñork aditu 30 urte onetan danbolin musikoen txilibituetatik. Nola nai dezute bada jo dezaten, baldin jakinduria gañez egi-ñik dariotela uste duten uanditu oen artean arkitzen ez bada bat bakarra ere soñu ondroso au dakienik?

Donesoaita edo prozesioan jotzeko asma dezake iñork soñu egokiagorik, amabost mirariena baño? *Bai jauna* esango dute danboliñ musikoak, *askoz ere ede-ragoak dira guk jotzen ditugunak*. Zer dirade bada ederrago oriek? Ez besterik, ez bada andreak eta nes-

katxak dantzara eramatean jotzen dituzten soñu berberak. Ha zer gauza itxusia dan ori, denbora ain donati edo sagradurako!

Alboradak dirade, azaña aundiak egin ondoan gizon gogoangarriak beren jaiotetxeetara biribillatzean, berai ongi-etorri maitatiak egiteko ifiniak. Beragatik lenagoko danboliñak asi oi zuten urrutitik zortziko saltokako ariñ pozkarria, eta au joaz joan oi ziran jaun prestu aien etxe-atarietara, non zortzikoa bukaturik, asiko zuten alkate soñu ondrosoa. Onen ondoren, azaña beretako martxa gogoangarri pozki-datssua; eta akaballa emango zioten atsegingarrizko saltarintxo batekin.

Zortziko saltokako au etxe-atarira baño lenago asitzea, txit premiazkoa da beste gauza baterako ere: soñu erritarki au enzutean, oartzen dira alborada ematera dijoatzen etxeakoak, eta baldin ez badute nai, irteten zaio bat danboliñari etxe-atarira, eta esaten dio ez an gelditzeko, zeña igarotzen dan beste toki batera bere zortzikoa joaz, iñor oarketu gabetanik norako asmoan zijoan. Baña oraingo danboliñ jakintsun oek, joango zaizkitzu etxe-atarira ixil ixilik, non asiko diraden bat batean turmoiaren gisa, erbesteetako soñu berri berritxu, gauza nazgarri itxusiak

baizik adierazten ez digutenakin engurrutzen gaituztela. Gertatzen da askotan, soñu jotzen asi orduko etxe-ataritik biraltzea, lotsatzen diralarik, ala etxe berekoak, nola danboliñak. Lenagoko danboliñakin etzan izaten onelako ezerago edo inkonbenienterik.

Beste gañerako soñu zar guzien signifikazioak ere adierazoko dizkitzutet argiroki zein bere tokietan.

Danboliñ eskolatu gabekoen denboran Gipuzkoan egin oi ziran dantza eder oniritziak

Gipuzkoan txit erri gutxi ziran danboliñ oetako bat etzutenak. Baziran erriak, txikitxoak izan arren, biña eta iruna zituztenak. Ezagutu ditut Amezketan eta Idiazabalen iruna, Lazkaun ta Ormaiztegin biña... Eta erriaz gañera etxadia edo barrioetan, nork daki zenbat? Donostiako barrioetan ikusi izan ditut zortzi danboliñ, jai guzietan soñu jotzen lana zutenak. Esaera dagoen bezala *Danboliñaren etxean guziak dantzari*, Gipuzkoan denbora aietan amar urtez goitiko geienak zekiten zortzikoa bear bezala dantzatzen. Beragatik

egin oi ziran ainbeste dantza eder, oniritzi, nola azalduko dizkitzutedan.

Orube edo suelo maitagarri onetako jostaketa agiriko quziak, nonnai izan dira beti txit sonatuak eta ongi onesbedatuak. Egia onen argibidea, arkitzen da Españaiko historiadore jakintiak agertaratu dituzten obra gogoangarrietan, gure ama Gipuzkoarekin bere seme maiteoi horore aundiak egiten dizkigutelarik, ala ere.

Gaztelako esande edoonseju goienengoaren aginduz ibilli izandu zan D. Gaspar Melchor de Jovellanos Españaiko probinzia guzietan, anziña anziñako joku gisa eta plaza agirikoetan egiten ziraden jostaldia mota guzien billa, bear bezala ezaguturik, eta txukinkiro apaindurik, Dierria edo Nazioari argitaratzeko.

Gizon gogoangarri onek 1796 garren urteko uztailaren 11 garren egunean agertaratu zuen oroitzapen edo memoriaren 80 garren orrian esaten du onela:

Oroitzapen au eskribitzen ari giñadenean, ez genduen ezagutzen Euskal erria, ez eta bera- ren dantza igandeorokoak ere; baña 1791 garren urtean toki berean egin genduen bidaje batek, eta 1797 garrenean berriztu gendue-

nak, teretxatu zigun oarketzeko atsegina, baita segurutu ere geiago ta geiago, jostaldi agirikoen gañean lenago izkribatu genduen. Arritze-koa da ziertoro, zein ongi egokidatzen diraden jostaketa senzill oetan, eraena ta moldesia libertadearekin, atsegiña ta pozkida eta gereska alaitutzen dituen. Antxen da ikustekoa, erri bat osoa, ez adiñen berezi edo distinziorik gabe, laisterka ta saltoka danboliñaren ondoren, eskuetatik guziak alkarri itxatsirik, ain osotoro lagatuak lasaitasunera eta pozkidara, zeñean izango litzakean guziz sorra oarketzen dituen, geldituko baliz partatu gabe beren pozkida gaitzik gabekoa. Onenbeste aski da gomendatzeko pozaldi agirikoek, gizon senti-garri guzien begietan; baña Egokintsu edo Filosofoak ikusiko du beretan, jatorrizko bakundea, emakinza eta pozkida etorkiarra, zeñean azkarriatzen duten gozaten dituen erria, eta oraindik baita ere anaitasunaren bakitea eta erritar-kide irazekia bat egiten duena bere bizitegi-ileen artean. Zein erraz ez litezkean iritsi, zabalzearekin bakarrik bitezarde edo instituzio

ain senzilloak maitagarritzko ondasun berak beste probintziaetan!

Ezin esango du iñork, gure erriko jostaketa gaitzik gabeko pozkarriak aundizkatzen dituela gizon gogoangarri jakintsun onek bera euskalduna dalako; ez eta berari ditzekan onkarri banaita edo interes partikularren bategatik ere; baizikan zentzu aundikoa, eta ekai edo intenzio onekoa izanik, adierazo nai diolako mundu osoari, euskaldunen jostallu agirikoak diradena beste toki guzietan egin oi dituztenen gañekoak. Beragatik esaten du ain irmo eta egiazki, beste probintziaetan zein erraz iritsi litezkean ondasun ain maitagarriak.

España guziko probintziaetan ibilli bazan ere gizon jakinti au beretako dantza eta jostalluak ikusten, bakar bakarrik naikidatu zitzaiozkan Euskal errikoak, zergatik ezagutu zuen argiroki, oetan arkitzen zana pozkida ornitu, gaitzik gabekoa, eta anaitasun guziz maitagarria.

Gure errian igande oro egin oi diraden dantza bakar jakin jakin aiek ainbesteraño andizkatzen dituenen, noraño igoko ote zituen gizon gogoangarri onek, baldin gertatu baliz ikustera, Euskaldunak, nork

bere errietako Done godartari edo Santu patroien egunetan, Gorputzetan, Diakinde edo funzio aundietan eta Iñauterietan, egiten ditugun anitz dantza mota oniritzi, eta jostallu pozkarriak?

Nere pozkidarik aundiena litzake bada, Jovellanos bezelako gizon zentzutsu, eta ekai onakiko batek, Gipuzkoako dantza mota guziak, zein bere soñu zar gogoangarri, itz neurtu egoki, eta senaera miraritsua-kin bear bezala ezagutzea, mundu osoari argitaratzeko, zenbateraño-koa dan beran aunditasuna.

Gipuzkoako plaza beakurtsuetan, ezagutu izan ditut nik dantza mota, nor bere soñu ezagunakin dabilzala txit goaikiro, eta guziz onestasun aundian, señalatuko dizkitzuteran bezala, jaio ziraden denborako izen egoki beren berenkiakin:

1. Gizon dantza.
2. Gazte dantza.
3. Etxeandre dantza.
4. Galaien esku dantza.
5. Neskatxen esku dantza.
6. Edate dantza.
7. Ezpata dantza.
8. Brokel dantza.

9. Pordon dantza.
10. Jorrai dantza.
11. Azeri dantza.
12. Bizkai dantza.
13. Kuarrentako erregela.
14. San Sebastian.
15. Galantak.
16. Txantxakak.
17. Eun dukatekoa.
18. Betronio txikia.
19. Betronio aundia.
20. Azalandare.
21. Erregela zarra.
22. Eun da bikoia.
23. Amorea Margaritatxo.
24. Erribera.
25. Punta motz.
26. Ondarribia aundia.
27. Ondarribia txikia.
28. Napartxo.
29. Ormatxulo.
30. Upelategi.
31. Txipiritona.
32. Erreberenzia.

33. Txakolin.
34. Mizpirotz.
35. Graziana.
36. Billanzikoa.

Dantza mota oek guziak egin oi zituzten Gipuzkoatarrak, nere gazte denboran, beren asaba maitagarriak irudikatuaz erakusten ziezatelarik seme oneskiai, gordakaiatzen zuzenkiro, sorterriko oitura eta usuario gogoangarriak.

Jatorrizko jostaketa pozkarri oen irozotzera irten oi ziraden plaza agirikoetara, egun otsaundikoetan, gizonik aurrenen aurrenengoak, beren etxeandre maitatiakin, non jostaldiatu oi ziraden beren naikirara, eta ikusle guzien atsegiñera.

Gipuzkoako gizon prestu aurrenengoan galanteorik aundiena izandu da, orain 30 urte ingururaño, beren jaioterriko dantza oniritziak, plaza agirikoetan, modu eztaundiarekin dantzatzea.

Egia ziertoro au oraingo gazteak sinistatu dezaten, señalatuko ditut gizon gogoangarri aietako bana-batzuek, zeñaren izenetatik etorriko diraden eza-gutzera argiro, Gipuzkoako etxalderik goienengoak ziradena.

- D. José María Lardizabal.
- D. Joaquin Areizaga.
- D. Manuel Sarobe.
- D. Pedro Manuel Urrestieta.
- D. Lázaro Manterola.
- D. Martín Garmendia.
- D. Juan Baustiata Ubillos.
- D. Domingo Ubillos.
- D. Juan Cruz Sempertegui.
- D. Felipe Urreta.
- D. José Ignacio Unceta.
- D. Francisco Arteaga.

Guziak dantzari jakintsunak eta txit egokiak. Ha nor legokean atsegingarrizko gizon pozkidatsu aieta-
ra begira!

Gipuzkoatar maitagarri aiek, zenbat eta naitasun
aundiarekin egurastutzen zituzten egunaz, plaza agi-
rikoetan, baserritarren dantza oniritziak, anbat eta
maitaroago gozatu oi zituzten jostallu gauetan, Erriko
etxeko gela beakurtsuetan. Gela aundientsu oetara
biribillatu oi ziraden zar prestuakin batean, gazte jos-

tatiak, non emango zioten jostalluari akaballa txit pozkidatsua.

An irtengo zan bata billanziko atsegingarria dantzatzera, bestea, txakolin txistosoa; ura, ezpata dantza ondrosoa; au, azeri dantza pozkarria; Urliak dantzatuko zuen kuarrentako erregela; Sandiak, galantak; Berendiak, San Sebastian; onelakok, azalandare; alakok, napartxo. Itz batean: etziraden geldituko, zekitzaten gaitasun aundiak alkarri agertu arteraño.

Gizon gogoangarri oek bazekiten ongi teretxarik onena noiz zan, beren jaioterriko oitura eta usuario gozoetako dantza eta soñuak erakusteko. Beragatik jabetu oi ziraden denbora aiñ egoki eta baliosoaz, artean plazara irteteko beldurraz arkitzen ziraden zaldun gaztetxoak, bear bezala irakasirik ipinteko.

Orduko Gipuzkoatar prestuak etziraden lotsatzen, goienen goienengoak izan arren, nekatzalle oneskia-kin batean bilzarkidaturik, beren asaba maitagarriak irudikatuaz, plaza agirikoetan jostaldiatzea; ez eta gela beakurtsuetan berai, zekitzaten gai onesbedagarriak erakustea ere.

Gauza jakiña eta egiazkoa da ziertoro, gizon zar, prestu, aurrenengoak, plaza agirikoetan beren sorterriko dantza oniritziak egitean, biztanle guziak pozki-

datzen diradena; baita ere gazteak, arreta aundiarekin ikasirik irudikatu nai izaten dituztena, ez alere eresia gutxirekin.

Beragatik gordakaiatu izan dirade Gipuzkoan gure egunetaraño, ainbeste dantza oniritzi, pozkida-tsu, eta soñu zar gozo, gogoangarri, batere izkribu gabetanik.

Egun otsaundikoetan zar prestu aurrenengoak egin oi zituzten dantza mota guziak, gazteak irudika-tzen zituzten urte guziko jai arratsaldeetan, erriko alkate jaunarekin apezaitaren aurkezean; baita iñoiz meza nagusi ondoan ere.

Gazteak, dantzatzeko eresiarekin, eta zarrak, oek ikusteko pozkidaz beterik, jai guzietan bilzarkidatu oi ziraden plaza agirikora, bidez meza nagusia eta bez-perak enzuten zituztela jaiera aundiarekin; non jostal-diatuko ziraden guziak illunzeraño, beren atsegiñera, eta txit modu eztaundiarekin; baita etxeratu ere guziz muga onean.

Jostaketa pozkarri, gaitzik gabeko oetara zuten eresiaren bidez, batu oi ziraden ekinza eliztar edo ofi-zio dibinoetara, txit sarritan: enzuten zituzten sermoi onak eta anitz; aitorgoratu edo konfesatzen ziraden maiz aski, eta bizi oi ziraden Jaungoikoaren beldurta-

sun aundian. Beragatik gertatu ez oi zan, denbora aietan Gipuzkoan, orain ainbat gaiztakeria mota.

Itxas gizonak, dendalariak, tonelgiñak, ermentariak, zapatagiñak, eta beste gañerako anaikide edo kofradiak zituztenak, nork bere langintzako done edo santuen egunetan, egin oi zituzten guziz dantza aundientsu anitz eta txit pozkarriak, beren emazte oniritziak naierara egurasturik, ikusle guziak atsegintasun aundian jostaldiatzen zituztela.

Done doatsu oen biradamunetan, berriztu oi zituzten jostaketa pozkidatsu gaitzik gabeko berak, nagusi ta etxekoandre prestu aien seme ta alaba maitatiak, morroi ta neskame beargilletsuakin batean, agertzen ziotelarik alkarri amodiozko naitasun irazekia, zeñaren bitartez egin oi ziraden beren denbora guzirako adiskide mami, eta bizitzen ziraden anaiatasunezko bakite edo unio txit itxatsi batean.

Done godartari edo santu patroien egunetan, eta Gorputz egunarekin, txit erri gutxi izango ziraden Gipuzkoan, ezpata dantzari ondrosoak egiten etzituztenak. Baita iru edo lau urteren buruan brokel dantzari ikusgarriak ateratzen etzituztenak ere.

Orain 30 urte ingururaño, legezko usuario zuten Gipuzkoan bizi oi ziraden gizon ezkondu guziak, ezpa-

ta luze anziña anziñako bana zuzenkiro gordaikaia-tzea, eta nor berearekin Gorpuz goizean erriko etxera aurkeztutzea. Baita, alardea zuten arratsaldean, zein bere eskupeta garbiarekin plaza agirikora bilzar-kidatzea ere. Nere aur denboran, dantzatu oi ziraden Gorputz egunean, Elizan, ezpata dantzariak, lau aldiz, modu onetan:

1. Meza nagusi aurrean.
2. Donesoaita edo prozesioa egitean.
3. Bezperak asi baño lentxeago.
4. Oek bukatzean.

Elizara sartutzen ziraden bakoitzean, Aldare nagusiaren aurrera iristean belaunikatuko ziraden, atabal danbolinak ixildurik, nor bere otoiz moduak egiteko, eta ondorean dantzatuko zuten iru aldareen aurretan, guziz onestasan aundian.

Lendabizi dantzatu oi zuten Aldare nagusiaren aurrean, *erreberenzia* esaten zaion soñu zar, txit beakurtsu bat, zeña danboliñak beñere etzuten joko, beste tokitan. Beragatik arkitzen da soñu au gaurko egunean txit aztua, oraindik bizirik badago ere, ikusiko dezuten bezala.

Zezen illzekoakin jostalluak egin oi zituzten errietan, iñon ere ziraden zezen, zezendari, eta zezen-ill-

zallerik onenak billatzeko ainbat arreta oi zuten, iru dantzari Gipuzkoatar, arki al zitezkean egokienak, biribillatzeko; zergatik jostallu egun bakoitzean, egin oi ziraden iru gizon dantza ondroso, modu onetan:

Eguerdi arteko zezen gudande edo korridaren aurretik bat; arratsaldean, gisa berean, bestea; eta zezenak bukatzean irugarrena.

Dantza aundientsu oetan aurrendariari lagundu oi zion eskutik, erri bereko alkate jaunak; eta azken eskukoari, batzartar prestu batek.

Aurrendariari eramango zioten eskura, alkate jaunaren emaztea, eta ari zegokion bat, azkendariari. Gañerakoetara berriz, arki al zitezkean etxeandrerik prestuenakin, beren alaba onesbedagarriak.

Edozeñek daki jostallu aundiak egin oi diradena, ospatu edo zelebratzen dituen erriarekin, toki bereko biztanleen hororerako. Baita ere, biztanle oek, eta batez ere aurrenengoak, nai izaten dituztena agertaratu beren buruak, leku agirikoan, ikusleak jakin dezaten, nor, nongoak, norenak eta zer gisatakoak diraden.

Gizon dantza oniritzi oetan ezagutu oi ziraden, bada, naierara, eta txit argiro, ala erriko buruzari ta

nagusi prestuak etxeandre beakurtsuakin, nola oen seme ta alaba oneskiak beren doaiñ maitagarriakin.

Diakinde edo funzio atsegingarri oek gozatzera bilzarkidatzen ziradenak beren etxeetara joatean, lendabiziko berria emango zuten, *Urliak egin du zezenen aurreko dantza, eta Sandiak ondorengoa. Ark dantzatu du Berendiaren emaztea, eta onek alakoren alaba.*

Jostallu agiriko pozkarri oek, zeñ eta diraden onesbedagarriak, aiñ atsegiñezkoak eta oniritziak oi ziraden, arako, lenago izendaturik dauzkadan txilibitulari, eta bolingoza edo dulzaina jotzalle aiek.

Maisurik gabetanik, beren eder etsiz ikasitako oslankai gozatsuak joaz ibilli oi ziraden erromeriaz erromeri, jostallurik jostallu, zezenik zezen, artzaimutil gazte, mardul, guri aiek, esan al guzien gañeko atsegintasunean.

Jostallua zan errira sartutzen ziradenetik irten arte guzian, etziraden geldituko gau ta egun, beren kideko lagun maitati anitzekin batean, plazatik karrikaetara, ardandegitik ardandegira, jantokitik jantokira; batzuek soñua jo, besteak dantzatu; ura irrinzika, au ojuz; beren pozkida beteaz enzule guziak partatu arteraño.

Zezenak jokutzen zebilzan denboran, jarriko ziraden barrera gañetan, unetik unera, non ariko ziraden beren artzai soñu gozatsuak joaz, pozkidatzen ziradelarik enzuleak oslankai erriaren bere berekiak aditzean, ainbesteraño, nola plazan zebilzan zezen ta zezendariak jokutzen ikustearekin. Baña oraindik, askoz ere, atsegintasun aundiagoak, eta are ikusgarriagoak oi ziraden mutil gazte jostati pozkarri oek, erromeriaetan.

Erriaz kanporako jostallu gaitzik gabeko oek, nola ospatu edo zelebratzen ziraden soñulari gozatsu aien toki txit beren berenkietan, egurastu oi ziraden naiera guziko lokabe edo libertadearekin. An, ots egingo zioten batari, jende samalda batengana; bestea eramango zuen, ballera batek; au deituko zuten mulsutasun batera; ura joango zan, beste bilgoboillara. Modu onetan, nor bere adiskide mamietara sakabaturik, igaroko zuten erromeria egun guzia: ala berak, nola toki berera bilzarkidaturik arkitzen ziradenak, naikidatu al zitekean pozkidatsuena.

Baldin bedere arkituko balitz iñor oraingo gazteen artean sinistatu nai ez duena jostaketa oek guziak egin oi ziradena Gipuzkoan, nik emen azaldu dituran gisa berberean, galdetzea dauka nere adiñeko edoze-

ñi. Ez det batere beldurrik lotsatuko nauela, zergatik egiazkoak diraden argiro, eta nik bezala ikusi ta eza-guturik, ongitxo gozatu izan dituzten asko gaurko egunean bizirik arkitzen diraden orube maitagarri onetan.

BIGARREN ZATIA

Gipuzkoan zenbateraño azturik arkitzen diraden gaurko egunean lenagoko dantza eder oniritziak, eta oen orde z egiten dituzten zatarkeriak. Baita ere nork eta nola ixekaturik urruñatu dituzten, eta nondik eta zer gisatan etorri dan beren galera negargarrizkoa.

Argitasun geiagorekin, eta obekiago adierazotzeagatik, ipiñiko ditut zein bere ekabilde edo klaseetan.

Gipuzkoan zenbateraño azturik arkitzen diraden lenagoko dantza eder oniritziak

Gipuzkoako erririk bikaiñ, arki, danbolin otsakin-dari aundiak dauzkatenetan, aiñ guziz aztuak eta txit ezkutatuak daude toki bereko dantza mota oniritzi pozkarriak, non agertzen ez dan plaza agirikoetara, zortziko bat bakarra ere, bear bezala dantzatzen dakienik.

Ogei eta hamar urte izango da gutxienaz, utzi ziotela gizon prestu aurrengoak plaza agirikoetan beren jaioterriko dantza oneskiak egiteari.

Lenago jai arrasalde guzietan bost edo sei dantza modu eztaundiko egiten zituzten errietan, oraiñ urte osoan ere ez ditugu ikusten bat edo bi baizik, eta oek ere iñauterietan, eta iñauteriari dagozkion gisakoak.

Erri bikain arkietan ez dute egiten beren Done godartari edo Santu patroien egunetan, gizon dantza bat bakarra ere, eta zezen illzekoakin ospatu edo zelebratzen dituzten jostallu aundietan, iraiñzat daukate plaza agirikoetan beren sorterriko dantza motarik egitea, lotsagarrizko gauza itxusiren bat balitz bezala.

Urteak dira utzi ziotela, itxas gizonak, dendalariak, tonelgiñak, zapatagiñak, ermentariak, eta gañerako anaikideak dituztenak, beren langinzako Donen egunetan, dantzatzeari.

Aspaldi lagatua arkitzen da eztei egunetan dantzak egitea, eta txit arras debekaturik oi dago, erromerietara soñularirik eramatea. Donostia, eta Andoaíñez kanporako errietan azturik dago brokel dantza atsegingarria; eta Tolosako erri maitagarriak bakarrik gordakaiatzen du, ala zorionean, pordon dantza

gogoangarria; baita Azpeitiak ere, jorrai dantza pozkarria.

Donostiako Uri leñargitiak Gorpuz egun guzietan egiten ditu ezpata dantzari ondrosoak; baita Andoaindarrak ere. Baña gañerako erririk geienetan ez dirade oroitzen izenaz ere, alik eta Erregeak eta oen urrengo persona goienengoak, orube maitagarri onetan igaro bear dutenean, gure ama gozatsu Gipuzkoak, dantza gogoangarri onekin berak menekiatu edo obsekiatzeko agintzen dien artean. Eta orduan, bide aundian daudenetakoak or oi dabilza guziz arako aundietan, azka ta puzka, ezin biribillaturik, ez ezpata luze anziñako aietako bat, eta ez ezpata dantza zer dan dakienik.

Geroenean beartzen dirade, lenago ixekaz ta urruñaz, plaza agirikoetatik baserri zokoetara igesi biraldurik dauzkaten ezpata erdoituakin, aitona ezur gogortuak txurikatuz erakartera. Oen bearra izan oi da bada, baldin Gipuzkoak bere hororeari eutsiko badio.

Gipuzkoa guzian iru erri bakarrak senti ditut anziña anziñako ezpata luze aietakoak zuzenkiro gordakaiatzen dituztenak, zeña diraden: Andoain, Zaldibia, eta Idiazabal.

Jakiñaren gañean arkitzen naiz nola Billafrankako erri leñargitiak eragin dituen 50 ezpata berriak, lenagoko zar luze aien gisa berberekoak, azkenen, erri berean igaro zan, gure Erregiña maitagarria menekiatzeko; egun otsaundiko artan, bere auzoerri eta adiskide mami Zaldibiatik, lau dantzari zarretakoak eramantik. Erri leial ark egin ziozkan txit jostallu oniritzi pozkarriak, urte askotako bizia, osasuna, eta zoriona, naikidatzen diogun España guziko etxeandre maitatiari.

Onelako erriak dirade beren etorki doatsuari naitasun irazekia diotenak; baita zorioneko sorterriaren oitura gogoangarriak maitaro gordakaiatu nai dituztenak ere, eta ez, arako, ezpaten ordean txotxaka txatar batzuek eskuetan dituztela, ain persona goienengo beakurtsuetara aurkeztutzen diradenak. Gaitz erdi litzake bada makillakin irtetea, baldin Gipuzkoatarren modura janziak agertuko balira, eta ongi dantzatuko baluketeke. Baña aurkeztutzen dirade, lurre-raño arrastaka dituzten zaraula luzeekin aztal ederrak estalirik, dantzarien itxura baño, txori izutzalle ipiñi oi dituzten mamuen antz geiago dutela.

Gipuzkoako ezpata dantzari ondrosoen soñekoak, ain egokiak eta txukunak oi ziraden, non, berakin

apaindurik dantzara irtetea, irudin oi zuten airean zebilzala egaztien gisa. Guziak apaindu oi ziraden berdinkiro janzi garbi erritarkideakin, modu onetan:

Alkandora kuntza ederreko, beso ugariak.

Galzerdi arizko zuriak lokarri nabarrakin, aztal ederrak agirian zituztela.

Zapata txuri, ariñak.

Zaraula beltz, belaunetarañoko motzak.

Gerriko gorriak.

Eta mokones edo pañuelo zuri, ertz gorriak, buruetan txit egoki antolaturik.

Zein gutxi ausartatuko zan Gipuzkoan iñor, nere gazte denboran, beste janzi motarekin ezpata dantzara irtetea. Egia da ziertoro, oraindik ere gordakaia-tzen dutena Gipuzkoako erri txikietan, jazkera mota garbi au; baña aundi usteko guzietan, iraiñzat dauka-te beren aurreragokoak irudikatzea.

Eta, zer litzake ez irudikatu nai izatea, baldin oitura gogoangarri erritarkide oetan jostaldiatzen oi dabilzanai, ixeka eta urruñarik egingo ez baliezakete-ke?

Laister ikusiko dituzute bada, zenbait uaunditu ezjakiñek beren anaia prestu maitagarriai, plaza agi-rikoetan, egin oi diezaten bide gabezko dollorkeriak.

Lenagoko dantza oniritzien orde gaurko egunean egiten dituzten zatarkeriak

Nola Gipuzkoako gizon prestu aurrengoak eta etxeandre oniritziak, beren seme eta alaba onesbe-dagarriakin, sorterriko jostaketa pozkarriak plaza agirikoetan egiteari txit arras utzirik, gauaz gela itxietan ospatu oi diraden arrotz aietara artu zuten guziko eresia portitz aundi bat, ez da irteten egunaz agirian dantzatzera, bere buruari zerbait derizkionik, erri bikain arkietan.

Beragatik, atera oi dirade illun alderonz. beren arpegiak garbitzen ongi ikasi gabeko iru edo lau mutil zirzil, beste ainbeste neska moldakaitzekin, plaza agirikora; non oi dabilzan izulamilka, nazkagarrizko lotsagabekeriak baizik egiten ez dutela; zeñean, ezin legokean inor berai begira, txit damurriaturik guziz engurrutu gabe. Baña ez oraindik ere onela, erri txikietan.

Dantzari itxura gaiztoko oen artean, zeñek eta egiten duen zatarkeriarik iraingarriena, bere ustean

artxek oi dauka galanteorik geiena. Zein gutxi ausar-
tatuko zan denbora batez iñor. Gipuzkoako plaza bea-
kurtsuetan, nazkagarrizko lotsagabekeri orienik egi-
tera! Orduko gizonen bizarrak txit ziraden belzak,
baita guziz zorrotzak ere.

Ongi oroitzen naiz, artean gaztetxea banintzan
ere, nola Gipuzkoako erri txikitxo batean, beren Done
godartari edo Santu patroia-aren egun batez, gizon
dantza oniritzi bat zerabil-
tela, sartu izandu zan bertara
neskatxa batekin, galai gazte
arrotz, aundi ustez betetako
bat, bere iritzian, erri txiki
artako alkatea ezertan asko
etzeukana; baña etzitzai-
on gizajoari txit ongi ateratu
aldia onetan, bere aundi ustea.

Berez txit betetako zaldun
arrotu au asi izandu zan bada,
berak baizik bestek ongi etzeriz-
kion moldakaitzkerietan,
dantza guzia itxuskitzen zebala:
beñ neskata batari bulza,
gero bestea bota; ari jarraika,
oni zirrika, asmatu al zitzakean
zatarkeriarik nazkagarrienak
egiaz, bere buru puztua galanteatu
naiean.

Esan izandu zion alkate jaunak,
beñ ta berretan ere txit emeki,
etzala erri artako oitura, plaza
agirikoan inork lotsagarrizko
itxusikeria aienik egitea, eta
ibilli zediela modu eztiarekin,
besteak zebilzan beza-

la; baña etzion aditu nai izan onean. Geroenean, ipurtjolari moldakaitz uanditu ark, beartu zuen alkate jauna, dantzaren erditik aterata, presoindegira sartzera, non egon bearra izandu zuen, jostallua bukatu arteraño.

Beste aldi batez, Irungo alkate prestu batek, geiago egin izandu zuen bere erriko Jostallu egun batean.

Egun otsandiko artan gizon dantza zerabiltela plaza agirikoan, aurrendariari bere eskurako etxeandre oniritzia aurkeztu ziotenean, ankarekin gonak arrotu ziozkalako, beste gabetanik, une berean geldierazi zuen alkate jaun beakurtsu ark, dantza. Araude edo ejenplar geiago ere ikusi izan ditut, gisa berberekoak, Gipuzkoako plaza beakurgarrietan; baña uzten ditut azaldu gabe, ez luzatzearren, eta uste deralako aski dirala oek, gizon sentigarri guzien begietan ezaguerara etortzeko berak, nolako beakurtasuna edo errespetoa gordakaiatu oi zan, Gipuzkoan, plaza agirikoetan.

Ezin ukatuko du bada inork, denbora aietako alkateak naitasun aundiarekin maitatzen zituztena ongi, beren sorterriko oitura gogoangarri pozkidatsuak. Ez eta, gaurko egunean dantzaren izenean plaza agiri-

kora irteten diraden anitzek, zatarkeria gaitz bidariak egiten dituztena ere.

Nork eta nola ixekaturik urruñatzen dituzten lenagoko dantza oniritzi gogoangarriak, eta dantzari egoki prestuak.

Geren errian arkitzen zaiku, ezertarako ere gai ez dan jendella mota erasle bat, euskaldun guzien iraingarria. Itz jario motel txar oek duten iguñik aundiena da beren jaiotzako itzkunza gozoarekin, sorterriko oitura oneski anziñakoen izena enzutea.

Ixekutzen dituzte beren asaba maitagarriak egin oi zituzten dantza gogoangarriak; ozpindurik muxinka egon oi dirade, oitura oneski oen irudikatzen dabilzan anaia prestuetara begira; urrunatzen dituzte jaioterriko soñu zar gozatsuak: eta azkenik, iraturik edo ultrajaturik sartutzen dute lurraren azpi azpiraño, beren ustez, bularrarekin batean erodiskitu edo mamatu zuten itzkunza jakintsun maitagarria.

Txoriburu puztu, ezjakin oek ikusten badute, erri txikietako jostalluetan, nekatzale prestu bat, gizon dantzarekin plaza agirikora irteten, asiko dira berri-txukerian alkarri esanaz onela:

Aizak aizak mutil, begira begira orrakotaño orri, gazta flandezkoa zirudik orren buruak. Eranzungo dio besteak: *Mamelukoren bat zala uste nikan nik.* Ark esango du: *Arrainea!, nondik atera ote du kasaka modako ori? Lebita bat egingo nitek orren egalakin.* Onek, *Karanba!* zer txapela daukan etxe bati tellatua emateko. Besteren batek oju egingo du: *karall, ori zapata dauka! orrenbesteko barku batekin joango nindukek Amerikara.*

Onela marmarizan ari dirala. ikusten dute dantzara dakartela etxeandre oniritzi, edo neskatxa modu ezitiaundikoren bat, zeñari ekingo zaiozkan iraututzen edo ultrajutzen: batean, ille ebakiak eta kizkurtuak ez dauzkala, bestean, Moisesen denborako soñekoak dakarziela; bein gizonezkoai alaikiro begiratzen ez dakiela, gero, baserritarren ibillera traketsa daukala: eta beste onelako dollorkeriak esanaz, asperraldi bat egitean, asiko dirade berritotik, dantza oniritziaren eginbide prestuak ixekutzen; darauskiotela ezik, txit lelea eta pisua dala, esku esturik batak besteari ez

egitearren, mokones edo pañueloakin dabilzala; zirri-rik txikiena ere ez diotela mutillak eta neskatzak alkarri egiten; eta, nork daki zer ta nolako berritxuke-riak errebesatzen dituzten iraingarri zital oek?

Arritu oi naiz bada, ta asko ta asko ala ere, nola muxinkari txar oek biraltzen ez dituzten makillazoz aunditurik. baserritar prestuak, andikan barrena.

Eta oraindik, erriz erri ta jostallurik jostallu beren jaiotokiko oitura pozkidatsuak ixekutzen dabilzan dollor zital oek bezain iraingarriak ere baditugu, banaka batzuek baizik ezpada ere.

Gauza jakina da probinzia guzietatik joan oi dira-dena Zaldun gaztetxo anitz Azitetxe edo Seminarioe-tara, guraso onak biraldurik, nor bere jakinduria suer-teak ikastera.

Erri askotatik alkargana bilzarkidatzen diraden galai gazte oek, beren jostaldi pozkarrietan dabilza-nean, eta batez ere zedenan edo broman dauden denbora aietan, agertu nai izaten dituzte dakitzaten gaitasun edo abilitadeak, ala azitetxeetan alkarrekin ikasiak, nola lenago zekitzatenak.

Lendabiziko asper aldia egin oi dute, dantza motarik oiturakoenetan, eta gero, nork bere jaioterri-koetan. Denbora au iristean, eta Gipuzkoatarraren

txanda etorzean, esango du onek, baldin ezpadaki (geienak ala izan oi diraden bezala): *Ez niri berriztu karrika dantzarik eta ez beste gañerako nere erritarrak plaza agirikoetan egin oi dituzten, Matusalenen denbora aietakorik. Gaurko egunean ez da bada irte ten anzinako dantza lela pisu aietara, baserrikotañoak baizik, eta beretara begira jartea aski oi degu nere kideko guziak farraz esteak urratzeko zorian egoteko, eta baldin zuek ere nai badezute ase, nik emango dizutet nai guziko janaria.*

Au esatearekin batean asiko da, zaldiño ezi gabearen gisa, aztalka ta puzka, zilipurdika eta izulamilka: batari ostiko, besteari aldajoka; eta ez da gel dituko barautsa ta pitxa purrustaka dariola, alik eta txit arras aunatu darin arteraño.

Txoriburu puztu oek uste izaten dute ezik, lotsa garrizko moldakaitzkeri itxusi aiek eginarekin estalzen dutela beren ezjakina, baño ez dira asko oarketutzen gizagaxo iñorez oek, ikusguñ agiri agirikoan gel ditzen zaiotena beren ezerezkeria; zergatik oen lagunen artean izango diraden anitz eta anitz ala ere, irakurri izan dituztenak, gure dantza ondrosoai gizon jakinsun askok beren obra gogoangarrietan egin izan diozkaten aundizkatze ezin geiagokoak.

Ez al zaiote iruditzen, aizebelats oei, beren jaioterriko dantza oniritziak, iraingarriren batzuek diradela? Jakiñaren gañean egon ditezke bada urrengo baterako, ala erausle zital oek, nola beren gisako itzjario motel, txar, guziak, ezen, oriek baño buruko muñak beteagoak dituzten gizon zenzu aundiko anitzek, maitaro goxaturik eta txukinkiro apaindurik, igo izan dituztela gure dantza ondrosoak, tokirik gaiñ gañekoenara, laister agertuko deran bezala.

Jakinduriaren billa erbesteetan urteak igarorik, joan ziradenean ainbatekin, edo gutxiagorekin, jaioterrira biribillatu oi diraden uanditu oen galanteorik aundiena da, etxera sartu bezain laister, beren guraso eta senidai esatea ezik, *Eh, callad, no hableis mas esa gerigonza propia sola de salvages ó de un rancho de gitanos: vergüenza he que me conozcan por el acento los castellanos, que yo tambien soi de turriz aburnis.*

Eta oraindik are ikusgarriagoak eta adigarriagoak dirade oen guraso eta senide txoroak, nola egon oi diraden beren auzoetakoai esanaz, *Gure seme kanpoetan genduenan bart etorri zaiku etxera, txit galanturik, osasunarekin, eta guztiz jakinduria aundiakikoa. Aztu zaio bada euskera guzi guzia, ez du itztxo*

hat bakarra ere ez, esaten, eta ez endeglatzen edo konprenditzen itzkunza onetan. Eta are gutxiago nai du bestek itzegitea ere. Beragatik, baldin arekin nai badezute itzegin erderaz bearoko diozkatzute adierazi zuen esakariak, nolabait bederik, bestela aserratuko zaio, portitzkiro ala ere.

Oek eta beste onelako milla astokeria esanarekin, uste dute egin txit jakintsun, beren seme eta anaia txoriburu puztua.

Jakinduriaren gordeleku guziak txit beterik, gañez eginta, alde guzietatik txirrian badariotela uste duten oek, edozein biltokitan beren erritarrakin batutzean, iraiñzat daukate itztxo bat ere euskaraz esatea. Eta iñoiz edo berriz agertzen badu norbaitek euskarazko itzkriburik, galanteorik aundiena dute esatea ezik, ezin irakurri dutela, eta are gutxiago endeglatu edo konprenditu zer esan nai deban.

Gisa onetan mintzatzearekin, nai dute eman adi-tzera ezik, badakitela dana eta datakean guzia. Egiazki, izan oi dirade enzuleen artean -ez ala ere gutxi- uste izaten dutenak ezen, erausle txar beretan arkitzen dala, jakinduriako putzu ondorik gabekoa; baña ez derizkiot nik, euskara ezin irakurri duela, eta

are gutxiago endeglatu esaten duen euskalduna izan al ditekeala, txit zenzu aundiko gizona.

Dierria edo Nazioa guzien artean ezagutu diraden gizon jakintienak begiratu izan diezate beti, ala euskarari, nola euskaldunen oitura eta jostallu gogoangarriai, txit arreta aundiarekin, oarrez ta artezaz ala ere.

Aditu bear dezute bada, nolako itz erazko gozatsuakin aundizkatzen dizkiguten gure dantza oniritzi pozkarriak, lau gizon jakinti, euskaldun ez diradenak.

Marina, Traggia, Gonzalez Arnao, eta Abella jaunak argitaratu duten itztegi luziazaltar edo dikzionario geografiko, Españaiko kondairaren lenengo tomoan 326 garren orrian, esaten dute onela:

Gipuzkoako jostaldien artean jabetuena kontatzen da pillotako jokua, guziz miretsia dalarik joku onetarako toki señaletua ez duen erria: guzietan onena da Oiarzungoa, neurkidatua aundigo askorekin. Gipuzkoatarrak txit eresiatuak ere dirade zezenkoen eiagoetara, zeñean ospatzen dituzten beren errietako Done godartari eta gaizendatuen egunen bidaramunetan. Igande eta jai egun guzietan batutzen dirade

plaza agirikoetara gizonak eta andreak dantzatzen danbolinaren soñuan eta txilibituarenean, erriaren oslankai egokia eta berekia: zeñean aslea edo autoreen batzuek sinistatzen duten dala anziña anziñakoen baskatibia sonatua, esango bagendu bezala euskaldunen txilibitua. Dantzak dirade grabetsuak eta aundientzuak, batez ere gizonak bakarrik asitzen diradenean, osekitzen dituztela zeremonia eta kortesia anitz emakumeak aurkeztutzen diezaten artean, eta orduan asitzen dirade dantzatzen, zeña deitzen diraden zortzikoak. Askotako dantza onezaz gañera badira besteak, nola ezpata dantza Gorputz egunetan eta Done godartarietan 1660 garren urtean, zeñetan Felipe IVgarrenak beaurkitu zuen Donostian Gorputz egunetan egin izandu zan donesoaita edo prozesioan dantzatu zuten ezpata dantza au 100 gizonen, eta oraindik gordakaiatzen da bibiursa edo distiko eskaldun bat, zeñetan azaldutzen dan dantza mota au, eta esaten du onela:

Karlos Kintoren baratzan Akerrak ezpata dantzan

Benturaz zeña dan perkearen bat euskaldunen batzuen kontra, nola ainbeste oi zan Karlos kintoren Jauregian. Tolosako errian Done Juan bere godartariaren egunean egiten da beste dantza bat makillakin edo sataiakin zeñari esaten dioten pordon dantza, Beotibarko batalla ospakoiaren oroitzapenean, zeñagatik itz egiten dan Berastegiko ibaiaren berezinde edo artikuluan.

Gipuzkoatarrak, zer geiago naikidatu genezake bada, onelako lau gizon gogoangarri euskaldun ez diradenak, itz erazko ain gozatsu maitagarri oek argitaratzea baño *Los bailes son graves y majestuosos?* Eta denbora berean, zer gauza lotsagarriagorik eta mingarriagorik izan al diteke, erri bereko aizebelats ezjakin batzuek muxindurik ixekaz esatea baño *Nuestros bayles son mui semejantes á una recua de machos?* Ha txoriburu puztu gaxoak! Zuek bai dituzutela mandoakin astoen antzak, eta ez gure dantzak.

Aienatu bear ginituzke gure erritik, sekula betiko, ezertarako ere gai ez diraden muxinkari txar. izjario motel prestuez oek; eta naitasun irazekiarekin biotzaren erdi erditik maitaturik, estalpetu ongitxo, arako,

beren eta gure asaba gogoangarriak irudikatu naiaz, plaza agirikoetan, sorterriko dantza oniritzi pozkarriak, egiten dituzten gure anaia prestu aiek.

Euskaldunen odolekoak diradena ezagun duten galai gazte onesbedagarri oetakoak senti ditut Donostiako uri leñargitian, izendatzea onkai edo merezi dutenak, zeña diraden:

D. Jose María Leizaur, D. Benito Echagüe, D. Elías Legarda. D. Joaquín Yun, D. Joaquín Jáuregi, D. Fernando Gainza... Baita ezkonduak ere D. José María Garayoa, D. José Ezeiza, D. Joaquín Arizmendi, D. José María Estibaus eta beste beren kideko anitz.

Jendella maitagarri au aurrenengoa bada ere, ez da lotsatzen, lenago izendatu dituran aundi ustez betetako aiek bezala, plaza agirikora irtenik, beren asaba gogoangarriak irudikatuaz, sorterriko dantza oniritziak egitea.

Urte guzietako Ostegun gizen egunetan, egiten dute beren plaza agiriko, berri, eder, bitorean, gizon dantza oniritzi pozkarri bat. Ez ordean nolanaikoa, baizikan ongi ezagun duena bere zati guzietan, txit erritarkia dana.

Biribillatzen dituzte guziz arazo aundiakin, baserri etxerik señalatuenetan arkitzen diraden anziñako

soñekoak: eta berakin txukinkiro apaindurik, karrika guziak barrena dantzaten dira, soñu bere bereki gozoa joaz, ikusle eta enzunleak naikidara pozkizatzen dituztela.

Donostiar prestu jostatiak eman dute aditzera, benazki ala ere, beren jaioterriko dantza oniritziakin soñu zar gogoangarriak maite dituztena. zergatik portizkiro birjaioturik egurastu dituzten, beren plaza berri, eder, bitorean, naierara.

Nondik eta nola etorri dan gure dantza, dantzari, bolingojo jotzalle, ela txilibitularien galera

Sinistatu bear dezute bada egiazki, danboliñ otsa-kindarietatik etorri dana gure dantza, dantzari, bolingojo jotzalle, eta txilibitularien galera guzia. Egia ziertoro au ipiñiko dizutet begien aurrean argiro, eta txit erraz ezagutuko dezuten moduan.

Lendabiziko jaiotzatik dituzte Gipuzkoako dantza mota guziak, zeñek bere soñu banaita txit ezagunak, aspaldian arras aztuak egon badira ere.

Ez dute ezagutu izan beñere, dantza oneski oek, nork bere izen egokiakiko soñu gozoak baizik, alik eta, txilibitua otsankidan edo musikan jarri zuten arteraño. Beragatik gordakaiatu izan dirade ainbeste urteren buruan aiñ zuzenkiro, eta naspillatu gabetanik.

Oslankai edo instrumentu erriaren txit bereki au otsankidan ipiñi bezain laister, asi ziraden denbora bereko danboliñik jakintsuenak, jaioterriko dantza ondrosoai beren soñu zar egokiak kendurik moldakaitzak aterata jotzen; beren iritzian, ederrago iduringo zutelako modako jantzi berriakin, anziña anziñakoa-kin baño. Uts egin zuten bada erdi erditik oek, eta ondorengoak ezin azertatu oi dute bazter bazterretik ere; ez eta asmatuko ere, alik eta, lenago beren berenkiak zituzten soñu egoki eta gozo aiek, ongi ikasi, eta zuzenkiro jo ditzaten artean.

Ez det esaten nik, ez eta nai ere esan, gauza ona eta aundia egin eztutela danboliñ oek txilibitua otsankidan jarrea, eta berarekin soñu berriak jotzea; baizikan diot, eta jardungo ere det, guziz dala kaltarkitsua euskaldunentzat, dantza oniritzi oen soñu garbi txit ezagunak arras aienaturik, osotoro aztutzen uztea.

Oarketu zaitetze bada ongi, itzaurre edo prologoan ezarririk daukadan Damon Athenastarraren erabaki edo sententziaz. Jakinduria aundiko gizon sonatu onek esaten du ezik *ezin ganbiatu ditezkeala erriaren soñuak, non eta denbora beraen ganbiatzen ez dan erri beraren bizibidea.*

Uste det bada nik, bazuela gizon gogoangarri onek mirari banaitaren bat, egiazko erabakite au argitaratu zueneko; zergatik arkitzen naizan argiro ezaguturik, gure dantza onrosoak galdu diradena soñuak ganbiatzearekin, beste gabe.

Badakit nik au aditzean esango dutena askok ala ere, (baña guziak izango dira, dantzaren berririk ez dakitenak, azaletik bedere): *zer bada, zortziko zarrak eta berriak ez dirade puntuetan berdiñak? Zer gutxiago dute bada oek, aiek baño? eta, zergatik ezin dantzatu diteke bata bezala bestea?*

Nere esakari guzien artean dan izkairik txikiena bada ere au, beraren gañean nai diotet eranzun bertatik ezen, zortziko lenagokoak, eta gaurko egunean ateratzen dituztenak izan arren puntuetan berdin berdiñak, dantzaria dabillega aietan beldur gutxiagorekin, eta naikida geiagorekin askoz ere, oetan baño. Esango det zergatik:

Lenagoko zortziko guziak oi ziraden, itz neurtu edo bersoakin kantatzeko atereak: eta ala, etzan nere gazte denboran berak gabetaniko zortzikorik ezagutzen, bat bakarra ere. Zortziko txit garbi, leun, eta gozatsu oek beren itz neurtuakin batean, ume txiki-tarañoako guziak ikasi oi zituzten Gipuzkoan. Guziz ugaritsu baziraden ere zortziko oek, etzan bat bakarra ere, bere izen jakiña etzuenik. Edozein zortziko jotzen danboliña asi bezain laister, esango zioten enzunleak alkarri, *au onelakorena, eta ura alakorena da*. Dantzaria dantzan zebillen denboran, noiznai esango zion danboliñari *jo itzatzu onelako, eta alako zortziko*, beren izenakin.

Berriz gaurko egunean ez dute ateratzen, eta are gutxiago jotzen, itz neurtuakin kantatu litekean zortzikorik bat bakarra ere, baizikan oslankairakoak. Zortziko berri oek aiñ dirade naspillatuak, eta berri-txuak ezik, ez da ain gizon jakintirik, beretan, itz neurtu bat kantatuko lukeanik, txilibituan eragiten diozkaten zatirik geienak gutxitu edo kendu gabe. Eta uste baldin badute baietz, nik ezarriko diotet emen beeran itz neurtu bat, lenagoko zortziko guzietan egokidatzen dana:

Nere maite polita
Nola zera bizi
Zortzi egun onetan
Etzaitut ikusi
Uste det zabilzala
Nigandik igesi
Ez dirazu ematen
Atsekabe gutxi.

Zeñek naiagoko ez du bada enzun, txilibituaren soñuan ere, itz neurtu gozoakiko zortziko, ezen ez gabekoa? Danboliñak jotzen duen soñua baldin bada itz neurtuakikoa, enzunleak oarketzen dirade itz erazko egokintsu aiezaz, eta berak ongi barnatu edo penetraturik, pozkidatzen dirade naikidara. Baña itz neurturik gabeko soñua, izan arren berri berria eta txit berritxua, edo guztiz eginkizun aundiak txilibituan dituen danboliñak jotzean, zer beakarri edo objeto aurkeztu al dakiozteke enzunleai? Ez besterik, ez bada, danboliñak dituela beatz azkarrak, eta mingain ariña, eta beragatik jotzen duela ain soñu berritxua.

Nola nai dezute bada, gisa onetako zortziko illun, itxu, eta gorrak, ikasi ta naikidatu ditzaten, batez ere,

nekatzaleak? Zeñek ukatu bear du, dantzaria, beldur gutxiagorekin, eta pozkida geiagorekin dantzatuko dana, ongi ikasirik, sarritan ibilli izandu dan zortziko ezagun aietan, beñere enzun gabeko arrotz naspillatuetan baño? Guziz sorra, eta txit ezjakiña izan bear du, egia argiro au aitortu nai ez duena.

Arki al ditekean gizonik jakintsuenari, toki agiriko batean irakurteko, ipini dakizkiola bi izkribu: bata txit sarritan irakurririk ongi ezagutzen duena: eta bestea, beñere ez ikusi eta ez enzun debana. Zein autatuko du bietan? Gauza jakina da berezituko duena, askotan bertigarorik daukana, ezen ez begien aurrera beñere aurkeztu etzaiona. Baita dantzariak ere naia-goko debana, lendanaz ikasirik argiro ezagutzen duen soñua.

Jarri begizkio bidaje jakin bat egiteko, edozeiñ gizoni, bi bide, alde guzietara berdin berdin diradenak: eta bietatik, bata anitz bider igaro izan badu, eta bestea beñere ez, zeñetan naiagoko du ibilli? Utziko du ezagutzen ez duena urruñaturik besteagatik. Bere bat egingo du bada dantzariak ere soñuakin.

Zortziko zar ta berriak, dituztelarik puntu berdin berdinak, baldin beretan dantzatzeko arkitzen bada ainbesterañoko banaita edo diferenzia, zenbat eta

zenbatez aundiagoa billatuko ez degu, gure asaba zenzutsuak dantzarien jakinduria norañokoa dan ikusteko asmatu zituzten soñu zar gogoangarri aietan? Laugarren zatian ikusiko dezute ongi, zenbaterañoko jakinduna eta oroitzapena bear dituen, soñu zarrak bear bezala dantzatuko dituenak.

Oraingo danboliñ otsankidari aundien izaera, eta eginbide kaltarkitsuak

Gaurko egunean danboliñ izan nai duenak egiten duena da, arki al ditekean otsankidari edo musikorik sonatuenagana joatea, bere langintza ikastera. Egia da maisu jakinti onek erakusten diona, otsankida txit ongi, soñu berriak ateratzen guztiz ederki, eta txilibitua jotzen are obeki. Bañan ez dio erakusten, ez gizon dantza bati, ez esku dantzai, ez ezpata dantzariari, ez brokel dantzariari, ez pordon dantzariari, ez jorrai dantzariari, itz batean, Gipuzkoako dantza mota ugarien arteko bat bakarrari ere, soñua nola jo bear zaion; eta are gutxiago, beren soñuak zein dituzten.

Nola erakutsiko diozka bada, baldin ez dantza oen eta ez beren soñuen berririk, azaletik bedere, ez badaki?

Irakasle gazte onek, soñu berriak atera eta jotzen txilibituarekin ikasten duenean, danboliñ ona izateko geiagoren premiarik ez balu bezala, joaten da bere errira, bizkarra bete bezikai edo papel soñu berri arrotzez zikindutakoakin; otsankidariaren izen aundi ura bere buruari erantsi diolako, guzia pozturik, arroturik, eta txit aundi ustez beterik, ez daukala iñor ere ezertan, naiz dala aundi eta naiz txiki.

Guztiz arazo aundiakin biribillatzen ditu Franziatik, Italiatik, Inglaterratik, eta nork daki nondik, modako soñu arrotz guziak; eta bere jaioterrikorik ez du nai, bat bakarra ere ikasi: ez eta beren izenik aditu ere.

Erbesteetatik biribillatutako oek berak ateratzen dituen zenbaitekin naspillaturik, irteten da plaza agirikora, darauskiola marmariza bat ain zalagardatua eta arrotza euskaldunenzat, nola izango litzakean txinoen itzkunza, beren esakariak adierazotzeko.

Gaurko egunean Gipuzkoan arkitzen diraden danbolin otsakindari gazte guzien artean, ez da inor ere dakienik, ez alkate soñua zer dan, ez amabots mira-

riena, ez alboraketako martxa anziñakorik, ez saltarintxo bat, ez soñu zar gogoangarri aietakorik, ez eta azkenik, jaioroko gizon dantza bati soñua zer gisatan jo bear zaion ere. Eta baldin baderizkiote baietz, begiratzea daukate ongi, gizon dantzaren azaltzean ezarriko deran irakaste edo instrukziora; non ikusiko duten argiro, gauzarik premiazkoenak ikasi bearrak dauzkatena.

Egia da, bakar bakarrik Donostiako Latierrok jotzen duena ongi ezpata dantzariakin, gizon dantzaren soñua; baita ikasi dituen ere soñu zar gogoangarriak, baña ezdakit berak jotzeko txit gogo anitz ote duen.

Lenago jarriko lirake oraingo danboliñak, soñu zar bat jotzera baño, bi agin ateratzera. Onenbeste esateko dinbat eta are geiago ikusi izan det Gipuzkoako plaza beakurtsuetan, danbolin otsankidariakin; non ta nola, eta zergatik, azalduko dizuteraan bezala.

Danbolin oek beren eginkizun guzietan, eman diote, jaioterriko soñu gogoangarriak urruñaturik, erbesteetako naspillatuak jotzeari.

Alboradak ematera dijoatzenean, ixil ixilik aurkeztuko dirade etxe-atarian, non asiko duten Inghaterrako minue edo mindue, eta bukatuko dute, Franzia

balsakin edo atsakin. Oek eta okerreko dantza Turkia-koen soñuak dirade, oraingo danboliñak darabilzate-nak gora ta bera, atzera ta aurrera, zearka ta saies-ka, zuzenka ta okerka, amilka ta zilipurdika, eta, nork daki nola?

Esan begit nork nai, zenbat zor diezaten gure martxa zozo anziñako gogoangarriai beren saltarin-txo pozkarriakin, gaurko egunean txit gauza aundi-tzat darabilzaten soñu arrotz naspillatu oriek? Artuko liketekek pozik, aien itxura, eta gibel aunditasuna. berritxu txar oek.

Okerreko dantzen soñuak, minduak, eta atsak, alboraetan jotzen dizkiguten iraingarri oek, txakurrak eransirik biraldu bear lirake etxe-ataritik, ikasi deza-ten, guri geren asaba maitagarriak egindako azaña aundiak argi eta garbi aurkeztutzen dizkiguten soñu gozo pozkarriak, jotzen.

Donesoaita edo prozesioan, zer izango da gauza desegokiagorik eta itxusiagorik andreak dantzara deitzeko soñuak jotzea baño? Ez dute bada beste soñu motarik jotzen denbora donati edo sagratu artan, gaurko eguneko danboliñak. Eta begira orain-dik asi ez litezkean denbora berean fandangoa jotzen.

Ziertoro egiazkoa izanik aurkeztutzen dituen a soñuak argiro, beraren bitartez osekitez diraden eginbideak. Zenbat eta zenbat aldiz egon izandu ez naiz Donesoaitan danboliñ oen soñuak enzutean, noiz bañan noiz dantza serbitzalleak neskatzekin datozela ikusiko ote dituran? Zer esango genduke bada, baldin apezak denbora donati artan asiko balira, txipiritonaren okasta edo tonuan, beren esakariak kantatzen? Ain itxuski da bada Donesoaitan danboliñak andreen deieko soñuak jotzea, nola apezak txipiritonaren okastan kantatzea.

Gure ama kupidakor maitagarri Gipuzkoak, urtean beingo batzar guziakikoan egin oi ditu bi done-soaita edo prozesio, bere seme doatsu Done Inaziorekin; zeñari jo oi zioten beti, lenagoko danboliñak bere martxa gozo txit sonatu gogoangarria. Galde egiten dizutet bada, ogei eta amar urte onetan Gipuzkoan alkate izan zeraten guztiai, suertez ere bein bakarrik ezun dezuten zuen erriko buruzari edo kapitan guziakiko sendagailtsuari, bere martxa aundientsua danboliñak jotzen diotela. Egia esatekotz eranzun bear dezute ezetz.

Nola etzerate bada lotsatzen, zuen asaba maitagarrien oitura eta usuario gogoangarriak zuzenkiro

gordakaiatzera batutzen zeraten jaun prestuak, egun beretan, eta zuen aurkezean ain aixa eta ardura gutxirekin aztutzera eta galtzera utzitzez, zuen anaia buruzari guziakiko sendagail Done doatsuaren martxa sonatua?

Zeiñ gutxi ausartatuko ziraden danbolin aundi ustez betetako oek, zuen guraso beakurtsuak begira zeudela, Done Inazioren aurrean, bere martxa gozoaz kanpora, beste soñu mota berri berritxurik jotzera! Bekosko aundientsuagoak zituzten ordean aiek, baita maiteago ere beren sorterriko oitura oneskiakin, soñu gozatsuak.

Jakinaren gañean egon bear dezute bada ezik, txit dala premiazkoa, eta guztiz balio aundikoa, erriaren soñu bere berekiak zuzenkiro eta maitaro gordakaiatzea. Txoriburu zenbaitek ala uste ez badute ere.

Nork sinistatuko zuen denbora batez Gipuzkoan, iru eun ta geiago urteren buruan ain gozotoro gordakaiatu izandu dan Done Inazioren martxa sonatu gogoangarria, nork eta erri bereko danbolin aundi ustez betetakoak ixekaturik, urruñaturik eta irauturik aienatu bear zutela? Ala gertatu zaiku bada nere erri-tar maiteak. Eta ez ordean bakarrik martxa gozo onekin, baita ere oraindik are lenagoko, millaka urteak

igaro arren, gure egunetaraño txit garbiro eta zuzenkiro iritsi diraden beste soñu gogoangarri anitzekin ere.

Idiak, beiak, zezenkoak eta zezenak, jendea jostaldiatzeko plazara ateratzean, lenago soñu txit berenkiarekin saltarintxo pozkarriak jo oi ziezten bezala, oraiño danboliñak jotzen dituzte oker dantzaren soñuak. Alegia, abere oek, eta beren ziraikitza-lleak, alkarri, dantzari moldakaitz aien gisako palaku nazkagarriak egin bear baliezate bezala.

Batzartar jaunai Elizara, Erriko etxera, edo beste edozein lekutara laguntzean, urteak dirade alkate soñurik jo ez dutela: ez eta plaza agirikoan ere. Eta soñu zar gogoangarri aietakorik, nork jo erazi danbolin obei? Lenago jarriko lirake erretzera ere, nere ustez.

Ardandegi, sagardotegi, eztei etxe, eta gañerako biltoki pozkidatsuetan, zein ausartatu berai esatera soñua jo dezatela? Baduk oberik. Leku jostati oetan erakidatu oi ziraden naierara lenagoko dantzariak danboliñakin; baita alkarren adiskide mami egin ere, bizia zuten denbora guziraiko. Baña gaurko eguneko danboliñak, atsegingarrizko biltoki oetara txilibituarekin joatea ez ezik, plaza agirikoetara soñu jotzera

dijoatzenetan ere, irain aunditzat daukate beren oslankaiak eskuetan eramatea: eta argatik, eginkizun onetarako bear dituzte morroiak, ikusten dituzuten bezala.

Gipuzkoako dantzari prestuak beren sorterriko dantza oniritzietan ibilteari zergatik utzi izan dioten

Gipuzkoako erri guzi guzietan ezagutu izan ditut nik dantzari egokiak, eta txit jakintsunak. Dantzari jakintia esan oi zitzaion, arako, soñu zarrik geiena zekizkien eta utsaldiarik gabe dantzatu oi zituenari; zergatik beretan dagoen, lenago ere esanik daukaran bezala dantzarien jakiunde guzia.

Soñu zarrak ongi dantzatzen zekiten gizon argi oek, jostallurik bikain arkietara biribillatu oi ziraden. Batzuek erri bereko alkateak jostalluaren ondragarri deitzen zituelako, eta besteak, dantzarako zuten eresia portitzarekin, jakindearen bitartez, beren gaitasunak agertu naiean; non erakutsiko zituzten alkarren

leian zekitzaten guziak, eta azkenean geldituko zan garaitpenarekin, soñu zarrik geiena zekizkiena.

Orduko danboliñen atsegiñik aundiena zan, soñu zarrak zekizkien dantzaria plazan ikustea; eta oraingoen iguñik mingarriena da, berak jotzeko iñork esatea. Beragatik, danbolin otsankidari oek ez dute ikasi nai izan beñere, soñu zar aietakorik bat bakarra ere; eta berak soñulari dauden errietan, dantzara irten diraden dantzari on, arki, guziak gelditu izan dirade, atsekabe aundiakin, eta txit lotsaturik, berriz dantzatzeko gogo anitz ez dutela; zergatik jo nai izan ez diezaten soñu zarrik, ez eta ere berrietan, arratzaren kolpeak, dantzarekin dantzariai egokidatzen zaiozten bezala eta lenagoko danboliñen gisara.

Arratzaren otsa da dantzarien gidaririk zuzenena, eta txit premiazkoa, gero azalduko dizuteraan bezala.

Danbolin otsankidari soñu berri jotzalle oek plazaetan jarri ziraden ezkerre, urtean urtean gutxituaz joan dirade Gipuzkoako dantzari on, arki, guziak, ikusi dezuten bezala. Eta ez du onezaz iñork ere zer arritu; zergatik gertatu izan diraden Gipuzkoako plaza beakurtsuetan, mingarrizko eginbide prestuez asko, danbolin aundi ustez betetako oek, beren sorterriko dan-

tzari jakintsun, pozkidatsu, ondragarriai, egin izan diezatenak.

Txilibitua otsankidan jarri zutenetik amar urte baño lenago asi ziraden, soñu zarrak eskatzen zituzten dantzariai, plaza agirikoan, lotsagabekeriak ausardia aundiarekin esaten.

Orain dalarik 34 urte gutxi gora bera. Done Bartolome egun batez, Ibarreko plazan zer gertatu izan zan dantzari jakinti batekin danbolin otsankidariaren artean, azaldu bear dizutet, jakin dezazuten zein kaltarkitsuak ditugun soñu berri jotzalle oek.

Arratsalde jostati artan, D. Mateo de Gurutzeta erri bereko alkate arkitzen zala, atera zuen gizon dantza aundientsu bat, D. Martin Mendizabal. Belaunzako alkateak, urte guzietan oitura bera duten bezala.

Mendizabal au izanik dantzari egokia eta soñu zarrak txit ongi zekizkiena, esan izan zion, arako, Ila-rio danbolin txintxarri aundi aundiakiko ari, jo zegiola San Sebastianen izenarekin deitzen dan soñu zar pozkidatsu ura. Eranzun zion, plaza betean, danbolin poztu onek ezik, etzala sasi danboliña ura artzai soñua jotzeko, ez bada, berak ateratako berri, iñork ere lenago enzun gabekoak, eta dantzatzea zeukala, ark jotzen ziozkanetan.

Ainbesterañoko lotsa eta atsekabea artu zituen gizon prestu ark, ezen etzuen dantzatu nai izan bate-re.

Ibarreko alkate jaunak, danboliñari deiturik, agindu zion jo zezala dantzariak eskatzen zion soñu erriaren berekia, baña etzion nai izan obeditu, ausardiarekin eranzuten ziolarik lenago autatuko zuela presoindegira edo karzelara joatea, ezen ez soñu zarrik jotzea; eta baldin Jaungoikoak ematen bazion ogei urte bizia, artetsi edo logratuko zebala, soñu zar guziak, txit arras, sekula betiko, galtzea.

Ibarreko alkate jauna izanik ain gizon prestua, eta zenzutsua, esan izan zion ezik, *nere erriko Done godartari edo Santu patroiazen egun pozkarriari begiraturik, ez det nai egin zurekin, bear nukeana: eta joan zakizkit berel bereala nere plazatik, zure txilibitu, arratz eta soñu berriakin.*

Esan ta egin. danbolin arrotu au biraldurik, erakarrizuen Juan Inazio danboliña Tolosatik, zeñaren soñu gozo erritarkietan jostaldiatu ziraden naikidara.

Beste aldia batez geiago egin nai izandu zuen Ilarrio danbolin sonatu ark, Done Juan goiz batez Tolosan.

Erri leñargiti onek, bere Done godartanaren egun otsandiko artan, urte guzietan egin oi du, Gipuzkoatarren ondragarri beti izan ta izango dan pordon dantza gogoangarria. Arako, Vizconde de Anai, Naparroako Eronde edo Gobernadorea, 1321 garren urtean bere indar guziakin Gipuzkoa txit arras soilldutzeko asmoa arturik etorri zanean, Gil Lopez de Oñez gure erritarrak, bere anaia maiteakin Beotibarra irtenik, guzia urraturik, zatiturik, laisterka eta arin aski biraldu izan zuen batalla sonatu aren oroitzapenerako.

Pordon dantza gogoangarri onek izanik, lendabiziko jaiotzatik, soñu bere bereki gozoak eta txit ezagunak, Ilario danboliñak jo nai izan ziezten dantzariak, berak ateratako berri berriak. An ziran ikustekoak, danboliña, eta dantzariak: ark ez nai jo soñu zarrrik, eta oek berrietan dantzatu nai ez. Geroenean beartu ziraden dantzariak, alkate jaunari deitzea, eta onek, bere asaba maitagarrien oitura oneskiak gordakaiatu nai zituen Gipuzkoatar prestu jakintsunak bezala, agindu zion danboliñari, jo zitzala ordu onarekin arentzat pordon dantzak, ainbeste urteren buruan bereztzako ezagutzen zituen soñu garbiak. Miniztatu edo reprenditu ere zuen gogorkiro, begira zuela urreneko

aldian Gipuzkoako dantza motai soñu berenkiak baik jotzeko asmorik artzen bazuen.

Danboliñ aundi oetako bati aditu izan diot neronek, naiago lukeala makillazoak artzen egon, ezen ez, ezpata dantzaren sorñua jo. Dakigularik bada zier-toro, soñu pozkidatsu gozo au edozein denboraz dan-boliñak jotzean, ez dala gelditzen gure errian, ez zarrrik eta ez gazterik, ez txikirik eta ez aundirik, ez okerrik eta ez zuzenik, leioraño bederik irten gabe, beraren bitartez argitaratu oi diraden berri onak enzutera (au da, dantzaririk ez danean), ez da mingarria Gipuzkoatarrentzat dollorkeri txar oek aditzea, norgandik eta erri bereko danboliñetatik? Uste det dala mingarri ez ezik, txit iraingarri ere.

Ez da txit egun asko enzuten niotela, irurogei ta amabina urtetan igarorik arkitzen diraden bi gizon prestu, dantzari, jakintsunai, zeña diraden Jose Domingo Bera Berako, eta Vicente Masu Martiñeko, beiñ batez zer gertatu zitzairen Erretereriako plazan, danbolin otsankidariakin:

Erri leñargiti artako alkate jaunak, diakinde edo funzio egun otsaundiko batean, bere plaza ondratze-ko deitu omen zituen dantzari jakinti oek, gizon dan-tza beakurtsu bat egitera. Bada, esan al guzien gañe-

ko atseginarekin joan baziran ere beren gaitasunak agertzera, laster biurtu omen zitzairen pozkida ornitua atsekabe minkaitzera, zergatik danboliñak etziozkatzen jo nai soñu zarrak: ez etzekitzaten bearrez, bañan bai, jotzea ez ezik beren izen ondrosoa aditzea ere txit iguñ aundia zutelako.

Gizon prestu jostati oek arkitzen baziran ere, denbora berean dantzarako sasoirik onenean, bertatik artu omen zuten asmo txit irmoa, geiagoren geiago, danbolin otsankidarien soñuetan ez dantzatzeko. Baita gordakaitu ere zuzenkiro beren naidarra edo determinazioa.

Beiñ baño geiagotan esan izan dirate, ala dantzari jakintsun oek, nola beren kideko askok, gaurko egunean ere, baldin eta enzungo balituzketeke gazte denborako soñuak, irtengo lirakeala dantzatzera.

Luzatuko nuke geiegi, azaltzen ari bear banu danboliñ otsankidariak, ogei eta amar urte onetan, Gipuzkoako dantzari prestu jakintsunai plaza agirikoetan egin diezaten ixeka eta urruña guziak. Beragatik lajatzen diot ezarri dituranakin; baita ere uste deralako, badiradela aski, gizon sentigarri guzien ezagunderako.

Zein gizon izango da bada aia sorra eta ezjakiña, argiro ezagurik nabaro aitortuko ez duena, Gipuzkoako dantza oniritziak eta dantzari pozkarriak, danbolin-etatik galdu diradena?

Gauza jakiña eta txit segurua da, baldin danbolin-ak ikasi eta jo izan balituzte soñu erriaren berekiak, lenagokoak bezala, gizon sasoiakoak dantzatzeari utziko etziotena. Baita ere egia da argiro, oek dantza-tu izan balira, ondorengoak bere bat ikasiko zutena. Baña naikidako soñu erritarkiak enzuten etzituztelako engurruturik lajatu zioten dantzatzeari aiek; eta oek ez dute ikasi izan zortzikoa zein oñekin asi ere.

Egia ziertoro au billakindutzeko ez dezute bide zuzenagorik eta seguroagorik, danbolin zar banaka batzuek dauden errietara begiratzea baño, non ikusiko dituzuten dantzari egokiak eta anitz; baña ez, otsankidari aundi aundiak soñulari dauzkatenetan, bat bakarra ere.

Baldin nai badituzte arkitu dantzari ederrak, zoazte Andoaña, Zaldibiara, eta Idiazabala, zeñetan gordakaiatzen diraden oraindik, lenagoko danbolin eskola gabeko aietakoak.

Andoañen aski dituzte zortzi egun, gain gañeko brokel dantzari aldia bi ateratzeko; baña beste edo-

zein erritan, dantzariak ongi ikasiak egon arren, bear dituzte ainbeste edo geiago, danbolin otsankidari aundi obei soñua nola jo erakutsiko bazaie. Eta ez dakit ala ere bezikairik edo papelik aurkezean ez dutela, joko ote lituzketekean utsaldia gabetanik. Guziaz ere, ez dira lotsatuko eguneko iru ezkutu, eta biderako zaldi zerralkikoa eskatzeaz.

Oraintxe dirade bost urte Andoaingo plazan ikasi nuela erri bereko seme D. Domingo Ubillos, lenago izendurik daukadana, irurogei ta amairu urterekin dantza beakurtsu bat egiten, bere tokiko danboliñaren soñuan, zeñari begira pozkida ornitu batekin ikusle guziok egon giñaden. Zein gutxi dantzara irtengo zan gizon maitagarri au, oraingo danboliñen soñu berri berritxuetan!

Gipuzkoan badira, gaurko egunean ere, gizon zar, prestu, jostati anitz, dantzara irtengo lirakeanak, baldin beren sorterriko soñu gozo gogoangarriak nork jo baluketeke.

**Danboliñak besoan
darabilen arratza,
zertarako ipiñia duen**

Lenago ere esanik daukadan bezala, danboliñaren izena dator besoan darabilen arratzetik, eta ez txilibitutik. Zein eta anziñakoa dan txilibitua are lenagokoa da danboliña edo arratza, zeñaren ots erakidatuan, aboz itz neurtuak kantatzen zituztela, dantzatu oi ziraden gure asaba maitagarri anziña anziñako aiek.

Lendabiziko dantza asmatu zuten euskaldun zenez gure aurrenengo aietatik, txilibitua etsankidan jarri zuten arterañoko danbolin guziak, jo oi zuten beti arratza, gisa batera; zeñaren otsetik ezagutzen ziraden euskaldunen eginbide agiriko guziak, ain zuzenki eta argiro, nola gudari samalda batek atabalarenetik ezagutzen dituen bere eginkariak. Arratzaren otsetik ezagutu oi genduen, batzartar jaunak, Elizara, Erriko etxera, edo beste edozein lekutara, danboliñak laguntzen zituztenean. Arratzaren otsetik Donesoaita edo prozesioa zebillenean. Arratzaren otsetik ezkonzaleai laguntzean. Arratzaren otsetik emakume lotsa galdutakoak erritik kanpora botatzean. Arratzaren otsetik gizon dantza. Arratzaren otsetik beste dantza mota, izendaturik dauzkaran guziak; eta azkenik, arratzaren otsetik ezagutu oi

genduen, dantzak zer egoitzatan arkitzen ziraden; baita ere, dantzariak noiz uts egiten zuten.

Bakar bakarrik bi gauzatan gordakaiatzen dute gaurko eguneko danboliñak, arratzaren joera txit premiazko, eta guziz ezagun au, zeña diraden gizon dantzaren asiera, eta idien irtenera. Beste gañerako guziak galdu dituzte arras, eta txit asko oi derizkiot nola ez dituzten aienatu oek biak ere.

Urteak dirade oarketu ninzala, danbolin otsankidari oek, arratzaren joera ezagunak piskaka piskaka galduaz zeramazkitena, eta beraren bitartez dantzariak naspillatzen diradena.

Nere artean seguru arkitzen baninzan ere, txit kaltarkitsua zala dantzarietzako arratzaren joera modako au, nola ez naizan otsankidari edo musikoa, uste izaten nuen ezik, berari erakidatuko zitziola gisa artan jotzea. Beragatik, txakurraren langinzan asi zan astoarena gertatu etzekidan, ez ninzan leiatutzen, alik eta D. Pedro Albeniz, Uri leial onetako batostari edo organista jakinsunak, bein batez esan ziran arteraño ezik, danboliñak, arratzaren otsarekin galkitatzen zituztela gure erriko soñu guziak; zeñak galde egin ziran, lenagokoak zer modutan jo oi zuten,

eta adierazo nionean, segurutu baitziran, egokiago zala askoz ere lenagokoena, oraingoaren aldean.

Gizon zenzutsu onek ainbesterañoko naikida eta atsegiña artu izan die soñu zar gogoangarriai ezik, guzi guziak itzkribatu ditu nik kantatuaz, bere jakiundurako. Eta ala, Eguberri egunetik asi eta Iru Errege-na artean, urte guzietan jotzen ditu Elizan, euskaldunen soñu gozo anzina anziñako oek; eta berak enzuz-tera joan gabe, txit gutxi gelditzen da Uri leñargiti onetan.

Soñu-ai, berak jotzeko pozkida artu ez ezen, jarri diezte azkenik, marka txit argiak eta ezagunak, lenagoko danboliñak nola jo oi zuten beretan arratza. Nola adierazo dizutedan gizon maitagarri onek zenbaterañoko naitasuna dioten bere erriko soñu zar gogoangarriai, ezin nezake utzi esan gabetanik, D. Manuel Larrarte, Hernaniko batostari edo organistak egin dizkidan laguntza aundiak, musikari itz neurtuak ezarten. Egiatzko euskaldun argi eta garbi onek, esan al guzien gañeko nekeak arturik, ifini dizkit nere atsegiñera, itz neurtu edo bersoak musikarekin batean. Zeiñ eta pozkidatu nauen eginbide prestu onekin, are geiago naidartu nau bere jaioterriko dantza mota guziaz ongi kargu eginik, bere seme oneskiari eraku-

sierazo dizkidalako, zeñak dantzatzen dituen gain gaiñeko mallan.

Ikusirik bada, arratzaren otsa dantzarietzako dala ain gidari zuzena eta premiazkoa, nola dan gudari samaldaentzat atabalarena, ez da mingarri geren erriko danboliñak guzia galkitaturik, arras aienatu bearra? Zertarako ditu bada danboliñak ipiñiak, besoan darabilen arratza, eta eskuko makillatxoa? Ez txuti txuti au, kasketak ematen dionetan baizik ura jo gabe erabilteko, ez bada txilibiarekin jotzen dituen soñuen puntuak, utsaldiarik gabetanik zuzenkiro dantzariari adierazteko. Naiago du bada dantzariak, txilibituari danboliñak geldi une bat eragitea, ezen ez, arratzaren kolperik txikiena ere uztea.

Izan al ditezkean otsakindari edo musikorik jakintsuenak, eta beren denbora guzian soñu jotzen eta kantatzen beti alkarrekin dabilzanak, ez dituzute ikusten Elizaetan, biltokietan, eta gañerako lekuetan soñua jo edo kantatu bear dutenean, nola beren arteko maisua ari zaioten eskuarekin edo oñarekin puntuak adierazotzen, guziak bat batean eta berdin berdinean jo dezaten? Baldin otsankidari gain gaiñeko oek alkarrekin lendanaz ikasirik dauzkaten soñuak jotzeko denboran, ain premiazkoa badute adierazotzea

puntu batetik besterañoko bide labur artan okertu ez ditezen, zenbat eta zenbatez bearrago ez dute, otsankidaren berrik azaletik bedere ez duten dantzariak, zortziko osoan, arratzaren otsarekin beren puntu guziak argiro enzun eragitea?

Izkribu bat izan arren arki al ditekean letrarik ederre-
renarekin egiña, baldin ipinten ez bazaizka, berari erakidatzen zaion bezela, toki premiazkoetan, ziboista, ziboilla, asmate, eta itamakoak, edo puntu, koma, admirazio, eta interrogazioak, baizikan, edozein lekutan eta txit bakan, zer irudingo du ezkribu ark? Ez besterik, ez bada tortika pilla bat ain zalagardatua, naspillatua, eta galkitatua, nola bere kirats eta marraskarekin nazkaturik, iguñduko lituzkean, ala esaleak, nola enzunleak. Eta baldin izkribu bera gertatzen bada suertez, enzunleak beñere aditu gabeko itzkunzan ezarria, zer serbitzatuko du obei irakurteak? Ainbeste, eta ez geiago batere, nola euskaldunak euskaraz japontarrai itz egitea. Au berbera gertatzen da bada, gaurko egunean, danbolin otsankidariakin, Gipuzkoako dantzarien artean, zergatik jotzen dituzten aek, beñere oek enzun gabeko soñuak txilibituarekin, eta arratza, kasketan ematen diotenean

baizik ez. Gaitz erdi litzake bada joko balute au, lenagokoak bezala, soñuaren denbora jakin seguruetan.

Soñuen ziboista, ziboilla, asmate, eta itamakoak ezin adierazo ditzake txilibituak, bañan bai arratzak, artarako jarria dan bezala. Txilibituari eragiten diozkatena arrigarrizko gauza aundi aundi oriek dirade *fusak semi fusak, eskala diatonikoak, trinaduak...* Eta oetako edozein utziagatik, edo bat bakarra ere naiz egin ez, dantzariari etzdio ansi, baldin aiek bear bezala eta zuzenkiro arratzaren otsarekin adierazotzen bazaiozka: baña, noiz eta eragiten diozkatena txilibituari gauzarik geienak, orduan ta daukate arratza ixilena, naiz dantzaria ibilli deriela, non ta nola ez dakie-la.

Lenagoko danboliñen soñuetan zebillen dantzaria, ain aixa ta beldur gutxirekin dantzatu oi zan, nola egunazko argian bere etxeko zurubi edo eskallaraetan gora ta beera igarotzen zan; baña oraingoenetan ibilli bear du, gabaz mendi arrotz batean bide zuzenak galdurik, noiz baña noiz, aitza beera amilduta, lepo ezurra ausiko ote duen beldurraz perill urkoan dabillena bezala. Gipuzkoa leñargiti onetan izango gerade gaurko egunean eun ta amar milla biztanle, gutxi gora beera, eta oetatik, ote dira milla, otsanki-

da edo musika zer dan ere dakitenak? Ez det uste arkituko lirakeala bosteun ere. Beraz, bosteun obei atsegin ematen zaiotelako, edo millari, bear dirade atsekabetu beste eun ta ogei eta bederatzi millak? Ez derizkiot dala txit bidezkoa, beren neke izerdiarekin bazkatzen duten danboliñak, atsekabe ain mingarrizkoak ematea, jendella prestu jostati pozkidatsuan.

Zer galduko litzaioketeke danbolin otsakindari aundi obei, eta beren soñu berrien maitatzalleai, anaia nekatzalle jostatiai beren naikidako soñu erri-tarkiak jotzearekin? Batere ez.

Ez det esaten nik, soñu berrien zale diradenai berak ez jotzeko: bañan bai, anziña anziñako gogoan-garri aiek maite dituztenai, beren atsegiña eta pozki-da betea emateko. Bere langintzarekin bizimodua sortu bear duen edozeñek du, txit premiazkoa, beze-ro guziai naikida ematea.

Dendalari batek aiñ atsegin aundiarekin egingo diozka baserritar bati, zaraula motzakin longariña luzea, nola uritarrari praka luzeakin kasaka laburra. Edo benturaz goalsuago ari, oni baño; zergatik dakien errazago naikidatuko duena bata, ezen ez bestea.

Berebat egin bear luketeke danboliñak ere, baña derizkiot, uste dutela ezik, iraingarriren batzuek dira-

dela beren jaioterriko dantza oniritziak, eta argatik lotsatzen dirala oen soñu gozo gogoangarriak jotzea. Ha ezjakin gizagaxoak! Zuek eta zuen lagun, soñu ta dantza arrotzak maite dituzuten guziak eztanda lear gaizto badagizute ere, euskaldunen dantza ondrosokak beti izan ta izango dirade, gizon sentigarri guzien begietan onesbedatuak, eta egokintsuak edo filosofikoak; zergatik arkitzen zaiezen berai senaera edo signifkazio miraritsuak, zein bere tokietan ikusiko dituzuten bezala.

Ez dezazutela uste izan txantxetan ere, orrako, gabaz gela itxietan egiten dituzten dantza nazkagarri erbesteetako oriek, geiagokoren batzuek diradela ez ezik, alderatzen zaiozkatenik ere, egunaz plaza agiri-koetan egiten diraden gure errikoai.

Enzun ezazute bada nola mintzo diraden dantzen gañean itz egin izan duten gizon jakintsunak:

Espartanoen artean dantza, etzan bakarrik gudaren ekanza, baizikan baita ere beren aurreragokoen kondaira edo historiarena, diruditenez aldeko miraritsu, zeñarekin señalatzen zituzten, gertaera igarotakoak. Erasotzen zioten etsaiari martxa eraenduakin txilibituko

soñuaren puntuan, denbora artan gudaren oslankai bakarra, eta au zan, samalda eta lerroak gorde eragiteko, ezkutuko gauza bat. Thuaides, Xenophon, Pausan, Titoliv, Plutarc, Justin, eta besteak.

Bekaldu bedi anziñako dantza oen alaitasun gudati errutsua eta adieragarria, gure egunetako oker dantza geza, tximuotaska, nazkagarri, ezer ere ez esan, eta ez senaerutzen ez dutenakin, eta ikusiko da denbora batzuetatik besteetarako usarioen banaita. Oker dantzaren izena bera dago esanaz dala dantza bat anziñako dantzaen kontrakoa; baña ain prestueza eta farragarria ezik, zeñean nagoen ziertoro, baldin ikusiko baluke sortaldetar batek lendabiziko aldian dantzatzen Europako oker dantza bat, ezin eukidatuko lukeala farra, uste izanik ezen, ero biurtu diradela guziak, mugitzen ikustean denbora eta puntu batean lanibesko tximuak bezala, eta batez ere, lotsagabeke-riazko deadarrak eta garraxiak enzutean, zeñarekin marrankatzen dan otsankidari gizagaxoa, oarketzeko oker dantzariai, osekitu bear duten irudira. Bere bat esan diteke baltsarentzako,

orrako dantza orain ogei eta bost urte Madrill diagetu oi zana algaraz farra egitera, Gortearen aldameneko landatxetan suizoak eta suizak ikustean ematen aize errota batek baño jira ta iraulketa geiago, buru kaskoak ongi berotutakoan. Esan beza ordu onean Ekabildari sonatu Mr. Marcel dantzari ospakoi Paristararak, beraren eunkiak etzuela banernetu iru gizon aundi baizik: bera, Voltaire, eta Federiko bigarrena. Iztaundu beza gelditu gabe Eronde edo gobernoen kontra etzutela saristatzen beraren trebandea argitaratzen ari dan distiazioaren arauz; eta irozotu bitez nai duten bezala otsakinda eta dantza berrien maitatzailleak, gure egunetako oker dantza eta balsetan naikidatzen dala beingoan benturaz atsegiña, jakindea, eta egin naia; nik irozotuko det beti, orrelako dantzak ezin emango diezatela era geroakoai gure argidorearen iduririk onena zati onetan.

Ez dezatela bada uste izan, balsakin oker dantzaen maitatzalleak, beretan arkitzen dala gauza obetandezkorik, eta senaera oneskirik; ez bada, naz-

kagarrizko palaku itxusi, loitsuak, zeñean ezin lego-kean berai begira, lotsaturik txit damurriatu gabe. Bañan bai anziña anziñako eta are lendabiziko etorki doatsuak asmatutako gure dantza oniritzietan billa-tzen diradena, guztiz gauza aundi, miraritsu, balioso-ak, beren senaera egiazkoakin adierazotzen dizkigu-ten bezala, zuzenki eta argiro, gure asaba maitaga-riak egindako azaña aundi anitz, eta jostaketa poz-karri gaitzik gabekoak.

Zergatik lotsatu bear dute bada oraingo gazteak, beren jaioterriko dantza ain miraritsu oniritziak egi-tea, eta bere bat danboliñak oen soñu berenki gozo gogoangarriak jotzea? Suertez ere ote datorkiote kalte gaiztorik, edo irain aundirik, dantza ondrosoe-tan ibiltetik, eta soñu onesbedatuak jotzetik? Ez det uste nik. Eta berak baldin baderizkiote baietz, aitor dezaketeke argiroki, euskaldunen odol garbitik sor-targituak ez diradena.

Egia da, txit gutxi diradena Gipuzkoan, beren jai-o-terriko dantza oneskien zale ez diradenak; baita ere ziertoraa da, gaurko eguneko danbolin otsankidari guzi guziak iguñ ezin geiagokoa dutena, soñu erritar-kietara; eta beragatik, oek soñulari dauden errietan, gure dantza eta dantzariak atzeratu diradena, azke-

nengo mallara. Baña ez orrela, zorionean bizirik arkitzen diraden danbolin lenagoko aietako banaka batzuek daudenetan.

Joan dan urteko Done Agustin bezperan, zoraturik egondu nintzan Done Teresako zelaiean, baserritar prestuak zerabilten pozkida gozoari begira. Igeldotik beren diruaren gustuz erakarritako sasi danbolin baten soñuan zortzigarren dantza zerabiltela, etxeratu nintzan. Eta sonaren sonako danboliñak dauzkaten erri aundietan, zortzi urte bear dira igaro, zortzi gizon dantza egiteko.

Baldin baserritar jostati aiei biraldu izan balie Donostiako uri leñargitiak, bere danbolin bietatik onena doarik, seguru arkitzen naiz, zortzi dantza ez ezik, bat bakarra ere egingo etzutena. Zertan dagoela uste dezute bada, Igeldotik beren diruaren gustuz erakarritako danboliñ eskolatu gabekoarekin zortzi dantza egitea, eta doarikako otsankidan edo musiko jakintsunarekin, iñork ere dantzara ez irten nai izatea? Ez da txit jakinde aundien bearrik, au zertan dagoen ezagutzeko.

Gaurko eguneko otsankidari edo musiko guzien eresia, eta griña da, eskolatu gabeko danboliñakin berak jotzen dituzten soñuai ixeka eta urruña egitea.

Azkenik, beren ustez iraiñzat ipiñi diezate izengoitia, sasi danboliñena.

Jakiñaren gañean egon ditezke bada, urrengorako, gisa onetako muxinkariak, ezen, sasiak eta mendiak, eta aiñ gutxi beretako biztanle prestuak, iraiñik ez dutela iñondik ere. Baita ere mendi eta sasietakok beretako ekaiakin eginak diradena Uri aundiak, eta oetako gizon jakintsun eskolatuak diradena, ala nai ez badute ere, aien etorkiak. Ezaguturik aitortu ere bear dute, baldin zenzuren piskarik badute, Uri aundiak, eta beretan asmatzen dituzten ikusgarrizko gauza berri guziak diradela, denbora laburraren epean, galkitaturik, kiratsa dariotela, edozeiñ aize txarrek airean arturik txit aixxa ezkututzen dituenak, beñere eziñ agertu litezkean leize zulo ondorik gabe koetan. Baña, mendi eta sasiak beretan sortargitua-kin, izan ta izango ere diradela beti ta beti iraun ta iraungo dutenak eze eze, pizkor ta indartsu, beren sasoi sasoietan.

Ixeka eta urruña baizik egiten etzaioten sasi danbolin oek dirade bada, anziña anziñako soñu gogoan- garriak gordakaiatu dizkigutenak, millaka urteak igaro arren, zuzenki eta garbiro. Eta berriz, otsanki- dari sonatu jakintsun oriek, ogei ta amar urteren

barrunen galdu dizkigutenak. Aurki esango dizutet zein eta nola autatu, eta bitartean enzun ezazute zer esaten duen gure egunetako gizon jakintsun batek:

Españian eta oraindik Frantzian ere naspillatzen dituzte banaitatu gabetanik otsankidarien izenarekin arte onetako obrak antolatzen dituzten ekabildariak, eta bakarrik adierakia, irakurten dutenak; ikusten dutelarik gai onetan lenengoa dala gizon jakinti bat, eta bigarrena ezage bat, eskola mutill baten antzekoa, zeinak irakurten duen, irudin geiago edo gutxiagorekin, erakutsi dioten irakurtza.

Baldin anziñako Espartarrak aienatu bazuten Timoteo, zergatik geiagotu zion bere turuntari laugarren otsgaia, galkitatu zedin beldurturik beren egunetako otsankida. Zer esango luketeki oraiñ ikusiko balute gure hipuiñ kanta, alkar soñu, eta ots elkargaetako iskanbilla naspillatua, zeñean iges egiñik, bide senzildetik tratatzen duten bakarrik ots lankaiak muntoitzea, eleak eta leleak zabaltzeko? Ez dakit noiz bukatuko ote dan endeglatzea munduaren lendabiziko adiñetik ez duena izan otsankidak beste

beakarririk, ez bada itz neurtulariari enzutea, esanza aundiagoa, au da, itz egiten dan ari. Joan bear du berak aboskiari manupetua, onginaiak esaten dituen kantariaren laguntzalle bezala, eta ez beñere aurrenengo mugitzalle, itz neurtulariarekin kantari, otsankida antolatu duenaren burutazio itxura gabekoetara, menperatzen dituen bezala; zergatik eresiatua joaten dan biltokietara, enzutera ta ikustera bakarrik, itz neurtulariak maneratutako leku ta iruditegi otsankidaren gozatasun ta bizitasunarekiñ esaten diradenak, eta ez aditzera oslan-kai multsu naspillatu bat, itzkiarekin lagundua, zeña, esangia gaztelarrarekiñ itzegiten dala derizkion bridak ganbiatzea. Emendik da orrako otsankida berri, zeñaren geiti aundi, eta Europakoen galgarri, azaldu diraden estalpe-tzalle portitzak; ez da geiagokoa gure egunetan, ez bada gabilla bat, okasta eta ots dunbo-tsuena, oniritzitzeko edo obekiago lilluratze-ko, belarriak, korderik txikiena ere esnatzen ez dutelarik biotz ukitzeetan. Ongi da sortaldeko dierria edo nazioen batzuek naikidatu ditezen, orrako kakarazazko burutazio otsankidarenaz,

ez itz neurtu eta ez izkira antolatua; zergatik beren itzkuntza garrazak, otskide berriztu eta geibe-txi edo silaba latzakin betetakoak egiten diezatelak benturaz eranpegarriago bakarrik otsankida lanibeskoa, ezen ez itzkirarekin; baña eguerdi aldeko dierria Europakoak etartu dezatela moda au izaeraren aĩn kontrakoa, dituztelarik izkera batzuek aĩn leñargitiak, ots errutsuak eta aboidarrez beteak, beren biotz ukitze guziak azaldutzeko, da gauza bat barkaziorik onkai ez duena. Aitortu dezagun bada otsankida arkitzen dana gaur, galkitaren mallarik goienengoan.

D. Preciso, segidilla ta otsaldi Españarren bilgoa, Madrillen moldizkiratua 1802 garren urtean.

Nork aitortu bear ez du bada, atsegiñ geiagorekin entzuten dana askoz ere, itz neurtu gozatsuakiko kanta, ezen ez gabekoa? Eta, zeñek ukatuko du, aste guzian kanpoko sokillakin borroka jardundako nekatzallea, igandean plaza agirikora jostaldiatzera dijoanean, danboliñaren txilibituko osekitze edo ejekuzio aundi aundi aiek enzuteagatik joaten ez dana, baizi-

kan bere erriko soñu leun gozo, garbi, biotza ukitzen dioten, itz neurtuakikoak?

Izanik bada egia ziertoro au aiñ argia, non gizon jakinti guziak aitortzen duten, eta ukatuko debanik ezin izan litekean iñor ere, ez da mingarri, orrako, badakitela dana eta datakean guzia uste duten danboliñ aundi nai oriek, itz neurtuakiko soñu bat bakarra ere ez jo nai izatea? *Ez jauna* eranzungo dute ezjakin puztu oek; *ezta otsankidari edo musikoaren ondra, anziñako soñu leun erraz aiek jotzea, baizikan «eskala diatonikoak», «trinaduak»... dituztenak.*

Zein gutxi egin oi zien ixeka ta urruñarik soñu zarrai, Vicente danboliñ gogoangarriak, oraingo otsankidari antustez amildutako obek ainbatekoa edo geiagokoa bazan ere. Gipuzkoatarren biotzetan sekula betiko ongi ilzaturik gelditu zan danboliñ guzien maisu onek, etzuen iñork esan bearrik soñu zar erri-tarkiak jotzeko, zeñak berriztu oi zituen, bere kabuz, txit sarritan plaza agirikoan, pozkidatzen zituelarik naikidara, ala dantzariak, nola enzunleak.

Edozein erri txikitara deitzen bazuten bertako danboliñ eskolatu gabekoarekin batean soñu jotzera, aiñ goaltsu joango zan, eta aiñ egoki joko zuen berearekin, nola otsankidaririk onenarekin. Nor ausartatu,

odei guzien gañera igorik dabiltzan gaurko eguneko danboliñai esatea, sasi danboliñaren batean soñua jotzeko? Atzera adi mutil, erori eta zati ez adin.

Sasi danboliñarekin batean ez ezik, berak baka-rik ere soñu jotzera erri txikietara joatea, iraintzat daukate oraingo danboliñ otsankidariak; zergatik beretako Alkateak baño goiagoan daudela uste duten, eta ez dakit uririk aundienetakoen ere, txit urruti ote dabilzan. Ainbesteraño igorik arkitzen dirade ezik, ez dute nai danboliñaren izenarekin iñork deitu diezaten ere, ez bada, «primer silbo», «segundo», «músico mayor», eta onelakoakin. Esan al guzien gañeko iguña diote Danboliñaren izenari, eta besoan darabilten arratzari. Oen pozkidarik aundiena da, arratzaren ordean ttuñttunarekin soñua joatea, eta, zergatik ori? Ez bestegatik, ez bada, gabaz gela itxietan egiten dituzten erbesteetako dantza mota nazkagarrietara, berekin soñu jotzera aundimeniskak deitzen dituztelako, eta nekatzalleai arratzarekin plaza agirikoetan jo bearra izaten dutelako. Emendik datorkiote bada danboliñaren izenarekin, arratz, eta soñu erritarkietara duten iguñ portitza; baita ttuñttunarekin, dantza arrotz, eta beren soñu berri berritxu zalagartatuetara daukaten naikida irazekia ere. Bera-

gatik, oberena litzakeala derizkiot nik, ttuñttuñ boliñen izen berri egokintsua, eta beren naikidakoa emanik, lajatu obei gabazko dantzari arrotzentzako soñulari, eta egunazko erritarkientzat, egiazko danboliñak ipintzea, soñu eta dantzak sortargitu ziradenetik oraindaño ezagutu diraden bezala.

Danbolin otsankidari oek izanik ain aundikoiak, guztiz miretsitzen naiz nola lotsatzen ez diraden plaza agirikoan ainbeste ume zirtzillen tartean, orra-ko, txit maite duten fandango soñu, ez asierarik, ez erdirik, eta ez bukaerarik ezagutzen etzaiona joaz egotea, Gaztelako itxu gaita zamora jotzalleak ardan-degi zuloetan ari oi diraden bezala, batetik bultza, bestetik erkoro, beren oslankaiak asko aldiz eskuetatik botatzen diezatela. Ez dute iñork esan bearrik soñu arrotz naspillatu au jotzeko, zergatik beren naikidakoa duten, txilibituari berritxukeriak eragiteko.

Nere gazte denboran, Gipuzkoako plaza beakurtsuetan debekatua oi zan, dantza arrotz, mugira itxusiakiko au egitea, baita beraren soñu zalagardatu nazkagarria jotzea ere; baña gaurko egunean, zortzi-ko gozo erritarkiak ixekaz aienaturik, bera darabilte gora ta beera, aurrera ta atzera, erdira ta bazterrera, gauza oneskiren bat baliz bezala palakatuaz.

Aditu det Ondarribiako alkate jaunak eragotzi diola bere erriko danboliñari, soñu arrotz iraingarri au jotzea. Ojala euskaldun garbi maitagarri au, Gipuzkoako bere anaia prestu guziak irudikatuko balute! Egun oetaraño aiñ iguñdua ezagutu det nik dantza lotsagarri au ezik, illun alderontz irten oi ziraden berera, bakar bakarrik, arako txermen saltzalle, masdun, errokillari, eta lotsa galdurikako neska zatar gizonkoiak; zeñean, guztiz iraiñ aundia eta gaiztoa zan, oen laguntzalle ateratzen ziraden mutillentzako. Erakutsi bear dizutet bada dantza zikiñ au nondik eta nola etorria dan Españiara:

Siria ta Egiptoko bidajari egokintsu edo Filosofo batek bigarren tomoan 39 garren berezindean esaten du ezik, sorterritarren artean ez dala dantza gudaren idurinja griegoen tartean bezala, ez eta ere biriakide bat, gure artean bezalako egikeda, eta mugida oniritziak dituen, baizikan aurketzalle bat amodioaren lotsagabekeriarik ausartatuena; zeñean dantza au Cartagotik Erromara eramanik berri txarreztatuzuen dieronde edo republikako usuarioen eror-

tea, eta azkenean Arabeak iraunkidatu zuten Españian fandangoaren izenaren azpian.

Baderizkiot bada, eman dizuterala argibiderik aski, gure dantza oniritziak beren soñu gogoangarriekin, erbesteetako zerrenda orien aldean geiagokoak diradena askoz ere ezaguturik, beretara naitasuna artuta, aspaldian baño maitaroago plaza agirikoetan egurastutzeko. Baita billakindetu ere zuzenkiro, dandolin otsankidarietatik etorri dana beren galkera mingarrizkoa. Eman nai dizutet orain, osakai edo erremedio txit eragille beardanezkoa eta guziz merkea, lenagoko beren osasun onean jarririk, birjaiotu ta pizkorturik, edertu eta galantu ditzatzuten, gizon jakintsun guzien begietan oneskidatuak diraden, zuen ta nere sorterriko jostaketa pozkarri, ondroso, gogoangarriak, eta ondorean ezarriko dizkitzutet, utsaldiarik gabe dantzatzeko irakaste edo instrukzioak, bat banaka, zein bere tokietan.

**Gipuzkoako dantza oniritziak
beren soñu gogoangarriekin**

lenagoko osasunera ekartzeko osakai edo erremedioa

Gaurko egunean Gipuzkoan alkate arkitzen zera-
ten gizon prestuak, eta aurrera izaten diraden guziak,
errazkiro egin bear dezutena da, baldin zuen erriko
oitura oneskiak maite badituzute, eta ansiatzen
badezute berak gordakaiatzera, danboliñ otsakinda-
riai ez plazarik ematea, alik eta ikasi ditzaten artean
ongi, gure soñu mota anziñako banaita ezagun guzi
guziak; eta jo erazi berak, batzartar jaunai lagun-
tzean, prozesioetan alborak ematean, zezen jostae-
tan, plazara irtetean, soñu jotzen asitze guzietan, eta
ogei ta amasei dantza gisa emen ezarri dituran
Gipuzkoatarrenetan.

Eginbide agiriko erritarki oezaz gañera ere, izan-
go dute berdin denbora eta tokirik aski, beren txilibi-
tuko jakinduria arrigarriak agertzeko, soñu berri arro-
tzak joaz.

Jai arratsalde guzietan bear zaiote plaza agirikoan
jo erazi, gizon dantza beakurtsu baten soñua osotoro,
asieratik bukaeraraño, soñu zar gogoangarri aietako
bat edo birekin, obetandezagoa izan derin. Urte
guzietan, bear dituzte plaza agirikoan jo: Gorputz

egunean, ezpata dantzarien soñua eta erreberenzia; Done Juanez, pordon dantzariena; errietako Done godartarien egunetan, brokel dantzariena; Eguberriz, billanzikoa; Urte berri egunean, txipiritona; Ostegun gizenez, jorrai dantzariena; Zalduiñatez, azeri dantzarena; eta Astearteiñatez, txakolin.

Alkate egiten danak zigorra bere eskura artzen duenetik zortzi egun barru, bear du danboliña billarsi edo examina erazi, soñu zarrak aztu ote zaiozkan edo ez; eta billatzen bazaio utsaldiarik, bear dio gutxitu alogeratik, derizkion muskilla edo multatxo bat.

Izendatu dituran eginbide agiriko guzietan, eta dantza mota erritarkietan, jo erazo bear zaio arratza lenagoko danboliñen modura, naiz ez degiola ukitu ere gañerako soñu eta tokietan.

Erri txikietan, premiazkoa dute txit, lenago oi zituzten bezalako danbolin beren eder etsiz ikasitakoak, ipintzea: batetik, otsankidari aundi oek eskatzen duten alogerarik ezin eman dezaketekeelako, eta bestetik, umillagoak diradelako, agintzen zaioten soñu motak jotzeko.

Ogei eta sei erritaraño kontatzen ditut Gipuzkoan, neronek danboliñakin ezagutuak, gaur gabe daudenak, eta izateko ere uste aundirik ez daukatenak; zer-

gatik ordean? Ez bestegatik, ez bada, otsankida edo musika ez dakien bat txilibituarekin soñu jotzen ikusi orduko, nonnai, ixeka ta urruña baizik egiten ez dioten, aundi ustez betetako guziak. Zer bada, premiazkoa da guziak otsankidariak izatea? Eta Suertez ere, Gipuzkoako dantza ta dantzariak aurrerapenik badute danbolin otsankidariak agertuaz? Biotza erdiratzen zait negarrez, izena enzutearekin bakarrik ordean, zergatik ekusten deran argiroki, berak galdu dizkigutena jostaketa ondroso, maitagarri, agiriko guziak.

Non dira, arako, erromeriaz erromeri, jostallurik jostallu, zezenik zezen ibilli oi ziraden arzai-mutil gazte, guri, galant, txilibitulari eta bolingoza jotzalle pozkarri aiek? Suertez ere ikusten dezute, gaurko egunean, biltoki pozkidatsuetan soñulari erritarkide aietakorik iñor? Zer egin zuten bada, edo zergatik ez dira lenago bezala agertzen? Baldin ezpadakizute, nik azalduko dizutet zer egin zuten, baita zergatik ez diran agertzen ere.

Mutil gazte jostati oek diakinde edo funzio agirikoetan, eta batez ere zezen illtzeakoetan, barrera gañetan oslankai erriaren bereki pozkarriak joaz egoitea, danbolin otsankidariak ezin eranpeturik debekatu izan diezatelako, alkatez, txilibituetako berritxuke-

ri aundi ugariak agertzeagatik. Gipuzkoatarrentzat guztiz mingarria dan bidegabekeri au egia ziertoraa dana jakin dezazuten, nai dizutet izendatu non ta nola ikusi izan nuen gertaera kaltarkitsu bera.

Oraiñ ogei ta lau urte Tolosako erri leñargitiak zezen iltzekoakin ospatu zituen jostallu auidan, bertan errejidore arkitzen zan D. Geronimo de Cincunegui Korrejimentuko naskarri edo eskribaua ikusi nuen, baita nik bezala beste askok ere, nola Erriko etxeko barandatik eskuan zeukan makillarekin ari zan, azpiragoko barreran bolingoza jotzen zeuden mutil gazte jostatiak zatitzen, lenago ixiltzeko berak agindu arren obeditu nai etziotelako. Aserratu zitzaian bolingoza jotzalleai, eta alkate jaunak esan izan zien emekitxo ezik, danbolin otsankidariak etzutea nai jo soñurik, aiek ixill eragiten ez baziran: bera-gatik, egin zegiotela atsegin ixiltzeaz; zeñari obeditu zioten, Cincunegui baño umilkiroago, eta gelditu ziraden guztiz lotsa aundiarekin, eta txit damurriaturik, urreneko aldian oslankai pozkarri erriaren bere berekiakin jostalluetara joateko, gogo guziak illik. Jostallu berera bilzarkindaturik arkitzen zan jendeak deadar egiten zuen, jo zezatela bolingozolariak soñua, baña danboliñak eraman zuten baza.

Alkateak, eta beren anaia batzartar jaunak, zer geiago naikidatu bear dute bada, erriko jostalluan, eta batez ere zezenatakoan, ainbeste soñulari gozo, atsegingarri, erriaren bere berekiak ikustea ta enzutea baño? Zer pozkida izango luke bada jostalluak, baldin ixil ixilla eta goibeldurik egongo baliz gozatzerat batutzen dan jendea? Jostallua, galantzen, eta pozgarritzen du, beraren gozatzerat bilzarkidatzen dan jendetzaren atsegintasunezko zegarrerak, eta zedena edo bromak. Beragatik, alkate jaunak, debekatzearen ordezt bear lituzke estalpetu bere anaia pres-tu, jostati, pozkarri, erriaren oslankai jotzalle maitagarriak. Baita ere aienatu sekula betiko, jaioterriko soñu gogoangarriak jo nai ez dituzten erausle txar iraingarri zital guzi guziak.

Ez det uste esan dezakeala iñork, iguingaitzak diradela, eta are gutxiago kaltarkitsuak, emen azaldu dizkitzuteran itz erosoak. Eta ain gutxi derizkiot izango dala euskaldunak, dantza eta soñu erritarkiak gordakaiatzea alferrikako gauza eta balio txikikoa dala iritziko dionik, zergatik sentigarri guzien begietan txit agiria dan, aurkeztutzen dituen soñuak, beraren bitartez egin oi diraden gauza mota guziak: ez ordean

nolanai, baizikan gorputzeko korde guziak esnaturik, biotz ukitzearekin ezagutzen diradela.

Sinistatu bear dezute bada egiazki, baldin soñu erritarkiak gordakaiatzen badira, dantza eta dantzariak galduko ez diradena; baita ere, oek bizi baldin badira, gure asaba maitagarrien oitura oneskiak iraungo dutena ere, eta berak ongi irozotu ezker, zorionekoak izango geradena.

Zenbat eta zenbat dierria edo nazio arkitzen ote dirade munduan, baldin euskaldunak degun doatsue-ra berentzat ezagutuko baluketeke, pozaren pozez zoro biurtuko lirakeanak? Eta guk, aiñ ardura gabeak, eta geren buruakin ondorengo guzien kaltarkitsuak izan bear degu, ez neke, eta ez gustu, aixa aski gordakaiatu ditzakegun zorion guziak urruñaturik galke-ratzeko? Ez derizkiot jaio litekeala ere Gipuzkoan, aiñ gizon zororik. Beragatik uste det bada gordakaiatuko dituztela zuzenkiro Gipuzkoako alkate jaunak, beren jaioterriko dantza oniritziakin soñu zar gogoangarriak.

**Danbolin otsankidariai
oarkera edo adbertentzia**

Danbolin otsankidariak, ez dezute uste izan bear zuen etsai aundiren bat naizala ni, eta are gutxiago, naikidatzen derala zuen txilibituko jakinduria galkera-tzea. Nere asmoak ez dirade izan beñere orretarako-ak, baizikan zuekin, nere anaia Gipuzkoatar prestu, jostati guzien onerakoak.

Nik, Gipuzkoatar anitzekin batean, naikidatzen derana ez da besterik, ez bada, jaioterriko dantza oni-ritziak, beren soñu gozoak, eta jostaketa agiriko poz-karriak, gaitzik gabeko oitura gogoangarriakin batean zuzenkiro gordakaiatzea; gure asaba onak neke gogor, portitz, anitzen gostuz, etsai ozpindu txar askoren esker gaiztoan irozotu izan zituzten bezala.

Badakit nik arkitzen zeratena ezjakiñean, zenba-terañoakoak diraden gure dantza eta soñuen mirariak, eta beren balioa; baita ere uste gabeen ari zeratena kalte aundiak berai, eta euskaldun guziaz egiten; eta etzait arkitzen dudarik, baldin argiroki azaldu dizki-tzutedan egia ziertoroak ezagutzera iristen bazerate, lenagoko danboliñak bezain ongi edo obekiago, eta askoz ere errazago ikasi eta joko dituzutena soñu erritarkiak, zeñetatik etzaitzuten etorriko kalterik batere.

Gabaz gela itxietan egiten diraden dantza arrotzetan dabilzanai bezalako naikidarekin soñua jotzen badiezute egunaz, plaza agirikoetan, zuen anaia prestuai, izango zerate maitatuagoak beretatik eta doatsuagoak, ala zerentzako, nola zuen ondorengozentzat.

Urtean iru edo lau gautan eraman arren soñu jotzera gela itxietara, dantza arrotz orietara eresiatuak, etzaituzte berak bazkatzen, ez eta bazkatuko ere; bañan bai egunaz toki agirikoetara jostaldiatzera batutzen diraden nekatzalle prestu erritarrak, beakarrri edo objeto bererako jarriak zeraten bezala. Sinistatu bear dezute, zuen soñu berri arrotzen bitartez, dantza eta dantzari erritarrak txit arras galdu diradena, baita ere plaza agiriko dantza eta dantzariak bukatu ezkeru danbolin bearrik ez dana.

Denbora dala nai zaituztet ipiñi kontuan, nola zuek bizi zeraten errietako nekatzalleak engurru aundi batekin, esanaz, dauden biltokietan ez dutela danbolin bearrik batere. Zein gutxi esango duten orrelakorik Andoañen, Zaldibian, Idiazabalen eta beste erri txiki, sasi danboliñak dauzkatenetan. Badaikit beldurturik arkitzen zeratena erri aundietako zeinbait danbolin otsankidari, noiz botako ote zaituzten

beretatik, uste dezutelarik ezen, errien beartasunean dagoela zuen izatea. Baña erdi erditik engañatzen zerate, zergatik ez dagoen orretan, ez bada zuek soñulari zaudeten errietan, urte guzian gizon dantza bat, eta ez beste erritarkirik, egiten ez dalako. Eta zortzikoa zein oñekin asi bear dan ere dakienik billatu ezin litekealako, etzerate maite.

Jakiñaren gañean egon bear dezute bada, soñuak bilzarkidatzen dituen dantzariak, beste edozein jostaketa motara bezala, ez dezute ikusten, idiaren soñua jotzen asi bezain laister, biribillatzen diradena mutill txiki guziak beren akulluakin, zuen ingurura? Eta bere bat fandangoa asitzean neskatx aurzaiak beren aiek besoetan dituztela? Gisa berberean batuko lirake bada, atsorik zarrenerañokoak beren jaioterriko soñuak enzungo balituzketeke. Eta baldin ezpadezute ala uste, jarri zaitezte plaza banatan, bi danbolin arkitzen zeraten errietan. Batak jo ditzala asmatu al ditezkean soñurik berrienak eta ederren derizkionak, eta besteak, anziñako leun, garbi, gogoangarriak. Ikusiko dezute zeñengana bilzarkidatuko dan jenderik geiena, eta non egingo diraden dantzarik oniritziak, eta pozkidatsuenak. Nai dezute au baño billabide edo prueba oberik eta argiagorik? Ez det uste izan

litekeala ere, seguruagoa danik. Irudikatu bear dezute Vicente Danbolin, zuen maisu gogoangarria, eta berak oi zituen bezain maite izan, soñu zarrakin dantza eta dantzari erritarrak: baita eskolatu gabeko danboliñakin, txilibitulari eta bolingojo jotzalle, beren eder etsiz ikasiak ere.

Bein baño geiagotan aditu izan nion danbolin guzien maisu oni, etzuela arkitzen soñu gozoagorik txilibiturako, nola ziraden, anziñako leun, garbi, aiek, eta guzien gañekoa zala ezpata dantzarena.

Esan izan ziran bein batez, nola Duke Medinacelik, bere atsegiñerako, soñu jotzera Madrillera eramani egondu zan denbora artan, deitu zuten beste askotan bezala, gau batez, gela beakurtsu batera soñu jotzera; eta dantzariak beren asper aldia artutako batean esan ziotela jotzeko, berak zerizkion soñu mota Gipuzkoatar bat; eta jo izan ziela ezpata dantzarena: ez uste izanik. aien naikidakoa izango zala, baizikan, berak gozoena zerizkiolako. Bada, ainbeste-raño gogotan sartu zitzaiotela soñu garbi au jendella goieneko ari, ezik, gerozko gau guzietan jo eragiten ziotela bera: baita dantza erazi ere askotan. Nik ekusi dedan dantzaririk ederrenetatik bat zan Vicente danbolin au.

Irakaste edo instrukzioa danboliñai gizon dantzaren soñua nola jo bear dan

Gizon dantza ateratzeko denboran, joan bear zaio danboliña dantza aurrena daramanari, txapela eskuan duela, bere ongi etorria egitera, eta bear dio galdetu zer soñu mota, eta nola jotzea nai duen. Morroi leial batek bere nagusiaren atsegiñak bezalako naitasunarekin egin biar diozka danboliñak dantzariari plaza agirikoan, bere naikida guziak, muturkarik gabe.

Baldin eskatzen badiozka dantzariak soñu zarrak, bear diozka jo osotoro eta zuzenki; bestela ez da bear bezalako danboliña. Eta ez badio eskatzen ere, txit premiazkoak ditu gizon dantza batean sei gauza jakitea, eta utsaldiarik gabe egitea danbolin ona izateko, zeña diraden:

1. Dantzan jakitea, edo bederik ezagutzea dantzariak noiz uts egiten duen.

2. Dantza darabilenari arreta aundiarekin oñetara begiratzen diola, beraren alde aldetxoan soñua

joaz ibiltea, eta dantzatzen asitzen dan toki guzietan aurkez aurke jarririk oarketzea, aldaira edo mudanza gogorren bat, lasaiegi edo estutxo egitea gertatzen bazaio, laguntzeko.

3. Dantzaren asierako soñua ez du bukatu bear, alik eta lendabiziko zubi biak aurren azkenetakoak egin ditzaten artean.

4. Dantza serbitzalleak dantza guzia andre edo neskatxez orniturik, beren eskuetarakoakin dantzara sartu artean, ez du danboliñak asi bear bigarren aldiako zubiak egiteko soñua jotzen.

5. Dantza aurrena darabiltenak eskuakin txalo txalo egitean, danboliñak jo bear du deia, azkendaria aurre alderontz jirarik, dantzatu derin; eta bere bat onek txalo txalo egitean ere, aurrendaria bere lenagoko lekura igarorik, bukatu dezan dantza.

6. Dantza bukatzean lagundu bear ditu danboliñak, alkate soñua joaz, aurren azkenetakoak beren eskuetako andre edo neskatxak lenago zeuden tokietara eramaten; baita andik Erriko etxera ere, gizon ta galai prestu dantza egin dutenak.

Esan egidazute orain zein danboliñak egiten dituen sei gauza ain premiako oek. Ez iñork ere gaurko eguneko otsankidarietakok; bañan bai lena-

goko sasi danbolin guziak, bat bakarra ere utzi gabetanik.

Oraingo danboliñai gertatzen bazaiote iñoiz edo berriz gizon dantzaren bati soñua jo bearra, etzaiozka alderatuko dantzariari, txakurra arrikazoari baño geiago; ez diote begiratuko oñetara ez ezik, arpegira ere: dantzaria dantzan asiagatik berari jaramon gabe joango dira, nork daki nora eta nola? Aldaira edo mudantzarik ederrenak egiten asitzean, anbat bukatuko diote dantzaren asierako soñua, zubirik egin baño lenago; dantzaren erdia emakumez ornitu baño lenago orobat asiko dituzte saltokako zortzikoak; txalo txaloka eskuak puskatu artean badakioke dantzaria, danboliñak deia joko duenagatik; dantza bukatzean lotsatzen dira alkate soñua joaz dantzariari beren eskuetako andre eta neskatxak lenago zeuden tokietara eramaten laguntzea, eta argatik uzten dituzte plazaren erdi erdian, nai duten gaizto egin dezatela. Oitura beakurtsu edo errespetable oek galzera utzitzez ez du bestek obenik edo kulparik, ez bada Gipuzkoako alkate eta jaun prestuak.

Zeremonia miraritsu oen senaera edo signifika-zioak azalduko dizkitzutet, zein bere tokietan, zeñe-

tan ezagutuko dituzuten argiro, txit premiazkoak diradena, eta gordakaiatzea ongitxo merezi dutena.

Gaurko eguneko danbolin otsakindariak egia da txit jakintsun daudena gabaz gela itxietan egiten diraden erbesteetako dantza motaetan; baña ain ezjakiñak arkitzen dira euskaldunen dantza agiriko ondrosoetan, nola astoak goxo giñen. Jarriko nuke zernai gauza, galtzeko beldurragatik ez dala danbolin otsankidari guzien artean bat bakarra ere, zortzikoa bear bezala dantzatzen dakienik. Eta au ez dakienak, zer laguntza modu egin diozake dantzariari? Eta batez ere soñu zarretan dabillenari? Ezin izan ditekean gauza da, gisa onetako danboliñakin, dantzaria naikidara ibiltea; eta eralde edo arrazoi aundi askorekin daude Gipuzkoako dantzari prestu guziak, danboliñetara mukerturik.

Ekusi izan det danboliña (lenagoko zar aietakoa ordea) mai aundi baten gañera igorik txilibituarekin kuarentako erregela ongi jo, eskuan zeukan makilla luze aundi batekin mai beraren gañean soñuaren puntuak zuzenkiro artu, eta ankakin egoki dantzatu, iru gauza ain egingaitzak beingoan, eta txit edertoro osekitu edo ejekutatutzen dituen.

Badakitela dana eta datakean guzia uste duten oetako bat ikusi nai nuke nik, au egingo ote lukean. Baduk oberik.

Itz batean, dantzan ez dakien, edo dantza ezagutzen ez duen danboliñak, ezin dezake egin dantzarien naikida, eta batez ere Gipuzkoatarrena, zergatik gure dantza motak diraden txit eginkizun asko dutenak, eta guziz trabesia aundikoak.

Irakaste edo instrukzioa danboliñai, noiz eta nola jo bear duten deia

Dantzaren asierako soñutik lendabiziko zortzikoe-tara, oetatik andreen deieko soñuetara, beretatik bigarren aldiako zubiak egitekoa, eta emendik saltokako zortzikoetara igarotzean, guzietan jo bear du danboliñak deia, modu onetan:

Jotzen ari dan soñu beraren azkenengo lau puntuetan bear du txilibituarekin deia joaz adierazi, beste soñu motara igarotzera dijoana, arratzaren otsa edo kolpea batere mudatu gabetanik, lenago jotzen ari dan soñutik; zergatik dantzaria edozein

soñu gisa dantzatzen dabillenean, beraren golpea edo konpasa ez badu danboliñak aldairatzen deia txilibituarekin jotzean, ain ongi eta zuzenkiro dantzatu-ko duen au, nola ura: baña deia asitzean mudatzen badu arratzaren otsa, geldituko da dantzaria ibai aundi batean igaro bear duen bati, zubia botako baliote bezala.

Gizon dantzan ez ezik, beste gañerako guzietan du danboliñak, deia jo bearra txit sarritan, zeñarekin adierazi oi zaiozkaten Gipuzkoako dantzariak, aldaira edo mudanza guziak. Beragatik jakin bear du danboliñak deia jotzen zortzi modutara, eta zortzi puntu edo konpas gisatan, modu onetan:

1. Dantzaren asierako soñuan.
2. Asierako zortziko edo dos por kuartrokoetan.
3. Saltokakoetan.
4. Andreen deieko soñu edo kontrapasetan.
5. Bizkai soñu edo kontra dantza dos por kuartrokoetan.
6. Saltarintxoetan.
7. Billanzikoan.
8. Alkate soñuan, alboradak emateko denboran.

Bigarren aldiako zubiak egiteko soñuan, eta soñu zar gogoangarrietan ere jo bear du deia, baña bere

bat jotzen da oetan, nola dantzaren asierakoan eta zortzikoetan.

Ogei urte igaroak izango dira utzi ziotela danbolin otsankidariak, bigarren aldiako zubiak egiteko soñu jakin, bereki, txit ezagun ari; zeñaren ordean jotzen duten beti dantzaren asierakoa. Lenago ere esanik daukadan bezala, euskaldunen eginbide prestu agiri-ko guziak dituzte zeñek bere soñu banaita edo partikular, egoki, txit ezagunak, beartu gabetanik beñere, bata bestearen.

Izanik danbolin otsankidari oek ain gizon jakintsu-
nak, eta bein jotzen duten soñua berriztutzea lotsa-
tzen diradenak, arritu oi naiz txit asko, nola oarketzen
ez diraden guziz gauza itxusia dana txapel batekin bi
buru estali nai izatea.

Jakiñaren gañean egon ditezke bada, gure dantza
gogoangarriak asmatu zituzten lendabiziko euskal-
dun zentzutsu aiek, izanik oek baño maisu argiakoak,
beren eginbide guziak utsaldiarik gabe ongi ornituak,
eta txit obetandezkoak atera zituztela plaza agirikoe-
tara, zein bere soñu miraritsuakin; eta ala, bigarren
aldiako zubiak badutela soñu berenkia, dantzaren
asierakoagana beartu gabetanik, ikusiko dan bezala
musikan ezarririk bere tokian.

Gizon dantzaren asieran orain jotzen duten soñua ere ez da dantza onen berekia, eta ain gutxi egokia, baizikan txilibitua otsankidan jarrita, laister danbolin berak aterea, ustez lenagokoa baño ederragotzat; baño ezeztatu ziran erdi erditik, beste eginbide geiagotan bezala, zergatik etzuten ezagutu ongi lenagokozar aren mirarizko senaera edo signifikaioa, eta ala, jarri zioten berri arin orrekin galdu zioten dantza aundientsu oni, bere jauntasuna edo grabedadea, ikusiko dezuten bezala bere tokian.

Aitorzen det nik, obeki ustean egin zutena danbolinñak, lenagoko bere soñu zarra kendurik, berria jartea, baña ikusten det argiroki, etziotena artezaz begiratu berari, eta argatik gelditu zitzaiotela illunpean beraren senaera edo signifikaio miraritsua.

Gizon dantza miraritsu oni, lenagoko soñu bere berekiak jotzean billatzen zaiozka, bost eginbide gudarakoak beren senaerakin, txit argiro, ta guziz erraz ezagutu ditezkeanak, modu onetan:

1. Dantzaren asierako soñu bereki ark aurkeztutzen du gudarako jendearen billera, zeñean gaurko eguneko gudari turunta jotzalleak ere, irudikatzen duten bera, txit osotoro.

2. Asierako zortzikoak irudikatzen dute, biderako martxa urduritua.

3. Andreen deieko soñu edo kontrapasak irudikatzen dute, gudariak etsaiaren alboratzean eraen onean jartzeko martxa donariozkoa.

4. Saltokako zortzikoak asitzean senatzen da, etsaiari erasotzera dijoatzena, zeñean denbora berean ekiten zaiozkan guziak dantzatzeari, eta arte-raño ez, aurren-azkenetakoak baizik.

5. Saltarintxoia edo arin arinka jotzean, guziak sakabanaturik nor bere gisa ibilteak irudikatzen du argiroki, batallaren azkenengo erabakitzea, eta garaitpena.

Ona emen gizon dantzaren bost senaera gudarkoak, zeñi bere soñu lenagokoak enzutean, iñork ere ukatuko ez duen bezala, egiazkoak diradena. Gizon dantza au plaza agirikoan dantzatzeak, badu beste senaera bat ere, guziz maitagarria, esango dizuteraan bezala, bera nola dantzatu bear dan erakustean.

Izanik bada dantza beakurtsu au ain gogoangarria, eta ainbeste urteren buruan Gipuzkoatar pres-tuak bere soñu señalatuakin txit maitaro gordakaiatu dutena; ez da negargarri gaurko eguneko danboliñak, bere zatirik ederrenak eta itxura egokia arras kendu-

rik, nor ta nongoa danik ere iñork ezin ezagutu dezakean bezala, soñu berri berritxu, txitxiri mitxiakin, barausturik eta likisturik darabiltela ikustea? Bai nere erritar maiteak, negargarri ez eze, mingarri, eta illgarri ere da, egoitza ain galgarrian ikustea gure erriko puskarik ondrosoenetatik bat, guzia naspillatu, eta zalagardatua, bear lukeana goienen goienengo mallan jarririk egon, gain gañekoa dan bezala.

IRUGARREN ZATIA

*Gipuzkoako 36 dantza motak
bear bezala dantzatzeko,
irakaste edo instrukzioak, beren senaerakin.*

GIZON DANTZAREN IRAKASTEA

Gizon dantzak irten bear du plaza agirikora Erriko etxeko gelatik, Danboliñaren soñuan. Gela berean jarri bear du dantzak plazara agertu bear duen modu berberean, aurrendariari eskutik laguntzen diola erri bereko alkate jaunak, eta azkendariari batzartar prestu batek.

Aurrenen azkenetakoak irten bear dute plazara beren txapelak eskuetan dituztela, eta ez dituzte janzi bear, alik eta lendabiziko bi zubiak egin arteraño, eta orduan ere agur egiñik aurrena alkarri, urrena dantzako lagunai, eta gero plaza guziari.

Plazari jira osoa eman artean ez du aurrendariak asi-bear dantzatzen, baña pausoa egin bear du beti, soñuaren puntua zuzenkiro daramala. Erriko etxeko

barandaren aurkezean asi bear du dantzatzen, toki berean arkitzen diraden jaun prestuetara begira, berai agur egiñik, eta gero, plazaren lau aldamenetan.

Dakizkien aldaira edo mudanzarik ederrenak agertzean, egingo du zubia modu onetan:

Aurrendariak altxatuko du bere ezkerreko besoa, lagunaren eskuikoarekin batean, eta oen bien azpitik igaro bear dute dantza artan dabiltzan guziak, nork bere txandan agur egiñaz, txapelak kendurik, aurrendariari. Lendabizi igarotzen asi bear duena da, aurrendariaren eskuko laguna, bere eskuiko besoaren azpitik jiratzen dala dantzaren atzerontz.

Zubia egin bezain laister, irten bear zaio plazaren erdira azkendaria bere eskuko lagunarekin, aurrendariari, non biak aurkez aurke dantzaturik dakitzaten mudanzarik ederrenak, egingo duen azkendariak bere eskuko lagunarekin zubia, lenago aurrendariak egin duen bezala, gisa onetan:

Azkendariak altxatuko du bere eskuiko besoa lagunaren ezkerrekoarekin batean, eta oen bien azpitik igaro bear dute dantzako guziak, lenago esan deran moduan agur egiñik azkendariari, nork bere

txandan. Zubi oek badute beren senaera miraritsua, laister ikusiko dezuten bezala.

Zubi oek biak egitean jotzen ditu danboliñak asierako zortzikoak, eta orduan janzi bear dituzte txapelak aurren-azkenetakoak, azaldurik daukadan gisan agurrak egiñik. Denbora onetan asiko da aurrendaria dantzatzen, eta onek bestek ez du dantzatu bear, alik eta, saltokako zortzikoak danboliñak jo ditzan arteraño.

Baldin dantzariak badakizki soñu zar gogoangarri aietakoak, jo erazoko diozka danboliñari naiien dituenak zortziko asierakoetan: orobat dantzatu ditzake, atsegin badu, kontrapasetan; baita saltoko zortzikoe-tan ere. Bañan ez badakizki soñu zarrak, asierako zortziko bi edo iru berriztutzean, joko du danboliñak dantza serbitzalleak irteteko deia, eta onen ondoren, andreen deieko soñu edo kontrapasak.

Soñu au asitzean, aurrendariak, eta azkendariak kendu bear dituzte txapelak buruetatik, eta ez dituzte janzi bear, alik eta dantza guzia emakumez orniturik, bigarren aldiako zubiak egin arteraño.

Dantza serbitzalleak, deiarekin batean dantzatik irtenik, joan bear zaiozka aurrendariari txapelak eskuetan dituztela, eta arratsalde onak eman ondo-

an, esan bear diote an arkitzen diradela beraren serbitzatzeko.

Orduan aurrendariak agindu bear die serbitzalleai, dijoatzela azkendariagana, eta esateko aren partetik, autatu ditzala bien eskuetarako berak nai en dituen etxeandre oniritzi bi.

Azkendariak eranzun bear dio mandatari berakin ezen aurrendariaren egitekoa dan bezala, berezitu ditzala ongien derizkion bi, eta bata bere eskurako gelditurik, biraldu degiola bestea, zeñarekin naikidatuko dan ura.

Eranzuera au artutzean aurrendariak agindu bear die serbitzalleai, dijoatzela erri bereko alkate jaunaren emazteagana, eta esateko aren partetik, egin dekiola atsegin beraren eskura dantzara etortzeaz.

Eramango diote serbitzalleak etxeandre oniritzi ari mandatu gozo au, baita egiñ ere, txit modu eztian-dian, eta emekitxo, zergatik guztiz minberek oi diraden dantzara deitzen dituzten etxeandreak.

Zenbat eta geiago naikidatzen duten emakumeak, plaza agirikoan aurrendariarekin azkendariaren eskuetan dantzatzea, ainbat eta aitzaki aundia-goak asmatu oi dituzte, alegia, nai ez balute bezala.

Griña onetakoak geienak ezagutu izan ditut nik beintzat.

Dantzarako mandatua artutzean asi oi dira esanaz, batean, ez dala arkitzen bear bezala apaindua, plaza agirikora, eta alako gizon prestu baten eskura joateko; bestean, obe diotela eraman gazteago, eta dantzara nola sartu bear dan obekiago dakiena; bada naiagoko duela dantzariak ere, bere atsegiñeko bat eramatea...

Eranzun bear diote serbitzalleak ezik, ongi baño ere obekiago apaindua arkitzen dala batetik, eta bestetik, ez lirakeala dantzariaren aurrera beste emakumerekin aurkeztutzea ausartatuko, zergatik dakiten ziertoro, bera baizik, eramatea naiko ez lukeana. Hitz-txurikatze oek eta geiago egin bear zaiozkate emakumeai dantzatuko denboran, eta argatik bera-gatik da txit premiazkoa irtetea dantza serbitzalleak, emakumeai nola itz egin bear zaioten ongitxo dakitenak.

Geroenean, atsegin aundiarekin eta pozkidaz beterik irtengo da etxeandre au dantzara, eta eraman bear dute serbitzalleak, erdi erdian, plazari jira osoa emanik, dantzaren atze aldetik barrena, aurrendariagana; zeñak bidera irtenik dantzatuko dituen

beraren aurkez aurke, iru edo lau aldaira, dakizkien ederrenak; baña jira osoko kabriolarik egiten ez duela, zergatik txit itxuski dan andreen aurrean dantzariak berai atze alde ematea.

Ala, etxeandre onek, nola beste edozein emakume dantzara dijoanak, bertara sartutzeko denboran egin bear die agur, lendabizi dantzara deitzen duenari, urrena, eskuiko aldeko dantza serbitzalleai, eta gero, ezkerrekoai. Agur oek egitean sartu bear du dantzara, bere dantzariagana begira aurkez aurke, zeñak emango dion eskura mokonesa edo pañueloa; baita onek ere urreneko gizonezkoari.

Mokonesa ematean aurrendariak bere eskuko etxeandreari, egingo dio itzez, goxoki, ongi etorri maitatia, lenago ankakin dantzatuaz bezala, eta ondorean esan bear dio, berezitu dezala azkendariaren eskurako, berari egokidatzen zaion moduko etxeandre prestu bat. Orduan esango die serbitzalleai etxeandre onek, azkendariari bere eskura nor eraman.

Serbitzalleak eman bear diote aditzera azkendariari, beraren eskurako zein autatu duen, aurren eskuko etxeandreak. Gauza jakiña da naikidatuko dana azkendaria autatu diotenarekin, baña ez bali-

tzake ere, premiazkoa da ekarri baño lenago berari esatea.

Aurrendariari eraman dioten gisa berberean aurkeztuko diote serbitzalleak azkendariari ere, bere eskurako etxeandrea, eta onek etartu edo errezibituko du bere lagun aurrendariak bezala.

Etxeandre oek biak dantzara eramatean, joango dirade serbitzalleen erdiak aurre alderontz, eta beste erdiak azken aldetik ornituko dute emakumez dantza guzia, eta au egitean, beren eskuetarakoakin sartuko dira dantzan, lenagoko tokietan. Orduan jo betir du danboliñak bigarren aldiako zubiak egiteko soñua, zeñetan egingo dituzten aurren-azkenetakoak beren eskuetako etxeandreakin, lenago bezalako bi zubi.

Zubi oek egitean, jotzen dirade saltokako zortzi-koak, eta orduan janzi bear dituzte txapelak buruetan aurren-azkendariak. Geroztik dantza dezake nai duen guziak.

Baldin dantzak ibilli nai badu karriketan barrena, joko du danboliñak beraren soñu banaita gozoa, zeña dantzatuaz joango diraden plazatik karriketara, ostera biurtu ere bai plazara, dantza bukatzera.

Karrikarik ez dan errietan, soñu ezagun au jotzean plazari jira osoa emanik, eserten dirade bea-

karri edo objeto onetarako egiñik dauzkaten jarlekue-
tan, non andreak eta neskatxak berekin eraman oi
duten zerbait jan gauza, eta erriak ateratzen duen
ardoarekin egiten duten guztiz atsegintasun aundiko
arratsalde gosaritxo bat.

Nere gazte denborako etxeandreak joan oi zira-
den gizon dantza oetara, beren gonagañeko beltz
arroak janzirik, eta arratsalde gosaritxoa egiteko
esertzean, etorriko zitzaion nori bere neskamea,
gona arroaren eske; zeñari au emanik jarriko ziraden
nor bere dantzariaren aldamenean, azpiko gona,
seda lisa, eta kalamankazko ederrak agirian zituzte-
la.

Ordu erdi bat bezala igarorik gosaritxo onetan,
altxatzen da dantza soñu berekiarekin, eta plazari
inguru bat ematean, txalo txalo egiten du aurrenda-
riak eskuakin, baita danboliñak ere deia jo, azkenda-
ria aurrerontz jirarik dantzatu derin.

Azkendari onek dantzatu ditzake nai dituen ain-
bat zortziko, baita soñu zarrak ere, baldin aurrenda-
riak dantza artan dantzatu baditu, baña ez bestela;
zergatik itxuski dan aurrendaria baño jakintsunago
bere burua egitea. Bere dantza aldia egitean joko du

txalo txalo, baita danboliñak ere deia, aurrendaria bere tokian jarririk, dantza bukatu derin.

Dantza bukatzean, aurren-azkenetakoak beren eskuetako etxeandre edo neskatxak eramango dituzte, lenago zeuden tokietara, danboliñak alkate soñua joaz laguntzen dituela. Orobat jaun prestu oek, soñu berarekin eraman bear ditu danboliñak, andikan Erriko etxeko gelara ere, non, eman oi zaiozkaten dantzariak, esker aundiak eta anitz.

Oarkera edo adbertenziantza serbitzalleai, eta neskatxak dantzara deitzen dituztenai

Dantza serbitzalleak beti esan bear dio dantzarako deitua dan neskatxari. noren eskura joan bear duen: eta baldin baluke neskatxa ark, ezerago edo inkonbenienteren bat deitzen duenaren eskura joateko, eta ez badu serbitu nai, ez du arratsalde artan joan bear besterengana ere; zergatik guztiz irain gaiztoa dan mutillarentzat, berari etorri nai etzaion neskatxabestegana joatea.

Onelakoetatik ikusi izan ditut nik gertatzen aserre aundiak, borrokak, eta makilkak, ala era berean plaza agirikoetan, nola ondorean beste toki anitzetan.

Zubien senaera edo signifikaioa

Gure asaba maitagarriak izanik aiñ gizon zentzu aundikoak, prestuak, eta beakurtsuak edo errespeta-bleak, etzuten ikusi nai izan beren artean, beñere, suspitxa gaiztoko gizonik, eta aiñ gutxi, dollor pres-tuezik. Beragatik asmatu zuten, zubi ondroso oetan egitea, bertikuste latzalla edo erribista txit riguroso bi: bata gizonezkoentzako, eta bestea emakumeen-zat.

Lendabiziko bi zubi, gizonezkoak bakarrik egiten dituztenak dirade, baldin suertez ere dantza beakur-tsu artan arkitzen bada, gizon prestuen tartean ezin ibilli litekean iraiñgarriren bat edo beste, besotik itxa-tsirik kanpora botatzeko.

Beste bi zubi, andre edo neskatxakin egiten diran-ak, bere bat dirade, emakumeen bertikuste latzalla egiteko; eta baldin billatzen bada beren tartean nes-katx edo andre lotsa galdutako bellaka, gizonkoirik,

ipurt-konkorrean ostikoaz jorik, andikan kanpora aterazeko.

Emakumeen bertikuste au egiteko, premiazkoa da txit, danboliñak beraren soñurik ez jotzea alik eta dantza guzia andre edo neskatxez ornitu derien arte-raño.

Lenago ere esanik daukat au bera bi aldiz; baña iritzirik txit denbora egokia orain dala ezagutzeko zein utsaldi aundiak egiten dituzten gaurko eguneko danboliñak, nai izan dizutet berriztu.

Ikusi dezute argiroki, gizon dantza bat bear beze-la egiteko zenbat guzza, eta guziak oniritziak, jakin bear diraden; baita ere gure asaba zenzutsuak plaza agirikoetan nolako beakurtasun edo errespetua erabilli oi zuten. Ausartatuko ote zerate esatera orain, *nuestros bailes son muy semejantes á una recua de machos?* Ha txoriburu puztu ezjakin gizagaxoak! Zuek baño arreta aundiagoarekin begiraturik eta zuzenkiago ezaguturik esaten dute gure dantzak gatik, lenago izendaturik dauzkaran lau gizon jakintsun euskaldun ezak. *Los bailes son graves y magestuosos, especialmente cuando empiezan los hombres solos egecutando muchas ceremonias y cortesias*

hasta que les presenten las mugeres, que entónces empiezan á bailar los que llaman zortcicos.

Gizon gogoangarri oek, bi bider aundizkatuko zituzten gure dantza oniritziak, baldin ikusi izan bali-tuzte oen senaera miraritsuak.

Asko aldiz enzun izan diotet, arako aizebelats erausle txar aietakoai esaten dutela ezik, guziz itxu-siak diradela gizon dantzako zeremoniak: batean txapelak janzi, bestean eranzi; bein batzuek besoak altxatu, gero besteak aien azpitik igaro; serbitzalleak, buru utsik, ixill mandatuetan dabilzala, eta onelako milla astokeria.

Lenago aurkez aurke itzez ixildu izan dituran bezala iraingarri zital oetakoak, orain nai diotet berai, eta beren gisako guziaz izkribuz esan ezik, oriek itxu, gor, motel ezjakiñak izana, ez dutela errurik gure dantza aundientsuak, ez eta ere, oek asmatu zituzten euskaldun jakinti maitagarriak.

Gizon dantza ondroso au zeñ gogoangarria dan obeki adierazotzeko, nai dizutet azaldu, beraren beste eginbide miraritsu bat ere, zeñarekin menekia-tu edo obsekiatzen duten Gipuzkoako erri leñargitiak beren godartarien egunetan, batak bestea.

Erri leial oek guziak dituzte alkarren artean adiskidetasun mamiak. Batzuek, mendietan bakite edo unio egokideak dituztelako, eta besteak, beren itzkai onkarri edo asunto interesatuetan anaiaturik arkitzen diradelako.

Ain zuzenki, eta arreta aundiarekin gordakiaitzen dituzte Gipuzkoatarrak beren errietako jostallu egunetan, bakite, eta anaiatasun maitati oek, nola legerik aurrenengoenak.

Jostallua ospatu edo zelebratzen dan erriko alkate jaunak, zortzi egunez aurretik gaztigatuko dio bere amameru edo alguazillarekin, auzoerriko alkate erantzukidatzen zaionari ezen, igaro deriela pozaldiako egunean beraren etxera bazkaitera, gero arratsaldean, oitura dan bezala plaza agirikoan dantza beakurtsu bat egiteko.

Deitua dan alkate jauna, atsegin aundiarekin, eta ongi adrezturik, joango da bere lagunaren etxera bazkaitera, eta baldin berak ez badaki dantzan, eramango du dakien bat bere erritik, gelditu ez ditezen plaza agirikoan lotsatan, ala bera, nola jostallua dan erriko alkatea.

Auzoerritar onek aterako du pozaldiako arratsaldean gizon dantza beakurtsu bat, erri bereko alkate

jaunak eskutik laguntzen diolarik, eta eramango diote ari, onen emaztea, baita oni ere, arena, baldin jostallura joana bada. Oitura maitagarri txit oneski au, gaurko egunean ere Gipuzkoako erri leial askok zuzenkiro gordakaiatzen dutena, beraren berri ez dakitenak sinistatu dezaten egiazkoa dana, izendatuko ditut erri banaka batzuek:

Billafrankan, Santa Ana arratsaldean, lendabiziko dantza egingo du Beasaingo alkateak, eta bigarrena Isasondokoak.

Beasañen, Loinaz domekaz, aurrenengo egingo du Billafrankakoak, eta bigarrena Lazkaukoak.

Lazkaun, San Prudenziog egunean, lenengoa Beasaingoak eta bigarrena Olaberrikoak.

Olaberrian, San Juan Txikiz, aurrenekoa Lazkaukoak eta bigarrena Idiazabalkoak.

Idiazabalen, San Blas egunean, lenengoa Segurakoak, eta bigarrena Olaberrikoak.

Seguran, Amabirjina abohtukoz, Idiazabalkoak.

Ataunen, San Martin egunean, Lazkaukoak.

Lazkaun, Karmen egunean, Ataungoak.

Zaldibian, Santa Fedez edo San Bruno egunean, zeña oi dan urriaren seian, Gainzakoak.

Gainzan, San Migel egunean, Zaldibiakoak; eta bigarrena Baliarraingoak.

Baliarrañen, Amabirjiña abohtukoz, Gainzakoak. Abalzizketan, San Juan egunean, Amezketakoak. Amezketan, San Bartolome egunean, Abalzizketa-koak.

Orendañen, Amabirjiña abohtukoz, Alegeriakoak. Alegerian, San Juanez, Orendaingoak lenengoa, eta bigarrena Ikaztegietaoak.

Ikaztegieta, San Lorenzo egunean, aurrenekoa Alegeriakoak eta bigarrena Legorretakoak.

Legorretan, Aszenzio egunean, lendabizikoa Isasondokoak eta bigarrena Ikaztegietaoak.

Alzagan, San Migel egunean, Aramakoak.

Araman, San Martinez, Alzagakoak.

Isasondon, Amabirjiña abohtukoz, aurrenekoa Billafrankakoak, bigarrena Legorretakoak.

Erri txiki guzietan gordakiaitzen dituzte oraindikan ere beren aurreragokoetatik artu zituzten oitura gogoangarriak; baña aundietan, zeñetan bear lirakean obekiago irozotu, aspaldi urruñatu zituzten jaio-terriko dantza oneskiak, eta autatu, erbesteetakoak, beren iritzian geiagokoak diradelako oek, aiek baño.

Zer gauza izan diteke egokiagorik eta onesbada-
garriagorik done godartarien egunetan auzoerriak,
ikusi dezuten moduan, alkar menekiaturik ain benaz-
ki maitatzea baño? Eta zer gauza mingarriagorik,
bakite edo unio ain elkarkoiak eta itxatsiak puskatu-
rik eta sakabanaturik ikustea baño? Uste det bada
nik, biztanleen artean dan aurrenengo gauza dala,
bakitea eta anaiatasuna gordakaiatzea, gure asaba
maitagarriak erakutsi ziguten bezala.

GAZTE DANTZA

Gauza jakiña da zarrak egin oi dituzten jostake-
tak, gazteak irudikatu nai izatea. Eginbide prestu erri-
tarkiak irozotzea zenbat eta dan, oentzako, pozkida-
tsua eta atsegingarria, anbat eta da aientzako, gozoa
eta txit naikidakoa. Beragatik jostallua ospatu edo
zelebratzen dan erriko gazteriak, eskañi oi dio beren
auzoerrikoari, dantza; eta onek egiten du, guziz esker
onean, eta txit modu eztiandiarekin, lenago bere toki-
ko alkate jauna ikusi duen gisa berberean.

Gazte dantza onetara eramaten dituzte, nork
bere erriko neskatxa gazte maitati aurrenengoak.

Plazan eseririk, dantza arratsalde gosaritxoan egi-
teko denboran, erriak ez diote zarrari bezala ateratzen
ardorik; bañan leku bereko gazteriak, bai, bere gos-
tuz, agertatzen debala bere prestutasuna, eta gura-
soen eginbide ondrosoak irudikatu naia.

Oitura gozo txit oneski onen bitartez, gazte gaz-
tetanik egiten dituzte auzoerriarrak, alkarren arteko
adiskidetasun mamiak ez ezik, anaiatasun txit itxatsi,
irmo, iraunkorrak, ere. Zer pozkida, bete, ugaritsua,
idukitzen duten zarrak, ikustearekin dabilzala beren
errietako gazteak bakite edo unio ain maitagarri mai-
tatian!

ETXEANDRE DANTZA

Dantza mota oniritzi au da, jostallua bukatu-
ri, auzoerrietako jendea etxeratzean lendarizko arra-
tsaldean, erri bereko etxeandre prestuak egiten dute-
na, beren senar maiteai aditzera emateko ezik, gizon
arrotzak begira zeudela etzutela nai izan agertu dan-
tzako jakinduria, atsekaberik ez ematearren, ala
beren senar oneskiai nola kanpotarren emazteki mai-
tatiai.

Etxeandre modu eztiandiko oek, ateratzen dute plaza agirikoan dantza beakursu pozkarri au, beres senar onetsiak eskuetatik dituztela. Eta erritar begirazalleak, ikustearekin beren nagusi ta etxeoandre prestuak dabilzala bakite edo unio ain amatuan, pozkidatzen dirade esan al guzien gañeko atsegintasunean; zeñarekin ematen dioten bukaera gozoa, erriko jostalluari. Gipuzkoako erririk geienetan da oitura, beren tokiko Done godartari edo Santu patroiak, iru egun lerrokoetan doaindutzea, ala ekintza eliztarra-kin, nola plaza agiriko jostaketa pozkarri, gaitzik gabekoakin. Beragatik eman oi zioten, nere gazte denboran, laugarren arratsaldean jostalluari, bukaera pozkidatsu bat, esan deran etxeandre dantzarekin, edo bestela jorrai dantza miraritsuarekin; bere tokian ikusiko dezuten bezala.

ESKU DANTZA GALAIENA BEAR BEZALA EGITEKO IRAKASTEA

Plazan arkitzen diradenean zaldun gazteren batzuek dantzatu naiean, eta gizon dantza ateratzeko bear ainbat lagun osatzen ez diradela, esaten

diote danboliñaki jo dezala esku dantza, eta joaten dira bi galai, neskatzak dauden tokira, txapelak kendurik, arratsalde onak emanda, deitzen dituzte beren eskuetara bi maiteen dituztenak, eta gañerakoak dantza erdira.

Aurrendariak eman bear dio plazari jira osoa, dantzan asi gabetanik, deituaz dantza erdira neskatzak etorri nai duten guziak. Modu onetan biribillatzen dituenean plazan arkitzen diraden neskatzak dantzatu naikoak, irtengo da plazaren erdira, eta dantzatuko ditu nai dituen ainbat zortziko, baita soñu zarrak ere; baña ezin dantzatuko du ez dantzaren asierako soñua, eta ez andreen deieko edo kontrapasik. Asperzen danean edo nai duenean joko du eskuakin txalo txalo, baita danboliñak ere deia, azkendaria, aurren z jirarik dantzatu derin. Onek bere bat joko du txalo txalo, nai debanean, baita danboliñak ere deia, nor bere lekuetan jarririk bukatu dezaten dantza.

Esku dantza au, esan deran bezala, ateratzen dute bi galaik, neskatzak askorekin, eta berera lenda-bizi sartutzen dan mutillak, joan bear du aurrendariak darabilen neskatzaren urrenekoaren eskura, bigarren dijoanak berriz, azkenekoak darabilenaren aldamenekoagana. Geroztik, joan diteke edozein, berak

naien duen argana, eta neskatxak ezin ukatuko dio eskurik, etsairik aundienari ere, zergatik plazara irtenik dabilen nor baño nor joango zaion irrikaturik.

Dantza onetan dabilzan neskatxa guziak, gizonnezkoz ornitu ditezen artean, ezin eraman dezake iñork beste neskatxak dantzara; baña geroztik bai, edozeñek nai duena.

Gizon dantzaetan bezala ez da esku dantzaetan egon bearrik, saltokako zortzikoen itxoroten, dantzazten asitzeko; ekin dakioke bada edozein, gogoak dionean.

Dantza au bukatzean ez da alkate soñu bearrik neskatxak beren tokietara eramateko, gizon dantzan bezala.

ESKU DANTZA NESKATXENA NOLA EGIN IRAKASTEA

Neskatxa ongi dantzan dakienek bat edo beste arkitzen danean plazan, bere dantzako jakinduria agertu naikoa, gaztigatuko dio danboliñari jo dezala esku dantzaren soñua, eta onek zortziko bera asitzean, artuko ditu eskutik bera dagoen tokian arki-

tzen diraden lagun guziak, eta emango dio plazari jira osoa, dantzatzen asi gabetanik, deitutzen dituela beste neskatxa an dauden jostaldiatu naikoak, dantzaren erdira.

Modu onetan biribillatzen dituenean, bere lagun dantzatu naiko guziak, irtengo da plazaren erdira, eta dantzatuko ditu nai dituen ainbat zortziko, baita soñu zarrak ere baldin badakizki, baña ez andreen deieko soñurik, eta dantzaren asierakorik.

Esku dantza oetan ez da egiten zubirik, gizon ta andre dantzaetan bezala; zergatik, ala, dantza aurrena darabilen galaia nola neskatxa berak, ibilten diraden -esan deran bezala- plazaren jira guzian deika dantzara sartu nai dutenai, eta gisa onetan, beren aurkezean datozenai ezin egin dakiotekean bigarren aldian, bertikuste edo errebistarik.

Saltokako zorzikoak asi artean, ezin joan dakioket dantza aurrena darabilen neskatxari, eskura, gizon-ekorik; zergatik txit itxuski dan neskatxa dantzari ark bere gaitasun edo abilitadeak agertu ditzan artean, gizonezkoak eskua kendurik galera gitea.

Asko aldiz ikusi izan det nik, ederki dantzatzen duten neskatxai, plazara dantzarekin irten bezin laister, mutill ezjakin lotsagabeak eskua kendurik, atse-

kabeturik utzitzen, ala dantza darabilen neskatxa, nola begiratzalle guziak; beragatik, onelakorik gertatzean, ez dio neskatxak eskurik eman bear, alik eta saltokako zortzikoak asi arteraño.

Soñu pozkarri oek asitzean joan dakiok e neskatxari eskura, mutill edo gizon, dantzan ongi dakiena, baña ez bestelakorik, zergatik gauza egokia ez dan, dantzari on eta ederrari, moldakaitz ezjakin batek eskua kentzea.

Edozein gizonezko joaten danean aurrena dabilen neskatxagana, bear dio oni, txapela kendurik, emekitxo eskatu eskua, eta ezin ukatuko dio, baldin bear dan denboran joaten bazaio.

Gizonezko onen urrena dantza artara dijoan beste edozein, onen kidekok, joan bear du azken eskua darabilen neskatxagana, eta eskatu berari eskua, lenago esan deran moduan.

Oen ondoren lenengo dijoatzen beste gizonezko biak, joan bear dute: batak, aurren eskuko neskatxaren urrenekoagana, eta besteak, azken eskukoaren aldamenekoagana. Geroztikoak, sartu ditezke berak nai en dituztenetara, besteak bezala agurrak egiñik nork bereari; eta ezin ukatuko dio neskatxak eskurik, esanik daukadan bezala.

Dantzara sartu bezain laister, asi diteke dantzazten, nai duena, esku dantza oetan, baña ibilli bear dute guziak modu eztiundiarekin, zilipurdika eta albo joka gabetanik; zergatik txit itxuski dan plaza agiriko batean zatarkeria mota oenik egitea.

Ez da txit urte anitz, usuario likits iraingarri gaizto au Gipuzkoako plaza beakurtsuetan sartu digutela, lenago izendatu ditudan txoriburu puztu dollor ezjakiñak; ez bestegatik, ez bada, berak ez dakiten gauzari ixeka eta urruña egin nairik, gure oitura gogoangarriak betiko galtzea ereikatzen dutelako.

Dantzan ongi dakiena, ez da beñere asiko aztalka ta puzka batari bulza, besteari erkoro, izulamilka, astoak udaberrian zaldalea iragazten oi dabilzan bezala; baizikan egingo ditu bere alegiñ guzi guziak, nondik eta nola ederkiena dantzatuko duen, eta zer gisatan ongiena argitu edo luziturik, begiratzalleai atsegiñik geiena zerekin emango ote dien.

**Danboliñai irakastea, esku dantzai
soñua nola jo bear dioten**

Esku dantza irtetean, jo bear ditu danboliñak asierako zortziko txit ezagun, leun, garbi, denbora onetarako anziñako gure guraso jakintiak jarri izan zituztenak, ikusiko dituzuten bezala musikan ezarri-rik, beren tokietan.

Oen ondoren joko ditu saltokako zortzikoak, baita soñu zarrak ere, baldin dantzariak eskatzen badiozka. Dantzariak txalo txalo egitean, bear du danbolihak deia jo, gizon dantzaetan bezala, baña ez alkate soñurik, neskatxak beren tokietara eramateko.

EDATE EDO KARRIKA DANTZA

Dantza mota au egiten da errietako Done godartari edo Santu patroien egunetan, baita ere diakinde edo funzio aundiak dituztenean, arako, gizon prestu goienengoak beren etxeandre oniritziakin dantzara irteten diradenetan, eta ez bestetan.

Edate dantza gogoangarri au egiteko eta beraren soñu banaita edo partikularra jotzeko bear du agindu alkate jaunak, eta ez bestek; zergatik soñu au jotzearekin egiten zaion txit horore aundia dantza darabilenari, eskañitzen diolako erri leñargitiak, jaun prestu

ari bere dantzako lagun guziakin batean, galantiazko arratsalde gosaritxo edo errefreskoa. Beragatik agintzen du alkate jaunak soñu au jotzeko, eta ez dantza darabilenak.

Dantza onen senaera edo signifikaioa

Dantza atsegingarri au, edateko soñu pozkida-tsua asi bezain laister, irteten da karrika guziak barrena ojuz ta irrinzika, saltoka eta gora oñka edo brinkoka, aditzera ematen diotelarik erri leial ari, guztiz asko naikidatu dutena beraren prestutasunezko eskañia. Esan al guzien gañeko pozkida ornitua agertuaz ibilten dira etxe-atari guzietan, gizon ta andre, galai ta neskatx jostati oek, pozkarritzen dituztelarik, arako, plaza agirikora ezin irtenik erakai edo motibo egiazkoakin beren etxeetan gelditu izan oi diraden aiei.

Badakigu ziertoro nola asko eta asko egon oi diraden plazara atera gabetanik beren etxeetan: batzuek dulo edo lutoak dituztelako, besteak beren adiñ edo

edadean txit aurreratuak daudelako; onelako, eri arkitzen dalako; alakok atsekaberen bat izan duela...

Gertaera oen guzien berri ongi jakiñik gure asaba maitagarriak jarri zuten oitura miraritsu au bere soñu ezagunarekin, zeña enzutean, txit gutxi gelditzen diraden Gipuzkoan, arrastaka bederik, leioetara irten gabe. Modu onetan gozaeragiten diezate bada obei, atsegiñezko pozkida ornituak, beren anaia maite jostatai.

Egiazki, nor izango da ain sorra eta mukerra pozkidatuko ez dana ikustearekin bere anaia maitatiak joan zaiozkala etxe-atarira jostaldiatzera, oroiturik artzaz, eta jakiñik arkitzen dana plazara ezin irten ditekean gisan?

Bai nere erritar maiteak. Zuek uste dezuten baño eginbide prestuagoa, eta arrigarriagoa da, dantza gogoangarri onen senaera edo signifikazioa.

Begira ezazute oarrez eta artezaz, oitura edo usuario maitagarri au jarri zuten gure asaba oneskietara, baita ere gaurko eguneko dantza berriak, gela itxietan gabaz egiten dituztenetara; eta ikusiko dezute argiroki, batzuetatik besteetara dagoen banaita edo diferenzia ikaragarria.

Aiek etziran betetzen, ez eta ere gelditzen plaza agirikoan, beren buruak eta ikustera joaten ziraden guziak pozkidatzearekin; baizikan naikidatzen zuten, oraindik etxeetan zeuden guzi guziak atsegiñgarriztu zitezten ere. Eta oek berriz, jartzen dituzte dantza egiten dan atean gudari edo soldaduak, beren eskupeta, baioneta, eta alfajeakin, ez iñori uzteko an sartzen, baldin ez badaramazki txartela, eta soñeko modakoak.

Ikusirik eginbide oek biak, bata bestearen ain urruti daudenak, zein euskaldun izango da kupidaturik, biotza negarrez erdiratuko ez duena, oroitzean bere asaba maitagarrien prestutasunaz, eta beren erritarrai agertzen ziezaten amodiozko naitasun irazekiaz? Eta denbora berean, nor suak eta garrak artuko ez du, ikustearekin, gaurko eguneko anaia bere berekiak egiten dituzten dantzaetara sartutzea ez ezik, begira egotea ere debekatzen dutena? Ha uanditu gizagaxoak! Ez dek ez zuen zañetan arkitzen, euskaldunen arrazako odolaren piskarik ere. Euskaldunen griña beti izan dek, egunaz, plaza agirikoetan, erri guzia pozkidatzea gaitzik gabeko jostaketa ondrosoakin; eta zuena berriz, gabaz, gela itxietan,

zerok bestek ongi ez derizkion zatarkeri nazkagarriak egiñaz, guzion egille aundia iraindutzea.

EZPATA DANTZA

Ezpata dantza gogoangarri au da, denbora guzietan beti Gipuzkoatarrak txit maite izan ta izango dutena; zeñarekin menekiatu edo obsekiatzen ditugun, ala geren errietako batzartar jaunak nola orube edo suelo maitagarri onetan, egiteko aundietara, anitz bider igaro izan diraden Españaiko gizon goienengoak, eta era guzietan beti biotzetik maitatu ditugun Erregeak. Baita munduko errege guzien gañekoa dan egiazko gure Jaungoiko Jauna ere, Gorpuz egunetan donesoaita edo prozesiora ateratzen dutenean.

Dantza ondroso, pozkarri, au, anbesteraño sartu izan zaie gogotan berarekin menekiatu edo obsekiatu ditugun Españaiko gizon goienengo jakintiai, non andizkaturik, igo izan diguten goienengo mallara, argitaratu dituzten kondaira edo historia gogoangarri anitzetan.

Gauza jakiña da, gizon aurrenengo oek ikusten dituztena egun guzietan, dantzari ederragoak eta

egokiagoak, azitetxe edo seminarioeran maisu jakintsunakin, diru askoren kostuz, ikasten duten aietakoak, baña ala ere, gizon zentzutsu eta ekai onakikoak diraden bezala, argitaratu nai izan diote mundu osoari, nola Gipuzkoan edozein persona andigitar igarotzean, errietako alkateak deitu bezain laister, irteten diradela, nekatzalle eta bestelako langille prestuetatik, bat ezpata dantzari, ongi dantzatzen dutenak eta egoki janziak, inongo maisurekin ordurik igaro bagekoak izan arren.

Guretzat beti gozatsua eta atsegingarria dan dantza gogoangarri au, arreta aundiarekin gordakaiatu ta oarrez erakutsirik utzi izan ziguten gure asaba maitagarriak, aditzera ematen digutelarik berarekin argiro, nola etsai arrotz kaltarkiak urbiltzean, Gipuzkoatar sendagaill edo balore aundikoak, beren buruz, aitarren seme alkargana baturik irten oi ziraden, ezpata luzeak artuta, atabal danboliñakin, oen soñu pozkarran dantzatuaz gaizkille txarrai astinaldia onak emanik, berak lenbaitlen erritik kanpora botatzeko pozean. Baita biraldu ere, etorri izan diraden era guzietan ala ere, arin, eta larri aski, berriz etorteko gogoak ongitxo kendurik!

Ezpata dantzaren mugida guziak daude esanaz nola eta zein azkar peleatu oi ziraden gure aurrekoak beren etsaien kontra, baita ere, garaitu ondoan zer gisatan emakintzatu edo entregatu oi zioten beren nagusiari kanpo lokabetua edo libratua, igaro zedin beldur gabetanik toki berean.

Nere gazte denboran Gipuzkoako erri guzietan egin oi zan ezpata dantza, Korputz egunetan, eta Done godartari edo Santu patroienetan. Beragatik oi zekiten ain ongi dantzatzen. Baño orain ainbesteraño aurkitzen da aztua eta naspillatua, non ezin asmatu duten erdietan, ez zubi bat nola egin, eta ez ezpatak zein eskutan artu ere. Gabetasun ain aundi au zertatik datorkioten oarketu deralako, nai det ifini emen irakastea edo instrukzioa, egin dezaten lenago bezin aixa eta egoki.

Ezpata dantzariak, irakastea

Ezpata dantzariak bear dute beren buruzaria edo kapitana, eta ez du onek ezpata bearrik. Azkendariak bear dituzte txiki biña, erraz erabilli al ditzaketeenak, baita mokones edo pañuelo txuri txikiko biña ere,

ezpatak eskuetan artutzeko. Beste gañerako dantzari guziak bear dute, ezpata luze bana.

Lagun gutxi batutzen diraden errietan, jarri oi dira bi lerrotan, baita irutan ere; baña egokiena da lautan jartzea, modu onetan:

Buruzaria

Pedro Martin	Agustin	Joakin
Juan Bernardo	Fermin	Andres
Domingo Matias	Inazio	Simon
Antonio Franzisko	Tomas	Mateo
&c. &c. &c. &c.		
&c. &c. &c. &c.		

Guziak artu bear dituzte nork bere ezpatak eskuiko eskuetan, eta ondorengo lagunena, punta aldetik, ezkerrekoetan.

Buruzariak artu bear ditu eskuiko eskuan, Agustiniñekin Joakiñen ezpatak punta aldetik, eta bere bat ezkerrekoan, Pedrorekin Martiñena.

Zubia egin bear dan era guzietan, buruzariak altxatu bear ditu beso biak buruaz goiti, eta ezpatak esku batetik bestera aldairaturik, jarri bear du dantzarietara begira; baita igaro ere lau lerroen erdi erdi-

tik, besoak al duen goratuena dauzkala, azkendariak dauden tokiraño.

Lendabiziko lerrokoak, zeña diraden Pedro dagoen tokikoak, igaro bear dute modu onetan:

Pedrok altxatu bear du eskuiko besoa buruaz goiti, eta igaro bear du kanpoko aldera begira, ezkererontz, burua sartutzen debala bere eskuiko besoren gañetik eta ezpataren azpitik.

Juanek bere bat altxatu bear du eskuiko besoa buruaz goiti, eta igaro bear du beso onen eta bere ezpataren azpitik, eskuirontz, eta barrura begira.

Domingok egin bear du Pedrok bezala.

Antoniok, Juanek bezala. Oben ondorengo guziak ere gisa berberean igaro bear dute, batak alde batera eta besteak bestera.

Bigarren endanakoak, zeña diraden Martin dagoen tokikoak, igaro bear dute, modu onetan:

Martiñek altxatu bear du eskuiko besoa buruaz goiti, eta igaro bear du, beso onen eta bere ezpataren azpitik burua sartutzen debala eskuirontz.

Bernardok altxatu bear du eskuiko besoa, eta igaro ezkererontz, burua sartutzen debala beso onen gañetik, eta ezpataren azpitik.

Matiasek egin bear du Martiñek bezala.

Franziskok Bernardok bezala, bere bat oen ondorengo guziak ere batak alde batera eta besteak bestera.

Irugarren endanakoak, zeña diraden Agustin dagoen tokikoak, onela:

Agustiñek, Pedrok bezala.

Fermiñek, Juanek bezala.

Inaziok, Domingok bezala.

Tomasek, Antoniok bezala.

Laugarren endanakoak, gisa onetan:

Joakiñek, Martiñek bezala.

Andresek, Bernardok bezala.

Simonek, Matiasek bezala.

Mateok, Franziskok bezala.

Zubi au noiz eta nola egin bear dan irakastea

Buruzaria, lenago esan deran bezala, esku batetik bestera ezpatak aldairaturik jarten danean, dantzarietara begira igaro bear dute alkarrekin, erakutsi deran modu berean, lau endanaetakoak:

Lendabiziko daudenak, zeña diraden Pedro, Martin, Agustin eta Joakin.

Obek igarotzean, Juan, Bemardo, Fermin eta Andres.

Oben ondorean, Domingo, Matias, Inazio eta Simon.

Gero, Antonio, Franzisko, Tomas eta Mateo, &c. &c.

Dantzatu bear duten toki guzietan, egin bear dira iru zubi: obetatik bi, dantzatzen asi baño lenago, eta irugarrena, dantza aldia egin bezin laister. Lendabiziko zubia da azkendariak dantzatzera aurrerontz igarotzeko; bigarrena, buruzaria azkendarietara begira jarririk dantzatzeko; eta irugarrena, azkendariak beren leneko tokira joateko.

Beste zubi mota bat ere egin bear da, alkate jauna bere lagun batzartarrakin Elizan, eta Erriko etxean sartutzeko denboretan, modu onetan:

Batzartar edo kapitular jaunai Elizara laguntzeko denboran, buruzariak joan bear du bere dantzari guziakin Elizako ateraño, eta lenago erakutsi deran bezalako zubi bat egiñik jarri bear du jaun prestu oietara begira, utzitzen dituela eskuetatik, Martiñen, Agustiñen eta Joakiñen ezpatak, eta ez Pedrorenak.

Pedrok orduan igaro bear du, lenagoko zubietan bezala, eta jarri bear du buruzariaren aurkez aurke, bien erdian utzitzen dutela batzartar jaunak, igarotzeko dinbat toki.

Juanek jarri bear du buruzari edo kapitanaren aldamenean, ezpataren azpitik lenagoko zubietan bezala, igaro gabetanik, zuzen zuzen.

Domingok jarri bear du Pedroren ondoan, au bezala igarorik, bere eskuiko besoaren gañetik eta ezpataren azpitik burua sartzen duela.

Antoniok jarri bear du Juanen ondoan, au bezala, batere igaro gabetanik ezpataren azpitik. Itz batean, Pedro dagoen aldera dihotzen guziak, egin bear dute Pedrok bezala, eta Juan dagoen aldera dihotzenak, Juanek bezala.

Buruzariak ezpatak utzi bezein laister, Martiñek bere endana guziarekin joan bear du Pedroren endan azkenengo dagoenagana, zeñari eman bear dion bere ezpataren punta, lenago buruzariari bezala, eta ekin igarotzeari, esan deran moduan. Agustiñek bere endana guziarekin orobat joan bear du, Martiñen endanan azkenengo dagoenagana eta oni eman bere ezpataren punta, eta asi igarotzen.

Joakiñek gisa berean joan bear du bere endana guziarekin Agustiñen endanan azkenengo dagoenagana eta oni eman bere ezpataren punta, eta ekin igarotzeari.

Modu onetan jarririk, guziak igarotzean, gelditzen dira ezpatak gurutzeraka buruaz goiti dituztela, eta jaun prestuak Elizara igarotzeko bidea, erdi erdian utzitzen dutela.

Buruzariari gelditzen zaio eskuiko eskua lokabe edo libre, jaun aiei agur egiteko zubiaren sarreran, eta irteeran Elizako ate nagusiaren ondo ondoan egongo dira lau azkendariak, alde bakoitzetik biña, agur egiteko jaun prestuai ezpatakin, zubiaren bukaeran eta Elizarako sarreran. Bere bat egin bear dute zubi mota au, Erriko etxera batzartar jauna sartutzeko denboran.

Gorputz egunetan egiazko gure Jaungoiko bakarra donesoaita edo prozesiora irtetean, buruzariak egon bear du Elizako atean, lau azkendariak aurretik dituela, eta eztu dantzan asi bear iñork, alik eta Jaun andi au Elizako atera iritxi artean, baña bai danboliñak soñua jo lenagotik.

Guzion egille goienengo au Elizako atera etortean, danboliñak jo bear du deia, eta dantzariak dei

onen irugarren puntuan muriska edo kabriola egiñik, laugarrenean bear dute belaunikatu eta punturik galdu gabe altxaturik, zortzikoak dantzatu; baita ezpatak erabilli ere, eta azkeneko deiean belaunikatu, aurrenekoan bezala.

Au bera egin bear dute karrikan ifinten dituzten altareetan; baita Elizan sartutzean ere. Jaun aundi onen aurrean dantzatzen duten guzian, ez dute beñere muriska edo kabriola jirakorik egin bear, zergatik txit itxuski dan atze aldea jiratzea, ezer ezetik sortu ginduzen, eta betiko zoriona guretzat bere odolaren gostuz irabazi zue aita maitagarriari.

Zubi oek egiten, laister eta erraz erakusteko irakastea edo instruzioa

Buruzariak ifini bear ditu ezpata dantzariak ongi begiraturik, beresitutzen dituela galairik egokienak bazter bietako endanaetan ifintzeko, eta txiki ta maiskar aurkienak, erdiko bietarako.

Lau endanak onela zuzentzean, bat osoa kendu bear du beste iruretatik, eta erakutsi bear dio ari,

obek begira daudela. Ark ongi ikastea, besteari; eta oni erakustean, orobat urrengoai ene. Modu onetan bi orduz ikasten dutena ez dute egun bian ere ikasiko, lau endanak batean daudela.

Danboliñai irakastea edo instruzioa ezpata dantza nola jo

Ezpata dantzariak Erriko etxetik irtetea jotzen da, benaren zortziko txit ezagun bat, gizon dantzaren asierako soñuan bezala arratza jotzen debala. Zortziko onetatik igarotzen da ezpata dantzako soñura, zeñak dituen iru zati edo parte, seiña puntukoak edo konpasekoak.

Dantzatu bear duten toki guzietan, buruzariak bigarren zubia egitean, jo bear du danboliñak deia. Dei onen ondoren, zortzikoa. Zortziko onen azkenengo lau puntuetan, deia, eta urrena zortziko bera estu edo sarriago ezpatak erabiltzeko, zeñaren azkenengo lau puntuetan deia jorik, asiko duen berriro ezpata dantzako soñua.

Dantzari obek dabiltzan denbora guzian, eztu jo bear zortziko berririk, baizikan ezpata dantza berarenak, zergatik txit itxuski ematen duen dantza zarrak soñu berriarekin, eta ez dan ezagutzen ain ongi, nola bere soñutik, edozein dantza mota ere. Donostiako Latierro danboliñak jotzen du ederki ezpata dantzarien soñua, eta nai duenak ongi jakin, ikastea dauka beragandik, baldin ez badu musikan jartzen derana ongi endeglatu edo konprenditzen.

Ez da oraindik bi urte, ikusi derala txit sona andikotzat Gipuzkoan daukaten danbolin bat, ezpata dantzarien soñua jotzen, obeki esango nuke naspillatuzten, zeña ez aditzeagatik itxitzen nituen belarriak. Baña ala ere, ainbesteraño eritu ninduten aren txilibituko arabaki itxusiak eta arratzaren golpe modugabekoak, non esan izan nion berari, lotsa gaizto gal zekiola, izanik ain sona aundiko danboliña baldin ez bazekien nola jo ezpata dantzarien soñua. Eranzun ziran ezik, egiazki, etzuela gogorik ez ikasteko, eta ez jotzeko, soñu zar oetakorik batere. Aditu zituen nigandik, eta beste askogandik, egiak, zeña oroituko dan au irakurtean, baldin artara jarten bada.

Badakit Gipuzkoako erri batean ibilli diradena ezpata dantzari zar jakintsunak, guziz atsekabeturik

danbolin aundi obetako batekin, azkenengo gure Erregiña maitagarria igaro danean, inolako moduz ere ezin adierazorik soñua nola jo bear duen. Orra zenbateraño dan danbolin aundi oen jakinduria. *Zer da ansi ordea -esango dute-, baldin balsak, kontra-dantzak, bolerak eta minuetak, txit asko eta guziz ongi jotzen baditugu?* Onelako danboliñak aienatu bear ginituzke akelarra, toki bereko jendella naspillatuari, beren gisako soñuak jotzera, eta gure errian ifini, dantza eta dantzariai egokidatzen zaiozkatena, bear bezala jotzen dakitena.

Ez det esaten nik, ez eta nai ere esan, erbestee-tako soñu motak ez ikasteko eta ez jotzeko, baña bai gure jaioterrikoak gordakaiatzeko, onetsirik eta maitaro arturik. Ez al dute uste uanditu puztu oek lotsa-garrizkoren batzuek diradela gure soñu zar gozoak? Ha ezjakin gaxoak! Zuek baño zentzu obeko semerik izan ez balu gure ama Gipuzkoak, etzuen artuko ainbeste atsegin, pozkida, eta horore bere egunetan, nola denbora guzietan eta beti artu izan dituen, beren jaioterriko usuario gogoangarriak, naitasun andiarekin, txit maitaro irozotu izan dituzten ume leial aietatik.

BROKEL DANTZA

Brokel dantza egin oi dute Gipuzkoako erri bikaiñ aurkietan, lau edo bost urtertik beste ainbeste denboraren burura; zergatik txit gustu andia duen, ala dantzariantzat, nola errientzako, urte guzietan egitera ezkeroz. Dantza mota au bear bezala ikasirik plaza agirikora irteteko, gutxienean igaro bear dituzte dantzariak 20 egun maisu on batekin, eta danboliñarekin beste 8, baldin au errian bertakoa ez bada.

Dantza onetarako bear dira 12 lagun, eta buruzaria edo kapitana 13 garren, errian aurki al ditezkean galairik galantenak, eta egokienak. Janzi berdin berdiñak bear dituzte 12 dantzariak, eta oen gain gañekoa buruzariak.

Brokel dantza ikasten asitzen diradenetik, alik eta bukatu artean, obeditu bear diote buruzariari, beste amabiak alkate bati bezin ongi: ala soñekoen gañean, nola beste edozein gauza, dantzari dagozkionetan. Plazara irten bear dutenetik 8 egunez lenago, erakarrri bear ditu buruzariak bere aurrera 12 dantzarien soñekoak, eta berdin berdin ifini guziak, beren aurkezean, batak baño besteak apainduria geiago plazara

eraman ez dezan. Baita ere, soñeko oek gorde bear ditu buruzariak bere giltzaren azpian, dantzatu bear duten goizeraño, eta orduan guziak janzierazo etxe batean, eta bera begira arkitzen dala. Buruzariak au egin gabez, gertatu izan dira txit aserre gogor portitzak, eta oker andi gaiztoak, dantzarien artean.

Brokel dantzari oek, nola izan oi diraden errietan aurki al ditezkean galairik autatuenak, eta egokienak, gauza jakiña da izan oi dituztena nork bere txatxantxo maiteak. Beragatik, brokel dantza ikasteko asmoa artu bezin laister esaten dio nork bere adiskide mamiari zer ames duen.

Txatxantxo obek pozkidaz beterik eranzun oi diote, zeñek bere maitatzalleari, berak billatuko diozkala soñekoak atsegin guziarekin, baita apaindu ere dantzara irten bear duen goizean, eta txit damu izango lukeala baldin beste tokitan janziko baliz. Zaldun gazte oben naitasunik andiena da nork bere maitearen abotik au aditzea: beragatik ematen dio itza, aren esku biguñaz apaindurik irtengo dala plazara.

Txatxantxo apaintzalle obek bata bestearen leian ibiltzen dira, nork bere gaiaia nondik eta nola egokiena ta txukinkiena jantzirik aterako ote duen Biribillatzen dituzte ixilka, errian ta kanpoan aurki al

ditzaketekeen soñekorik ederrenak, eta dantzatu bear duten goizean al duten geitia edo luxorik aundienarekin apaindurik biralduko dituzte esanaz, begira dutela baldin gutxitzen badute jantzi aietatik baterre, eta ezpadira plazara gisa ber berean irteten

Zenbat dantzari, ainbeste eskutatik apaindutako zaldun gazte obek, alkargana batutzean, gauza jakinña da ekarriko dituztena batak baño besteak soñeko ederragoak eta aberastasun geiagokoak: orduan dira oben artean kontuak. eta txipiritonak.

Gutxiena apaindurik dauden aiek esaten dute, jantzi berdiñakin guziak irten bear dutela. Berriz, ederkiena ta aberatsena apaindurik aurkitzen diradenak eranzuten dute, ez dutela gutxituko batere beren soñekoetatik. Egiazki, lenago jarriko lirake beren biziak galtzera ezen ez nork bere txatxantxoari atsekaberik ematera.

Onetatik sortutzen dira, lenago begiko ninia bezin alkar maite zuten zaldun gazteen artean, borrokak, makilkak eta eriotzak. Gertatu naiz ni onelako aserre gaiztoak ikusten; baita dantzariak plazara irten gabe geldi erazotzen ere, oker andiangoak ondoreatutzeko. Geroztik, brokel dantzariak atera ditudanetan, egin izandu det, orain erakutsi derana berbera; beragatik

nai izan dizutet argitaratu, jakiñaren gañean egon zaitezten, dantza mota au egiten dezuten denboretan.

Brokel dantzaren aldairak edo mudanzak

1. Boastitzea edo paseoa.
2. Agurra edo erreberenzia.
3. Makilla txikiakikoa.
4. Zortziko, lau aldeetakoa.
5. Brokel makillena.
6. Zortziko 40 muriska edo kabriolakoa
7. Makilla andiakikoa.
8. Billanzikoa.
9. Zinta dantza.

Nere gazte denboran bedaratzi aldaira edo mudantza obek egin oi ziran dantza mota onetan. Baña orain, nola Gipuzkoako zaldun gazte, argi, askok, ikasi dituzten azitetxe edo seminarioetan, kontra dantza ta beste aldaira gisa anitz, obek sartu dituzte brokel dantzan guziz egokitasun andian, eta txit txukinkiro. Beragatik maitatu bear ditugu gureak

balirake bezala, zeñean dantza mota oni bere onetsiak bezala darraiozkan, eta bidez edertzen, galantzen, eta ubaritzen duten.

Azalaingo nagusi jaun D. Angel de Larretak guziz esker andiak eta anitz onkai ditu brokel dantzaren gañean, zergatik txit ederturik, guztiz asko ubaritu duen bera, lenagoko aldaira zarrak maitatzen dituela, zenbait erausle ezjakiñek bezala ixukaturik urruñatu gabe.

Badakit Gipuzkoako erri txikitxo batean dabiltzana iru edo lau urte onetan, dantza eta dantzariakin guztiz arazo aundietan, zeruatik erbesteetako dantza zerrenda batzuek irabioturik gañez eragiten diezate-lako ustean, auzoerrietan egin oi diraden jostaketa gogoangarri guziaz. Ain arro dabiltz, aiñ dira beren buru, eta aiñ uandituak daude, non diruditen ez daukatela ezertan, ez beren jaioterriko dantza motarik, ez soñu eta danbolinik, eta ez janzi gisarik.

Beren erriko Done godartari edo Santu patroiaeren egunean, irteten dira plaza agirikora, iñauteria baliz bezala: erriko danboliña urruñaturik, leku bereko gaztenak, turuntakin, zerrebetak eta oei dagozkieten beste oslankaiak joaz -beren gisako dantzariakin turkiatarrak irudikatuaz, ala janzian nola gañerako josta-

keta guzietan-, ustez ezen, egiten dituztela guzizko gauza ikusgarri geiegikoren batzuek, eta ez dagoela Gipuzkoan berai alderatu al lekiotekeanik.

Egiazko esangia bat bada: *itxuen errian okerra alkate*. Erri txiki onetako joistallura biltzarkidatzen dan jendeak, ainbeste ezagutzen ditu bada turkiatarren dantza motak, soñuak, eta janziak, nola itxuak alkate okerra. Gauza anditzat egiten dituzten zere monia iñauteriar oriekin, eman nai dute aditzera ezik, urrutietako gaitasun txit me, goi, diradenetan guztiz jakintsun daudela, naiz beren etxe koetan batere ez dezatela izan ezagumenen piskarik, azaletik bedere.

Edozein erritan diakinde edo funzio bat ospatu bear danean, uste det nik, erri aren hororerik andiena dala, toki bereko usuarioak irudikatzea, ala janzian, nola beste gañerako zeremonia guzietan, eta batez ere beren Done godartarien egunetan.

Egun seña le oetan, erriko jendearen beakarri edo objektorik aurrenengoa da, ekintza eliztarrak al ditekean otsandikoenak edo solemnidaderik geienekoenak egitea. Egiazki, ala egiten ere dituzte. Zer izango da bada gauza desegokiagorik, aiñ ekintza donedatiak, edo ofizio relijiosoak elizan ospatu ondoan, plaza agirikora irtenik turkiatarren jostaketa itxusiak irudi-

katzea baño? Eta, zer litzake baldin geren errian onestasun andiagokoak eta pozkarriagoak ez baginituzke? Baldin gure asaba maitagarriak begira aurkituko balirake, beren seme beekoak ikusten dituztela plaza agirikoan, neskatxakin laztanka dantzatzen dabiltzala, bigarren aldian illko lirake beste miñ gabe-tanik.

Lenago esanik daukadan bezala, Jaungoikoaren seme bakarra gizon eginik, gu bekatutik lokabetzera mundura etorri baño lenagoko denbora haietan ere, Gipuzkoatarrak, ez neskatxakin dantzan laztanka ezik, eskuakin bakarrik alkarri ukitzearekin beren egille andia iraindu zezaten beldurrez, mokonesak edo pañueloak emanik dantzatu oi ziraden.

Usuario aiñ donedati edo relijioso au, gaurko egunean ere zuzenkiro gordakutzen da Gipuzkoako erri txikietan.

Jakiñaren gañean egon ditezke bada, erbesteeta-ko dantza itxusi oriek irudikatu nai dituzten guziak ezik, naiago dutela Gipuzkoatarrak, bi edo iru txoribuz ez besteak, ikusi beren jaioterriko dantza onintzi bat danboliñaren soñuan, ezen ez, eun milla dantza mota arrotz, beren gisako milloi bat soñularirekin, erbestearrak irudikatzea edo imitatzea, iñauterietan

zamorroturik egin oi dana da, eta Done godartarien edo Santu patroien egunetan, geren asaba maitagarriak.

PORDON DANTZA

Pardon dantza da Gipuzkoatarrai guzizko horore andiak egiten dizkiguna. Tolosako erri leñargitiak, San Juan bere godartariaren edo patroiazen egunean, urte guzietan egin oi du dantza maitagari au, arako, Beotibarren orain bosteun urte, gure asaba sendagaila edo balore aundikoak irabazi zuten batalla gogangarriaren oroipenerako. Batalla au izanik ain izendatua eta sonaera aundikoa, Españaiko kondairatzalle edo historiadore askok egiten dute beraren oroitza, ala lenagoko zarrak, nola oraingo berriak, eta zergatik eman oi zaion sinismen geiago zarraren itzkribua egiazkotzat argitaratzen deban gaztearenari, esan bear dizutet nola mintzo diran, lenago izendaturik daukadan Españaiko kondaira edo historiaren 164 garren orrian. Esaten dute onela:

Berastegiko ibaiaren ondoan gertatu zan Nafarren desegindea Gipuzkoarretatik, Beotibarko batalla deitzen dan artan, zeña eman zan 1321 garren urteko agorraren 19an. Vizconde de Anay D. Ponce de Morentana edo Morentain Nafarroako Erondea edo Gobernado-rea, bekaizturik, Gipuzkoatarrak artu ziotelako Gorritiko Gaztelua, naidartu edo resolbitu zuen kalte au mendekatzea, eta irten zan bere tro-parekin Iruñetik esan dan urteko agorrillaren 13an. Gipuzkoara eldu bezain laster asi zan, Tolosara jaisten dan bide inguruko lurak soll-dutzen, erre zuen Berastegiko erria, zeñaren elizan egin zan eidergiderik edo desakatorik asko, esaten du Garibaik; baña iritsi zanean Beotibarra, larunbat egunarekin, ill beraren 19an, Gipuzkoatarrak irten ziran bidera, Gil Lopez de Oñez jendatzearen agintari zutela, urratu zuten Nafarren godaurkea edo banguar-dia, beartzen zituztelarik lotsagarritzko igesdea bat egitera guziz urdurikeri andian, kaltarraitu edo persegitu zituzten, eta iristean izandu zan erioite geiagokoa, eta galkera ikaragarria.

Gaztelako, Aragoiko eta Nafarroako kondairazalleak edo historiadoreak egin zuten garaipenain seinalatu onen aitamena; eta Gipuzkoako jaiotarrak, beti iraun zedin garaitondo au, kantatu zuten beren itzkuntzan esangia lototsa edo adajio rimado au, zeña erabeztatu zuen Argote Garibaik, eta maisu Sarmientos istorriturik ekabilde edo klase biribiltxo andienetako zortzi geibetxitara edo silabatara, esaten du onela:

*Milla urte igarota,
Ura bere bidean.
Gipuzkoatarrak sartu dira,
Gazteluko etxean,
Nafarrakin batu dira,
Beotibarren pelean, etc.*

Tolosako erri leñargitiak, guziz esker andiak eta ain zuzen onkai edo merezi ditu Gipuzkoar guzietatik, zerren ainbeste urteren buruan gordakaiatu digun pordon dantza maitagarri au, batalla ain seinalatua-ren oroitpenerako.

Izanik bada dantza mota au kondaira edo historia askotan aiñ sonatua, eta izendatua, ez da mingarri

eta lotsagarri, Tolosaz kanpora Gipuzkoako beste erritan ez egitea? Baldin gure asaba maitagarriak begira aurkituko balirake, dantza ondragarri onen ordean egiten dituzten erbesteetako zerrenda orietara, zer esango ote liguketeke? Guziz bekaizturik, eta eralde edo arrazoi aundiarekin minzatuko lirake gure kontra, lotsaturik uzten gaituztela esanaz: *Etzerate zuek gure semeak, ez eta Gipuzkoatarren odolekoak ere, zerren naitasunen piskarik ez diezuten, guk eta gure aurrekoak, ainbeste etsai ozpindu txarren esker gaiztoan irozotu izan ditugun usuario maitagarriai, zeñetan ekantzaturik edo inprimiturik utzi ginizkituzten gure aurreko onak, eta gerok egindako azaña ain gogoangarriak.* Eta zer eranzungo ginioke guk? Bein izan sendagailla edo balorea begietara begiratzeko, lotsa aundi batekin bearko genduke gelditu mututurik, zergatik aurkitzen etzaikun irteerarik iñondik ere. Eta, zer litzake baldin erbesteetako dantza zerrenda itxusi oriek, gureak baño ederragoak, aundientsuagoak eta ikusgarriagoak balirake?

Ez dezute ikusten Gaztelako Esandea edo Konseju goienengoaren aginduz, España guziko probinzietan egiten diraden dantza motak ikusten, beste egitekorik gabe ibilitu zan Jovellanos jakintsunak zer esa-

ten duen, bakarrik igande oroko gure dantza pozkarririk ikusi zituelako?

Bein ere aztutzera utzi gabe bear dituzute iduki gogoan, jakinduria aundiko gizon onek eta bere lagunak, Gipuzkoatarroi geren dantza oniritzien gañean egin dizkiguten horore ezin geiagokoak; eta errietako Done godartari edo Santu patroien egunetan egin zuen tokiko jostaketa ain señalatuak, erbesteetako oriei utzirik iñauterietarako, zergatik egokiagoak diraden denbora onetarako, ezen ez, egun otsandiko edo solemne aietarako. Irudikatu edo imitatu itzazute tolosarrak, pordon dantza maitagarri onekin, Gipuzkoatarren azaña andi Beotibarkoa beti ta beti gogoangarri izan dedin, gure eta ondorengo guzien egunetan.

Pordon dantza au egiten da satai luzeakin, ezpata dantzaren modu berberean, ala zubiak, nola beste gañerako ibillera guziak; beragatik onen irakastea edo instruzioa ikustea asko da, ura ongi egiteko. Pordon dantzaren soñu gozatsuak dakizkien danboliñik ez da Tolosaz kanpoan aurkitzen, eta orregatik ifiniko ditut obra onen azkenean.

JORRAI DANTZA

Jorrai dantza egiten da, errietako pozaldia edo festak bukatu ondoan, zagi puztuakin eta jorraiakin, modu onetan:

Irteren dira dantza onetara zortzi, amabi, edo amasei lagun, beren Buruzari edo kapitanarekin. Buruzari onek bear du eskuan eraman pordo luze bat, puntan burni zorrotz batekin, eta beste guziak jorrai bana. Lau dantzarientzako bear du bostgarren batek eraman zagi puztu bat bizkarrean, eta ibilli bear dute zagidun oek dantzarien atzetik.

Dantzatu bear duten toki guzietan, lendabizi buruzariak dantzatu bear du zortziko, besteak gelditurik begira daudela; eta ark dantzatzean, oek guziak batean.

Zortziko au bukatzean, jotzen du danboliñak atxurrerako soñua, eta orduan asitzen dirade dantzariak atxurrean, soñuaren puntuak, jorraiaren kolpeakin batean, zuzenkiro daramazkitela.

Dantzariak atxurrean asi bezain laister, sartutzen zaiote zagi puztudun bat lau dantzariri erdian, eta oek jorraiaren kirtenakin, zatitzen dute zagi aizez bete-

takoa soñuaren azkenengo puntuan, guziak bat batean.

Zagia zatitzean, asitzen dira dantzariak atxurrean beste alderontz begira. Baña an ere sartutzen zaiozkate zagidunak atxurle dantzariari erdira; baita oek ere berriro zanpatu zagi aizatuak.

Jorrai dantza onekin ematen dute aditzera, bukatu diradela joistalluak, baita ustu ere zagiak; eta ekin bear zaiozkala nor bere lanari, aroikeriari utzirik. Senaera ain egoki onekin oarketutzen dirade euskaldunak, joistalluai utzirik, lanera joan bear dutena.

AZERI DANTZA

Azeri dantza onen izena txit oker endeglatzen edo konprenditzen dute Gipuzkoatar geienak; zergatik izen bera esaten dioten, arako gizon dantzaetan guziak bat banaka zortzikoa dantzatuaz aurre aldetik atzerontz igaro oi diraden dantza mota ari.

Azeri dantza egiazkoa egin oi da diakinde edo funzio aundiak bukatu ondoan, eta iñauterietan. Dantza mota onekin, irteten da erriko gazteria baserri etxeetara, ollaisko, lukainka, solomo, arraultza eta

beste zenbait jan gauza, urtearen sasoiak dakarzi-
nen billa.

Etxe atarietan dantzatuaz batutzen dituzten amo-
dizko sari ugari oetatik batzuek jan ondoan, irtetzen
dira plaza agirikora dantza berarekin, eta zenbait
ollaisko makilletan dituztela, toki berean, itxuka,
lepoak erekitzeko dantza bukatutakoan.

Dantza mota au guziz da txistosoia, farragarria
eta pozkidatsua: batean, illeti irazekiarekin buruza-
riak ematen die su, sudur zuloetan lendanaz sartuta-
ko mullo puskaetatik; besteak, begiak estalirik dauz-
katela sartu bear dituzte buruak, soñuaren azkenen-
go puntuan, ustai txiki batean, zeña egon oi dan txin-
txillika soka batetik plazaren erdian.

Guziz siñu mota asko egiten dituzte azeri dantza
onetan, eta guziak ain farragarriak, non askok eta
askok egin oi duten pisa zarauletan.

Dantza bukatu ondoan egiten dute ollasko jokua,
eta arratsean, oek janaz ematen diote erriko pozal-
diari bukaera.

BIZKAI DANTZA

Dantza mota au da Bizkaitarren berenkia, zeña egin oi duten fandangoaren modura, dos por kuartoko kontradantzaen soñuetan; beragatik esan oi zitzaion soñu gisa oei guziaz Bizkai dantzako soñuak. Soñu oetan ifiñirik aurkitzen diraden itz neurtu edo berso guziak billatuko dira, Bizkaitarren itzkera moduan. Gipuzkoatarrak zortzikoetan bezala, Bizkaitarrak, beren soñu jakin aietan dute itz neurtuak edo bersoak ateratzeko eresia.

Bizkaitarrak ain itxutuak, eta arras etziñak dira dantza onekin bere soñuetara, ezik, gizon dantza egiten duten guzietan, au bukatu ondoan dantzatuko dituzten beren soñu artu aiek, igarotzen dutelarik denbora geiago obetan, artan baño.

Gipuzkoan ezta usatzen gizon dantza egin ondolan, ez fandangorik, eta ez Bizkai dantzarik egitea. Egia da orain asi diradena zenbait erritan, bañan nere gazte denboran, dantza beakurtsu edo respectable aietan, etzan bein ere egiten, danza mota oienik.

Uda guzian dituzte Bizkaitarrak erromeria egunak, eta igarotzen dituzte askotan egun osoak, beren naierako dantza ta soñu aietan, gizon dantza bat bakarra ere egin gabe. Gipuzkoatarrak berriz kontra: baldin erromeriarik txikienean ere ez badute ate-

ratzen gizon dantza, ez deritzaiote izan dala diakin-derik edo funziorik.

Ezagutu izan ditut dantzari ederrak eta jakintsu-
nak Bizkaian, nere gazte denboran. Orain dalarik 25
urte ikusi nuen Bilbaon, Salamancako zezen andiakin
egin zituzten diakinde edo funzio sonatu aietan, Elo-
rriokoa zala, gizon txit egoki bat dantza beakurtsu
edo errespetable bat egiten, zeñak dantzatu zituen
soñu zarrak ere guziz ederki. 1806garren urtean
atera zuen Azpeitiko plazan San Inazio bidaramu-
nean, Durangoko «Pontxera» esaten zioten neskatxa
gazte batek, andre dantza modu eztiandiko bat;
zeñak dantzatu zuen txit ederki, eta eman izan zion
D. Agustin Martin de Altuna alkate Azpeitian urte
artan aurkitzen zanak, amar ezkutuko bat, plaza
ondratu zuelako.

Bizkaiko berririk ez dakit aspaldian, zerren josta-
lluetan ibilteari utzi nion: baña uste det, Gipuzkoan
baño ere geiago atzeratu diradela soñu zarrak, eta
bertako dantza gisak. Zergatik orain sei urte ikusi
nuen Durangoko danbolin sona andiko bat Tolosan,
erri bereko seme Arbelaizi dantza jotzen. Badakite
askok zein dantzari ederra dan Arbelaiz au, zeñak
zortzi egunez aurretik plaza berean dantzatu zuen

Juan Inazio danboliñaren soñuan, guziz egoki: baña Durangokoarenean ezin zuen batere, zerren txilibituarekin gauza andiak egin arren, arratzarekin etzion adierazotzen soñuaren punturik. Begira jarri ezker, ikusten zitzaion besoan arratza, eta eskuan makillatxo; baña bestela etzitekean esan danboliña zanik ere, ezpada txilibitularia. Arreta edo atenzio andiarekin egon ninzaion begira danboliñ sonatu ari, eta eman nion antza, etzuen ezagutzen euskaldunen dantza motarik: ainbeste begiratzen zion dantzariari nola zebillen, nik orain zenbat jarromoten diodan itxasoan saltoka dabillen korkoiari.

Izan diteke danboliñ au inon ere aurki al ditekean otsakindaririk edo musikorik jakintsuena, baita txilibitu jotzallerik ederrena ere dala, ordu onean. Beragatik ez diot nai gutxitu bere txilibituko jakinduria, baña bai esan, ez dakiela gizon dantzari nola soñua jo bearzaion; eta egon zaitezten jakiñaren gañean ez dala asko txilibituari gauza andiak eragitea, dantzariari naierara soñua jotzeko, nai izandu det ifini danboliñ andi andi oni oarketu edo obserbatu niona.

SOÑU ZARRAK

Bakar bakarrik izen au aditzea, askoko dute oraingo gazte berri zaleak, muxindurik jarrita, ixukatzeko soñu ain gogoangarriak. Zergatik andiustez betetako oen iguñik gaiztoena dan, zernai gauza motaren gañean, zarraren izena aditzea; baña etzaiku ansi batere erausle ozpindu oek gaitik, gizon zentzu andi-koak gure alde ditugunean.

Zapata zarra, mando zarra, eta atso zarra urruñagarriak edo despreziabileak izan arren, ollo zarra, ardo zarra, eta urre zarra, edozeñek daki, maitagarriagoak diradena, berriak baño. Gure soñu zarrak ere, anziña anziñakoak, eta are lendabizikoak asmatu izan arren, ez daude usanduak eta galkitatuak, eta are gutxiago kemengabetuak; baizikan jaio ziraden egun berberean bezain guriak, mardulak, pizkorrak, eta gozatsuak.

Ezagutzen danean bear bezala, zenbaterañokea dan soñu zar oen jakinduria eta anditasuna, badakit izango diradena berak, aspaldian baño maitatuagoak, eta onetsiagoak.

Uste det bada nik, lendabiziko gizonak dantzan abiatu ziraden denbora aietan, etzala ez txilibiturik eta bestelako oslankairik, eta danzatu oi ziradela,

aboz itz neurtuak kantatuaz. Bada soñu oek nola dantzatu bear diraden dakiten guziak egokidatuko dira nere iritzi onekin, zergatik, itz neurtuen otsideko edo konsonante guzietan artu bear diraden puntuak eskuiko onarekin, nola artu bear baitan boleararen azkeneko jarrera edo parada.

Soñu oei begira jarten natzaioten guzian uste det, ikusten diturala argi eta garbi, lendabiziko dantza asmatu zuten gizonak, beren abozko soñulariarekin dantzatzen dabiltzala. Badakit au aditzean askok eta askok egingo dutena nere kostuz farra; baña etzait batere ansi, zergatik ez diraten kenduko nere barrunen aurkitzen zaidan atsegingarrizko pozkida bete bete au.

Dantza ez da beste gauzarik, ez bada, onakin kantatzea edo kantaren mugida eta itzak berakin berdin berdin eta bat batean arturik, soñuaren zatirik txikiena ere irudikatzea, bera baliz bezala. Au guzia adierazotzen dute gure soñu zarrak, munduko beste dantza motak ez bezala.

Zortziko bat bakarra dantzatzen dakienak, dantzatu ditzake milloika; baita bolera bat dakienak ere, eta bere bat dira gañerako dantza mota guziak, baña soñu zar bat jakiñagatik ezin dantza dezake bestea,

berrero ikasi gabetanik: ez eta soñua bera buruz ongi ikasten ez badu ere, zergatik, ala zortzikoak nola bolera ta beste gañerakoak, puntu jakin jakiñak dituzten bezala, soñu zarrak txit banaitatuak edo diferentek dituzten, ikusiko dituzuten bezala.

KUARRENTAKO ERREGELA

Kuarrentako erregelak ditu 18 zatitan 213 puntu. Zati bakoitza jotzen da bi aldiz, baita dantzatu ere. Beragatik datoz dantzatu bearrak 426 puntu edo konpas modu onetan:

1. zatiak ditu 15 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8,5,2

2. zatiak ditu 6 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6

3. zatiak ditu 11 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 5, 2, 4

4. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8,4

5. zatiak ditu 13 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 5, 2, 6

6. zatiak ditu 11 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 5, 5,6
7. zatiak ditu 11 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 3, 4
8. zatiak ditu 9 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4,5
9. zatiak ditu 15 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 6, 5
10. zatiak ditu 13 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 6, 3
11. zatiak ditu 10 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,4
12. zatiak ditu 15 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6, 3, 6
13. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,6
14. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8
15. zatiak ditu 14 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8,6
16. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,6
17. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

18. zatiak ditu 18 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6, 6, 6

SAN SEBASTIANEN IZENAREKIN DEITZEN DAN SONU ZARRA

San Sebastianek ditu 17 zatitan 189 puntu edo konpas. Zati obetatik 15 jotzen dira biña aldiz, baita dantzatu ere, eta beste biak zeña diraden 8 garren zatia eta 13 garrena, ez dira jotzen bein baizik. Zati obek biak dira, bata 26 puntukoa, eta bestea 18koa; beragatik datoz dantzatu bearrak 334 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,6

2. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

3. zatiak ditu 16 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 2, 4, 4, 4, 2

4. zatiak ditu 10 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 7,3

5. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

6. zatiak ditu 10 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 7, 7,3

7. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

8. zatiak ditu 26 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 6, 8, 4, 4

Ezta zati au beiñ baizik jotzen.

9. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

10. zatiak ditu 14 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 6, 4

11. zatiak ditu 11 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 7, 7,4

12. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

13. zatiak ditu 18 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 3, 4, 7, 4

Ezta zati baiñ baizik jotzen.

14. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

15. zatiak ditu 9 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 5,4

16. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

17. zatiak ditu 7 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 3,4

GALANTAK

Galantak dituzte 9 zatitan 121 puntu. 9 zatiak jotzen dira biña bider, baita dantzatu ere; beragatik datoz dantzatu bearrak 242 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 16 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 5,2,4,5

2. zatiak ditu 6 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6

3. zatiak ditu 13 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6, 2, 5

4. zatiak ditu 18 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 5, 3, 4, 6

5. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

6. zatiak ditu 18 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 5,5,,6,2

7. zatiak ditu 21 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 5, 4, 4, 3, 5

8. zatiak ditu 6 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6

9. zatiak ditu 15 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 3, 4, 5, 3

TXANTXAKAK

Txantxakak dituzte 20 zatitan 178 puntu edo konpas, eta 20 zati obetatik 17 jotzen dira biña aldiz, baita dantzatu ere; beste 3 zatiak beiñ baizik ez, zeña diraden 4 garrena, 6 garrena, eta 1 1 garrena, eta irurak launa puntukoak; beragatik datoz dantzatu bearrak 344 puntu modu onetan:

1. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

2. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,6

3. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

4. zatiak ditu 4 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4

Ezta zati au beiñ baizik jotzen.

5. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

6. zatiak ditu 4 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4

Ezta zati au beñ baizik jotzen.

7. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6, 6,6

8. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6, 6,6

9. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

10. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 4, 4

11. zatiak ditu 4 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4

Ezta zati au beñ baizik jotzen.

12. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 5,3

13. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

14. zatiak ditu 10 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 3,7

15. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

16. zatiak ditu 10 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 3, 3,7
17. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8
18. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8
19. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8
20. zatiak ditu 18 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 2, 8, 8

EUN DUKATEKOA

Eun dukatekoak ditu 5 zatitan 71 puntu. 5 zati obetatik 3 jotzen dira biña aldiz, eta beste biak beiñ baizik ez, zeña diraden 2 garrena eta 4 garrena: biak 23na puntukoak. Beragatik datoz dantzatu bearrak 96 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8
2. zatiak ditu 23 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8, 3, 6, 2, 4

Ezta zati au beiñ baizik jotzen.

3. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

4. zatiak ditu 23 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8, 3, 6, 2, 4

Ezta zati au beiñ baizik jotzen.

5. zatiak ditu 9 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 5,4.

BETRONIO TXIKIA

Betronio txikiak eztu zati bat baizik, eta au 22 puntukoa. Jotzen da bi aldiz, baita dantzatu ere, eta datoz dantzatu bearrak 44 puntu, modu onetan:

1. zatia, eta azkenekoa denak, ditu 22 puntu, eta artu bear dira: 5, 4, 4, 5, 4.

Betronio txiki au nola dan ain laburra, dantzatu oi da eun dukatekoa bukatzean, bereala.

BETRONIO ANDIA

Betronio andiak ditu 3 zatitan 41 puntu. 3 zatiak jotzen dira biña bider; baita dantzatu ere, eta datoz dantzatu bearrak 82 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 6 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6
2. zatiak ditu 10 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,4
3. zatiak ditu 25 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 2, 7, 3, 4, 5, 4

AZALANDARE

Azalandarek ditu 2 zatitan 35 puntu. Zati biak jotzen dira biña aldiz, baita dantzatu ere; eta datoz dantzatu bearrak 70 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 9 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 5,4
2. zatiak ditu 26 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 3, 3, 4, 3, 4, 5, 4

ERREGELA ZARRA

Erregela zarrak ditu 18 zatitan 208 puntu. 18 zati obetatik jotzen dira 13, biña bider, baita dantzatu ere; eta beste bostak beiñ baizik ez, zeña diraden 7 garrena, 10 garrena, 12 garrena, 14 garrena, eta 16 garrena. Beiñ baizik jotzen ez diran bost zati obek dira, 20 puntukoa, 6 koa, 16 koa eta 24 koa. Beragatik datoz dantzatu bearrak 334 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

2. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

3. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

4. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4,8

5. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,6

6. zatiak ditu 5 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 5

7. zatiak ditu 20 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 4, 4, 4, 4

Ezta zati au beiñ baizik jotzen.

8. zatiak ditu 10 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,4

9. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

10. zatiak ditu 6 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6

Ezta zati au beñ baizik jotzen.

11. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear dan dantzariak: 6,6

12. zatiak ditu 16 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 3, 5, 4

Ezta zati au beñ baizik jotzen.

13. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,6

14. zatiak ditu 16 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 3, 5, 4

Ezta zati au beñ baizik jotzen.

15. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,6

16. zatiak ditu 24 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 4, 2, 2, 4, 2, 6

Ezta zati au beñ baizik jotzen.

17. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

18. zatiak ditu 11 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 3, 4

EUN DA BIKOA

Eun da bikoak ditu 3 zatitan 64 puntu: lendabiziko zati biak jotzen dira biña aldiz, eta 3 garrena beiñ baizik ez, zeña dan 26 puntukoa; beragatik datoz dantzatu bearrak 102 puntu, soñuak izena duen bezala, modu onetan:

1. zatiak ditu 26 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 2, 4, 6, 6, 4

2. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,6

3. zatiak ditu 26 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 2, 4, 6, 6, 4

Ezta zati au beiñ baizik jotzen.

AMOREA MARGARITATXO

Amorea Margaritaxok ditu 5 zatitan 34 puntu. 5 zati obetatik, lauak jotzen dira biña aldiz, eta bestea, zeña dan 2 puntukoa, beiñ baizik ez. Beragatik datoz dantzatu bearrak 66 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 9 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,3

2. zatiak ditu 6 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4,2

3. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

4. zatiak ditu 2 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 2

Ezta zati au beiñ baizik jotzen.

5. zatiak ditu 9 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,3

ERRIBERA

Erriberak ditu 2 zatitan 30 puntu. Zati biak jotzen dira biña aldiz, eta datoz dantzatu bearrak 60 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 16 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4,6,6

2. zatiak ditu 14 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8,6

PUNTA MOTZ

Punta motzek ditu 2 zatitan 21 puntu. Lenengo zatia jotzen da bi aldiz, eta bestea beiñ baizik ez, zeña dan 13 puntukoa, eta datoz dantzatu bearrak 29 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8
2. zatiak ditu 13 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 4, 5

Ezta zati au beiñ baizik jotzen.

ONDARRIBIA ANDIA

Ondarribia andiak ditu 3 zatitan 33 puntu. 3 zatiak jotzen dira biña bider, eta datoz dantzatu bearrak 66 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 16 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 7, 4, 5
2. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8
3. zatiak ditu 9 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4,5

ONDARRIBIA TXIKIA

Ondarribia txikiak ditu 2 zatitan 29 puntu. Zati biak jotzen dira biña aldiz, eta datoz dantzatu bearrak 58 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 7 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 7

2. zatiak ditu 22 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 4, 4, 6, 4

NAPARTXO

Napartxok ditu 4 zatitan 59 puntu. 4 zatiak jotzen dira biña bider, eta datoz dantzatu bearrak 118 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 11 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,5

2. zatiak ditu 12 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 3, 3, 3, 3

3. zatiak ditu 15 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8,7

4. zatiak ditu 21 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 6, 3, 8

ORMATXULO

Ormatxulok ditu 4 zatitan 21 puntu. 4 zati obetatik bi jotzen dira biña aldiz, eta beste biak beiñ baizik ez, zeña diraden 2 garren eta 4 garren zatia, biak biña puntukoak, beragatik datoz dantzatu bearrak 38 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

2. zatiak ditu 2 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 2

Ezta zati au beiñ baizik jotzen.

3. zatiak ditu 9 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4,5

4. zatiak ditu 2 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 2

Ezta zati au beiñ baizik jotzen.

UPELATEGI

Upelategik ditu 2 zatitan 19 puntu. Zati biak jotzen dira biña aldiz, eta datoz dantzatu bearrak 38 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 9 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 5,4
2. zatiak ditu 10 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,4

TXIPIRITONA

Txipiritonak zati bat baizik ez du, eta au 13 puntukoa: 13 puntu obek artu bear ditu dantzariak modu onetan: 4, 5, 4.

Aurki esango dizutet txipiritona au noiz, eta nola dantzatu bear dan.

ERREBERENZIA

Erreberenziak ditu 2 zatitan 16 puntu. Zati biak jotzen dira biña aldiz, eta datoz dantzatu bearrak 32 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

2. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

Erreberenzia au dantzatu oi zan Aldare nagusiarren aurrean ezpata dantzariak elizan dantzatu oi zira-denean, eta ez beste tokitan.

TXAKOLIN

Txakoliñek ditu 2 zatitan 16 puntu, eta zati biak jotzen dira bi bider. Beragatik datoz dantzatu bearrak 32 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

2. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

Txakolin au dantzatzen da joistallu gauetan, gela auzbakideko edo konsistorialetan, eta bestelako denbora, arako, zedenan edo broman egon oi diradentetan, lokarri edo makilla birekin gurutzea eginik, aren lau aldamenetan, oñ biakin batean gurutzerik galdu gabe, aldairak edo mudantzak egiten dituela.

MIZPIROTZ

Mizpirotzek ditu 7 zatitan 99 puntu: lenengo 6 zatiak jotzen dira biña aldiz, eta 7 garrena bein baizik ez, zeña dan 32 puntukoa. Beragatik datoz dantzatu bearrak 166 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

2. zatiak ditu 16 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6, 3, 7

3. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

4. zatiak ditu 14 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8, 2, 4

5. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

6. zatiak ditu 13 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 4, 5, 4

7. zatiak ditu 32 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8, 2, 5, 5, 4, 4, 4

Ezta zati au beiñ baizik jotzen.

GRAZIANA

Grazianak ditu 6 zatitan 52 puntu. 6 zatiak jotzen dira biña aldiz, eta datoz dantzatu bearrak 104 puntu, modu onetan:

1. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

2. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

3. zatiak ditu 10 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 6,4

4. zatiak ditu 8 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 8

5. zatiak ditu 11 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 3,4 64

6. zatiak ditu 7 puntu, eta artu bear ditu dantzariak: 3,4

BILLANZIKOA

Billanzikoak ditu 2 zatitan 16 puntu. Zati obek biak dira zortziña puntukoak. Lendabizi jotzen dira

zati biak geldika, eta gero sarriago, zeñean datozen dantzatzera zati biak lau aldiz, eta 32 puntu.

Billanziko au dantzatzen da plazan, Brokel dantzaetan eta gabaz gelaetan. Ikusi izandu det San Migel gau batez, Urnietako Erriko etxeke gelan, bertako seme Martin Jose de Alcain, 16 aldairarekin beste ainbeste Billanziko dantzatzen, izan arren atxurlari bat, iñongo maisurekin eskolatu gabekoa.

Orain esan bear dizutet Txipiritona, noiz eta nola dantzatu bear dan. Gizon dantza, andre edo neskatxez orniturik, bigarren aldiako zubiak egitean irteten da aurrendaria, bere eskuko etxeandrearekin plazaren erdira, besterik gabe, eta jarri bear dute biak aurkez aurke. Orduan jotzen du danboliñak deia, zeñaren laugarren puntuan aurrendariak muriska edo kabriola eginik ifini bear dion txapela buruan, aurkezean daukan etxeandreari, eta dantzatu bi aldiz Txipiritonaren 13 puntuak, lenengoan senzillo eta bigarreanean al duen goitiena, eta ederkiena. Au bukatu bezin laister, jo bear du danboliñak deia, eta onen laugarren puntuan, lenago gizonak bezala, andreak muriska eginik ifini bear dio gizonari bere txapela buruan, eta biak bat batean dantzatu bear dituzte txipiritonaren 13 puntuak bi bider: lendabizikoan senzi-

Ilo, eta bigarrenagoan, al duten goitiena eta egokien diraden aldairakin. Orduan joko du danboliñak deia, zeñaren azkenengo puntuan plaza guziari agur eginik, joango dan aurrendaria bere dantzariarekin leneko tokira.

Bere bat egin dezake azkendariak bere eskuko andrearekin, aurrendariak bezala, baldin badakite biak txipiritona dantzatzan, baña ez bestela. Premiazkoa da bada gizonak bezala jakitea andreak ere dantza mota au, plazaren erdira irtenik, dantzatzekotan.

Nere denbora guzian ez det beiñ baizik ikusi dantza gisa au plaza agirikoan egiten, eta orduan, D. Juan Bautista de Ubillos, eta D. Juan Cruz de Sempertegui beren eskuetako etxeandreakin, Santa Ana arratsalde batez Billafrankako plazan, orain dalarik 44 urte, baña asko aldiz aditu izan diotet nere aurrekoai, txit sarritan dantzatu oi zutela txipiritona aien denborako dantzariak, zergatik emakumeren geienak ikasi oi zituzten beren jaioterriko dantza motak, oraingoak baño zuzenkiago eta egokiago.

Ezagutu ditut nik Gipuzkoan, ala andre ezkonduak, nola ezkongaiak, beren erriko zemai dantza mota, gizonezkoak bezin ederki dantzatu oi zituztenak, zeñean aurkitzen diraden aietako bi gaurko egu-

nean bizirik: bata Legorreta zarreko etxekoandrea, eta bestea nere jaioterriko Maria Fides de Nazabal, Tolosan bizi dana.

Gaurko eguneko emakumeren geienak eman dute, erbesteetako dantza mota, gabaz, gela itxietan egiten diradenetara, beren jaioterrikoak ixekaturik, eta urruñaturik; ez bestegatik ez bada, toki itxi aietan zirri geiago gizonezkoak egiten diezatelako, baña guziaz ere ez det uste, naitasun bero sutuagorekin maitatuak diradela oek, nola izan oi ziraden, lenago-koak.

Guziz arrigarria da bada, bertako jaiotarrak beren tokiko dantza agiriko oniritzi andientsuak urruñaturik, zoko illunetan egiten dituzten erbesteetako orietara, ainbesterañoko eresia portitza idukitzea. Eta zer litza-ke baldin ikusgarri aundiren batzuek balirake. Beto munduan aurki al ditezkean dantza eta soñu mota guziak, eta ikusi naiko det nork eta nola berdinduko dizkidan niri alde guzietara, 36 dantza mota emen ifini dituranak.

Esanik daukat asko aldiz, eta nai det berriztu -dakiralarik irakurlearentzat engorru andia dala-soñu zarrak bear bezala dantzatuko dituenak, txit bear duela jakinduria andia, eta berai begira jarten

naizan guzian, uste derala, lendabiziko dantza asmatu zuten gizonak ikusten diturala dantzatzen, beren abozko soñulariarekin. Nere iritzi au aurrengoan eta bat batean sinistatzen ez badezute ere, etorriko zerate ezagutzera egiazkoa dana, baldin Gipuzkoako dantza motak ongi ikasirik, berai begira arretarekin jarten bazerate; baña ez bestela.

Badakit nik esango dutena askok eta askok ala ere, Gipuzkoatarren dantzak, eta soñu zar guziak alkarri erantsita baño ere, geiago balio duela bolera dantzari on baten zankoen jarrerak.

Gisa onetan mintzo diraden guziaz nai diotet erantzun, ezik, ezagutzen derala nik berak bezin ongi, azitetxe edo seminario andietan, diru eta denbora anitzen kostuz dantzan ederki ikasirik, erriz erri beste langintza gabetanik beren ogia irabazten ibilli oi diraden aiek egiten dituztena, Gipuzkoako nekatzalleak baño gaitasun andiagoak, eta ikusgarriagoak, askoz ere. Eta ez duela iñork zer itxatsirik niri kirten orretatik, zergatik ez deran artu izan asmorik, bolera dantzari jakintsunak egin oi ditzaten aldaira eder ta egoiak urruñatzeko edo despreziatzeko; bañan bai, Gipuzkoako dantza mota oniritziak, eta soñu zar

gozoak, onkaitariak edo meritorioak diraden bezala, andizkaturik, goienengo tokira igotzeko.

Ez da Gipuzkoan eskolaetxerik, eta ez maisurik, bertako dantza motak erakusten dituenik. Emengo dantzariak izan oi dira, beran eder etsiz plaza agirikoetan dabilzanai ikasiak. Nai dezute bada oek ifini ditzaten zankoak ain egoki nola Azitetxeetako zurtarte edo zepoetan ezi oi dituztenak? Baldin bedere, ez al dezute uste atxurrean egun guzietan lurrarekin borrokan ari diraden nekatzaileak egin ditzaketekela ain aldaira ederrak, eta gaitasun andiak, nola maisu onakin ikasirik beste egiteko gabe egun oro dantzan dabilzanak?

Zoazte bolera dantzari gain gañeko orien jaioterrietara, billatzen ote dituzuten beretako nekatzaileen artean, ainbeste eta ain dantzari egokiak, nola ikusten dituzuten jai guzietan Gipuzkoako edozein erri txikietan: *Urrutiko ezkillak otsa du aundi eta urratzean mingaña nagi.*

Dakitzutelarik bada au ain egiazkoa dana, nola etzerate lotsatzen baserritar zuen anaia presturen bat edo beste dantzan ikusi orduko, bera ixukatuaz itzonzikerian egotea, batean zankoak okerkara edo biurrian jartzen dituela, bestean ipurdiari eragiten

diola muriska edo kabriola egitean, bein bolera dantzari sonatu Mantxego dirudiela, gero Perejillen anza duela, «pan y agua» irudikatzen duela, eta onelako milla maxikerietan?

Zentzuren piskarik duen edozein gizonek ezagutuko du ezin egin litzakeana eskolatu gabeko nekatzalleak ain ikusgarrizko gaitasun andiak, nola diru eta denbora anitzen kostuz, azitetxe andietan, maisu onakin ikasitakoak; bañan bai jatorrizkoetan jostaldiatu, guziz onestasun andian. Txoriburu puztu, ozpindu guziak, eztanda lear gaizto badagizute ere, Gipuzkoako dantza pozkarri oniritziak beti izan da izango dirade, lendabizi bizikoak, ederrenen ederrenak, eta gain gañekoenak.

Aditu izan diotet, eta ez nolanaiko gizonai, Velez esan oi zioten bolera dantzan sona aundiko Zaragozatarrak, ikasi zuela zortzikoak bear bezala dantzatzan; baita egin ere Bilbaoko plaza agirikoan gizon dantza beakurtsu bat diakinde edo funzio andi batzuetan eman izan ziozkatenean onkai zituen eskerak, esan zuela berak ezagutzen zituen dantza mota guzien artean etzala zortzikoari alderatzen zitzaionik.

Dantzari jakintsun onek zortzikoari irizten bazion beste dantza mota guzien gañekoa, zer esango ote

zuen, baldin soñu zarrak jakin izan balitu? Nik naien nukeana da bada, onelako gizon zentzu aundiko batek soñu zarrak bear bezala ezagutzea, eta dantzatzea plaza agiriko batean, itz jario prestuez guziak ixiltzeko.

Soñu zarrak bear bezala dantzatzen ez dakienari ez da erraz adierazotzen beren aunditasuna zenbate-rañokoa dan, zeña argitaratu nairik ari naizan nere buru guzia puskatzen, eta irakurleak engorrotutzen diturala. Baña uste det ezagutuko dutela oek, nere ekai edo intenzio onak zertarakoak diraden, eta bera-gatik, ez dutela gaitzat artuko onenbeste aldiz gauza bat berriztutzea.

**GIPUZKOAKO DANTZA
MOTA GUZIAK
BEAR BEZALA DANTZATZEKO
IKASI BEAR DIRADEN
ALDAIRAK EGITEKO
IRAKASTEA EDO INSTRUKZIOA**

Dantzariak, dantzan asi bear duen guzian, bear ditu oñak ifini modu onetan:

Eskuiko oñaren barren aldeko erdi erdiko sakanean ifini bear du, ezkerreko erpoa, oñ biakin gurutze burugabeko bat irudikatzen edo imitatzen debala.

Muriska edo kabriola egiten ikasi bear du, bi gisatara modu onetan: gorputza lurretik airaturik, gurutzetu bear ditu aztal biak, oñ puntak al duen atzertuena, eta erpoak txit aurrera begira dauzkala.

Aztal biak ongi gurutzetzeko, jo bear du lendabizi, airean, ezkerreko oñaren kanpo aldeko koiskor txonkatillakoarekin, eskuikoaren kañara ezur erdikoa, txit be bean; eta gero eskuikoaren txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin ezkerreko zankoaren kañara ezur erdikoa be bean. Au da muriska edo kabriola alde baterakoa; eta beste alderakoa ongi egiteko aski du, lenago aurrena ezkerreko oñarekin egin duena, eskuikoarekin egitea, eta onekin egin duena berbera gero arekin.

Kabriola oek zuzenean gora bezala, orobat egiten dirade gorputzari jira osoa airean eragiten zaiola, alde bietara. Onetarako da bada txit premiazkoa, lenago erakutsi deran bezala, bi gisatara ikastea; zergatik modu batera baizik egiten ez dakienak, ezin egin ditzakean ongi, jira osoko muriska edo kabriolak.

Eskuiko aldetik ezkererontz egin bear duenean kabriola jira osokoa, jo bear du lendabizi, jiratzearekin batean, eskuiko txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin, ezkerreko zankoaren kañara ezur erdikoa, lenago esan deran bezala; eta gero onen txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin, aren kañara ezur erdikoa. Ezkerreko aldetik eskuirontz egitean, jo bear du aurrena ezkerreko txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin eskuiko zankoaren kañara ezur erdikoa; eta gero, onen txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin aren kañara ezur erdikoa.

Muriska edo kabriola erdiak egiten dirade onela:

Oñak dantzan asitzeko moduan dauzkala, altxatu bear ditu lurretik biak bat batean, eta kabriola osoa egitean bezala bear du jo, ezkerreko oñaren txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin eskuikoaren kañara ezur erdikoa, eta jarri bear du lurrean bi oñakin, jo duen gisa berberean zankoak gurutzeturik dauzkala, eskuikoa atzetik, eta ezkerrekoa gañetik dituela. Bereala altxatuko da lurretik biakin batean, eta joko du lendabizi eskuiko txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin ezkerrekoaren kañara ezur erdikoa, eta

jarriko da lurrean jo duen gisa berberean zanko biak gurutzeturik dauzkala, ezkerrekoa atze aldetik eta eskuikoa aurretik dituela. Oek dirade bi kabriola erdi.

Laisterrak edo karrerak egiten dirade modu onetan:

Karrera bakoitzak ditu bost kolpe, gisa onetan:

1. Lendabiziko kolpean, oñak dantzarako moduan jarririk dauzkala, idiki bear ditu bi oñak bat batean, eskuikoa eskuirontz, eta ezkerrekoa ezkererontz, erpo bien tartean uzten duelarik arrada baten tokia. Erpoak alkargana begira aurkez aurke gelditzen diradela, eta oñ puntak saiets bietara.

2. Bigarren kolpean, eskuiko oña bere lekuan geldirik dagoela, ifini bear du ezkerrekoa bere beatz aundiarekin, eskuikoari erpoan ukitzen diola.

3. Irugarrenean, ezkerrekoa geldirik bere tokian daukala, eskuikoa altxaturik jarri bear du lurrean arrada batez aurrerago eskuirontz, lenago zeukan gisa berberean punta saiets alderontz duela.

4. Laugarrenean, eskuikoa geldirik dagoela jarri bear du ezkerrekoa bere erpoarekin, eskuikoaren beatz aundiari barrun aldeti ukitzen diola.

5. Bostgarrenean, ezkerrekoa geldirik daukala, ifini bear du eskuikoa bere erpoarekin, ezkerreko oñari erdi erdiko sakanean ukitzen diola; puntaz saietsera begira, gurutze burugabe baten gisara bi oñak gelditzen diradela. Au da karrera bat eta eskuirontz egiten dana.

Ezkerreko aldera orobat egin bear da karrera; eta au bear bezala egiteko ez du besterik, ez bada, eskuiko alderakoa bukatzen duenean oñ biak idikitzea zein bere alderontz begira bat batean, arrada baten tokia bien tartean uzten duela. Bigarren kolpean, ezkerreko oña geldirik dagoela, eskuikoa bere beatz aundiarekin, ezkerreko erpoari ukitzen diola bear du ifini. Irugarrenean, eskuikoa geldirik daukala, bear du ezkerrekoa arrada batez aurreratu ezkererontz. Laugarrenean, ezkerrekoa geldirik dagoela, eskuikoa bere erpoarekin, ezkerrekoaren beatz aundiari ukitzen diola bear du jarri; eta bostgarrenean, eskuikoa geldirik daukala, bear du ifini ezkerrekoa bere erpoarekin, eskuiko oñaren erdi erdiko sakanari ukitzen diola. Oek dirade karrera senzilloak.

Laisterka geiagotuak edo karrera añadituak egiten dirade onela:

Karrera geiagotua edo añaditua egiteko lendabizi egin bear du senzilloa, esan deran bezala, eta orduan añaditzen da, kabriola erdi, goien erakutsi ditudanakin. Kabriola erdi oek egin bear ditu eskuiko aldeko karrera añaditzean, lendabizi ezkerreko oña gañetik, eta eskuikoa azpitik dituela; eta gero eskuikoa gañetik, eta ezkerrekoa azpitik lurrean ifinten dituela, esanik daukadan bezala. Baña ezkerreko aldeko karrera añaditzean, egin bear ditu, aurrena eskuiko oña gañetik, eta ezkerrekoa azpitik dituela, eta gero ezkerrekoa gañetik, eta eskuikoa azpitik dituela lurrean jartzen dala.

Dantzako aldaira edo mudanza guziak egin bear dira, aurrena eskuirontz, eta gero ezkererontz. Beragatik, alde batera oñ batarekin asitzen duen bezala, bestera egin bear du, bestearekin.

Ala karrera senzilloak, nola geiagotuak, eskuiko aldera, eta ezkererontz bezala bere bat egiten dirade, gorputzari jira osoa eragiten zaiola; eta obei esaten zaiote karrera jirakoak, zeña idukiko dezuten aurkez, aldairak dantzatzeko irakaste edo instrukzioetan.

Lau ariñak edo kuartro peloak egiten dirade onela:

Eskuiko oña bakarrik altxatu ta, punta saietsera begira duela, kanpoko aldera eragiñik, beraren txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin ukitu bear dio lurrean daukan ezkerrekoari kañara ezur erdikoan, eta ifini bear du lurrean ezkerrekoagandik arrada erdi batez apartarago, punta txit atzera, eta erpoa aurrera begira dituela. Au lurrean ifintean, bereala, ezkerrekoa altxaturik bear du jarri erpoarekin, eskuikoaren beatz aundiari barrengo aldetik ukitzen diola, eta gorputza eskuiko aldeko saietsera begira duela. Au da lau arin edo kuartro pelo bat. Esan deran moduan bi oñak dauzkala, altxatu bear du bakarrik ezkerrekoa, eta punta saietsera begira duela kanpoko aldera eragiñik, beraren txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin ukitu bear dio lurrean daukan eskuikoari kañara ezur erdikoan, eta jarri bear du lurrean eskuikoagandik arrada erdi batez apartarago, punta txit atzera, eta erpoa aurrera begira dituela: au lurrean ifintean bereala eskuiko altxaturik jarri bear du erpoarekin, ezkerrekoaren beatz aundiari barrungo aldetik ukitzen diola eta gorputza ezkerreko aldeko saietsera begira duela. Au da bigarren lau ariña. Lau ariñ edo

kuatro pelo oek ez dira egiten bein ere asialdia batean lau baño gutxiago, ez eta geiago ere.

**Lau ariñ herriztuak edo
kuatro pelo redoblatuak
egiten dirade modu onetan:**

Eskuiko oña bakarrik altxatu ta punta zuzen zuzen lurrera begira duela barrungo aldera eragiñik, beraren txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin, ezkerrekoaren kañara ezur erdikoa jo, ta ifini bear du lurrean, erpo biak musuz musu alkarri ukitzen diotela. Orduan ezkerreko oña altxatu ta kanpoko aldera eragiñik, jo bear du beraren txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin eskuikoa kañara ezur erdikoan, eta jarri lurrean, eskuikoagandik arrada erdi batez apartago, punta txit atzera, eta erpoa aurrera begira dituela, au lurrean ifini bezin laister, eskuikoa altxatu ta jarri bear du erpo berarekin, ezkerrekoaren beatz aundiari ukitzen diola; baita gorputza ere, ezkerreko saiets aldera begira. Au da lau ariñ berriztu edo kuartro pelo redoblatu bat, eta bestea egiteko, altxatu bear du ezkerreko oña bakarrik, eta punta zuzen zuzen lurrera begira duela barrungo aldera eragiñik,

beraren txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin eskuikoaren kañara ezur erdikoa jo, ta ifini bear du lurrean erpo biak musuz musu alkarri ukitzen diotela. Orduan, eskuiko oña altxatu ta kanpoko aldera eragiñik, jo bear du beraren txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin, ezkerreko kañara ezur erdikoa, eta jarri lurrean, ezkerrekoagandik arrada erdi batez apartago, punta txit atzera, eta erpoa aurrera begira dituela; au lurrean ifini bezin laister, ezkerrekoa altxatu ta jarri bear du erpoarekin, eskuikoaren beatz aundiari ukitzen diola, baita gorputza ere eskuiko saiets alde-
ra begira. Au da bigarren lau ariña.

**Muriska tringokoak
edo ala de pitxonak
egiten dirade onela:**

Eskuiko oña altxatuta puntaz beera begira atzerontz luzaturik daukala, jo bear du ezkerrekoarekin, azpian eta gero gañean kabriola egitean bezala, eta ifini bear du eskuikoa bakarrik lurrean. Airean gelditu zaion ezkerrekoaren punta luzaturik atzerontz begira jarri, ta jo bear du eskuikoarekin azpian ta gañean, lenago au, arekin bezala; eta jarri lurrean ezkerrekoa bakarrik. Oek dira bi muriska txingokakoak edo ala de

pitxon esan oi diezatenak. Modu onetan egin ditzake dantzariak nai dituen ainbat txingokako muriska, baña beti bear ditu osekitu eskuiko oñarekin, egiten dituen ainbeste, ezkerrekoarekin, ikusleak esan ez degioten artoa jaten al diola ezkerreko anak.

Oñ punta erpoakikoa edo zapateoa egiten da onela:

Eskuiko oñeko beatz aundiarekin jo bear du lurra, erpoa al duen guzia goraturik, kanpo aldera begira daukala; bereala, erpo beraren ondoko eskiñarekin jo bear du lurra, oñ punta zuti zuti kanpoko alderontz begira daukala; ostera, berriz jo bear du oñ beraren beatz aundiko puntarekin, lendabizikoan bezala. Iru kolpe oek ematean, oñ beraren txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin jo bear du lurrean daukan ezkerrekoa kañara ezur erdikoan, eta ifini lurrean, ezkerrekoagandik lau beatzez apartago, erpo biak aurkez aurke, eta puntak saiets banaetara begira gelditzen diradela. Au da oñ punta erpoakiko edo zapateo bat, eta bestea egin bear du ezkerreko oñarekin, lenago eskuikoarekin egin duen bezala.

Aurrerako txorrotxa egiten da modu onetan:

Eskuiko oña altxatu ta puntaz beera txit aurrerontz luzaturik daukala, jo bear du ezkerrekoarekin aurrena azpian, eta gero gañean; eta eskuikoa lurrean ifintearekin batean, arrotu bear du ezkerrekoa al duen guzia aurrerontz, pizkortasun aundiarekin.

Atzerako kabriola egiten da onela:

Aurrerako txorrotxa bukatu bezin laister ezkerreko oña altxatuta atzerontz txit luzaturik airean daukala, jo bear du eskuikoarekin aurrena gañean eta gero azpian, eta ezkerrekoa lurrean ifintearekin batean, luzatu bear du eskuikoa atzerontz al duen guzia aire aundiarekin.

Zearrerako muriska edo kabriola eskuiko alderakoa egiten da onela:

Zearka edo saieska egin bear du kabriola eskuiko aldera, aurrerako txorrotxa egiten duen gisa berbe-

rean, oñ biak eskuirontz txit luzaturik, eta gorputza ezkererontz makurtzen duela.

Zearkako kabriola ezkerreko aldera egiten da modu onetan:

Atzerako muriska edo kabriola egiten duen beza-la bear du egin ezkerreko aldera saieskarakoa, oñ biak al duen guzia ezkererontz luzaturik eta gorputza eskuirontz makurturik.

Jira galdua edo buelta perdidada egiten da onela:

Eskuiko oña lurretik kana erdi batean goraturik, aurrerontz txit luzatu ta puntaz beera begira airean daukala, ezkerrekoa igaro bear dio eskuikoari gañetik, eta jo bear du lurra ezkerrekoarekin bakarrik, eskuikoa airean daukala, eta gero eratsiko du berea-la eskuikoa ere lurrera. Au da jira galdu edo buelta perdidada eskuiko alderakoa.

Ezkerreko alderakoa egin bear du, lenago eskuiko oña ifini duen gisa berberean ezkerrekoa jarririk, eskuikoarekin ari gañetik igarota lurra onekin, ura airean daukala jotzen duela.

Edozein kabriola mota egitean beti jo bear du lurra oñ puntakin lenago erpoarekin baño: batetik txit itxuski dalako dantzariak muriska egitean, oñarekin osotoro jotzea; eta bestetik, zabaluka ibiltzen dalako lurra jotzean ezin geldituz, erorteko perill urkoan; baita ere gorputzari dardarika gaiztoa eragiten diolako. Argatik oi da esangia bat Euskaldun dantzarien artean ezik, dantzari onak ez duela arraultzarik ere ausi bear oñ azpian artuagatik.

Badira beste aldaira edo mudanza geiago ere, baña uzten ditut esan gabe: batetik ez luzatzearren, eta bestetik dakiralako segurki, baldin ifini dituran oek bear bezala egiten badira, eta denbora egokietan, eranzunkidatzen zaiozkaten lekuetan zuzenkiro sartu, dantzariak argitu edo luzituko duena, txit ongi.

Asko bider aditu izan diotet dantzari ustekoai darauskiotela: batean onelako aldaira baile Inglesekoa dala, bestean alako boleararena; ura minuetakoa, au zortzikoarena... eta ez diradela egin bear, zein bere dantza gisatan baizik. Engañatzen dirade bada erdi erditik onela mintzo diraden guziak, baita uste berean daudenak ere. Zergatik edozein dantza gisatan, ongi ematen duten aldaira guziak, baldin berai dagozkieten konpasetan, egokidatzen zaiozkaten

bezala zuzenkiro sartutzen badira; baña ez soñuaren puntuaz kanpora egiten badira, asmatu al ditezkean gaitasunik ederrenak ere.

Erakutsi dituran aldaira oek, noiz, nola, eta zenbat egin bear diraden irakastea

Lenago ere esanik daukadan bezala, dantzaren asierako soñuak, andreen deiakoak, eta zortzikoak, guziak dira zortziña puntukoak, zeñetatik datorren gure zortzikoaren izen egiazko, zuzen, egokia.

Soñu oetako edozeñetan dantzatu bear dira zortzi puntuak, eskuiko oñarekin asi, eta berarekin bukatzen diradela; eta oñ batekin egiten dituen aldaira berak, bestearekin osekitu edo ejekutatzen dituela.

Ikusi izan ditut nik dantzari sonatuak ala ere, zortzikoaren laugarren puntua eskuiko oñarekin, zortzikoarena bezala bukatzen dutenak; baita lendabiziko puntua ezkeraz asitzen dutenak ere. Beste batzuek berriz, denbora gutxian gauza asko egin nairik, konpasetik kanpora jauzita, azkenengo puntua ezin arra-

paturik, ito itoka dabilzala, txakurrak ondoren darraiozkan basauntza aitzetik aitzera saltoka ibilli oi dan bezala; eta onelakoak dantzariak diradela ezin esan dezake iñork, baizikan saltalariak, eta laisterkariak.

Ez da gauzarik, ez eta ere eginbiderik, bere neurri seguru, jakin, ezagunak ez dituenik. Eta ala neurri jakin oetan igarotzen dana, nola iristen ez dana, izango da beti utsaldi edo defektoduna; bere izatezko neurri seguruak zuzenkiro gordetzen dituenak, naiz dala andia, eta naiz dala txikia, izan ta izango da obetandezkoa edo perfekziozkoa. Beragatik da dantziariagoa askoz ere, gauza gutxiago egin arren, neurrietan zuzenkiro dabillena, konpasetik kanpora gaitasunik aundienak egiten dituenak baño.

Izendatu ditudan soñu mota orietan artu bear ditu dantzariak oñakin zortzi puntuak, modu onetan:

1. Eskuiko oñarekin.
2. Ezkerrekoarekin.
3. Eskuikoarekin.
4. Ezkerrekoarekin.
5. Ezkerrekoarekin.
6. Eskuikoarekin.
7. Ezkerrekoarekin.

8. Eskuikoarekin.

Orainago esan deran bezala, dantzariaren edertasunik aundiena dago oñ batarekin egiten duen aibat, bestearekin egitean, eta alde batera egiten duena berbera, bestera osekitzean.

Lendabiziko puntu edo konpasean eskuiko oñarekin asita, laugarrenean ezkerrekoarekin egiten duena berbera dator otsekitzera, bostgarrena ezkerrarekin asirik zortzigarrena eskuikoarekin bukatzean, ikusi dezuten bezala. Eta ongi dantzatu nai duenak, premiazkoa du txit, irakaste au aurkezean beti idukitzea, bestela ezin izan diteke dantzari ona; ez eta dantzariaren izena onkai duena ere, zergatik ez dan aski aurrenengo eta azkenengo puntu biak ongi eramatea, baldin erdikoetan gaizki badabil.

Zurubietan edo eskallaraetan igo bear duen gizon bat, lendabiziko mallan zuti abiatuak, azkenengoan ere gisa berean gelditu arren, baldin bien bitartekoetan amilka badabil, ezin esan diteke ongi igo dala.

DANTZAREN ASIERAKO SOÑUA NOLA DANTZATU BEAR DAN IRAKASTEA

Dantzari onak, dantzan asitzen dan toki guzietan, bear ditu dantzatu zortzi puntuak: lendabizi senzillo, eta gero aldaira geiagokoakin. Aldaira oek ere dantzatu bear ditu aurrena errazenak, eta ondorean otsekitze edo ejekuzio aundiagokoak, zergatik txit itxuski dan bikañenak egindakoan txatarrenak agertzea.

Senzilloa egiten da onela:

Lendabiziko puntu edo konpasean, egin bear ditu oñ biakin lau mugida edo golpe, modu onetan:

1. Eskuiko oña altxaturik, punta saietserontz, lurrera begira duela, eragin bear dio berari kanpo aldera.

2. Ifini lurrean, ezkerrekoagandik arrada ta erdiz apartago, erpoa airean eta ezkerrekoaren erdiko sakanera begira duela.

3. Ezkerreko oña altxaturik, jarri bear du erdiko sakanarekin eskuiko erpoari ukitzen diola.

4. Eskuiko oña altxatu, ta ifini bear du ostera lurrean, bete betean, arrada erdi batez aurrerago.

Bigarren konpasetan, egin bear ditu beste lau mugida gisa berberean, ezkerreko oñarekin asitzen dala. Obekiago adierazitzeagatik esango dizutet nola:

1. Ezkerreko oña altxaturik, punta saietserontz lurrera begira duela, eragin bear dio berari kanpo aldera.

2. Ifini bear du lurrean, eskuikoagandik arrada ta erdiz apartago, erpoa airean eta eskuikoaren erdiko sakanera begira duela.

3. Eskuiko oña altxaturik, jarri bear du erdiko sakanarekin ezkerreko erpoari ukitzen diola.

4. Ezkerreko oña altxatu, ta ifini bear du ostera lurrean, bete betean, arrada erdi batez aurrerago.

Irugarren konpasean, egin bear ditu bi mugida, modu onetan:

1. Eskuiko oña altxatuta saiets aldera txit luzaturik, beraren txonkatillako koiskor kanpo aldekoarekin jo bear du ezkerrekoa, kañara ezur erdikoan, be bean.

2. Ifini bear du eskuiko oñ bera, ezkerrekoaren atzean eta arrada erdi batez apartago, gurutze gurutzean, erdiko sakanarekin ezkerreko erpoagana begira.

Laugarren konpasean, egin bear ditu bi mugida, onela:

1. Ezkerreko oñaren erpoa altxaturik, punta lurrean irristatzen duela jo bear du beraren txonkati-llako koiskor kanpo aldekoarekin, eskuikoaren kañara ezur erdikoa, be bean.

2. Jarri bear du ezkerreko oñ bera lurrean, bete betean, eskuikoagandik arrada erdi batez aurrerago, lenago zegoen toki berberean; eta bostgarren konpa-sa asitzerako ifini bear du eskuiko oña altxaturik arra-da erdi batez aurrerago, bete betean.

Bostgarren konpasean, egin bear du, bigarrenean egin duena berbera.

Seigarren konpasean, lendabizikoan bezala.

Zazpigarren konpasean, ezkerreko oñarekin egin bear du, irugarrenean eskuikoarekin egin duena berbera.

Zortzigarren konpasean, eskuiko oñarekin egin bear du, laugarrenean ezkerrekoarekin egin duen bezala. Orra non aurkitzen dan zortziko bukatu-rik; eta bestea dantzatzen asitzerako, beti mugitu bear du ezkerreko oña, laugarren konpasetik bostgarrene-rakoan eskuikoa bezala.

Aldaira guzietan bukatu bear du beti soñua, azkenengo puntu edo konpas bietan, zazpigarrena eta zortzigarrena erakutsi dituran modu berberean. Bera-gatik, lendabiziko sei puntuetan edozein aldaira mota, eta nai dituen ainbat egiñ arren, beti gorde bear ditu beste puntu biak, zeña diraden zazpigarrena ta zortzigarrena, esan deran gisan soñua bukatze-ko.

Beste aldaira bat:

Lendabiziko sei konpasetan egin bear ditu, lau kuarto pelo senzillo, eta lau karrera senzillo, modu onetan:

Aurrenengo konpas bietan lau kuarto pelo senzi-llorak, konpas bakoitzean bi; eta beste lau konpasetan, lau karrera senzilloak, konpas bakoitzean bat. Orra non diraden sei konpasak; eta bukatu beste bi konpas, zazpigarren eta zortzigarrengoakin, lenago erakutsi deran moduan. Ala kuarto peloak, nola karrera eta beste edozein aldaira, lendabizikoa egin bear da beti, eskuiko aldera, eta urrengoa ezkerre-rontz. Ongi baño ere obekiago buruan iduki ditzatzu-ten oarkera aiñ premiazko oek, berriztutzen dizkitzu-

tet onenbeste bider, eta beragatik ez dezute esan bear atsekabegiña naizala.

Beste aldaira bat:

Lendabiziko sei konpasetan egiñ bear ditu sei karrera senzillo, bakoitza zapateo banarekin, modu onetan:

Aurreneko konpasean, eskuiko aldera karrera senzilloa eta zapateo bat, eskuiko oñarekin bakarrik egiten duela zapateo au.

Bigarren konpasean, ezkerrerontz karrera senzilloa, eta zapateoa ezkerreko oñarekin.

Irugarren konpasean, jirako karrera senzilloa, eta zapateoa eskuiko oñarekin.

Laugarren konpasean, jirako karrera senzilloa beste aldera, eta zapateoa ezkerreko oñarekin.

Bostgarren konpasean, aurrenekoan egin duen berbera.

Seigarren konpasean, bigarrenngoan bezala; eta bukatu, bi konpas azkenekoakin, betiko moduan.

Beste aldaira bat:

Lendabiziko sei konpasetan egin bear ditu lau kuarto pelo redoblatu, eta bi karrera añaditu gisa onetan:

Aurreneko lau konpasetan lau kuarto pelo redoblatu: konpas bakoitzean bat; eta beste bi konpasetan karrera añaditu biak, konpas bakoitzean bana; eta bukatu azkenengo konpas biakin, beti bezala.

Beste aldaira bat:

Lendabiziko sei konpasetan egin bear ditu lau karrera añaditu, eta lau kabriola zuzenekoak, modu onetan:

Aurreneko konpasean, karrera añaditu bat eskuko aldera.

Bigarren konpasean, bi kabriola zuzeneko toki berean.

Irugarren konpasean, karrera añaditu bat ezkererontz.

Laugarren konpasean, kabriola zuzeneko bi, leku berean.

Bostgarren konpasean, jirako karrera añaditua eskuitik ezkererontz.

Seigarren konpasean, jirako karrera añaditua ezkerretik eskuirontz, eta bukatu beste bi konpasakin.

Beste aldaira bat:

Lendabiziko sei konpasetan egin bear ditu: lau ala de pitxon, bi karrera añaditu, eta bi kabriola jira oso-koak, modu onetan:

Aurreneko konpasean, bi ala de pitxon.

Bigarren konpasean, beste bi ala de pitxonak.

Irugarren konpasean, karrera añaditua eskuirontz.

Laugarren konpasean, kabriola jira osokoa toki berean, eskuitik ezkererontz.

Bostgarren konpasean, karrera añaditua ezkerreko aldera.

Seigarren konpasean, kabriola jira osokoa ezkerretik eskuirontz, eta bukatu beste bi konpasakin.

Beste aldaira bat:

Lendabiziko sei konpasetan, egin bear ditu sei karrera añaditu, modu onetan:

Aurreneko konpasean, karrera añaditua eskuirontz.

Bigarreanean, karrera añaditua ezkerretik.

Irugarreanean, karrera añaditu jira osokoa, eskuitik ezkerretik.

Laugarreanean, jira osoko karrera añaditua ezkerretik eskuirontz.

Bostgarreanean, aurrenekoan bezala.

Seigarreanean, bigarrengoan egin duena berbera, eta bukatu azkenengo bi konpasakin.

Beste aldaira bat:

Lendabiziko sei konpasetan egin bear ditu: lau kuarto pelo senzillo, bi karrera añaditu, bi kabriola zuzeneko, eta bi kabriola jira osokoak, modu onetan:

Aurrengo konpasean, bi kuarto pelo senzillo.

Bigarreanean, beste bi kuarto pelo senzilloak.

Irugarreanean, karrera añaditua eskuiko aldera.

Laugarreanean, toki berean bi kabriola: bata zuzeneko, eta bestea osokoa, egiten duelarik au eskuitik ezkerretik.

Bostgarreanean, karrera añaditua ezkerreko alde-
ra.

Seigarreanean, leku berean kabriola bi, bata zuzeneko, eta bestea jira osokoa, egiten duelarik au

ezkerretik eskuirontz, eta bukatu beste bi konpasa-kin.

Beste aldaira bat:

Lendabiziko sei konpasetan egin bear ditu: bi kuarto pelo redoblatu, karrera jira osoko bi, zapateo bi, eta kabriola erdi bi, modu onetan:

Aurreneko konpasean, kuarto pelo redoblatu bat.

Bigarrenean, beste kuarto pelo redoblatua.

Irugarrenean, jira osoko karrera senzilloa, eskuiko aldetik ezkerretik, zapateoarekin.

Laugarrenean, karrera senzilloa, ezkerreko aldetik, eskuirontz jira osoa egiten duela, zapateoarekin.

Bostgarrenean, kabriola erdi bata, ezkerreko anka eskuikoaren gañetik duela gelditzen dala.

Seigarrenean,, beste kabriola erdia, eskuiko anka ezkerrekoaren gañetik duela gelditzen dala, eta bukatu azkenengo konpas biakin.

Beste aldaira bat:

Lendabiziko sei konpasetan egin bear ditu: bi zapateo, karrera añaditu bi, lau kabriola zuzenekoak, eta bi kabriola jira osokoak, modu onetan:

Aurreneko konpasean, eskuiko oñarekin zapateo bat egiñik karrera añaaditua alde berera.

Bigarrenean, kabriolla zuzeneko bi, toki berean.

Irugarrenean, ezkerreko oñarekin zapateoa egiñik, karrera añaaditua alde berean.

Laugarrenean, bi kabriola zuzenekoak leku berean.

Bostgarrenean, jira osoko kabriola bat, eskuitik ezkererontz.

Seigarrenean, jira osoko kabriola ezkerretik eskuirontz, eta bukatu azkenengo konpas biakin.

Beste aldaira bat:

Lendabiziko sei konpasetan egin bear ditu: bi karrera añaaditu, sei kabriola zuzenekoak, eta bi kabriola jira osokoak, modu onetan:

Aurrenengo konpasean, karrera añaaditua eskuiko aldera.

Bigarrenean, iru kabriola zuzenekoak toki berean.

Irugarrenean, karrera añaaditua ezkererontz.

Laugarrenean, iru kabriola zuzenekoak leku berean.

Bostgarrenean, jira osoko kabriola bat eskuitik ezkererontz.

Seigarrenean, jira osoko kabriola ezkerretik eskuirontz, eta bukatu azkenengo konpas biakin.

Beste aldaira bat:

Lendabiziko sei konpasetan egin bear ditu: bi karrera añaditu, lau ala de pitxon, bi kabriola erdi, eta bi kabriola oso, zuzenekoak, modu onetan:

Aurrenengo konpasean, eskuiko aldera karrera añaditua.

Bigarrenean, toki berean bi ala de pitxon.

Irugarrenean, ezkerretik karrera añaditua.

Laugarrenean, leku berean, bi ala de pitxon.

Bostgarrenean, bi kabriola erdi.

Seigarrenean, bi kabriola oso, zuzenekoak; eta bukatu azkenengo konpas biakin.

Beste aldaira bat:

Lendabiziko sei konpasetan egin bear ditu lau jira galdu edo buelta perdida eta lau karrera senzillo, modu onetan:

Aurreneko konpasean, jira galdu bat eskuitik ezkerretik.

Bigarrenean, bere bat, ezkerretik eskuirontz.

Irugarrenean, bi karrera senzillo, bata eskuiko aldera eta bestea ezkerrekora.

Laugarrenean, bi karrera senzillo jira osokoak, bata eskuitik eta bestea ezkerretik.

Bostgarrenean, jira galdu bat eskuitik ezkererontz.

Seigarrenean bere bat ezkerretik eskuirontz, eta bukatu azkenengo konpas biakin.

Beste aldaira bat:

Lendabiziko sei konpasetan egin bear ditu: zortzi kabriola lau aldeetarakoak, bi karrera senzillo, eta bi kabriola jira osokoak, modu ontan:

Aurrenengo konpasean, aurrerako txorrotxa eta atzerako kabriola.

Bigarrenean, saiets bietara bi kabriola, lenengoa eskuira eta bestea ezkerrean.

Irugarrenean, karrera senzillo bat, eta jira osoko kabriola bat: eskuiko aldera karrera, eta eskuitik ezkererontz kabriola. Laugarrenean, ezkerreko aldera karrera senzilloa eta jira osoko kabriola ezkerretik eskuirontz.

Bostgarrenean, aurreneko konpasean, egin duena berbera.

Seigarrenean, bigarreoan bezala, eta bukatu azkenengo bi konpasakin.

Aldaira oni egokidatzen zaio azkenengo bi konpasakiko bukaera ematea, modu onetan:

Zazpigarren konpasean, egin bear du jira osoko kabriola pizkor bat, eskuiko aldetik ezkererontz, eta zortzigarrenean, aurrerako txorrotx airoso bat.

Noizean bein aurrerako txorrotxarekin soñua bukatzeak guziz ematen du egoki, eta batez ere soñu zarretan, dantzako zubiak egitean, soñu mota bat bukaturik bestea asitzerakoan, eta andre edo neskatxa dantzara ekarten diotenean.

Dantzariak egin ditzake aldaira edo mudantzak milloika, erakutsi ditudan oek ongi ikasi ezkeru.

Lore moltsogin edo ramilletegille jakinsun batek lore mota piska batzuekin egin oi ditu, txit gisa askotako lore moltsoak, aldairatzen dituelarik egokitasun aundian, bein erdian ifinten dituen mota berak, urrengoan bazterrera; orain alde batean jartzen dituenak, gero bestera; batari goien ezarten diozkanak, besteari bean...

Bere bat gertatzen da izkribuarekin. Izanik ogeitalau letra bakarrak itzkribatzeko, oekin berakin adierazitzen dirade mundu osoko itzkuntza guzietan argiro

eta garbiro, gogoratu al ditezkean esakari guzi guziak; baldin itzkunza bakoitzari dagozkion bezala, zein bere tokietan zuzenkiro ezarten baditu. Gisa berean dantzariak ere egin ditzake nai dituen ainbat aldaira mota, erakutsi ditudan bakar oek ongi osekitu ezkerro: baña ankakin mugida ederrak arintasunarekin egin arren, baldiñ badabil konpasaz kanpora, ainbeste onkaitaro edo merito izango du aren dantzak, nola koskaetan jauzirik, noiz zer ordu jotzen duen ez dakin erlejuak.

Desengañaturik mututu ditezke bada sekula betiko, arako Gipuzkoako dantza mota anziña anziñakoe-tan, eta beren soñu zarretan, oraingo aldaira berri modakoak ezin egin ditezkeala darauskioten itz-jario, erausle, ezjakin txar oriek guziak, zergatik gure dantza oniritzi gogoangarriak eta soñu zar gozo jakintsu-nak diraden, arrotz guziak baño askoz ere sasoi obea-gokoak, pizkorragoak, zabalagoak eta prestuagoak, ala edozein aldaira motari onetsirik berenkoitutzeko, nola txukinkiro berak apaindurik argitasun aundian, noiznai, eta edozein tokitan, agertartzeko. Beragatik, txoro garbi garbitzat iduki bear dituzute, nere perillean, gure dantza gogoangarri pozkidatsuetan

aldaira berri modakoak ezin egin ditezkeala esan oi duten uanditu iraingarri oriek guziak.

Dantzaren asierarako eman ditudan irakaste edo instrukzio oek, bere bat serbitzatzen dute andreen deieko soñu edo kontrapasetarako, bañan ez zortzikoetarako, zergatik oek jotzen diraden urduriago, eta ez dan denborarik beretan ainbeste lan osekitzeko, nola aietan.

ZORTZIKOAK NOLA DANTZATU BEAR DIRADEN IRAKASTEAK

Dantzaren asierarako erakutsi deran moduan dantzatzen da zortzikoetan ere senzilloa, kendutzen zaiola berari zortzikoetan, oñaren mugida kanpo aldera eragiten zaiona, lendabiziko konpasean, bigarrengean, bostgarrenean eta seigarrengean.

Beste aldaira bat senzilloa bezain lasaia edo geldia:

Egin bear ditu lendabiziko sei konpasetan bi karrera senzillo, eta bi kuarto pelo senzillo, modu onetan:

Aurreneko konpas bietan karrera senzillo bat eskuiko aldera. Urrengo bietan beste karrera senzilloa ezkererontz.

Bostgarren konpasean, kuartro pelo senzillo bat eskuiko aldera.

Seigarrenean bere bat ezkererontz, eta bukatu azkenengo konpas biakin.

Beste aldaira bat lan geiagokoa:

Egin bear ditu lendabiziko sei konpasetan, bi kuartro pelo redoblatu, eta bi kabriola jira osokoak, modu onetan: Aurreneko konpas bietan, kuartro pelo redoblatu bat, eskuiko oñarekin asitzen duela. Urrengo bietan bestea, ezkerrekin asita. Bostgarren konpasean, jira osoko kabriola, eskuiko aldetik ezkererontz. Seigarrenean, beste kabriola jira osokoa, ezkerretik eskuirontz; eta bukatu, azkenengo bi konpasakin.

Beste aldaira bai:

Egin bear ditu lendabiziko sei konpasetan: bi karrera senzillo, zapateo banarekin, alde banaetara; bi kabriola erdi, eta beste bi osoak zuzenean, modu onetan:

Lenengo konpas bietan karrera senzilloa eta zapateoa eskuiko aldera; urrengo bietan ezkererontz karrera senzilloa ta zapateoa. Bostgarren konpasean, kabriola erdi biak, lenengoa ezkerreko oña gañetik duela, lurrean gelditzen dala, eta bigarrena eskuikoa gañetik duela. Seigarren konpasean, kabriola oso zuzeneko biak; eta beste bi konpasakin bukaera.

Beste aldaira bat:

Egin bear ditu lendabiziko sei konpasetan lau kuarto pelo senzillo, eta bi karrera senzillo jirakoak, alde banaetara modu onetan:

Lenengo lau konpasetan lau kuarto pelo senzilloak, konpas bakoitzean bat. Bostgarren konpasean, karrera senzillo jirakoa, eskuiko aldetik ezkererontz. Seigarrenean, bere bat ezkerretik eskuirontz, eta beste bi konpasetan, bukaera. Karrera senzilloak egin bear ko dira txit agudo, zergatik langai anitz duen zortzikoetan, konpas bakoitzean karrera bat egiteak.

Beste aldaira bat:

Egin bear ditu lendabiziko sei konpasetan, bi karrera senzillo kabriola zuzeneko banarekin, eta lau ala de pitxon, modu onetan:

Lenengo konpas bietan, karrera senzilloa eskuiko aldera, eta kabriola zuzeneko bertan. Urrengo bietan, karrera senzilloa ezkerretik eta kabriola zuzeneko toki berean.

Bostgarren eta seigarren konpasetan, lau ala de pitxonak, konpas bakoitzean bi, asitzen duelarik lendarizikoa eskuiko oña airean daukala, eta bukaera, azkenengo konpas biakin.

Beste aldaira bat:

Egin bear ditu lendariziko sei konpasetan, bi karrera añaaditu alde banaetara eta bi kabriola jira osokoak, modu onetan:

Lenengo konpas bietan, karrera añaaditua eskuiko aldera; urrengo bietan ezkerretik. Bostgarren konpasetan, jira osoko kabriola eskuiko aldetik ezkerretik. Seigarrenean, bere bat ezkerretik eskuirontz; eta bukatu, beste bi konpas azkenekoakin.

Beste aldaira bat:

Egin bear ditu lendariziko sei konpasetan jirako karrera senzillo bi, zapateo banarekin, alde banaetara, eta lau kabriola zuzenekoak, modu onetan:

Lenengo konpas bietan jirako karrera senzilloa zapateoarekin, eskuiko aldetik ezkerretik: urrango bietan bere bat ezkerretik eskuirontz; eta beste bi konpasetan, lau kabriola zuzenekoak, konpas bakoitzean bi: eta bukaera, azkenengo konpas biakin.

Beste aldaira bat:

Egin bear ditu lendabiziko sei konpasetan, bi zapateo, eta bi karrera senzillo alde banaetara, buelta galdu banarekin, modu onetan:

Lenengo konpasean, zapateo bat eskuiko oñarekin asitzen dala. Bigarreanean, bestea ezkerrekoarekin asirik. Urrango bi konpasetan karrera senzilloa eskuiko aldera, eta buelta galdua bertan, eskuiko oña airean daukala. Bostgarren eta seigarren konpasetan bere bat ezkerretik karrera senzilloa eta buelta galdua toki berean, ezkerreko oña airean daukala; eta bukatu, azkenengo konpas biakin.

Beste aldaira bat:

Egin bear ditu sei konpasetan lau ala de pitxon eta lau kabriola: bi zuzenekoak, eta beste biak jira osokoak, modu onetan:

Lenengo bi konpasetan lau ala de pitxonak, eskuiko oña airean daukala asirik. Irugarren konpasean, kabriola zuzeneko bat. Laugarrenean, jira osoko kabriola, eskuiko aldetik ezkerretik. Bostgarrenean, beste kabriola jira osokoa, ezkerretik eskuirontz; eta seigarrenean, zuzeneko kabriola, bukatzen duelarik azkenengo konpas biakin.

Beste aldaira bat:

Egin bear ditu lendabiziko sei konpasetan bi karrera senzillo jira osoko kabriola banarekin, eta lau kabriola zuzenekoak, modu onetan:

Lendabiziko bi konpasetan, karrera senzilloa eskuiko aldera, eta jira osoko kabriola, alde beretik ezkerretik; urrengo bietan karrera senzilloa ezkerretik, eta jira osoko kabriola eskuirontz; bostgarren eta seigarren konpasetan lau kabriola zuzenekoak, bukatzen duelarik, azkenengo bi konpasakin.

Beste aldaira bat:

Egin bear ditu lendabiziko sei konpasetan, lau kabriola lau aldeetara, eta jira osoko bi kabriola, alde bakoitzera bat, modu onetan:

Lenengo konpasean, aurrerako kabriola edo txorrotxa. Bigarrengean atzerako kabriola.

Irugarrengean, eskuirontz zearka kabriola. Laugarrengean, ezkererontz bere bat.

Bostgarrengean, jira osoko kabriola, eskuiko alde-tik ezkererontz.

Seigarrenean bere bat ezkerretik eskuirontz, eta bukatu beste bi konpasakin.

Zortzikoetarako ipiñi dituran aldaira edo mudanza oek, bere bat serbitzatzan dute soñu zarretarako; bañan da premiazkoa, oen zenbatetsu edo numero jarri dituranakin aiek adreztutzea edo arreglatzea, baldin ongi dantzatu nai baditu.

Erakutsi dizutet argiroki, puntu edo konpas bakoitzean zer ta zenbat mugira eta aldaira kabitzen diraden; baita ere zortzi konpasetarañoko soñu guziak nola artu bear diran. Eta nola igo bear ez duen beñere dantzariak zortzi konpasetik, gora artu edo bukaera eman gabetanik; aixta aski oarketu diteke soñu zarrak zer modutan dantzatu bear dituen; gordetzen dituelarik, esanik daukadan bezala, azkenengo bi konpasak beti, numero guzien bukaeraetarako. Onetarako, daukat oraindik adierazi bearra, numero

bikoa bakarrik arkitzen dantokietan, bera zer gisatan artu bear dan.

Puntu bi bakarrak dauden toki guzietan egin bear du dantzariak lendabizikoan jira osoko kabriola bat eskuiko aldetik ezkererontz, zeñetan gelditzen dan ezkerreko oña eskuikoaren gañetik debala, bukaera guzietako zazpigarren konpasean bezala; eta orduan, asko du egitea eskuiko oñarekin, akaballa guzietan egiten duena, berbera.

Oarkera edo adbertenzia au ez da bestegatik, ez bada, eskuiko oñaz asi eta berarekin bukatu, gure dantza mota guziak egin bear diralako. Bada, bi puntu bakarrak billatzen diradenean, esan deran moduan egin ezkerre, asitzen du eskuiko oñarekin, baita bukatu ere, ezkerrekoak bearra egiten debalarik.

Nere erritar maiteak, eman dizkitzutet irakaste txit seguruak gure jaioterriko dantza mota oniritziak ongi dantzatzeko, baita ez dakitenak zuzenkiro ikas-teko ere. Zuen artean arkitzen dira berrogei ta amar baño geiago, lau urte onen barrunen, neronek erakutsiak, ikusi dituzuen bezala anitzek, plaza berri eder bitore onetan, eta auzo errietakoetan, begiratzalleak naikidatzen dituztela. Eta uste det emendik aurrera

gordakaiatuko dituzutela, zuen asaba maitagarriak irudikatuaz, gure jaioterriko jostaketa sonatu, pozkarrri, miraritsuak, onkai duten bezala. Onetarako artatzen edo enkargatzen zaituztet benazki, irakurri ditzatzutela artezaz eta asko aldiz irakaste txiki oek, alik eta obeagoak eta aundiagoak ni bañan gizon jakiunde geiagokoren batek ematen dizkitzuten artean, zeña izango dan nere naikidarik gozoena.

Gauza jakiña da, lenbizian ta bat batean ezagutuko ez dituzutena naikidara, emen ezarri dizkitzuteran zenbait oarkera eta irakasteak, baña ez da ansi bate-re; baldin sarritan berriztutzen badezute berak irakurtea, nere perill ezagutu ez ezik, ikasi, dantzatu, edertu, galantu eta bitoreatuko dituzutena, baita igo ere goienengo mallara.

Egia da gaurko eguneko zenbait aundi miniska, gaubeti goizera igotakoak, naikida aundirik artuko ez diotena obra oni, anziñako gauzak birjaiotzen dituelako; bañan bai, arako, euskaldunen etorki ona beren izenetan arkitzen zaien, are lenbiziko jatorri aiek. Badakizkit gisa onetako asko ansiaturik daudenak, oitura zar oek argitaratzeko.

Ez det esaten nik, aberatsak eta nekatzalleak jostaldia mota berdiñak bear dituztela; zergatik dakidan

ezin izan litekeana, eta egoki ere ez dana. Edozeñek daki aberatsakin ezin berdindu ditezkeana nekatza-lleak, baita oek naiago dutela jostatu plaza agirikoan soñu zar gogoangarriak jotzen dituen danbolin batekin, ezen ez, asmatu al ditezkean okerreko dantza, bolera, minue, eta balsik berrienak jotzen dituenarekin; beragatik, eta beren izerdiarekin danboliña bazkatzen dutelako, jo bear zaiozkate beren naierako soñuak beargilleai, baita beren jostaketa gaitzik gabeko pozkidatsuak estalpetu edo protejitu ere, errietako alkate jaunak, beren aurreragokoak estalpetu oi zituzten bezala.

Aditu bear dezute bada zer esaten duen Jovellanos jakintiak, lenago izendaturik daukadan obra gogoangarri oroitzapenaren bigarren zatian, beargilleen jostaketa agirikoen aldean:

BIGARREN ZATIA

Nere iduriak argibide ta ekinai aundiagoarekin azaldutzeko, bereziko det diartea edo puebloa ballera bitan, bata bearra egiten duena, eta bestea jostatzen dana. Endeglatuko dlitut lendabizikoan egun oroko neketik ateratako banernearekin bertirauten duten ekabilde

guziak, eta bigarrenagoan, beren errenta edo tinkonde seguruakin bizi diradenak. Nork ikusten ez du bataren eta bestearen nongarte banaitatua jostaketa agirikoen aldean? Egia da izango diradena oraindik persona anitz erdiko nongarte batekoak, baña beti ekabilde oni edo ari egokidatuko zaiezkanak, beren nongarteak zer nola makurtzen dituen geiago edo gutxiago arretara edo aroikeriara. Baita ere ondoreatuko da banaitaren bat aldeetan edo Urietan, eta erri multsutasun geiagoko edo gutxiagokoetan, baña ezin diteke guzia arpeztu. Ala ere gure asierak izango dirade erraz oarkariak ekabilde eta nongarte guziaz. Itzegin dezagun lendabizi bearra egiten duen diartearena.

Diarte edo pueblo onek bear ditu jostaketak, baña ez ekuskarriak. Ez da premiazkoa Erondeak edo Gobiernoak jostaldiatu dezan, bañan bai jostatzen utzi degion. Egun gutxietako, ordu laisterretan señalapenatu al dagikiena bere pozkida ta jostaldiari berak billatuko du, berak asmatuko ditu bere jostaketak. Aski da eman dakion lokabea ta estalpea gozatzeko. Jai egun ostargi eta ateri dan batean dezakeanak

lokabekiro boastitu edo paseatu, eiatu, palankan tirata, pillotan jckatu, arboiltxoan, boleetan arratsalde gosaldu, edan, dantzatu eta batetik bestera ibilli kanpoan, beteko ditu bere naikida guziak eta eskañiko zaiozka jostaldi ta atsegiñik ornituenak. Ain gustu gutxian josta erazi dakioke diarte edo pueblo bati danik aundiena eta zenbatetsuena izan arren!

Ala ere, nola da Espaiñako errien zatirik andiena maneraren batean ez jostatzea? Gure probinziaetan ibilli dan edozeñek egingo zuen asko bider mingaraizko oarkera au. Egunik otsaundikoetan beren bizitegilleen atsegiña adierazi bear luketekeen pozkida eta zegarreararen ordean bateronzen du karrika eta plazae-tan nagitasunezko zegiketa bat, ixilltasun triste batekin ezin oarketu ditezkeanak miretsi gabe eta kupidatzen ez dala.

Baldin personaron batzuek irteten badira beren etxeetatik, ez dirudite besterik ez bada iguñak eta nagitasunak botatzen dituela bere-tatik, eta arrastatzen dituela esikabera, umilla-tegira, plazara edo eliz-atariko leorpera, non beren kapaetan zamorroturik, dala eskiñaren

baten arrimoan edo ezarririk edo orrondaritzan emen edo an beakarririk gabe eta ez gogarta desegobiturik igarotzen dituzte tristekiro orduak eta arratsalde osoak egurastu gabe eta jostaldiatzen ez diradela. Eta baldin oni ezarten bazaio errietako leortasuna, zikinkeria, beartasuna ta desapainde bere bizitegilleena, itxura tristea ta ixilltia, nagitasuna ta bakitearen gabetasuna, eta mugida, zeña senatzen dan toki guztietan, nor izango da arriturik damurriatuko ez dana ain izugarrizko bertagiak ikustean?

Ez da toki onen egitekoa berternetzera bilkidatzen diraden gauza guziak agertzean; diranak diradela, esan diteke segurutzat, guziak etorriko diradela legeetatik. Baña irten gabe geren gogartatik, ezin utzi gentzake ixillik sarrienetako bat eta ezagunena dagoela, erri askoren iritarau edo polizia gaiztoan. Zelatze zogiez, ez ekadoi edo juez gutxirena sinistatzen da Erondea irigokiaren edo Gobierno municipalaren oibetanderik aundiena señalatzan dala, diartea edo puebloa menderatzean: eraen onaren izaterik geiena dagoela, bere

bizitegilleak ekadoi edo justiziaren otsera ikaratzean, eta iñor ere ez ausartatzean mugitzera, ez eta txist bat egitera ere beraren izena aditzean. Ondorean edozein iskanbillak eta edozein otsabar edo algarak etarreratzen dute gudate eta ausi abartzaren izena: edozein ez baita eta edozein jaite da beakarri, erarta ogendun edo prozedimentu kriminal batena; eta dakaizki bere ondoren billakindeak, auzi joaitak, presoindegiak, eta muskillak; baita jarraigo guzi atsekabeena eta bersio oitarauokak ere. Ain iritarau edo polizia gogorraren azpian beldurtzen ta damurriatzen da diartea edo puebloa, eta doskaindurik edo sakrifikaturik bere pozkida segurantza bereari, arautziazten du jostaketa agirikoa eta gaitzik gabekoa, baña orrengatiik perilltsua, eta autatzen ditu bakardadea ta zegiketa tristeak eta mingarriak egiazki, baña denbora berean seguruak.

Onelako billakindetik jaio dirade anitz adrakoi iritarauarenean, ez bakarrik errietako pozkidaren kontrakoak, baita ere beraren doatsuerarenak, eta ala ere ez latzalla ta gogortasun gutxiagorekin gordeak. Toki batzuetan debeka-

tu dira otsankida ta zenzerrri jotzeak, eta besteetan beilladuak eta dantzak. Batzuetan beartzen dituzte biztanleak illunzean beren etxeetan sarturik gelditzera, eta besteetan argirik gabe karrikara ez irtetera, karrika eskiñaetan ez gelditzera, bilgo boilleetan ez batutzera, eta beste onelako debekuetara. Agintzeko furiak, eta iñoiz ekadoien irritzak edo juezen kodiziak, zabaldu ditu aldearik txatarreneraño gorte bateko naskidak ezin griñaitu litzakean adrakoi edo reglamentuak; eta aste guzian kanpoko sokillen gañean izerditurik larranean lo egin duan nekatzalle gizagaxoak larunbat arratsean ezin dezake lokabekiro bere erriko plazan deadar egin, ez eta erdara bat okasitu edo entonatu ere bere maitearen atarian.

Oraindik ni bizi naizan tokia izanik aiñ señaletua guzien artean bere beargilletasunez, bere izatez pozgarria eta gaitzik gabeko bere usuarioak dituen, ezin lokabetu izandu da orrelako adrakoietatik, eta iñoiz lekuko edo testigu izan naizalako gogoratzen zaizkit orain oarkera oek. Erri beraren sakabanatasunak ez grinaitzen ta ez zillegitzen du suertez ere, erri bilduentzat

sortargitutako iritarau irigokia edo polizia munizipala; baña gureak batutzen dira jostatzera erromerietan, eta an geiena jarraitzen ta eragokitzen ditu iritarauaren adrakoiak. Debekatu da beretan makillen oitura, premiagozkoa dana emen gordozerarako baño, tokiaren laztasunagatik. Bedatu dira gizonen dantzak; geldi erazo dira emakumeenak arratsalde erdirako eta azkenik illun aurrea baño lenago bear-tu da, errorneriak oitaskatzera izanik erri bear-gilletsu eta gaitzik gabeko oen jostaketa bakar-rak. Nola al litezke bada ongi eta naikidatuak aiñ atsekabezko iritarauarekin?

Esango da guzia eranpetzen dala, eta egia da: Guzia eranpetzen da, baña eranpetzen da gogo gaiztoz. Guzia eranpetzen da, baña, nor beldur-tuko ez da ain ondore luze eta bortxazko eran-petzeaz? Lokabearen egoitza da nongarte bat pakearena, naikidarena, eta pozkidarena; men-dearena da berriz mugitaraurena, bortxakoare-na, eta atsekabearena; beragatik lenengoa da iraunkorra, eta bigarrena aldairatara bentu-ran dagoena. Ez da bada aski erriak geldirik egotea, da premiazkoa egon ditezen nai erara;

eta bakarrik jakin menezaren asiera guzitik biotz sorrak edo buru utsak dituztenak, eta oraindik modu otxanetik ere, seguratu nai izan dezaketeke beren iduria lenengora, bigarren-gora gabe.

Egiteko au ardura gabe begiratzen dutenak edota ez dute ikusten lokabearekin doatsuerearen artean dagoen zorion errietakoa, edo beintzat urruñatzen dute; eta aiñ gaiztoa da bata nola bestea. Orrengatik ongi agirian dagoena da egitza au; baita artezaz begiratzeko diñakoa ere bidezko begirantza edo administrazio suabe batek. Lokabea ta pozgarria dan diarte edo pueblo bat errazki izango da pizkorra ta beargilletsua, eta baldin ala bada, izango da ongi moderatua eta obeditua Ekadoira edo Justiziara. Zenbat eta geiago gozatzen duen anbat eta geiago maitatuko du bizi dan tokiko Eronde edo Gobernoa: aiñ ongi obedituko dio non onez onean eta naitasunarekin bilkidatuko dan bazkatzera ta gordotzitzera. Zenbat eta geiago gozatzen duen, anbat eta izango du zer galdu geiago: noiz eta geiago beldurtzen duen desaraudeak, orduan ta geiago beakurtu edo erres-

petatuko du eukidatzeko seinalaturik dagoen jabetasuna. Diarte edo pueblo onek izango du aberastutzeko eresia geiago, zergatik jakingo duen geiagotuko duena bere atsegiña, eta bidez bere suertea. Itz batean, beroitza geiagorekin goragotuko du bere zoriona, zergatik seguruago egongo dan gozatzeko. Izanik bada au Eronde edo Gobierno on guzien lendabiziko beakarria, ez da argiro, izan bear ez duela begiratu ustekabezean eta ajola gabe? Izendatzen daneraño doatsuera agirikoa, suertez ere baldin bada guzientzako zorionaren etorkia beste gauzarik, itxekitzen da au ere beakarri edo objeto onetatik, zergatik menpe edo estadu baten poderea eta indarra ez dagoen ainbeste multsutasunean eta aberastasunean, zenbat eta batez ere dagoen bizitegilleen zeleikide edo karakter azkarrian. Egiazki, zer indar izango luke gizon erbalakin eta galkitatuakin, gizon gogortu sorrakin, ez beren eta ez besteren onari amodioren piskarik ez diotenakin konpontzen dan Dierria edo Nazio batek?

Kontrara, gizon batzuek sarritan alkarrekin jostatzerata ta pozkidatzerata bilzarkidatuak, beti

eratuko dute erri bat bakidatua eta gozatsua. Ezagutuko dute onkarri edo interes bat guziakioa, eta egongo dira urrutiratuagoak beren onkarri banaita doskaintzeko edo sakrifikatzen. Izango dira animo goratuagokoak, zergatik izango diraden lokabeagoak, eta orregatik beragatik izango ere dirade biotz artezagokoak eta indartsuagoak. Onesbedatuko du nork bere batune edo klasekoa, zergatik onesbedatuko duen bere burua, eta onesbedatuko ditu gañerakoak, zergatik naiko duen izan dedin bera onesbedatua. Modu onetan beakurtzen dala batintxeki edo jerarkia ta manera neurkida edo legeak bitezarriak, biziko dirade bera dan bezala: maitatuko dute eta gordotzituko dute sinisturik aniazkiro gordotzitzen dituztela beren buruak. Ain egia da errien lokabea ta pozkida daudena desaraudearen urrutiratuagoak, mendea ta damurria baño.

Ez da sinistatu bear orregatik begiratzen derala nik erbaltzak sosegu agirikoa zaintzeko artatua dagoen otxandiki edo majiistratura. Sinisten det kontrara; zergatik ez bera gabe ta ez beraren betiko ernaida gabetanik ezin gor-

dakaiatu litezkean pausa ta eraen ona. Lokabeak berak du bere estalpearen bearra: beraren aurretik ibilli oi da bada eskudanzia, bridaren bat ez danean gelditzeko beren mugaetatik jauzitzen diradenak. Baña ona emen non pekatzen duten sarritan baño ere geiagotan, arako, ekadoi zogiez edo juez indiskreto, ernaida mendestearekin naspillatzen duten aiek. Ez da pozaldiarik, ez da bilkidarik, ez da jostaketarik, zeñetan diarte edo puebloari aurkeztutzen ez diozkaten mendearekin ekadoiaren lanibesak edo instrumentuak. Irudipenez ekadoitu edo juzgatzekotan esan diteke eralgudatzen dutela bakarrik beren jabetasuna bitezartea mende koen beldurraren gañean, edota beren deskan sua seguratu emen pozkida ta lokabearen gostuz. Alfer alferrik da bada: otxandikia edo publikoa ez da jostaldiatuko alik eta jostatzeko lokabe betean jarri dedin artean; zergatik gaubilladiakin diabatzaile edo patrollen artean, itxasgarriakin gudarien artean, zigorrakin baioneten tartean ikarazen dan lokabea, eta iges egiñik izkutatzen da gaitzik gabeko pozkida beldurtia.

Egiazki ez da au bidea iristeko kozka zertarako izandu zan bitezarria goiaraukin otxandikia edo majistradu publikoa. Baldin zillegi bada bekaldutzea umiltia gandiatiarekin edo exelsoarekin, beraren ernaidak irudin bear luke izate goienengoarena: izan egiazkoa ta betikoa, baña ikusten ez dana; izan guziak ezagutzen dutena iñori aurketzean jarri gabearren; ibilli desaraudearen aldean kerentsitzeko edo reprimitzeko, eta lokabearen estalpetzeko: itz batean izan brida gaiztoentzako, eta anperua ta, laguntzalle onak diradenentzako. Beste modutan ekadoiaren beteder beakurtsua aldonduko da mendestearen lanibes edo instrumentuetan, eta obratzen duela bere bitezardearen kontra, atsekabeturik genasiko ditu pozgarritu ta estalpetu, bear litezkean aiek berak.

Onelakoak dira gure iduriak jostaketa agirikoen aldean. Ez da probinziarik, ez da mugaperik, ez da erririk, ez lekurik, zeñek izango ez dituen atsegiñezko jostaldiaren batzuek, dirala oiturazkoak dirala bertaerakoak usuarioz bitezariak.

Ekersia edo ejerjizio indarrena, trebandea, arintasuna, edo azkartasuna; dantza agirikoak, sualdiak edo arratsalde gosariak; boastitze edo paseoak, laisterkak, zamorroak edo musigan-gak; diranak diradela, guziak izango dirade onak eta billartezak

baldin badira agirikoak. Ekadoi edo juez onari dagokio erria estalpetzea alako jostaldietan: maneratu eta apaindu berentzako señalaturik dauden tokiak: urrutiratu andik genasitu al dizaketeen guziak, eta utzi jarri dedin zabaltze-
ra ta pozkidatzera lokabekiro. Baldin iñoz edo berriz aurkeztuko baliz ikustera, obekiago izan bear du animatzeko, ezen ez beldurzeko edo menpea emateko. Izan bedi aita bat bere semeen atsegiñaz pozkarritzen dana bezalako, eta ez bere menpekoen pozkida bekaitztu-
tzen duen bidagea edo tiranoa bezalako. Beindanikan bein, ez dezala iñoz ere utzi ikus-
guñetik bearra egiten duen erria oarketu degun bezala, ez duela Eronde edo Gobiernoak jostaldiatu bearrik, bañan bai utzi degion josta-
tzen.

Izanik bada, zentzu aundiko Jovellanos jakintiak azaldutzen duen bezala, ain premiazkoa errietako oitura gozoak zuzenki gordetzea, eta batez ere Gipuzkoatarrenak, ez da mingarri eta lotsagarri erri bereko jaiotarrak egobia edo indiferenziarekin begiraturik ain ardura gabe aztutzera eta izkutatuzera utzitzea? Eta zer litzake aztutzen eta izkutatzen uztea baldin ixekaturik eta urruñaturik gaiztratatuko ez balituzketeke?

Ongi oarketurik arkitzen naiz ni, baita beste geia-go ere Gipuzkoa onetan, zertatik eta nola datorren gure erriko oitura gozatsuakin jostaketa gogoangarrien galera negargarrizkoa.

Jakiñaren gañean egon bear dezute bada, nere erritar maiteak, guzia gertatu dala gure asaba onak ez irudikatzetik edo imitatzetik. Gure guraso gogoangarri oen eresia eta arretarik aundiena izandu da beti, beren jaioterriko oitura guziak zuzenkiro gordetzea, iraun dezaten osotoro, puskarik txikiena ere galtzera utzi gabetanik, euskaldunen siñale ain ezagun, agiri, ondragarriak.

Baña ala zorigaitzean azkenengo urte bakar oetan, erbesteetako gizon arrotz, nor ta nongoak diraden ere ez dakigun zenbaiti utzi izan diegutelako

agintzen geren errian, gertatu zaiku, argiro ikusten dezaten bezala, gure jostaketa gaitzik gabeko gozoak aienaturik, ezagutzen ez ditugun nazkagarriak usuan jartzea.

Guziaz ere iritsi da denbora, Gipuzkoatar prestuak beren aurrenengokoen odol garbi argia berexiturik, euskaldunen lege zuzen maitagarriak birjaiotuta, irozotzeko naierara, etsai ozpindu txar guzien esker gaiztoan bada ere. Eta derizkiot, ez dala izango gure arrazan ain gizon sorrik, non ifini naiko ez dituen bere jaioterriko jostaketa pozkarriak lenagoko gisara egurastutzen, arrotz zalagardatu guziak aienaturik, sekula betiko.

Ezin utzi nezake esan gabetanik Ernaniko Batzarre edo Aiuntamentu prestuak egiteko onen gañean artu duen letarta edo probidenzia, txit bidezkoa. Erri leial au eraunde edo gobernatzen duten jaun ondraduak, otsaillaren zortzigarren egunean, naidartu edo dekretatu dute danboliñari agintzea, ez dezala jo fandangoko soñurik plaza agirikoan, ez bada zortziko eta beste soñu erriaren bere berekiak. Onelako jaun prestuak dirade euskaldunan odol garbitik sortargituak, eta ez arako erbesteetako dantza zatar, itxusi, nazka-

garriak, usuan jarri nai dizkiguten txoro belatx, uanditu aiek!

Gipuzkoatarren dantza mota guziak dirade ones-tasun aundikoak eta Jainkoaren naikidakoak; beragatik egin bear dute alegin guzia ala alkate jaunak, nola apezaita donatiak, birjaiotzeko jostaldia gaitzik gabe-ko garbi oek. Baldin bear bezala elkar ongi artzen badute errietako bi buruzari prestu oek, jende beargillea jostatuko da naikidara plaza agirikoetan, modu eztiaundiarekin.

Zer izango da gauza ederragorik, gozoagorik, eta bidezkoagorik apezaitarekin alkate jaunarentzat, beren erriko jende beargilletsua, jai arratsaldeetan, ekinza eliztarrak egin ondoan, jostaldiatzen begien aurrean ikustea baño? Artzain egiazkoen egitekorik beardanezkoena da, beti beren aurkezean ardiak erabiltea, ala otso eta pistia gaiztoetatik gorde ditzaten, nola lar ta bide txarretara igaro ez ditezen.

Gauza ziertoa da bada jai egun guzietan plaza agerikora jostaldiatzera batutzen diraden beargilleak Jaungoikoarekin alkate eta apezaitaren beldur aundia izango dutena. Baita alkar maitatuko dutena ere. Beti alkarrekin pozaldiatzera toki agirikora bilzarkidatzen diraden gazteak izango dute txit lotsa aundia zernai

txatarkeria mota egiteko: laudatuko dute guzion egille aundia; beakurtu edo errespetatuko dute apezaita; obediturik, lagunduko diote alkate jaunari; maitatuko dituzte beren guraso eta zarragoak, amatuko dute ongi batak bestea, izango dira beargilletsuak, pizkorrak, txukunak, garbiak eta argiak, eta edozein estutasun edo lanze gertatzean, beren Erregerekin jaioterriko lege zuzenak gordakaiatzeagatik azkenengo odol tantoa pozik ixuriko dutenak; eta geroenean ere, beren garaitpenarekin irtengo diradenak. Egia onen argibidea, asko aldiz eta ziertoro ikusi izandu dan bezala, ez da gai iñor ere ukatzeko euskaldunari bere sendagall edo balorea, eta leialtadea.

Gipuzkoatar prestuak, orain arkitzen zaiku iñoz ere baño ere obeagoa, geren asaba maitagarriak zuzenkiro gordakaiaturik garbiro utzi zizkiguten oitura gogoangarriak irozotzeko; beragatik egin bear ditugu alegin guzi guziak, birjaioturik, txukinkiro apaindu, ta goienengo mallan jartzeko geren puska eta siñale maitagarriak.

Azaldu dizkitzutedan dantza oniritzi ugariak eta soñu zar gogoangarriak ez ezik, beste jostaketa mota geiago ere baditugu geren gerenkiak, birjaiotzeko

premiari arkitzen diradenak, eta lenagoko beren toki gain gañekora altxatzea onkai edo merezi dutenak.

Pillotariak, itz neurtulari edo bersolariak, makill-urrutilariak, saltalari gisa askotakoak, idi apustuak, ari jokuak, aizkolariak, irabur jokuak, laia jokuak, zerrari apustuak, palankariak eta beste beargai askotakoak.

Asko ezjakiñek farra eta ixeka egingo du joku mota oen izenak enzutean; baña begiratzen bazaie berai arretarekin ongi, ikusiko da beardanezkoak diradena, ala abere mota berak ongi bazkatzeko, nola nekatzalleak beren lan premiazkoetan ikasteko, eta geiagokoak izateko.

PILLOTARIAK

Munduko dierria edo nazio guzian artean, ez da agertu joku mota onetan euskaldunari alderatu zaionik. Orain dalarik 68 urte, gutxi gora beera, lau Gipuzkoatar joan izan ziran lendanaz partidua egiñik, Cartagena pillotan jokatzera, España guzian arki al zitezkean beste lau onenen kontra; baita aixa aski

irabazirik etorri ere. Bein baño geiagotan itzegin izan nuen nere erritar irabazdun aiekin.

Gizon jakintiak esaten dute beren obra gogoangarrietan, euskaldunak izan diradena beste guzien gaiñ gañekoak pillotako jakindurian.

Jovellanos gogoangarriak pillotako jokaeraren gañean itzegitean, bere oroitzapenaren 91 garren orrian esaten du onela:

Baita onetan ere berezkatzen da Euskal erria. Ez da erri bikain aurkirik toki berean ez duenik bere pillotaleku aundia, erazkoa, doarikakoa eta ongi bitezarria ta sarritan usatzen dana: eta nola ekadoitu edo juzgatzan degun dantza agirikoak eginkarritzen dutela jatorrizko izaeran, baita ere aurkitzen degu beretan eta oetan eralde edo arrazoia, errutasunarena, indartsuarena, eta azkartasunarena, zeñarekin dau den doinduak jaiotar aiek.

Euskaldunak, zer geiago naikidatu gentzake bada Jovellanos baten abotik itz erazko oek aditzea baño? *Y así como juzgamos que los bailes públicos influyen en el carácter moral, hallamos también en ellos y en*

estos juegos la raton de la robustez, fuerza, y agilidad de que estan dotados aquellos naturales. Baldin gure asaba maitagarriak beren jostaketa gogoangarrientzako aditu izan balituzte kanpotarren mingañetik gisa onetako aundizkatzeak, nolako alegiñak egingo ez ote zituzten gordakaiatzeko ez ezik, txukinkiro apaindurik edertuagotu ta are gañagora igotzeko ere? Eta guk ikusten ta aditzen ditugularik gizon arrotz jakintsunetatik ezin geiagoko laudatzeak, nola ez degu damurriaturik lotsatu ere bear gure egunetan ain egoitza negargarrizkora erorten utzitzeaz?

Gipuzkoako dantza oniritzi gogoangarriak zenbat eta aurkitzen diraden azturik, ezkutatuak -ikusi dituzuten bezala-, anbat eta lurperatuagoa, eta eritasun aundiagorekin ikusten degu gaurko egunean azkenengo asnasetan dagoela gure pillotako jostaketa jakintasun maitagarria, eta baldin errietako buruzari jaunak beren ama gozatsu Gipuzkoari oarketurik, ez badio onek denbora dala egiten beardanezko osakai edo erremedio zuzen, egokia, urte gutxiren epean gelditu bearra da betiko, ill otza.

Guziz da bada sinistgaitza, begira ez daudenenentzat, zenbateraño galkitaturik desonkaitu dan, pillotako gaitasun eta jostaldi ain sonatua; ez bestegatik ez

bada, orain ogei urte inguruan agertu zituzten esku-larru moldakaitz orietatik, eta era berean ifinten asi ziraden trinkete zoko gizon galgarrietatik.

Nere gazte denboran ez oi zan ez Gipuzkoan eta Bizkaian trinkete bat bakarra ere; eta orain badirade erriak iruna eta launa dauzkatenak.

Trinketeak jarri dituzten erri oetatik, irten oi ziraden lenago, pillotaririk onenak. Eta orain ez da agertzen, pillota arrian nola jarri bear dan dakienik ere; bañan bai trinketerik ez dagoenetan, iñoiz ere bezain sakalari egokiak eta aundiak.

Guziak itz batean aitortzen dute, trinketean sarritan ari dan pillotariari besoa laister erorten zaiona, eta bein ere ezin izan ditekeana luzerako pillotari ona. Egiteko onen gañean itzegiten dutenai etzaiote jalkitzen besterik, ez bada, debekatu bear lirakeala txit arras, eskularru berri moldakaitzak, eta trinkete kaltarkitsuak. Oraindik, beretara eresiarik aundiena ta portitzena dutenak daude esanaz, guziz kaltarkitsuana dana trinketeetan jokatzeari: batetik, plazari saria eman bear zaiolako, eta bestetik, denbora txit laburraren epean besoetako indar guziak illtzen zaiozkatelako.

Trinkete gizon galgarri oen zaletuen izan diradenak ezagutu ta aitortzen dutelarik ain argi eta garbi kaltarkitsua dana beretan jokatzea, ez da gauza arri-garria eta mingarria, naiago izan dezaketekeala zulo illun aietan beren diruaren gostuz beren osasunak galtzea, ezen ez, doarikako plaza agirietan naierara jostaldiaturik, ikusle guziai atsegingarrizko pozkida ematea?

Sinist nazazute bada, Donostiako pillotaleku agiri-koan ibilli oi ziradena, trinketerik etzan denboran, jai arratsalde guzietan lau edo bost pillotari aldia, bata bezin bestea ikusgarriagoak, alkarri pillota arrian xanda ematen ziotela; eta orain anbat igarotzen diradela urte osoak ere joka aldia bat egin gabe.

Bi urte onetan txit jai arratsalde gutxi gelditu zaizkit oarkera au egitera pillotaleku luzekora joan gabe; baña ez det aurkitu izan pillotaririk ez ezen, geldi dagoen gizon bat bakarra ere, lenago millaka goize-tik arratserat, egon oi ziraden toki ain atsegingarriz-koan.

Gaurko egunean Donostiako gazte guzien artean luzeko pillota jokura eresia dakarrenik, eta ongi jokatzen duenik aurkitzen da, Irazu-taren semea, eta onezaz, ez eskerrik besteri, ez bada bere aitari. Onek

bezain maite balute Gipuzkoatar guziak beren jaioterriko jostaketa gogoangarri, pillotari luzekoena, dagoen baño goragotuagoa egongo litzake gain artatik farraz begira, trinkete zuloetako jokalaria kaiskarrai.

Non dirade gure gazte denboran agertu oi ziraden pillotari egoki, azkar, atsegingarri aiek, eta berak txit sarritan jokatu oi zituzten partidu galant, grabetsu, ikusgarriak? Ha nor legokean berai begira! Egun gozo aiezaz oroitzen naizan guzietan, negarrez ezin ixilldu zait biotza.

Lenagoko guziaz alde bat uzten zaiotelarik, D. Bernardo Armendariz baten denborako pillotari aundiaz, eta beren joka aldi pozkarriaz oroitutzean, nor izango da ain narra ta sorra, non guziz atsekabeturik eta txit damurriaturik, penatuko ez dana?

Galai prestu onek pillotarako bere sasoia zuen denboran, aski zan berria zabaltzea jokatu bear zuela bere kidekoakin, zezen illzekoetara ainbat edo jende geiago, ogei ta mar leguaz urrutiagotik biltzarkidatzeko: zergatik guziak zuten beragan segurantza, jokatu-ko zuena pinkiro.

Gisa onetako pillota partidu batera biribillatzen zan jendea ondorengo zortzi egunetan, gutxienaz, jostaldiatu oi zan erri berean naiera guzira, zergatik

egunazko ordu guzietan plaza agirikoan ibilliko zira-
den pillotari gaiñ gañekoak, eta gabaz ostatu txukun,
garbi, aberatsetan, izan oi zan, nai zuenarentzat, jos-
taketa motarik asko.

Baña orain iñoiz edo berriz izaten bada ere urteen
buruan partidu kaiskarren bat edo beste, ez da joan-
go ikustera erri bereko jendearen erdia ere. Eta zeñek
irten bear du bere etxeko leioraño ere, gaurko egune-
ko pillotari, izena bai ta izanik ez duten, itxura gabe-
ko moldakaitzak ikustera?

Eskularru trakes oriekin dabilzan pillotariak, esan
diteke beldur gabe, ustekabezko jokalariai dirala, eta
ez jakinduriazkoak; zergatik ain aixa irabazten duten
arrairik txarrena, nola galdu onena. Ez dirade bada
jarlekuetatik pillotaren bidera irtengo: lurrari itxatsi-
rik egon oi dira zur puskak baño geiago, eta berak
dauden tokira joaten zaioten pillotari eskularru mol-
dakaitza ezarri ezkerro, naiz dala onera, ta naiz dala
txarrera, ez badu botatzen plazaz kanpora, inork ere
ez du idukiko jokalaritzat.

Eta zer litzake pillotan gutxixiago jakinik ere, bal-
din lenagoko jokalariaien antzekoak plaza agirikora
irtengo balirake? Noratu ziraden aien jantzi txukun,
eder, aberatsak, beren plazako ibillera egoki, mode-

ratua, eta pillotaren billa abiatzen ziradenean erabili oi zuten azkartasun arin pizkorra? Lenagoko pillotarien azkartasunarekin bekaldutzen bada ongi oraingoen nagitasuna, edozeñek aurkituko du ainbeste banaita, nola galgoagandik txangurruagana.

Laugarren urtera dijoa Donostiako plazan jokatu zutela azkenengo partidua zortzi pillotari Gipuzkoan aurki al zitezkean onenak, eta zortzietatik lau irten ziraden plazara jokatzera, mandazai zapata lodiakin, ankagorri utsik: bat alkandoraren zulotik bizkarraren erdia agiri zuela, eta guziak lurreraño arrastaka zituzten zaraula luze, lodi, pisuak, gerrietan mokones edo pañuelo banarekin loturik, soñetik erori etzekizkioten. Orra nolako egoitza mingarri eta negargarrizkora erori dan Gipuzkoatarren pillotako jostaketa ain sonatu maitagarria!

Ezin esango du bada iñork egiazkoak ez diladela azaldu dizkitzutedan igaroketa oek, zergatik nik bezala, beren begiaz argiro ikusitako anitz lekuko edo testigu aurrean diturala aurkitzen naizan.

Badakit egin dutena Madrillen pillotarako toki eder, galant, bat, plaza berean itzkribuz markaturik, Gipuzkoako pillotalekurik bikañenak; zeñetara eraman zituzten orain iru urte Nafar bat eta bi Gipuzko-

atar, alogera onak emanik, pillotan jokatzera; baña etzitzaien agertu kontrariorik, España guziko gaitasun edo abilidadarik aundiennen gordelekua erri aurrenengo ura izan arren.

Ikusten degularik bada, lenago luzerako pillotaleku señaaturik etzan erri batean egiten dutela, gureak izendaturik, eta markaturik, ez da lotsagarri, guretzat ainbeste diruren gostuz gure asaba onak ongi eraturik eta txukinkiro apaindurik utzi zizkiguten plaza eder doarikakoak urruñatu ta lagaturik, joku oro saria eman bear zaion trinkete zuloa autatzea? Gaitz erdi litzake bada trinketeak irozotzea eta bertan jokatzea, baldin ez balirake luzerako pillotarien galgarriak, eta biztanle guzien ondasunen kaltekoak.

Nor izango da Gipuzkoatarren artean ain zenzu gutxiko gizona, sorra, eta arduragabekoa, ezagutuko ez duena argi eta garbi, zertatik eta nola datorren luzeko pillotarien galera, eta berai begira pozkidaz beterik egongo lirakeanak daukaten atsekabea? Eta au ezagutzen dutenetan, zein izango da ain narra, nagia eta bidagea, damurriaturik eta engorroturik naiko ez duena birjaiotu oraindaño bezala, aurrera ere, mundutar guzien artean gaildortu dezan?

Gure ama maitagarri Gipuzkoari eta bere seme prestu buruzariak eskuen artean aurkitzen zaiote bada, izurri likits kaltarkitsu au sendatzeko bear dan osakai edo erremedio zuzen, egokia; txit merkea, eta entasunarekin daudenak pozkida gozo aundi batekin etarreratuko dutena, zeña dan, esku larru moldakaitzak in trinkete gizon galgarriak, debekatzea.

Ez det esaten nik, ez eta esan nai ere, erri aundietan trinkete bat irozotzea ongi ez dala, beren errenta edo tinkondo seguroakin bizi diradenak lan egunetan jostaldiatzeko; bañan bai premiazkoa dala txit, jai egunetan guziak arras itxitzea, lenagoko modura biltzarkidatu ditezen, ala aberatsak, nola beargilleak, artarako jarria dagoen plaza agiri doarikakora, beren jatorrizko jostaketa ain señalatuan pozkidatzera.

ITZ NEURTULARI EDO BERSOLARIEN JOSTAKETA

Gipuzkoatarrak, denbora guzietan eta beti izan dute, itz neurtuak supituan eta ongi kantatzeko eresia eta jakinduria aundia. Non ezagutu dirade bada eskolatu gabeko mutillen artean, plaza agirikoetara

irtenik aĩn apustu baliosoak jokutzen, nola gure errian?

Datorren otsaillean izango dira ogeitabi urte, Billabonako plazan jokatu zutela itz neurtu edo bersoetan bostna onza urre, lendanaz apustua egiñik, Zabala Amezketarrak eta Txabalategi Hemanikoak; zeñean izandu nintzan ekadoi edo jueztako Zabalak billatua; baña egun batzuez aurretik eritasun txiki batek artu ninduelako, ez nuen serbitu, eta nere orde z eraman zuten bere erritar Fernando; baita Txabalategik ere, Aizarnazabalko elizaia; eta Billabonako alkate jaunak, erabakitzaile D. José Mendizabal Tolosako apez aundi sonatu ura ifinirik, lau milla ta geiagoko personaren aurkezean kantatu zuten bi orduz jokalariaik, apustua egiña zuten bezala; batak besteari asmatu al zitzaten itz gairik nekezenak irikiaz, nondik eta nola alkar naspillatuko zuten alegiñik aundienak egiten zituztela.

Guziaz ere ain zuzen eta egoki eman omen zituen nork bere itz neurtuak, non apostuko bi orduak betetzean, ekadoi edo juezak alkargana batu baño lenago, altxatu omen zan plazako jende guzia, deadarrez, esaten zutela, jokalariai biak kantatu zutela guziz ongi eta utsaldiarik gabe, enzunleak naikidaturik utzi

zituzten moduan, eta beragatik onkai zutela berdin berdiñean gelditzea; zeñean irten omen zan era berean Aizarnazabalko elizaia plazaren erdira, eta kantatu omen zuen itz neurtu au:

Txabalategi eta
Zabala gaztea;
Askok deseo zuen,
kantuz ikustea:
Atsegin andietan
gelditu da jendea,
bata adinbat egin
bear degu bestea.

Fernandoren eranzuera:

Ezin gentzake bada,
beste gauzarik egin,
nik gogoan neukana,
zuk dezu itzegin:
Utzi bear ditugu,
biak berdin berdin;
Gipuzkoa guziak
ar dezan atsegin.

D. José Mendizabalen debedea edo falloa:

Jaunak mintzo zerate,
griña txarrik gabe,
pozkidatu nazute,
txit asko alere:
Egia esateko
ifiniak gaude,
bata bezin bestea
kantari onak daude.

Iru ekadoi edo Juez oek izanik gizon zentzu aundi-koak, griña onakikoak, eta berenez itz neurtulari jakintsunak, eman zuten beren debede edo falloa, etzedilla izan iñor, ez irabazdun, eta ez galtzalle; zergatik aurkitzen zuten jokalaria bien artean jakinduria berdiña. Erabakitze ain zogiaren bitartez, gelditu ziraden enzuleak atsegin aundiarekin, eta naierara pozkidaturik; baita jokalaria ere beren denbora guzirako adiskide mami egiñik.

Virgiliok esaten du bere artzai jolas edo Eglogae-tako batean, nola bein batez ari ziraden Tirzi eta Damon apustua egiñik itz neurtuetan jokatzen, Platon

erabakitzaile zutela, eta onek eman zuela bere debede edo falloa itz neurtuan, jokalaria biak berdiñean utzitzen zituela.

Greziatarrak bezalako gogoia balute Euskaldunak beren jaioterriko usuario gogoangarriak itzkribatzeko, gaurko egunean aurkitzen diraden baño apainduagoak, indarsuagoak, eta goragotuagoak egongo lirake gure jostaketa gozatsu, banaita, atsegingarriak; eta aien izenean dabilzan artzai jolas asko ezagutuko ginituzke, geren gerenkiak dituguna. Erbestearrak berak ematen digute biderik aski, geren jostaketak itzkribuz aundizkatzeko ez ezik, biotzez ongixto maitaturik, naierara gozaten ditugula, gordakaiatzeko ere, bañan ez bide dute, suertez ere, beren etxapean, ez seme, eta ez adiskide begirune onarekin begiratzten diezatenik; eta argatikan daude gaxo urrikarriak, txoko bazterretara izkutaturik, beren distiazio ederra erdoia eta amalaunak arras galtzen diezatela, nongoak, eta nor diraden, beren alderik urkoenak ere ia ezin ezagutu dituen moduan.

Gaitz erdi litzake bada izkribuz aundizkatzen ez nekatu nai izatea, eta geldirik egotea beste kalte gogorrik egingo ez baliezaketeki; baña ez dituzte ez, ala zorigaitzean, atzaparrak bezin maite izaten min-

gañak nekatzeko, zenbait erausle txarrek, biltokietan, arako ezpañak okerkara ifinita itza ume gisara adindurik, lepoetako zaiñak urretzeko zorian garraxika marraskaz egon oi diradenean, baserritar itz neurtulari atsegiñezkoen siñuak egiten: ustez ezen an ixurtzen dituzten dollorkerizko lotsagabekeriakin anaia prestuak iraindurik, egiten dituztela beren buruak txit jakintsun, aundi, eta men; baña ez dira asko oarketutzen aizatsu gizagaxo oek, enzule guzien ikusguñ agirikoan gelditzen zaiozkatena beren ezjakiña eta prestuezkeria.

Gipuzkoako itz neurtularien artean badirade mutillak, eskolatu gabekoak izan arren, bularrarekin batean erodiski edo mamatu zuten itzkunza gozoan, eta beren bizimoduari dagokion edozein izkairen gañean ariñ asko ixilduko lituzketekeanak, jakinduriaren gordeleku guziak gañez egiteraño beteak dauzkatela uste duten orietakoak.

Zenbat eta zenbat bider egondu ez naiz goragaleak emanik, iraingarri zital oek biltokietan beren erriar prestu, itz neurtulari jakintsun pozkarrien siñuak egiten ikustean? Baldin ezagutuko balute zenbateraño jakinduria aurkitzen dan, artikasi ez ezik eskolatu ere gabeko itz neurtulari oetan, nik segurutzen det

ixukarik egingo ez liezaketekeana beren anaia maitatiai.

Nork eta non ezagutu ditu bada Gipuzkoako nekatzalleen artean bezelako itz neurtulariak, ain supituan, ain naroro, eta ain egoki, itz neurtuak ematen dituztenak? Ez det uste iñork eta iñon ere arkitu due-nik, eta billa lezakeanik ere, euskaldunari jostaketa bere bereki onetan alderatu zaionik.

Esan bear dizkitzutet bi itz neurtu, Zabala Amezketarrari, eta Aizarnazabalko elizaiari, bein batez, lau milla ta geiago gutxienaz, alkarri itzetik ortzera kantatu ziozkatenen artean adituak.

Elizaiarena

Aditu bear nazu
Zabala egiazki
nerezat ez dira gauza
Goierriar zazpi
amar etorriagatik
ez dirade aski,
azkenean gailldortsu
irtengo naiz naski.

Zabalaren eranzuera

Gezurrik esan gabe
mintzo naiz egian
zu bezain koplari onak
badira Goierrian.
Nai badezu bertan eta
naiz plaza erdian,
abilla baldin bazera
orain zaude premian.

Orain ogeitalau urte San Sebastian egunarekin eraman zuten Femando Amezketarra Azpeitiara, erri bereko batekin itz neurtuetan jokatzera: baña etziztaion agertu kontra aritzallerik plazara. Egia da, bera zegoen ostatuko atarira joan zitzaiozkana gabaz desgaraiean deadarrez ta auparaka; baña ezaguturik Femandok aien asmo txarrak beraren onerakoak etziradena, utzi izan zien gau artan kantatu gabe, eta bidaramunean ikusi zuenean karrikan igarotzen bere kontrario ustekoa, bota zion aurkez aurke, beste anitzen artean, itz neurtu au:

Lagunak arturikan
guzizko tirrian
nere billa enbillen

bart gauerdian,
erronkak botatuaz
prestuezkerian,
ez dik ongi ematen
nork bere errian.
Egunazko argian
Euskara garbian
jokatu nai nian
bañan ez nauk ifini
iñon premian.

Zazpi ots ideko edo konsonante berdiñakiko itz neurtu mota oek kantatzea usuan jarririk dago Gipuzkoako itz neurtulari bikañen artean.

Tolosako erri leñargitiko batzartar jaunak 1802garren urteko iñauteriaren, azkenengo arratsaldean, biribillatu zituzten lau itz neurtulari, Gipuzkoan aurki al zitezkean onenak: Zabala, Fernando, Txabalategi, eta Altamira, lauak letra bat bakarra ere ezagutzen etzutenak.

Plaza zarreko baranda banatara igorik kantatu zuten arratsalde guzian bi bitara. Ain atsegintasun aundikoa ta pozkidatsua izandu zan arratsalde gogoangarri ura ezik, illunduta gero ere, deadarka zeuden

enzuleak aurrera ere kanta eragiteko, eta uste det, baldin eguna zabaldu arterañoako guzian ere ari izandu balira kantari etzala aldonduko enzuleen artekorik iñor ere.

Egiazki, zer izango da Gipuzkoatarrentzat jostaketa pozgarriasgorik, eta naieragokorik beren anaia prestu jakintiak plaza agirikoan kantuz eta supitoan ain itz neurtu egokiak ematen dituztela ikustea baño?

Artikaste aundiakiko gizon jakinti askori aditu izan diotet esaten, guziz ikaragarria dala eskolatu gabeko itz neurtulari oen alainzo edo talentu jakinduriazkoa.

Izanik bada jostaketa gaitzik gabeko au Gipuzkoatarren ain naierakoa, pozkarria, eta beren berekia, ez da mingarri, orrako eskuan darabilten zigor biguñ ura zertarako artzen duten ez dakiten zenbait alkate kaskabel, plaza agirikoan itz neurtulariak kantuz asi orduko ixill eragiten ikustea? Alkatearen izen ondragarri ura onkai edo merezi ez duten anitz ezagutu izan ditut nik griña berekoak; baita zuek ere.

Gipuzkoako erri leñargiti askotan ikusi izan ditugu (joistallu egunetan ala ere) itz neurtularien kanta otsa aditu bezin laister, korrika beren gañera dijoatzela, eriotza etoikiro edo alebosaren batzuek egiten ari balirake bezalako beakin edo prekauzioakin.

Zigor suabe biguñ ura nai baño nekezago eskue-
taratu oi duten gizon bidage, gogor, ekai gaiztoakiko
oek, arrokeriaz beterik begietatik sua ta garra dario-
tela, ibilli oi dirade etxerik etxe, zokorik zoko, bazte-
rrik bazter muturrak ausitzeko zorian, nondik eta nola
beren errietako biztanle maitagarriakin presoinde-
giak beteko ote dituzten pozez zoraturik. Eta azkenik
ikusi ditugu, jai gaubean bere etxera bidian, irrintzi
edo oju pozkarri bat egin izan duen nekatzalle gaxoa,
bidaramunean presoindegira sarturik, bederatzi urre-
nean bertan idukitzen. Lotsatzen naiz, eta ez gutxi
ala ere, gure errian gertatu izan diradela gisa oneta-
ko lankaitzak esatea. baña ezin nengoke, aurrera
alkate izan bear dutenai premiazko oarkera au egin
gabe, gisa bereko bidegabekeriarik inoiz egin ez
dezaten.

Amezketan zillegi da itz neurtuetan kantuz ari-
tzea, eta beragatik irteten dirade andik, ainbeste itz
neurtulari, eta ain egokiak. Auzo errietan ere bere bat
izango lirake, baldin kantatzea lokabe balute.

Esan bear dizkitzutet Gipuzkoatar batek euskal-
dunen animen onerako jarritako ogei ta sei itz neurtu
amardun:

1

Nere kristau maiteak,
jakiñean gaude,
Jesukristo degula,
gure jaun ta jabe.
Bizi gaitezen beti,
Fedearen alde,
gelditu diradenak,
au sinistu gabe,
infernuan saturik,
erretzen oi daude.

2

Erioak jotzean,
estu, eta larri
anima egongo da,
guztiz arrigarri:
Lendanaz bekatuak,
gogora ekarri,
bat ere utzi gabe
konfesatu garbi!
Luziferren mendean
ez gaitezen jarri.

3

Jesukristo izanik,
aiñ gizon noblea,
osakaia daduka,
guretzat gordea:
Anima sendatzeko,
ezin da ohea!
artzen badu, damua,
eta dolorea,
sartuko da zeruan
naiz izan pobrea.

4

Dirurik eman gabe,
auxen baita ditxa!
Bañan kosta zitzaion,
Jesusi bizitza:
Geroztikan etsaiak,
arrantzan dabiltza.
Ornitua nai duenak,
Bautismoko itza
gusto lizun guziak,
arras utzi bitza.

5

Jaunaren arpegia
nai bada ikusi,
ibilli bear degu,
gustoen igesi.
Alderatzen bazaizku
begi biak itxi,
mundu triste onezaz
obe degu etsi!
Infernuko leizera,
ez gaitezen jetsi.

6

Munduan atsegiñak,
dituen gorputza,
geldituko da bada,
zuloan lur utsa:
Anima infernura,
Luziferren poza!
Arren urtu dezagun,
negarrez biotza!
Gure ondoren dabil,
beti eriotza.

7

Naigaberik ez eman,
Jaungoiko jaunari,
gorputz ustel au degu,
zapoen janari:
Illta norako geran,
oroitzen danari,
biotza triste, eta,
anima txit larri,
batere duda gabe
bear zaizka jarri.

8

Adiskide maiteak,
izan arren milla
ildakoan ez asi,
bakar baten billa;
Apenas izango du,
ura ere piña,
sentitzen dutelako,
usaia egiña,
guziak aren iges
ibilliko dira.

9

Ill bezin laister ditu,
maitati berriak,
usai zikiñarekin,
liztor ta euliak:
sartzen zaiozkalarik,
abotik erdiak,
beste gañerakoak,
jan bear begiak,
Frai Eusebiok dizku
esaten egiak.

10

Iltzen danaren alde
guzien ansia,
etxetik botatzeko
balego janzia:
Ojala ura ere,
ez balu ausia!
Iru edo lau atsok
nolanai josia:
Zuloratuko dute
gauza itxusia.

11

Maitatu arren askok,
lenago kalean,
gutxik egon nai oi du,
illaren aldean.
Ezkutatuko dute,
zulotzar batean,
bañan ez lagatuko
an ere pakean,
zapo ta arratoiak
dana jan artean.

12

Zabalera iru oñ,
luzetara zazpi,
bizi leku txatarra,
izango du lazki;
sagu ta arratoiak,
zapoakin nasi,
ardura asko gabe
ongi edo gaizki,
an sartu bearko du,
naiz ezurak ausi.

13

Ill arterañokoa,
esan det nola dan,
gero ere badago
eskuak bete lan:
Larri egon bear du,
animak orduan,
sartuko dan zerura,
edo infernuan:
Gaiztoa izan bada,
erre bear du an.

14

Juzgatzeko pixua,
daukate jarria,
anima gaxoaren
arako larria:
Txit izango du, langai,
ikaragarria,
betiko pena, edo
betiko gloria;
Diferentzia ori,
guziz da lodia.

15

Gizon jakintsun anitz
ibillitu dira,
diferenzia lodi,
andi orren billa;
Ongi ezagaturik,
animaren miña,
izkribatu ere bai,
ipuiñ asko milla:
Orien birtutez gu,
onduko bagiña.

16

Kondenatuen penak,
aiñ dira andiak,
ezin agert litzake,
nere memoriak;
Batez ere guziak,
aiñ gutxi erdiak,
bañan ez da faltako,
nork esan egiak,
sendatu nai badira
anima eriak.

17

Gure animak dauzka,
igaro bearrak,
zubi altu luzeak;
eta txit melarrak;
Erorten baldin bada,
sasiakin larrak,
kiskaldu bear berriz,
suak eta garrak:
ez du asko balio,
orduko negarrak.

18

Erretzea utsa da,
ez baliz geiago;
bañan beste pena bat,
gaiztoa an dago:
Naiz ditzala urteak,
milloika igaro,
eta gertatu, beste
ainbeste milagro,
bein ere irteteko,
usterik ez dago.

19

Guzia iristen du,
Hai ura labea!
Tormentu izugarri,
kaburik gabea:
Artifizio askoz,
daukate pareta,
Luzifer dutelarik,
maisuta jabea;
nori egingo zaio
arako-zalea?

20

Emengo atsegiñak,
ez du an balio,
animak izango du,
bere kontrario:
Zein aldetatik zuen,
munduan bizio,
serpienteak andik,
itxatsiko dio.
Ala esplikatzen da,
Aita Eusebio.

21

Tiraka sartuko du,
kueba batera,
tormentu jenerorik,
asko ematera,
iges egin nai arren
leku apartera,
an irtengo zaiozka,
dragoiak batera;
Ez diteke sekulan,
kanpora atera.

22

Luziferrek berekin,
leizera ezkeru,
kanpora irteterik,
ez du zer espero:
Artu bearko ditu,
otzak, eta bero,
nai ez duela, zenbait
tormentu jenero;
Orain ontzen ez danak,
damuko du gero.

23

Infernua, da guziz,
toki bat illuna,
ez egin, Luziferrek,
esaten diguna,
Etorri bear zaiku,
oraindik eguna,
Jauna ofenditua,
damuko deguna,
animari lenbait len, eman osasuna.

24

Konfesioa dago,
artako jarraia,
urtu bedi biotza,
ez bada arria;
Ill bear deguna da,
fedeko egia,
beragatik, anima,
ifini garbia,
gozatu nai duenak,
betiko gloria.

25

Arretaz bear degu,
egin esamiña
orobat konfesatu,
bekatu egiña
Infernuko su, garraz,
oroitzen bagiña,
naiko genduke, ongi,
sendatu anima;
Izan ez dezakegun,
sekulako miña.

26

Ar gaiztoa da guziz,
animako kezka:
Bekatuan beñere,
bizi bear ez da:
aixa ill dezakegu,
maiz konfesatu ta,
orain degu denbora,
baita ere beta.
Kanta oen egille,
Ni naiz IZTUETA.

Aita Meagerrek jarritako itz neurtuak

1

Ni naiz txit gauza gozoa
eta pozkida osoa
beltza naiz ta zuria
illuna eta argia.
Indarra det eta garboa
eta izena det ardoa.

2

Noe gizon aditua
zedorren pensamentua
izan zan gauza andia
ipintzea mastia
zu zaitugu ardoaren autore,
oh zorioneko NOE!

3

Edari maitagarria
tristearen alegria
dezu alaitzen begia
kentzen melankonia

mutuba ipintzen kantari
eta errena dantzari.

4

Ausi, atera, ebakia
llaga dala, edo zauria
kuratzeko belarra
klareta edo nafarra
moskatela edo malaga
edozeiñ ardo ona bada.

5

Pasatzen du aste osoa
aitzurtzen batek soroan,
nekaturik guztia
dariola izerdia.
Laster legoke au galdurik
ezpalu jaiean ardorik.

6

Jateko ez bada gogorik
eta eziñ egin lorik
eritasun oben
edo beste edozeñen

kuratzeko balsamoa
da mats onaren zumoa.

7

Ardo gabe ez da funziarik
ez mezarik eta eztairik
bada au faltatu ezkerok
ez da arkitzen gero
baizik naigabeko tristura
illuntasuna ta malura.

8

Galenoren medezinak
ta farmazia guztiak
du botikik onena
ardoaren taberna.
Todo lo sana guztia
ardo ona daukan zagia.

9

Barbero mediku guztiak
erremedio aundiak
dituzte besterentzat;
Baña bada berentzat

erremediorik oberena
ardo zarrik dan onena.

10

Ardoa eranik neurriz,
beñ illa pizten du berriz,
baña bada asitzen
belaunak limuritzen
eta irakiten buruban,
ez da gauza onik orduan.

IDI APUSTUAK

Guzizko eresia dute Gipuzkoatarrak idi tema oetara. Urte guzietan izan oi dira, onkarri edo interes andiko joka aldiak. Anitz bider ikusi ditugu ogeina onza urreko, apustuak eta gañera milla otxiñean igitzen diraden trabesak. Diru multsu andi oek guziak izaten dira, jendella nekatzallearenak.

Uztar-idi aldia batek erabilli izan ditu 70 kintal andi arrasteen, zeñean diraden 420 arroba: baita beiak ere 360. Beragatik dute Gipuzkoatarrak txit beroitzaandiko griña, abelgorriak ain ongi bazkatze-

ko. Ezta urte asko gizendu zuela Hernanin Inazio Goi-koetxeak, bere beargai guziak egiten ziozkan idia, pisatu izan zituen aragi garbitan, 1070 libra, eta 230 peita edo zebotan. Adu izan diotet gizon jakintsun, artarako diraden anitzi, baldin idi au izan baliz ezurraz ain andia, nola Franziako zenbait, pisatuko zituela 1880 libra.

Orain dalarik 30 urte gutxi gora beera, jokatu zuten Billarrealen 20 gizonen, uztar-idi aldiarik onenaren kontra tiraka; baita irabazi ere. Beasaingo Leundak eraman ,zituen ordu erdi baten barruan, bere erriko plazatik Billafrankako- ezkaraz edo portalera, amar anega gari gurdi batean tiraka, zeñean irabazi izan zuen onza bat urre, apustu berean. Ikusi det Azpeitian, Abitaiñ esaten zaion baserri bateko mutilla, plazaren goenetik barreneraño bizkarrean eramaten 24 arroba burni.

Elgoibarko anai arreba batzuek jaso izan zituzten, orain sei urte, zortzi anega gari, onza bat urre apustura egiñik: lurretik lepora lau anega ta erdi anaiak, eta iru ta erdi arrebak.

ARI APUSTUAK

Ari temaetara ere, guziz itxutuak eta txit etziñak dira Gipuzkoatarrak; zeñean jokatu oi diraden plaza agirikoan (baita lenago izendatu ditudanak ere), alkatete jaunak aurkezean daudela.

Ikusi izan ditut ariak, alkarri ematen diozkatzen kolpe indartsu ubariakin, adarren ondoetatik kea botatzen dutela. Baita, lendabiziko kolpean, beraen danak, gogorragoa ezaguturik, beragana geiago joan nai ez duela ere.

Orain 12 urte Bidanian izan zuten ari txiki txiki bat guztizko jokotri edo astuzia andietakoa. Bi urteren barruan jokatu zan gutxienaz amar aldiz, bera alako bi andi ziradenakin, eta guzietan irabazi zuen, bere jokotriaz baliaturik, txit aixa.

Kolpea emateko denbora berberean altxatu oi zituen burua, ta aurreko beso biak, eta nola kontrarioak arrapatzeko uste oso osoan bere indar guziak gastatzen zituen beingoan, uts eginik, beaztopatu ta sartutzen zan beraren sabelpera, eta orduan zanpatzen zuen gain-bera, jokatriak.

MAKILLURRUTILARIAKIN, SALTALARI ETA TXINGOLARIAK

Arzaiak dirade txit eresiatuak iru jostaketa oetara. Makill urrutian tiratzen dute, eskuiko eskuaren aurrenengo iru beatzakin erdi erditik artu, ta besagain txit bide luzean.

Ikusi ditut artzai-mutillak 60 laurka edo kuadroan makilla botatzen dutenak. Nere gogoanean izandu dan tiratzallerik andiena zan, Mitxelto esaten zioten bat. Besteak besagain aurrera begira bezala, onek tiratu oi zuen derrebes, atzeraka.

Santa Luzia egun batez, Billarrealen jokatu zion Mitxelto onek Bizkaitar bati onza bat urre, zortziña tira aldietara, eta azkenengoan bota zuen makilla, ikusle guzien gañetik txit urruñ. Begira, aurkitzen ziraden rnilaka gizonak, eta guziak gelditu ziran arri-turik, geiegiko tiratze arzaz.

Iñon ere ez da agertu izandu, makiilarekin saltatzen euskaldunari alderatu zaionik. Ezagutu izan det nere jaioterrian Antonio Irastorza, anka bakarrarekiko gizona, zeñari suge batek eldu ziolako zortzi urte zituen denboran, moztu zioten bestea, eta ala ere,

saltatu oi zituen makillarekin salto bakarrean aldatuta, 31 oñ, eta txingo bi ta saltoan, 58.

Badira Gipuzkoan artzaiak, gaurko egunean ere, makillaren gañean korputza airean dutela, lurrik oñekin ukitu gabe, 80 laurka edo kuadroan joango lirakeanak. Urreta esaten zioten Amezketar bat ikusi izan det, opajuntuan eta esku utsik, amairu oñean saltatzen; baita beste bat ere erri berekoa, txingo bi ta saltoan, ogei ta amar oñ igarotzen zituena; eta abiadurarekin, ogei ta emeretzi.

MAKILKARIAK

Gipuzkoan beti izan dirade makilkari azkarrak, eta txit sendagaill edo balore aundikoak, ala beren artean nola Alfajedunen kontra, eta oekin peleatu izan diraden guzietan irten dirade garaitpenarekin.

Orain dalarik ogei ta sei urte gutxi gora beera, bi gudari edo soldaduk bagajian zeramatela Jose Domingo Barrendaingo Beasaintarra bere idiakin, Tolosarañoko ustean, andikan ere aurrera artu zuten gogorrean; baña illuntzearekin batean, bide aundia-
ren erdian, gordotzkerarako beren alfajeak izan arren

biak, akulluarekin galanki jiponaturik etxera zan, eskuan ebaki txiki bat beste zauririk gabe.

Azkenengo franzestean, Erniaalden bizi zan Bautista Bidaniterrari joan zitzaiozkan bere etxe-atarira Tolosatik, bi frances gudari ollo lapurretara, beren alfaje aundiakin, eta bien kontra peleatu zan portizkiro Bautista, makillarekin. Alfajeaz ematen ziozkaten kolpeakin txit moztutzeraño ekarri ziotenean makilla, ots egin omen zion emazteari, bota zegiola anka tartera gelako atearen atzean zegoen beste makilla lodiagoa, eta onek aren esana egin bezain laister, eskuetan zerabillen moztua etsaien batari begietara tiraturik, bestea anka tartetik altxatuta, berarekin zatitu omen zituen ezur ta mami frances biak, lurretik jekitzeko gai etziraden moduan, zeñean iges egin bearra izan zuen Bautistak bere emazte eta umeakin al zuen tokira, ondoreatze gaiztoen beldurraz.

Ez da oraindik iru urte, bi gudari agintari zaldiz, eta beste bat oñez, beren alfajeakin Tolosatik Donostiara zetozela, Billabonarekin Andoain bitartean, Juan José Iguaien Zizurkiltarrak irurak zatitu zituela makillarekin, ezerezkeriaren baten gañean aserratu zira-delako; zeñean, gudariak ondorean aztarrenak aterarik, nor, ta nongoa zan jotzallea, Tolosako presoinde-

gira eramanik, sei illabetezidukitu zuten, baita sake-
la ongitxo ziska erazi ere, baldin andik irtengo bazan;
eta ala ere gaitz erdi, geiagoko gabe lokabetu
zanean.

PALANKARIAK

Gipuzkoan ezagutu ditut nik palankari gain gañe-
koak. Nere denboran agertu diraden guzien artean
onena izandu da Juan Bautista Mendizabal Zaldibiata-
rra. Bost palanka partidu sonatu jokatu izan ditu Zal-
dibiatar onek agertu zaiozkan andienen kontra, eta
bostak irabazi, aixa aski ala ere; zeñagatik esan dite-
kean ez duela ikusi bera ainbatekorik.

Egia da Mendizabal au irten ez dana Gipuzkoatik
kanpora palankan jokatzera; baita ere inor etorri
etzaiona berari arpegi ematera. 1793garren urtean
bere erriko irurki edo terzioen buruzari Irunen zegoe-
la, jokatu nai izan zion ogei milla ta geiago gizon kan-
potarren artetik atera nai zuen onenari; bañan etzi-
tzaion irten kontra aritzallerik.

Amabost librako palanka, ixuririk gabeko toki
zelaiean bota oi zuen zuzenkara edo apetro, irurogei
ta bost oñean; jira erdian edo amedia bueltan, iruro-

gei ta amar oñean, eta zankape berrogei ta amairuan.

Esnea ta arto utsarekin azi ta bizi zan mutill, egun guzietan atxur lanean portizkiro ari bearra izaten zuen batentzat ez bait dira marka txikiak. Janari oek indarririk ez dutela esan oi duten aietakoak ikusi nai nituzke nik, zenbat geiago botatuko ote luketekean.

Gipuzkoako nekatzalleen aurrenengo janariak esnea ta artoa badira ere, berakin azi ta bizi oi dira orube maitagarri onetan, iñon ere bezain mutill mardul, guri, eder, galant, pizkor, indartsu, sendagall, azkar, arin, jostati, pozkarri, zentzu aundiko, jakintsun, beargilletsuak.

Euskerarekin euskaldunen atsegin leloak zortzikoan

1

Bukaera nai diot
eman obra oni,
bai eta hororeak
kantuz euskarari:

Ikusi ditu onek
zenbait egun gorri,
bañan garaitpendurik
txit dago gaur ongi.

2

Gure euskara maite
jakintsun ezia,
aienatu nai zuten
arrotzak guztia;
Iguñ badute ere
bera ikustea,
urteak joan arren
txit dago gaztea.

3

Erdaldun mingain latzak
oraiñ zenbait urte,
euskara gaztetzetik
ez baitzuten uste:
Alegiña aundiak
txit egin dituzte,
galduko dutelako
bañan ezin dute.

4

Bere seme prestuak
ongi apaiñdurik,
agertu da euskara
aitz zuloetatik;
Sasoikoa dago ta
pizkorra oraindik:
ez da itzkuntza bat au
berdintzen debanik.

5

Gozoa dalarik da
guzizko zintzoa,
izkera guzietan
lendabizikoa.
Beraren egille zan
gure Jaungoikoa,
argatik da euskara
aiñ gaiñ gañekoa.

6

Nagusi eta buru
dala egiazki,

egiñ izan diote
ixekarik aski,
erabilli ere bai,
etsaiak txit gaizki,
bañan oraiñ guziak
azpian daukazki.

7

Euskararen etsaiak
dirade argiro,
Mayansekin Llorente
eta Osorio:
Asmatu arren zenbait
gezur ta sesio,
aien esker gaiztoan
gañera da igo.

8

Beste anitzek ere
txarkeria asko,
esan izan dituzte
euskararentzako:
Batzuetan inki ta
besteetan mako,

izaturik txokoan
egongo dalako.

9

Mayans eta Armesto
gorputz bat egiñik,
ari ziran euskara
puskatu eziñik:
Jo ezak andik eta
jo ezak emendik,
moldatu baitzituen
Aita Larramendik.

10

Uste etzuten gauza
zitzaien gertatu,
etzekiten lanean
ziralako sartu;
Asi baziran eta
bai aiei damutu,
astin aldia txarrak
etzituzten artu.

11

Maitaro naiko zuten
euskara ikusi,
baldin bear bezala
balute ikasi;
Ezagutzen ez ta
mendekatzen asi,
nola nai zuten bada
baza irabazi?

12

Ondoren agertu zan
Don Joaquin Traggia,
naspillatu naiean
euskara garbia.
Aotan artzen zuela,
Nafarren erria,
ustez etzuelako
izen berekia.

13

Gutziz gauza aunditzat
Traggiak esanak,
desegindu zituen
Astarloa jaunak:

aiñ ziraden traketsak
eta txit baldanak,
ezagutu ditzake
eroa ez danak.

14

Astarloaren obrak
dira agiriko:
alakorikan iñon
ezta nerekiko;
Mingaiñ latz arro zenbait
astotzar lapiko,
ixilduko dituzte
sekula betiko.

15

Mundu guzi guzia
jakiñean bego,
biziko da euskara
oraiñ eta gero;
Beraren aundizkatzen
gogaltsu ta bero,
itzkribatzen ari da
aspaldian Erro.

16

Atera ditu onek
bi obra berriak,
esaten dituela
beretan egiak,
Aiek irakurtean
etsaien erdiak,
ezur uts egin ditu
sabel arrabiak.

17

Txoriburu puztu bat
egitxik txit aundi,
etsai irten zitzaion
gure euskarari;
Apez janzian zuen
izena estali,
aditu baitzituen
bereak eta bi.

18

Luma lodi zatar bat
zorrozturik gaizki,

asi zan itzkribatzen
arroturik lazki,
Euskara ixilltzeko
asmoetan naski,
erronkak botatzea
eztordea aski.

19

Kakoa ortik eta
emendik makoa,
esaten zuen zala
Montuengakoa:
Uste bazuen ere
zala goapoa,
astin bat artu zuen
ha zer nolakoa!

20

Euskara piztea da
erdaldunen miña,
ez dakit nondik duten
orrelako griña;
Mundu guzian dago
sustraiak egiña,

itzegin oi zalako
bera txit anziña.

21

Naiz joan batera ta
naiz joan bestera,
non nai aurkitutzen da
argiro euskara;
Eman bear diogu
zor zaion eskerra,
bestela gu beraren
semeak ez gera.

OARKERA EDO ADBERTENZIA

Obra onen zatirik geienetan agindu deran bezala, jarriak neuzkan soñu zar gogoangarrien itz neurtuak, baña Korrejidore jaunaren agindua egitearren (beraren lizenzian ikusiko dezuten bezala), ez ditut ezarri.

Gisa berean eskañi det soñu beran otsakinda edo musika, zeña arkitzen dan moldizki edo prensan, eta argitaratuko deran egun gutxiren epean.

Nere naikida zan obrarekin batean musika ere ematea, bañan ainbesterañokoa izanik otxandiki edo publikoaren eresia lenbaitlen agertaratzeko, beartu naiz bakarrik ura, au baño lenago ematera.

EUSKALDUN ANZIÑA ANZIÑAKO

**Ta are lendabiziko etorkien Dantza oniritzi,
pozkarri,
gaitzik gabekoen Soñu gogoangarriak,
beren itz neurtu edo bersoakin**

DONOSTIAN

Inazio Ramon Barojaren Moldiztegian
1826 garren urtean egina.

M.N. Y M.L.

PROVINCIA DE GUIPUZCOA

Ha llegado por fin el momento en que uno de los mas respetuosos y adheridos hijos de su V.S. puede presentarle el primer egemplar de la coleccion de canciones bascongadas que acaba de imprimirse con las licencias necesarias. El celo del distinguido profesor de música D. Pedro de Albeniz, no satisfecho con haber ajustado á las reglas del arte los cantares que improvisaron nuestros Abuelos en las cimas y desfileros de las montañas Guipuzcoanas, ha aprovechado esta ocasion para establecer en nuestro país el método de imprimir los caracteres músicos, que es un ramo del arte tipográfico muy poco estendido en España, y que puede ser muy util en este suelo que produce con abundancia la primera materia que se emplea en este ramo de industria. Bien se deja conocer que su establecimiento ha debido costar mucho tiempo, y esto disculpa la tardanza que se ha experimentado en la publicacion de esta obra que esperaban con ansia todos los Guipuzcoanos. Pero aunque parezca tardía no puede ser mas oportuna esta publi-

cacion; nunca podrían entonarse con mas oportunidad los himnos de triunfo inspirados á los antiguos Bascongados por el genio de la Patria que cuando acaba de asegurarse la victoria de los Fueros que nos legaron, por los esfuerzos de sus mas nobles y dignos descendientes; nunca será mejor ocasion de espresar el respeto debido á las autoridades, consagrado en sus cantos por nuestros Trasabuelos, que cuando nuestro amado y justo Soberano acaba de ofrecernos el mas relevante motivo de gratitud, ratificando las franquezas que tiene juradas observar, é imponiéndonos con estos un doble y especial vínculo de obediencia; nunca por fin resonarán en nuestros profundos y risueños valles con mas alegría las cantinelas amorosas que en ellas se oyeron por primera vez, que cuando nuestros robustos y bulliciosos mancebos son escitados á unirse al bello sexo, por la idea de dar el ser á unos hijos que han de recibir intacto el patrimonio de sus ascendientes, y han de servir para conservar las inmunidades de su Pais . Llega pues muy en sazón á los Procuradores de Guipuzcoa la coleccion de canciones vascongadas, su título es la mejor recomendacion con que puede presentarse en el Congreso de los Guipuzcoanos mas ilustres por su

amor á la Patria; y como nada mas hay mio que el cuidado de recoger estas canciones, me prometo que la ofrenda que presento, será aceptada por V.S., por cuya prosperidad quedo rogando á Dios.

Bizi bedi Gipuzkoatarren biotz biguñetan beti betiko sarturik aurkitzen dan Errege on Fernando zaz-pigarren maite maitagarria. Bizi bedi doatsueraz betetako gure ama Gipuzkoa oneski gozatsua. Bizi bitez batzarre aundientsu orretan jaioterriko oitura gogoangarriak irozotzera baturik dauden etxejaun prestu leialak.

San Sebastian, 2 de Julio de 1827

Juan Ignacio de Iztueta

De los diferentes pueblos que componen la Península, el bascongado es uno de los que mas se distinguen por la antigüedad de su raza, por la de su lengua, por la naturaleza de sus fueros, y por el espíritu nacional que le anima. Varios autores notables como Garibay, Sandobal, Moret, Oyenart, y literatos distinguidos como el Bachiller Zaldivia y los doctores Isasti y Camino, se han ocupado en escribir sobre él bajo estos diferentes aspectos, pero especialmente sobre

su idioma, el Padre Larramendi, los Señores Astarloa y Erro, españoles, y el Señor D'Iharce de Bidassouet que ha publicado en francés la Historia de los Cántabros. Allí pueden hallarse y consultarse datos muy interesantes que servirán para comprobar cuan fundado es el apego de los bascongados á todo lo que les concierne.

Si cada Provincia de España tuviese hijos ilustrados que se dedicasen á conservar sus fastos particulares, el orgullo nacional de toda la Monarquía se apoyaría mas en estas glorias parciales; y acaso la union política sería mas fuerte, por que la rivalidad de méritos suficientemente averiguados serviría para establecer entre todos los españoles un aprecio recíproco y duradero.

La disposición de los bascongados para todo es inegable. En su carácter, en sus hábitos, en las circunstancias mismas locales, encuentran todo lo que puede hacerles aptos para las ciencias, las artes, la industria, la navegacion y las armas.

Mientras los autores que van citados, han desenvuelto con erudicion y acierto esta opinion fundada en hechos, yo he creido contribuir á perfeccionar sus trabajos haciendo la presente coleccion de cantos

propios del país, y especialmente de la Provincia de Guipuzcoa.

Los historiadores en general, se han detenido casi siempre mas en la relacion de batallas, de empresas aventuradas, y cuando mas de ciertos atributos característicos de la índole de los pueblos, que en el exámen de sus costumbres privadas, de sus diversiones domésticas, y de la espresion vulgar de sus sensaciones.

El estudio sin embargo de estas particularidades no es indigno del filósofo y del historiador. Y así como de la comparacion de las lenguas y de las legislaciones se deducen antiguas comunicaciones entre pueblos muy lejanos unos de otros, de la comparacion de sus hábitos familiares, de sus danzas y de sus cantos podrían deducirse tambien nuevas consecuencias que contribuirían eficazmente á perfeccionar la indagacion de sus conexiones primitivas.

Bajo este punto de vista la coleccion que doy al público podrá ser de utilidad inmensa, cuando este ejemplo sea imitado en otras partes y existan medios de comparar las tradiciones musicales de los pueblos. Aun prescindiendo de esta mira que tal vez parecerá demasiado elevada y filosófica, siempre

creo haber hecho una obra grata al pueblo bascongado, librando del olvido estas canciones de que seguramente una gran parte cuenta siglos de antigüedad.

Pretender en los cantos vulgares las convinaciones sublimes del arte, sería un error grosero; pero cuando en medio de su sencillez y abandono tienen el mérito de la espresion, de la analogía con el objeto, y segun el asunto, de la *sensibilidad peculiar* á él, si puedo espresarme así, ya entónces puede inferirse la disposición de los pueblos para el arte encantador de la armonía y aun hasta cierto punto, *su modo de sentir*. y de aplicar la melodía á la manifestacion de sus afectos y de sus sensaciones.

En las diversas composiciones que he reunido, se descubre el amor del pueblo bascongado al bello sexo; pero de un modo que sin salir de los limites de una decorosa moderacion, previene en favor de la genialidad de sus habitantes.

En el canto en que se figura que el pueblo pide permiso al Alcalde para divertirse, se nota la respuesta de este al concederle, recomendando el órden y anunciando la intervencion de su autoridad si se perturba. Este espíritu nacional de respeto á los magistrados que aun por este medio se grava en la mente

hasta de las ínfimas clases de la sociedad cuando en sus mismas tareas entonan sordamente estas palabras y estas cadencias, contribuye á mantener en estas Provincias el culto que se rinde á las leyes y sus egecutores, y es tal vez una de las causas mas poderosas de la estabilidad de nuestras instituciones forales.

En la música que publico, ya con palabras ya sin ellas, y aplicada especialmente al baile, se notan un giro y una animacion que indican la agilidad y vigor de los habitantes de estas montañas.

No diré que todos los retazos que he reunido sean de una remota antigüedad, pero muchas, es evidente que la tienen, y conviene no perder de vista que algunos son marchas guerreras que acaso inflamaron el ánimo de nuestros mas remotos antepasados y acompañaron sus esfuerzos para repeler el yugo extranjero y trasmitirnos la dichosa independendencia y paternal gobierno de que gozamos.

De las composiciones que pueden calificarse de modernas, la de *Ondarribia chiquia* recuerda la época de la llegada de Felipe V á España, de su advenimiento al Trono, y del amor con que fue acogido por los Guipuzcoanos este Monarca, primero de su augusta

familia en España, y Bisabuelo del Señor DON FERNANDO VII á quien tantas pruebas ha dado de lealtad la Nacion entera, y cuyo bien y prosperidad apetece tanto este Soberano.

Estas canciones populares no bastarían á probar el genio de los Guipuzcoanos para las composiciones mas sublimes de música, pero que la tienen, es innegable; y en prueba de esta asercion permítaseme citar, entre otros, los nombres del célebre y de ilustre memoria Conde de Peñaforida (abuelo del actual) fundador de la Real Sociedad Bascongada, la primera del Reino, quien entre varias obras compuso una ópera en bascuence que demuestra su genio y su inteligencia; de D. Manuel de Sagasti autor de otra que agradó mucho en Madrid y de una misa de *Requiem* que ha sido comparada con la de Mozart; de D. Fausto Corral, aficionado muy distinguido; de D. Joaquin Yun que hizo revivir el gusto de la música en esta Provincia y que conocía lo mas selecto de los mejores autores. Entre los profesores no puedo menos de hacer mencion en el género religioso ó *canto llano*, del Padre Sostoa del Orden de San Francisco, natural de Elgueta, el cual ha dejado obras verdaderamente magníficas. Tambien recordaré á

Vicente Ibarguren músico juglar ó tamborilero en la ciudad de San Sebastian. Sobresalió en el instrumento peculiar de los bascongados llamado *silvo* que es la famosa *tibia vasca* a tan conocida entre los *Vascongados* desde remotos siglos aun por los Romanos, y en él, á pesar de no tener sino tres ahugeros, ejecutó un concierto de violín que gustó muchísimo en Madrid. Ha dejado composiciones de un mérito eminente.

A todos estos sugetos que he indicado y que ya no existen, podría añadir otros que viven aun, tanto aficionados como profesores, que en nada desmerecen de aquellos; pero no nombraré, por no ofender su modestia.

Seria sin embargo injusto si no manifestase que mi idea de imprimir una obrita sobre el modo de bailar las canciones que publico, reuniendo á varios que las cantasen, y la laboriosidad del organista de Hernani D. Manuel de Larrarte, proporcionó al distinguido profesor D. Pedro Albeniz la ocasion de escribirlas y ordenarlas, formando así la coleccion que ofrezco al público, y que no debe mirarse solo como un objeto de pasatiempo, sino como un verdadero monumento

nacional que tiene y debe tener mas importancia que la que acaso a primera vista parece.

1. KUARRENTAKO ERREGELA

Kuarrentetatikan
nai nituzke nik
nere ixil gauzak
argitaratu.

Nere Jangoikoa,
zuk erakustazu
zer egin,
nola itz egin.

Laga nituen nik
nere ixil gauzak
maitetxo batengan:
saiatu bear det
jakitera
mudatu ote dan.

Triste daukat biotza,
nere laztana,
zugaitik
zer egin ez dakit,
erremedia nazazu

pena onetatik.

Aingerutxoa,
jarri ziñaden
biotz nerean betiko
ala deritzat nereko.

Damu det bestek eramatea
zu biotz neretikan
ez deritzat mudatuko zerala
oraingo fedetikan.

Aingerutxo oni
esanaz nago beti:
biok alkarrekin
bear degula bizi.

Sartu zat biotzean neurgana
eta ezin apartatu;
zer egin
erakustazu.

Egin det alegiña
sartu zat zure miña

egun da santa sekulako,
nere aingeru piña.

Ai! au penaren aundia!
esan dezadan egia,
zabala dago zure begia
nere pena guzien konsolagarria.

Erramuren mezpera ezkerotzik
etzerade nere maite polita
beiñere ateratuko
neronen biotzetikan.

Biotzean sartuta
ezin apartatu
arren, konsola nazazu,

Beti penaz, Oi! nago urriki,
el zaizkit Zeru altua;
zerorrek ondo dakizu
nere trabajua.

Nere buru guzia
galdurikan

ni emen nago;
erremedio on bat, arren,
indazu niri
ill baño lenago.

Esperantza dadukat nik,
maitea, zugandik,
sendatuko nazula
miñ onetatik.

Nere maiteak
ezagutzen bait du
daramaizkidana
pena andiak;
aditzera ematen
asi dirade
noizbait aren begiak.

Nere maitea ez bada, arren,
geiago egin negarrik;
zure suspirioak neuri
biotza erdiratzen dit.

Bostetan esan dizut

nik zuri
biotz nereko berri.

Nere itzaren jabe nago ta
badakizu ez dirana bi;
beragatikan zor diskiratzu
graziak partikularki;
aspaldi da esan nizula
zuretzako nengoela ni.

2. SAN SEBASTIAN

Ardoak para gaitu
kantari bi eta dantzari;
ez gaituk mutilok egarri
ez ori segurki.

Gure kondizioak beti
tabernarako
eskean gure finak
berdin bearako.

Ezin faltatu,

kondizioak guk
onak ditugu.
Goizean joaten gera
tabernara
eta arratsean
beranduan etxera
gerok joaten gera.

Bañan alere betor ardoa,
edan dezagun
eta gauden alegere.

Atzo eta egun
ta eranegun ere bai
izandu diagu
errian jai.

Tabernan beti
sarturik gaude
edanaz ardo gorriti
orditu gabe, zuti.

Arropea zar
eta eztarria garbi

zorra franko bai
baña artzeko gutxi.

Bart gure etxean aserre
batzuetan bai neur ere;
ez orain bere;
gauden alegementean,
egongo geraden artean,
leku batean,
pitxar aldean,
berdin gure fiñak
bearko dik
hospitalean.

Au da San Sebastian
orain dantza gaitean,
ia goaz erdian aurrera.

Dantzan dabilenak
arin zetik oñak
baldin ezpaditu oñak ariñak
ez du luzitzen,
bañan orrek ederki dik dantzatzen.

Ardoaren bentajak
ain dirade aundiak guretzat
gure biotzak
ardorikan edan gabez
zeauden otzak.

Atzo goizean tabernan
ongi neurria
edan nuen
txopiñ erdia.

Esan bear det egia.
Arretxek ill ziran
neuri egarria.

Zorionean nintzan
mundura ni jaio
zergatik deran naiago
ardo gorri nafarreti
andrea baño.

Ardoa ta kartak
ditut adiskide;
ez det nik

beste maiterik.

Ez det bearrerako
afiziorik, alerik:
ardoak naduka
enamoraturik.

Ardorik ez bada
neronen biotza
gelditzen da motel
eta ill otza.

Luzatuko liket
biziak
neretzat balira
ardo guziak.

3. GALANTAK

Dama gazte galant bat
ekusi det bart arabaketan
engañatutzen nauela
bere ustetan,

ez naiz fiatuko berriz
arren itzetan.

Maite nauela aniz
esan izan dit asko aldiz.

Dama gazte galant oni
nai izan diot ongi oraindañoan:
gau eta egun idukitu det gogoan.

Maite ninduzula aniz
biotz biotzetik;
esan didazu askotan
zerorrek jakingo
bait dezu zergatik.
Aingerutxoa, nai dituzu
besteak bat bezala zuk bi.

Nai badezu egin
maite biren jabe
gelditu zintezke
bada bat ere gabe.

Galai alaia nik naia.

-zerade zu beti-
iduripen gaiztoak
kendu bear dira burutik:
munduan diraden gizonak
utziko ditut nik zugatik
baldin nai banazu ni.

Galai gaztea,
zu penaturikan ikustea
badakizu dala
neretzako illzea
egizu gauza oek
burutik uztea.

Atoz,
nere aldamenara zaitea
biotzetik etzaitut
utziko nere maitea.

Dama gazte, begi argia
esaten banazu egia
zurea izango naiz beti
itza ematen banazu
biotzetik;

begira ordean
niri besterekin ibilli jostatzen
alakorik etzait gustatzen.

4. TXANTXAKAK

Txatxantxo gazte polit bat
maitatzen det aspaldian
bera bezelakorikan
ez dago errian.

Gorpuz galanta du egokia,
illea guziz lodia,
begi beltz alaiak, gerri lirain,
ezpaña, txit gorria.

Galai gazte aniz
damatxo onen ondoren dabiltz
gau ta egun;
beste bat alakorik
ez bait dago iñun:
ederra da segurki,
berak ere badaki;

bizia galdu lezatzke
edozeñek argati:
engañaturik gaduzka
beste asko eta ni.
Gaztetanik du aingerutxo onek
gutziz asko ikasi
aldamenean, beti nai ditu
aberatsak ikusi.

Aingeru au eta
beste lau galai gazte
arrats batean
politikxo eta gozotxo
zeuden alkarren aldean.

Itz egin zioten ederki,
bañan ez dakit
maite ote duten biotzeti.

Zure ondorendik
dabiltzan galai gazteak
baldin badirade
etxe oneko semeak
beren idekoak

naiko dituzte emazteak.

Zu utzirik artuko dituzte besteak.

Maite zaituztela
esanagatikan zuri
juango zaizkitzu
itzuli.

Ezkonzeko firme
eman arren itza
galai aberatsakin
kontuz zabilta.

Izan zenzake miña,
orain ez bada ere bai gero
adiskide oriek egiña.

Nai dizutela asko
esango dizute beti
bañan ez nik bezala
biotz biotzetik.

Galai maitagarria,
iru urte ontan

badakizu bai
nere barrengo berria.

Nai ditut asko
biotz biotzetik
ez det iñor
zu beste maiterik.

Gau eta egun beti
zauzkat gogoan
zu beste maiterik
ez det munduan.

Galai aberats guzi
guziak ditut utzi,
zergaitik nai dedan
zurekin bizi.

Oroitzen naiz ongi
nola esaten nizun
arrats batez geundela
bakarrik
itz egiten gelan
zu ta ni,

beste guziak baño
askoz maiteago
izango zinduztala
beti, beti.

5. EUN DUKATEKOA

Eun dukatxo
banituen bada nik
orain bi urte
nere aitak emanik.

Erdiak maiteari
niozkan eman
eta beste erdiak
edan eta jan.

Ez det orain bat ere:
orreatikan maiteagana
joan ninzan bart ere,
joango ere bai
nere maite politak
baldin badu nai.

Nola naiko ez det bada nik,
maitea, etorzea zu
baldin zuretzako
izan bear banazu.

6. BETRONIO TXIKIA

Betronio,
zu diruak aituagatik
maite zaitut bada
biotz biotzetik.
Baldin zuk ni ala
nai banazu izan
Jainkoaren legeak
agintzen duen gisan
zure emaztea izateko
jaio nintzan.

7. BETRONIO AUNDIA

Betroniok

Pepatxori
dio
biotzetik amorio.

Zu zara Betronio aundiaren
txatxantxo piña.
Bestek eramatia
izango nuke nik miña.

Aurra maitea,
zerorrek dakizuna da
gauzarikan oberena
dala gizona,
indarrak berak dituana,
badakizu bada
nai izateko dana,
argatik dizut nik
aditzera ematen
bizi bear degu
alkar amatzen.

8. AZALANDARE

Azalandare saltzera,
maitea,
ziñan etorzen,
begiak argi eta
kolorea gorri.

Naitasun aundia zeñidala
sinistu nuan egia zala,
bañan geroztikan jakindu baitet nik
bestegandikan ixillik
ez dirazula naiko
ezpadet dirurik
banekike segurki
ori dala egia,
penaz ill naizala ni
zenduke berria.

9. ERREGELA ZARRA

Atsekabe gaizto bat
dadukat biotzean;
eritzen nau, maite,
zuzaz oroitzean:

Egunaz eta gabaz,
ordu guzietan,
nai nuke kendu baña
gelditzen zait bertan.

Ar gaizto au portitza da
zulatutzen nau lazki;
urtebete onetan
narabil txit gaizki.

Eziñ jan, eziñ edan,
eziñ lorik egin,
nere barrengo korde
guzietan det miñ.

Gaitz au kentzeko zera
maitia sendakin.

Aingerutxoa, badakizu
min au nondik datorren
senda egidazu arren.

Len baño len,

guztia ezpada
erdia bederen.

Ill bear det bestela
egun gutxi barru,
aurkitutzen naiz ia
ez mami ta ez larru;
ainbeste biguntasun
nere maiteak al du,
muga aldia on au
galdu naiko ez du,
beretzat izateko
usterikan badu.

Zuri itz egin eta laster
esan nioten Aita Amai
zu bear zinduztadala,
baldin bazuten nai.

Bata bezela minzatu
zitzaidan bestea,
zu izango ziñala
nere emaztea.

Aien borondatea zala,
zuk nai bazenduen ala.

Adieratzo nizunean
nik aien borondatea,
naitasuna agertu zeñidan,
nere maite maitea.

Gerozti izan dezu
aldaira aundia,
nai badezu esan egia,
orduan alaiago zenidan
ifinten begia,
besteri nai diozula
artu det berria.

Utsik aurki geldi zintezke,
aingerutxo gaztea,
ni seguru naukazularik
nai badezu bestea.

Esan behar dirazu bertan egiazki
baldin nai badirazu niri,
eman bear diozu

etsimena besteari;
ezin izan zinzeke
iñolaz ere bi.

Galai gaztea engañaturik
aurkitutzen zerade,
ez det maite iñor besterik,
zu zerade nere jabe.

Iduripenak dizkitzu
eman naitasunak;
ez det maiterik iñon
baizik ezagunak;
iñoiz egiñagatik
oekin jardunak,
badakizu dirana
zure gazte lagunak.

Izan zaitez gizon,
zu anbat maite deranikan
ez det bada nik iñon.

Uste baldin badezu
besterena naizala,

engañaturik zaude,
ez naiz bada ala.

Itza eman nizun
ta nai nuke ornitu,
jostaketara ez naiz oitu;
ain gutxi bestek itza
zuk baizik kojitu.

10. EUN DA BIKOA

Soñu onen puntubak
dira eun ta bi.
Adizkide bati
beste ainbeste dukat
emanik nago ni.
Nere ustez aurkitzen da
pagaturikan ongi;
geiago bear baldin badu,
esaten diot orri,
eskatu nai badio
baduela nori:
langai orretatik libre

arkitzen naiz ni.

Naitasunik baldin badio
badu biderikan aski,
ematen badizu nik ainbat
ezta izango txit gaizki.

Nai dezunean atoz
artzekoen eske;
nik badet ainbeste,
bidezkoa dezula
baldin badezu uste,
zorrak geroko utzi gabe
pagatu nai nituzke;
lengoak eman nizkitzula
oraintxe da bi urte;
etxean baneuzka gaur
naiago nuke:
ala ere beti
izango zaitut maite.

11. AMOREA MARGARITATXO

Amorea, Margaritatxo,
nola zagoz tristerik,
zagoz alegererik!

Zu orrela ikustea
ez det nik atsegin,
nai badezu jakin.

Atsekaberik asko
zu ikustean nik,
oi daramat maitea,
biotzean ixillik.

Bañan alferrik.
Jakinean aurkitutzen naiz
etzaudela nerezat
bañan ezin aztu zat.

12. PUNTA MOTZ

Gure akerrak ditu
punta biak motzak,
zerren galdu ziozkan

neguko izotzak.

Aker galanta da ta
guziz egokia;
damurik ikusten det
puntak ebakia;
alferrik ematen diozkat
jana ta jakia.

13. ERRIBERA

Erriberaren alaba
kolore gorria,
ederki dantzatzen dezula
zabaldu da berria;
plazan ekusi nai zinduzket
txatxan maitagarria.

Deituko zaitut bada
urrengo jaiean
serbitu nai banazu
bear dan gaiean
nere pozkida aurkitzen da

dama, zure naiean.

14. ONDARRABIA AUNDIA

Ondarrabian daude
dantzari bi ederrak;
ezagutzen ditu Bernardak;
dantzara ezpadute
eramaten berak
gajo onek egiten ditu
benazgo negarrak.

Bata da Martin
eta bestea Patxiko;
au ekusi gabetanik
ez luke etsiko.
Soñu zarretan ere
dantzariak dira;
zoraturik dago beti
Bernarda oiei begira.

15. ONDARRABIA TXIKIA

Felipe Bostgarrena
zanean etorri
Españiara agintari,
Irunen dantzatu zan
Patxiko txikia;
arritu zuen jende guztia.

Arren dantzatzeko
jakinduriak,
pozkidatu zituen
Españiako gizon aundiak.
Errege maite du Ondarrabiak.

16. NAPARTXO

Naparroatik etortzen da
ardo gorri gozoa;
artxek konsolatzen dit
niri biotz gaxoa.

Bizikai ona baita guztiz
erosteko dirua balitz

edango nuke asko aldiz
naiz etxera eraman zaldiz.

Ez det abererikan,
dirurikan ain gutxi,
bañan, adiskide
tabernako Luzi,
ez nezake bada nik
edan gabe utzi,
zergatik berak nauen bizi.

Ardorik edan gabe
nagoen eguna
eduritzen zait bada niri
dala guziz illuna.
Pitxarra ongi bete bedi;
eta sarritan eman
edatera niri;
biotza aurkitzen zat
motel eta eri.

17. ORMATXULO

Ormatxulo batetik
gau batean igesi;
arratoi beltz andi bat
nuen nik ikusi;

Zijoan pizkorki.
Noranai saltatzeko
etzegoen gaizki:
bañan atzaparra zion
katu batek ezarri.

Umildu zan sarri.

18. UPELATEGI

Edan ezak goizean
txuritik onetik,
arratsaldian
gorritik, obetik.

Ala egiten oi diat nik;
eta ik egik albadagik;
on egingo dik.

19. TXIPIRITONA

Plazaren erdira irtenik
andrea ta gizona
dantzatu bear dute ongi
biak txipiritona;
anziñako usuario au
txit da ona.

20. ERREBERENZIA

Erreberenzia
Gorputz egunean
Elizan sarturik
Jaunaren aurrean,
ezpata birekin
laudatuaz gure Jauna
badakigu dantzatzen dana.

Onestasan guziz andiarekin
lendabizi Jaunari agur egin;

ala agintzen baitigu legeak
zeren gaituen guztiok bereak.

21. TXAKOLIN

Txakolin, txakolin
txakoliñak on egin:
Maritxo, arintxo da Martintxo.

Ase naiz nafarrez:
txuri gorri ta beltzez
jarri naute miñez,
gabe ere onik ez.

22. MIZPIROTZ

Zure aitak esan dit,
nere maite polita,
mispirak dauzkatzula
ustelzen jarrita.

Janari gozoa

da guziz mizpira;
otz ustela
plazan salduzen zaudela,
begira erosleai
benaz eta ernai,
galdua zera bestela.

Salmenta txarra dute
mizpira zimurrak,
bigundu arteraño
mami ta ezurrak.

Salmenta onekoak
badira mispirak,
erosi gabetanik
gelditzen ez dira.

Gozoa eta piña
eguteraan egiña,
ez da izango miña.

Ikaratzen baditu
agin eta ortzak
jaten asi orduko

mizpira ustel otzak.

Gozoa dalarikan
ditu bere tatxak
arantzakin osto txit latxak
zimurtu ezkeroztik
elkor ta minkatxak
badakit dirana gaitzak.

Kuidado andia bear du
zerren eltzen da txit berandu,
sosoia egiñ arte
elduegia ere
ez bait da on beñere:
arretaz kontu egin
bear zaio mispirari;
lanik asko izango baita ala ere.

Esaten dizut
zure onerako,
etzaizu bada
sekulan damutuko.

23. GRAZIANA

Amorioak nauka
biotzetik eri;
esan gabetanikan
ezin nengoke ni.

Pena bat, oi, daukat biotzean gorderik.
Graziana ikusi nuen ezkeroztik.

Ai! au pena ta naigabea!
maitetxo, Graziana,
zureganako miña
sartu zat nigana.

Badakite zeruak
maite zaitudala;
nere poza lizake
baninduzuala;

Zuregan dago
nere ona eta gaitza
eman biar dirazu itza
bestela ill bear det,

nerre maite biotza.

Maite izango zaitut beti,
zuk ala biotzetik
baldin banazu ni.

24. BELAUN TXINGOA

Euskal errietako
soñu ezti,
izan dana beti
guzien gañetik,
billatu det lurpean sartua
bai eta aztua
zeren dan zartuba.

Ateratu bear nuke plazara
nerekin dantzara;
oraindik gauza da,
ikusiko da
zein atsegiña;
bizarra urdiña
baña txit ariña.

25. GIZON DANTZA (hitz neurturik gabe)

26. GAZTE DANTZA (hitz neurturik gabe)

27. ETXEANDRE DANTZA (hitz neurturik gabe)

28. GALAIEN ESKU DANTZA (hitz neurturik gabe)

29. NESKATXEN ESKU DANTZA (hitz neurturik gabe)

30. EDATE DANTZA (hitz neurturik gabe)

31. EZPATA DANTZA

Gaur ezpata dantzari
aurren azkendari
Korpus da San Juan
dituztela gogoan,
Zaldibiatarrak
gazte eta zarrak
oi dabilza dantzan
beren Erriko plazan.
Gozo edo mina
Martin danboliña
arturik berekin
Errikardorekin
dantzari ariña
omen da kapagiña
Juan Martin,
nik ori ongi jakin.

Geldi, geldi, geldi,
Berdillariri
erabili konpasa,
ez dakion pasa,
Mariñek badaki
nola erabaki

aren zortzikoa;
ez du lendabizikoa
Diego Beltza
asko oi da altxa
arturik ezpata,
dantzari polit bat da.
Iru txiki eta
txiki-txiki
geienez aurrean,
biak alkarren parian.

Ah! nolakoa olakoa
dantzatzen ezpata bi
ikusirik nago ni;
aren anka eta planta
ez da itxusia,
plaza asko ikusia.

Zubieta
badu beta
dantzatzen zortzikoa,
guziz da pijoa;
ermentaria
zer dantzaria!,

eta Longinos
ikusi dut iñoiz.

Etixerik etxe
an ta ementxe
gizonak eta mutillak.

Salto ta brinko
egiñik pijo
ustutzeituzte botillak.

Zeñek atxi
olako Patxi
erabilten ezpata.
Zankoak arin
orain baldin
arras galdu ez bada.

32. BROKEL DANTZA (hitz neurturik gabe)

33. PORDON DANTZA (hitz neurturik gabe)

34. JORRAI DANTZA (hitz neurturik gabe)

35. AZERI DANTZA (hitz neurturik gabe)

36. BIZKAI DANTZA (hitz neurturik gabe)

**37. BIGARREN ALDIAKO ZUBIAK
EGITEKO SOÑUA** (hitz neurturik gabe)

38. DANTZA BUKATZEKO SONUA (hitz
neurturik gabe)

39. ALKATE SOÑUA

Alkate jauna, bedori
ezagutzen degu agintari.
Jostaldiatu nai genduke
bedorrek atsegin baluke,

naierara ta garbi.

Iñori ez gaitzik egin
izan ez nezakean min:
atsekaberik ez eman niri;
jostatu zaitezte emeki,
Erria pozkida dedin.

40. PROZESIOKO SOÑUA

Gure Jaungoiko maitatia
izanik ongille aundia
zerutik etorri zan,
bai, lurrera.

Adanen bekatu gaiztoa
sendatutzera
bestela ginjoatzen galtzera.
Guztion Jaun ta Jabe Zu zera.

41. ALBORAETAKO SONUA (hitz neurtu- rik gabe)

42. BUKAERA (hitz neurturik gabe)

43. EZKON BERRIAK LOTARATZEKO SOÑUA

Ezkonberriak
pozkidaz daude,
pozkidaz daude,
egin diralako gaur
alkarren jabe
elizan:
gauza ederragorik
ezin izan,
Hai! orain banego
ni zuen ditxan!

44. AUR TXIKIAI LO ERAGITEKO SOÑUA

Aurtxo txikia negarrez dago,

ama emazu titia;

Aita gaiztoa tabernan dago,
pikaro jokularia.

45. AITA SAN INAZIOREN MARTXA

(hitz neurturik gabe)

46. KANTA URIAKO MARTXA

(hitz neurturik gabe)

47. ZEZENAN SONUA

(hitz neurturik gabe)

48. ZAPATAGILLEN SOÑUA

(hitz neurturik gabe)

49. ESKU ALDATZEKO SOÑUA

(hitz neurturik gabe)

50. AITA MEAGERREK ARDOARI JARRITAKO ITZ NEURTUEN SOÑUA

Ni naiz txit gauza gozoa
eta pozkida osoa:
beltza naiz ta zuria,
illuna ta argia,
indarra naiz ta garboa
eta izena det ardoa.

51. NESKATX GIZONKOIAK ERRITIK BOTATZEKO (hitz neurturik gabe)

52. GORPUTZ GOIZEKO SORTZIKOA (hitz neurturik gabe)

ERANSKINAK

GIPUZKOA TXIT LEÑARGITI ETA GUZIZ LEIAL ILLEZKORRA

Ama oneski maite maitagarria: lau milla ta berrogei urte igaroak dira mundu osoak ezagutzen zaituela argiro, zeure siñale seguru garbietatik; non Gipuzkoaren izen ondrosoa enzun bezin laister oroitzen diraden guziak, zure izaera doatsu zorionekoaz. Eta, zergatik ori? Ez bestegatik ez bada, ainbeste jasogor, eraso portiz, eta ausi abartza gaiztoen erdian gordakaiatu dituzulako garbiro, zure jaiotzako itzkunza jakintsunarekin batean, era bereko lege zuzen eta oitura gogoangarriak. Ez etsai gutxiren esker gaiztoan!

Zirikatu zinduzten Fenizioak, kaltarriatu Kartagoak, eraso Erromatarrak, atsekabetu Godoak, sumindu Arabeak; bañan zu ama illezkorra, izanik ain irmoa eta sendotasun andikoa, arpegi guziai eman ez ezik, burutik beera portizkiro erasorik, galanki zatitu, ta arras urraturik uxatu izan dituzu arin aski zure etxepera etorri zaizkitzun era guzietan.

Ez litzake arkituko ain mingain zorrotz, me, eta argirik, zure azaña aundi, eta garaitpen gogoangarri

guziak bear bezala azaldu litzakeanik. Ala ere, etorri zaidanean eskura atsegingarrizko teretxa egoki au, ezin utzi nezake sonatuenetako bat berriztatu gabe zure pozkidarako.

Mundu osoa, Euskal erriaz kanpora, azpiratu zuen Augusto Erromatarra iru martizdi edo exerzito eskar-ga arturik etorri zan Italiatik Gipuzkoara. Tubalengandik 2160 garren urtean, eta 26 urtez Jesukristo jaio baño lenago, jende mulsu ain ikaragarria ikustearekin beste gabe lur piska au menpetatuko zuelako uste osoarekin, baño txit irten zitzaion ustela bere ustea.

Itxasoz ta leorrez jarri zizun, ama Gipuzkoa, esi txit estu gogorra. Eraso zizun alde guzietatik bat batean, su ta gar, barautsa ta pitxa zeriola leioi amorratuaren gisa; bañan zu ardura aundiko ama, iñoren uztarripeian etsitzera oitu gabekoa zeraden bezala, baztertu ziñan zure seme pizkor ta indartsu txit azkarrakin Ernioko mendi tantaiera, nondik asko malmetitu gabe ixekatzen ziñan Augustoren arrokeria eta indar guziaz.

Bost urte igaro zituen bere alegin guziak egiñaz zuri jarraika, etsi zuen arteraño txit alferrik zebillena. Berrogei ta bi urte artan irabazi zituen batalla guziak etzeuzkan ezertan, menderatu ezin zuelako zure lur

piska. Ernegaturik erori zan gaxo, eta beartu zan aitortzera zuri, ezin zuela ezer egin zure seme azkar ta pizkorren kontra mendietan, eta errierta luze ain kaltarki au bukatzeko atera zintezela ibar zabal bate-ra. Eta, zer eranzun zenion zuk? Atsegin aundiarekin jetxiko ziñala Errazillko zelaiera, buruz buru.

Esan ta egin, irureun Erromatarren kontra irten ziran zure irureun seme, iskillu edo armaz aiek bezain ongi janziak egon gabearren.

Batalla asitzerakoan zure seme argiak lendabizi egin zuten lana zan, eskuiko oñetako abarkak erantzirik jarrea, oñ berakin lurrean obekiago irmoturik, indarraz ongi baliatzeko. Modu onetan erromatarrai portizkiro egiñik, ordu beta erdigarrengo urratu zituzten guziak, eta gelditu ziran zure seme indartsuak garaitpenarekin.

Arriturik gelditu zan Augusto, mundu guziari ikara sartu zioten bere martizdi gogorra ain aixa azpiratu zituzten Gipuzkoatar sendotasun aundikoak ikustean, eta eskatu zien mesedez, gizon prestu gisa, egin zegotela atsegin eun oetakok berarekin batean Erromara joateaz, senaduari sinisterazo zegion arkitu zana iñon ere bezalako martizdi edo gerreroakin.

Etzioten ukatu zure seme prestuak Augustori bere eskaria, zeñarekin batean joan ziran pozkidaz beterik Erromara, eta iristean esan zion senaduari Augustok, *ona emen non dituzun mundu osoan arkitu dituran gizonik sendotsuenak, eta beren jaioterriarekin toki bereko oitura gogoangarriak bizia baño askoz ere maiteago dituztenak.*

Eranzun zion Augustori senaduak, ezin emango ziola sinistmenik aren esanari, alik eta eun Gipuzkoatar oen kontra beste eun erromatar peleatzen bere begien aurrean ikusi zitzaizkion artean.

Ainbeste milla gizonen artetik beresitu zituen senaduak eun, billa al zitzakean indartsu eta sendoenak, Gipuzkoatik joan ziraden eunen kontra peleatzeko, eta siñalatu ziezaten batallarako tokia Trans Tiber esaten zaion urbitarte bat, zeñetara ezin igaro zitezkeen berreunak besterik, senaduak agindu zuenez.

Lendabizi igaro ziran eun erromatarrak barku batean, eta gero Gipuzkoatar besteak. Oek, aurrengo egin zuten lana zan, Tiberko ibaia igarotzean, berak eraman zuten barkua ondoa botatzea, esanaz *ez degu onen bearrik, zergatik guretzat geldituko dan erromatarrena, eta bera asko degun ostera biurtzeko.*

Pelearako zuzendurik aurkez aurke jarrita, siñalearekin batean alkarri eman zioten lendabiziko kolpean bota zituzten ill otzik larogei erromatar, eta eriturik utzi beste ogeiak. Gipuzkoatarretatik etziran erori ogei baizik, eta larogeiak gelditu ziran garaitpentsu ta zauri gabe, asi ziranean baño indarsuago.

Erromako senaduak ikusi zuenean bere begiaz, argiro, Gipuzkoatarren sendotasun ain eskargea, esan zien berai, *Zuek zerate munduko gizon guzien artean maiteen zaituzteranak. Egia onen argibiderako emango dizkitzutet nere alaba oniritzi aurrenen aurrengoak zuen emaztetzat, baita ere batalla ain sinistgaitza irabazi dezuten Trans Tiber-ko tokia betiko zuentzat, zuen ama prestu Gipuzkoari utziko diot pakean bizi derin, bere oitura gozoetatik puskarik txikiena ere kendu gabe; eta zuek gelditu bear dezute landaretzat Erronran, odol garbiko zain itxaskor indartsu orietatik ugaritu derin Gipuzkoatarren arraza piñ ondrosoa.*

Ikusirik erromatarren amodiozko naitasun bero, bizi, gartsuarekin, eskañi ain prestua, gelditu ziren larogei Gipuzkoatarrak Trans Tiberen, alaba goienengo senadutarrenakin ezkondurik.

Gure erritar maitagarri oek ziran Lartaun, Ursuan, Sabelino, Murutar, eta beren lagunak: oen jatorriak egiñak arkitzen ziran orain irureun urte Trans-Tiberren, bost milla etxetaraño, beren biztanle edo familiakin. Nork ez daki izen oetako gizonak izan diradena mundu guzian sonatuak? Eta, zein ausartatuko da esatera izen berak euskaldunak ez dirala? Egia onen argibidea arkitzen zaiku begien aurrean.

Oiartzungo Lartaungo semea zan, Erromara joan ziran eun Gipuzkoatarretan buruzari edo kapitan, eta nola zekiten onen ondorengo semeak beren aitaren jaiotetxearena zana erri bereko elizaren Torrea, eta beragatik izena zuela eliza onek San Esteban de *Lartaun*, egin zuten zorioneko seme doatsu oek eliza bat Erroman, zeñari ifini zioten izena San Juan de Letran de *Lartaun*, mundu guziak jakin zezan Gipuzkoako balleira leial Oiartzungo jatorriak ziradena. Orra nolako seme bikañen jabe zeran ama Gipuzkoa.

Urteak millaka igaro arren, aixxa aski ezagutzen dituzu, non nai, zure ume gogaberatiak beren izen egokietatik, nola *piedra*, *iman*, *burnia*, ikusi orduko billatzen duen. Zertatik eta nola ordean? Ez bestetatik, ez bada zure izkuntza jakintsunetik eta oitura gozoetatik.

Zenbat eta etsai asko eta gogorrek agertu izan zaizkitzun zure itzkuntzarekin oitura gogoangarren galtzalle, ainbat eta seme ugari eta indartsuagoak azi ditu zure bular guri, mardul, gozoak, guziak zatiturik ixiltzeko. Beragatik arkitzen zera gaurko egunean ain txukinki, janzi eder galantakin apaindua, goienengo mallara seme maiteak igo dizuten zure euskara ederrarekin oitura maitagarrietara begira, pozkidaz beterik; ikusten dituzulako oen etsai aundi izan diradenak, gaurko egunean begirune alaiz begiraturik dabiltzana bazter guzietatik zure zati gozoen billa.

Ezagaturik ongi zein baliosoak diraden (askok ala uste ez badu ere) zure puskarik txikienerañoak, or biraltzen dizut liburutxo bat zure atsegiñerako; zeñetan arkituko dituzun ogei eta amasei dantza mota, beste jostaketa asko zeure zerekin.

Ama maitatia, badakit zugandik gozatzen nagoen doatsueraz betetako zorion guzien alderako, nere eskaña txit ezer gutxia dana; baña uste det ezagutuko dezula, geiago al banezake, egin gabe utziko ez nizukeana. Egiazko sinistmen onetan gelditzen da zeruari oroituaz, gorde zaitzala sekula guzian zure oitura gogoangarrietatik puskarik txatarrena ere gal-

tzera utzi gabe, zure serbitzari, onetan muñ egiten
dizun seme,

JUAN IGNACIO DE IZTUETA

Donostian 1824garren urtean, urriaren 12an egiña

GIPUZKUATARREN KONDAIRA ERROMATARREN DENBORAN

Iztuetako Juan Inaziok
ogei amarreko aunditan ipiña

1

Ogei eta sei bat urte alde
Jesus baño lenagotik,
etsai gogorrak etorri ziran
Gure kontra Erromatik;
Bildur aundirik ustez etzuen
bada izango gugatik;
Asmo gaiztoak kontrara ziran
egiñal egiñagatik,
Euskaldunak bai garailariak
len eta orain ta beti.

2

Antistio an eta Firmio
an Marko Agriparekiñ,
Oktabiano buruzaria
ere an zuten berekiñ:
Iru talderi etorri ziran

lau nagusitzar oiekin,
banidadea aren banderan
ongi zabalduarekiñ,
modu onetan sartu ziraden
ausardi gogorrarekiñ.

3

Lenengo lana atiak itxi
itxasoaz eta legorrez,
bañan etziran luzaro egon
arpegi eman bildurrez:
loa gabeen ariña, eta
begiak allert egunez,
bereala ziran balienteak
asi galdetzen lagunez,
aitaren seme irten ziraden
orain leitutzen degunez.

4

Gogoan gorde leikeana da
seme orien esana,
«Erromatarrak or datozkigu
peleatzera gugana;
Al dan guzia biribillatu

bear degu alkargana
bildurrik gabe sartu aurrera
gogor etsaiarengana
benzu dezagun indarrarekin
onuntza agertzen dana».

5

Uste etzala samiñdu ziran
Erromatar oien farrak.
Gipuzkoako mendi mutillak
ziradelako azkarrak:
Buruzariak ere etziran
orientzako aiñ txarrak,
oñak ariñak, gorputz lirañak,
gogor berriz atzaparrak.
Ainbeste milla gizon mendean
gure probinzi bakarrak!

6

Asi ziraden etor berrian
Erromatarrak gogorki.
Bost bat urtean zenbat pelea
galdu zituzten nork daki?
Alegiñ asko egin det, baña

nik au ezin erabaki:
gerraren gura baziran ere
aspertu ziran ederki,
soldadu arro orgullosoak
jolastun egonagati.

7

Izu-ikaran arkitzen zala
etsaiaren talderia,
Oktabianok atera zuan
erritarretan berria;
Nolabait ere edertu naiez
bere guda galgarria:
batalla onradu bat egin eta
batak besteri legia,
al zan lenena bukatu zedin
Kantabriako gerria.

8

Euskaldunaren agintariak
ori enzutearekiñ,
eranzun zion «konforme gera
gu zure esanarekiñ;
Irureun mutill eskojituak

emen dauzkat nik nerekiñ,
azken batalla nai badezute
onela egin gurekiñ,
buruz buruan etor zaitezte
soldadu onenarekiñ».

9

Bear bezala kunplitu zuten
beren itz onorezkua,
señalaturik zegoan bada
batallarako lekua,
Gipuzkoaren onra andirako
zelai bat *Errezillgua*,
makiñaren bat Erromatarrek
bizia utzitakua;
egun beretik da erri ori
esan dan izenekua.

10

Ordu ta laurden iraun zuan
gauzak gutxi-gora-bera,
eta batalla beti bezala,
mendi-mutillen aldera;
Erromatarrak ia guztiak

erori ziran lurrera.

Oktabianok ekusirikan
bere jendeen galera,
zer gertatzen zan laixter biraldu
zuan Erroma aldera.

11

Albista ori jua eta laister
an Erromako errian,
Senadu danak erantzun zuan
guziz kolera aundian;
«Pelea ori irabaz dute
txit errez beren errian:
guk ere ori egingo degu
nai bada geren lurrian:
gizonez gizon, euskaldun oiek
etorri nai dutenian».

12

Uste gabeko eranzuera
arrokerizko orrekiñ,
Euskal mutillak berotu ziran
onran nai aundiarekiñ;
Oiarzunen zan jauregi-etxe bat;

Lartaunen izenarekin;
ango galai bat giari berriz
eun mendi mutill onakiñ
peleatzeko pozez juan ziran
bada danak alkarrekiñ.

13

Erroma ondoko Tiber zeritzan
ibai zabalen erdian,
zelai polita antxe zegoan
arras leku ederrian,
exola-esiya zeukan egiña
guziz arreta aundian:
berreun gizon peleatzeko
itxitu orren erdian,
iges lekurik iñora ez ta
etsaiak berriz aldian.

14

Erromatikan irten ziraden
batallarako lurrera;
Kantauritarrak arrimatuaz
ibaiaren bazterrera,
beren gabarra zulatu eta

bota zuten ondarrera:
Erromatarrak ekusten zeuden
mendi mutillen sarrera;
salto ta brinko igaro ziran
zelaitxoaren gañera.

15

Erromatarrak albora ziran
etorri galdetutzera,
«Ea zergatik botatzen zuten
ontzi ura bazterrera».
Kantauritarren buruzariak
erantzun zien ostera:
«Lenengo lana orain goazen
zelaian peleatzera,
eta ondoren zuen gabarran
an gera beste aldera».

16

Noizbait bear da, bildu ziraden
peleara alkarrekiñ,
bi aldetako buruzariak,
eun bana gizonekin:
lizar makillak orduko armak

puntan burni zorrotzekiñ,
biotzak salto egingo zien
ori ikustearekin;
Erromatarrak geienak iltzen
lenengo golpearekin.

17

Ogei eta bat gizon ziraden
illak Kantauritarrari,
larogei eta geiago berriz
oiek Erromatarrari;
Euskaldunak an irabazirik
batalla sonatu ori,
une artantxe eldu zioten
etsaiaren ontziari,
eta betiko berendu zuten
Transtiberiko lur berri.

18

Erromatarren presidenteak
Senaduko itzarekiñ
Euskaldun aiei au esan zien
frankeza guztiarekiñ;
«Alkardadean bizi nai degu

orain aurrera zuekiñ,
seme ordeko nai badezute
izan ill arte gurekiñ,
egingo degu guren alabak
emazte emanarekiñ».

19

Euskaldun aiek animaturik,
guztiak baten itzera
erantzuera au esan zioten
jaun prestu aiei ostera:
«Jarriko gera zuen alabak
gure emazte izatera,
pake gozoan gerta gaitezen
gu alkarrekiñ aurrera;
anaiatasun guziarekiñ
Erroman biziko gera».

20

Bi erri oiek pake gozoan
orduti ziran gelditu:
ter gertatu zan, orra nik esan
iñork nai badu aditu.
Gipuzkoa onak bere fueroak

egundano gorde ditu:
probinzi onek seme leialak
oraindano izan ditu;
aurrera ere ala dezala
beti dan arte segitu.

Amen.

KARTA

**EGITEN DIONA D. JUAN INAZIO IZTUETAK
APEZ D. JUAN JOSE MOGELI,**

Aita beakurtsu fraile Santa Teresakoak
Plauto euskaldunaren izenarekin izkidatu duen
obratxoaren ganean, zeña argitaratu duen Mogel
berak.

BEAR DAN ESKUBIDEAREKIN

DONOSTIAN,

Inazio Ramon Barojaren moldiztegian,
1829 garren urtean

On Juan Jose Mogel-eneko jauna.

Nere nagusi ta jabea: irakurri det oarrez ta arte-
zaz *Plauto eskaldunaren* izenarekin, eta Mr. Leclusek
Baiona Franziaikoan moldizki erazo zuen euskaldun
izkuntzarekiko obraren esamesanagaz bedorrek azal-
du duen librutxoa.

Guziz asko ta txit begirakizun andikoak dira egin
nitzakean oarkerak, ala Plautoren amar itz neurtue-

tan ikusten ditudan josiaskatuen aldean, nola euskarazko obraren esamesana bedorrek deitzen duenaren gañean, baña lagatzen diodalarik egiteko oni gizon jakintsunen iritzira egin dezaten esan dan nekeaz bear dan onesbedatzea, eta Mr. Lecluseri legezko eskubidea adiarretu dedin, aita fraile Bartolome Santa Teresako beakurtsuarekin ongien derizkion moduan, mugartuko naiz eskudatzera ukitzen zaidan zatian, ikusteragiten diodalarik bedorri, txit pisu gutxi edo batere ez duela izan bear euskaldun jakintsunen begietan, aita fraileak Mr. Leclusen obrari egiten dion erizmateak.

Txit gaitz anditzat artu du fraile Bartolome jaunak Leclusen euskarazko obrari nik egin diodan andigotzea eta agertaratzen du begirunezkoak ez diraden itzakin izendatzen badu ere Astarloa jakintsunaren modera egokidea, zeña begirakizun guztiaz bear zuen irudikatu doaiñ eder onetan. Egia da errazago dana asko: ere ala onetan nola gañerako eginbide prestuetan mirestea, ezen ez irudikatzea. Mr. Leclusen obra andigotzeaz ez det egin besterik ez bada Gipuzkoar egiazkoa naizan aldetik biotzari dirakiona mingañaz jalkitzea, ikustearekin atzerritar argidore bortiz darraikari bat aiñ gogotsu ekiñik nekeaz ere

oroitu bage ari dala, zeña iritsi dan zañik meenetara-
ñokoak ezagutzera bere oarkera ta zentzu garbiko
argitasuna beste laguntza bagetanik, beragati egiten
dala mundu izkerazkoa miresteko diña, eta euskal-
dun bere erria ta erriko izkuntza maite dituzten
guzien onesbedagarri.

Bereala igarotzen da aita karmentarra nik
1824garren urtean *Guipuzcoaco dantza gogoanga-
rrien condaira edo historia, beren soñu zar ta itz neur-
tu edo versoen* izenarekin argitaratu nuen obrari txi-
rola jotzera, eta itztxo bat bakarra ere dauzkanetatik
esan bage, egiten dalarik goz-itztun, gozo bage bada-
rauskio onela «Erakidatzen naiz ni (esan bear zuek
zertan) Iztueta jaunari menturaz gaintemango dioz-
kala bere obra dantza... joku...-etakoagatik ezarpe
beakurtsuak arako jende dantzari, ipintzirudi, eta
ergel buruzpide berezkatura jaiera duen ark, eta ez
du egilleak bere obragatik zer uste izan beakurtza
geiago Euskal erri donedati oneskiagandik. Galde
zaiezu beraren erritarrai esan dan obra dantzetakoaz
agerriak eraztu duen ustegoa, eta ekusiko dezu enga-
ñatu ez naizana nere zentzuan».

Zenbat eta nola engañatzen dan bada aita bea-
kurtsua! Ezagun da beraren mesedea dana arako

aizebelatskiro itz egin oi duten aietakoa, ezkillak ezun jakin bage nun, eta nere obraren berririk geiago ez duela ez bada izena bakar bakarrik debede edo fallo gogorak bota dizkidana. Irakurri izan balitu oarrez ta artezaz Unzeta beakurgarriaren eta apez Elorza jaunaren ontzate edo aprobazioak, ikusiko zuen argiroki nolako begiruneaz etartua izan dan nere obra, non eta aita karmentarrak ukatu nai ez dien bi osansi oek nere obra doangoakin ontzat eman duten Gipuzkoatar argidotar biai. Eta, zer esango du aita Bartolomek jakiten duenean Probinzia Gipuzkoako leñargitiak eta bere Ekautuak gallaldiatu nautela, lenengoak bere guziakiko Batzarre Bergarakoan erabakitzen zuela biral zekidala, igorri zitzairan bezela, esker-onezko itzkida bat nere obrari egin zion onesbedatzearen oroitzgarri, eta bigarrenak agintzen duelarik, Unzeta jaunak bere ontzatetzean oartarazitzen duen bezala, Gipuzkoako orubean diraden erri guzietako gordeleku bakoitzean ifiñi derilla obra beraren araua edo ejemplar bat asaba maitagarriak erakutsi zizkiguten oitura gogoangarrien oroitzapenerako? Donedatitzat eta oneskitzat dauzka edo ez fraile Bartolomek Gipuzkoar leñargiti au eta bere Ekautua? Nor atzematen du orain bete betean aita Kar-

mentarrak irugarrengo kantaren bukaeran ezarten duen Iriarteren ipuñetako itz neurtuak?

*Gorde beza bere erregalotzat
Debede au Aslea batek
Jakintsunak ezbadauka ontzat
Barbullariak olagaratzea obe ez dek.*

Nere obraren ontzatetzalle Probintzia Gipukoa-koa, bere Ekautua, eta aita Bartolome Santa Teresa-koaren artean, nor da jakintsuna, eta zein barbulloa? Nik esan degiokedana da Mogel jaunari atsegin andietan arkitzen naizala aita karmementarrak olagaratu ez nauelako.

Nere jakinduriaren gañean baldin aita Santa Teresa-koak debedeak bota baño lenago irakurri balu nere obraren itzaurrea bederik ikusiko zituen argiroki gai onen aldean nik ditudan goitiristeak. Mr. Leclusez itz egitean esaten du aita fraileak 105 eta 106 garren orrietan: «*Egiazki baldin euskarazko obraren asiera ezarri balu egilleak adieraki au, lagatzen det biotzetik erizmaterara bigarren zati au, esaten zuelarik, bigarren zatiaren orde, eskugarri edo manual euskarazko itz-kuntzaren au, ezagutuko zuten jakintsunak beraren*

tolesbageko senzildea, eta enzungor egiñik beraren utsaldi zuzenkaitez, esker onduko ziozkaten bere fede ona eta ekai ontagitua, jakintzara duen amodioaren onesbedeagatik». Ezarri det bada nik, ez nere obraren asieran, baizikan beraren itzaurrean tolesbage ta buru makurtze guziarekin nere ezjakiña. *Nola da bada aita beakurtsuak nerekin izatea aĩn barkazio gutxi? Zergatik tratatzen nau ainbeste gogortasun eta urruñekin? Baldin beraren mesedea urritu baliz ukatzera niri beakurtzarekin jakintiaren izena, zeñarekin ondratu nauen Mr. Leclusek onkai ez derala, ez nuen izango zer esanik, aitorturik daukaralako artoatzen daran bezala nere ezjakiña, tolesbage ta lokaberik andienarekin, baña aita fraileak segurutu bedorri eta bedorrek moldezko letran agertaratu duelako ez derala onkai beakurtzarik, eta ain gutxi nere obrak erritar oneski donedatien onesbedatzerik, ezin utzi izan det ori isillik igarotzen, zergatik eritzen nauen portizki nere arimako zatirik miñberaenean.*

Esan diot Mogel jauna bedorri aita Bartolomek Mr. Leclusen obran egiten dion erizmateak txit pisu gutxi edo batere ez duela izan bear euskaldun jakintsunen begietan. Eta badaki nondik igarten diodan? ez izate-tik aita frailea ez igaburtari edo sumulista ez itzen

jaiotza ezagutzen duena, ez edolarik erdalduna. Goazen ikustera.

Darauskitun liburutxoaren 80 garren orrian aita Karmentarrak itz egiten du Mr. Leclusek euskarazko izkuntz guzieraikoaren kontra ateratzen duen jarraikida txit txatar eta arkisuri batez; edota ni naiz asto andi bat, edo aita Santa Teresakoa da ezjakin bat, zergatik jarraikida txit txatarra eta arkisuria ateratzen duena ez dan Mr. Lecluse, baizikan beraren mesedea: Mr. Leclusek ez du esaten beste gauzarik ez bada berak irakurri dituen euskarazko 16 garren-go bersikuloan lendabiziko kapitulu san Matiasenean ondoreatzen dala sentidu illun bat, edo okertu bat fraileak nai duen bezala, eta eraisten dio aitak «Da esatea Mr. Leclusen iritzian ez duela euskarazko itzkerak itzik sentidu argian iraulkeratzeko esan dan beretitz edo testo San Matiasena». Esan begit arren Jaungoikoagatik Mogel jauna zein da emen somagezten duena? Mr. Leclusek itz egiten du bi iraulkera ikusi dituenengatik, eta dio ezik aurkeztutzen dutela sentidu illun bat; aita fraileak berriz ateratzen du jarraikida ezen Mr. Leclusen iritzian ez duela euskarazko izkuntzak itzik sentidu argian iraulkeratzeko esan degun beretitz San Matiasena. Nork zilibokatzen

du emen Mogel jauna? Eukidatu beza farra al badezake!

93 garren orrian dio aita Santa Teresakoak, ezik izkuntza euskaraz dakiten guzien artean dala ezaguna *janaioztaren* boza, eta ez neolojiko dakitenetan; ederra dek auxe! Nik diot, etzuen ezagutzen aita Larramendik *janaioztaren* boza, beraz aita Larramendik etzekien izkuntza euskaraz, ez bada neolojiko. Zer derizkio Mogel jauna? Zeñek ezkaio itz egiten du emen? Ni ote naiz edo aita Santa Teresakoa ote da? Aita Larramendik boz au ezagutzen etzuen ikusteko, aski du beraren Hiztegia irikitzea, eta irakurri itz *tenedor para comer*, zeña dan aita karmen-tarrak *janaioztari* ematen dion senantza itxurarik gabe.

Ipuintzat dijoa au Mogel jauna eta enzun begit gogoz ta donarioz zerren dan goz-itxtxo jostallua. Bedorren liburutxo irakurtzen ari nintzala nere aldamenen mullo iruten ari zan atso zar ortz gabetu batek, nere irakurritik entzutean maisarditxoari deitzen diola aita beakurtsuak *janaioztza*, algara andi gozo luze bat egin ondoan esan zuen onela: *maisarditxoari deitzen dio aitak janaioztza?*

*Ha nere zorion ta poza
bat bederik banu zorrotza!
Esatea ere ez da lotsa
(Dana dala)
asmatu duen kalpar motza.*

Oroitzen naiz ni enzun izan dedala milla aldiz, izaerak ematen ez duena Salamancak biurtzitzen ez duela, eta ez dala ere asko oialuzeak arrastatzea eta jakintegietan anitz *ergotizatzea* ongi aritaditzeko, eta beatu beza emen gure aita frailea bere txintxarri guziakin, eta librugillearen izen andiagaz agertzen dala sumulista txit urri bat. Ote da suertez ere itzen jaiotza obeki ezagutzen duena? Ikus dezagun.

93 garren orri eta darraizkionetan itzegiten du aita karmentarrak sardia eta sardiskaren itzengatik, eta Mr. Lecluseri txirola jotzen diolarik txit agitz, ta maisuaren gisa dio ezik «*Sardia da boz sinkopatu konpondua bi aditza edo berbo euskarazko oekin "sartu" eta "atera", eta esan nai dute lenengoak "entrar" eta bigarrenak "sacar". Beraren usua da zier-tzak errazkiro sartzea*». Engañatzen da bada erdi erditik aita beakurtsua. Emen bai esan nezakeala nik beraren mesedeak Mr. Lecluseri baño zerbait bide

geiagorekin «*Au da ez jakitia euskararen lendabiziko ezagupenak*». *Sardia* ez da konpontzen *sartu* eta *ate-ratik*, baizikan *sartu* entrar eta *di* silaba frekuentatibatik, eta esan nai du "sartu usuroro" eta ez "errazki-ro" aita fraileak segurutzen duen bezala. Bestela or dago bere erritar Astarloa jakintsuna, zeñak ez nauen gezurtatuko Apologiako 76 garren orrian.

Sardiskaz itzegitean esaten du aita beakurtsuak «*Iduki ezazu aurkezean ez dala sardiska euskara, zergatik ska ez dan gure izkuntzaren azgarria*». Gerta diteke ez izatea aita Bartolomeren euskararena, iñolaz ere bear duelako izan txit urria, baña euskararen itzkuntzakoia dana ontzatetzera noakio bedorri Mogel jauna. Esan begit, euskarazkoak dira edo itz oiek *aska, arraska, piska, biska, kezka, eska, neska?* Baietz esango du bedorrek, baña aita Santa Teresa-koak esango du ezetz, zergatik *ska* ez dan gure izkuntzaren azgarria; dionez, euskarazkoak dira edo ez *kaska motz naskagarria, irriska ari, milliska zak* eta beste berreun bedere gaiari dagozkion bezala ezarri nitzakeanak? Ala izango dira bedorren arauz, baña ez dira izango bedorren adiskide karmenarraren arauera, zergatik *ska* ez dan beraren itzkuntzako azgarria.

87 garren orrian esaten du aita karmentarrak «*Yanaldia vuelta de comer... Yanaldiak ez du esan nai ez birunka ez iraulka ez oen antza duen beste gauzarik, baizikan jaten dagoeneko egoitza edo denbora*» Auxen bai auxen! Ezagun da aita Santa Teresakoak aditaratzen duena frantzesez, euskara ta gaztelaniaz bezala. Bada jauna *tour de manger* ez da buelta jatekoa, baizikan jateko aldia, eta ori bera esan nai du erazkiro. *Yanaldia* dator de *yan comer y aldia bez*, ez bada ikusbide Larramendiren Hiztegia bi itz oetan, egia da aita karmentarrak 72 garren orrian dionez Hiztegi Larramendirena arkitzen dala gabendaz betea, eta ala gai onetan nola gañerakoetan izango du menturaz obetandutzeko asmoa.

Bedorrek galdetzea nai nuke nik Mogel jauna bere adiskide Santa Teresakoari zer esan nai duten oraingo *juan aldian, etorri aldian, ibili aldian, joan aldi bakoitzean, etorri aldi bakoitzean, ibilli aldi bakoitzean?* Ikusi nai nuke nik nola iraulkeratzen dituen itzera oek, zer moduz konpontzen ote duen beren egoitza, aditza mugikor oekin. Baña zer iraulkera ta zer konpontza al dagike itzen jaiotz-billatzalle aiñ urri dan batek? Ikus dezagun edolarik ote dan erdaldun ohea.

77 garren orrian esaten du aita fraileak «Beñere ez bukatzea litzake baldin tratatuko banuke nik egitera "un detalle por menor" (gutxizka piskazka) *Mr. Leclusek bere obran ixuri dituen erratu ta utsune egopearrena, batez ere gramatkarren gañean, non ikusten ditudan ainbeste s manerarik bagekoak nola oker esan ta jakinezak, itzegiten duen gaiaren gañean*». Segurutzen diot bedorri Mogel jauna izango litzakea la ere beñere ez bukatzea baldin nik naiko banuke egin adierazte bat bakarrik bedorrek azaldu duen librutxoaren utsaldi zuzenkaitz gramatkarren gañean, beragatik asiko naiz bakar batzuek siñalatzten *detalle por menoretik* zeñari gaztelarrak esan oi dioten *albarda sobre albarda*, eta guk berriz

Txalma txalma gañean

Arto lizundua maiean

Atorra zikiña jaiean

Eta neska zarra ezkondu naiean

Ez datoz eder gaiean.

Ez det arkitzen Hiztegi Ikasolakoan itz *inconocible*, zeñegaz aita fraileak usu egiten duen 49 garren orrian, beraz boz au irten da beraren burutik, beraz

aita frailea da boz-asmatzallea edo neolojista, beraz eri da ta mintsu alere Mr. Lecluse jakintia tatxatu nai izan duen zaiñ utsaldietakoan, berriztzen duelarik nazkatzeroño esan dan boza berarekin arpegian emateagatik.

81 garren orrian Mr. Leclusez itzegitean, esaten du «*Quien le metio en maestro*». Nork sartu zuen maisuan. Esan bear zuena *maestro* maisutzan. Ez bada ikus dezala gramatika ikasolakoan.

118 garren orrian «*La descripción que hace (Abade Bidassouetek) con título de geografía está muy ignorante*». Onela itzegin oi dute franzes paziagille ta txikiratzalle gure errira datozenak *zu dago txist asko jakiña jauna, ni dago ezjakin batere*. Beraz erdara mordollo.

70 eta 71 garren orrietan «*Con unos sales ironicos*». Gatza emagokia da gaztelaniazko itzkuntzan Gramatika ta Hiztegi ikasolakoak diotenez. Beraz maisu andiari utsaldia arrapatua. 74 garren orrian «*Pues dígale Vmd. que las lea la gramatica y vocabulario doble...*». Beste utsaldia bat mendia ainbatekoa. Badakustgu bada Mogel jauna, aita karmentarra ez dana erdaldun ohea sumulista eta itzen jaiotzbillatzailea baño, ote du suertez ere bere itzegiteko moduan

begirunearekin kortesiaren onkairik? Asitzen nain irakurtzen irugarren karta bedorri itzkidatu diona eta arkitzen naiz itz eztitsu gozooekin 117 garren orrian «*Y á saber que Vmd. me había de incomodar tanto con sus impertinentes preguntas y superiores pretensiones á mis facultades*». Zer iritzi Mogel jauna? Zer goxotasun aita frailearena! Zer eranzunkida gutunekoaren modera dan berarena!

Begien aurrean dakusku argiro aita fraile Santa Teresakoa dana billegidari guziz txarra, euskara eza gutzen ez duena ta are gutriago erdara, ez edolarik bere eranzunkidan duela itzkera begirunezkoa ta kortesa, zeña arkitu oi dan azkera sarritango ta traturik gutxiena ere jende ongi aziakin izandako edozeñegan, beragatik da bedorren adiskidea jakiñez bat izateaz gañera, moldakaitz andi bat. Esanik dago beraren erizmateak utsbetatu dezakean lekuan Dieronde edo Republika asko jakiñekoan. Bedorrek Mogel jauna iñolaz ere eresiarik onenakin eta ekasi senzildezkoagaz animaturik nai izan ditu argitzera atera aita fraileraren txintxarriak, eta ikus beza otseztatzen dutena dumba zarren gisa. Sinistu ere du bedorrek etzala iñor ausartatuko txist bat egitera ere guzia jakintsundan baten erabaki ezarkatsien kontra, baña

oroitu bear zuen bedorrek ez dala aski itzkidatzea, ez moldeari izer eragitea, begirunezko izen ondroso au onkaitutzeko, badirala ere jakintsunen izenekoak jakintsunak izan bagetanik nola deitu oi diegun ille bagekoai kalpar motzak, eta

Soillki atze epakiak mandoai

Euliak zerekin kendu ez dutenai.

Bedorrena da beti, eskuetan muñ egiten diolarik